

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2000, 1  
45. liburukia  
BILBO

# EUSKALTZAINDIA

**Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo**  
**Telefonoa: 94 415 81 55**  
**Faxa: 94 415 81 44**  
**e.mail: info@euskaltzaindia.net**

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

|                        |                                                                                                                     |
|------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Burua:                 | Jean Haritschelhar                                                                                                  |
| Kideak:                | Henrike Knörr<br>Patxi Goenaga<br>Jose Antonio Arana Martija<br>Miren Azkarate<br>Beñat Oihartzabal<br>Patxi Altuna |
| Eragile eta idazkaria: | Ricardo Badiola Uriarte                                                                                             |

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

**Euskera**

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua,  
48004 BILBO

**Aldizkari** hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.  
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.  
Rogamos dirigirse al Director.

# AURKIBIDEA

## JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIAREN BISITA EUSKALTZAINDIKO EGOITZARA

|                                                                                                  |    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren bisita egoitzara, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . .        | 11 |
| Euskadiko Lehendakariaren bisita Euskaltzaindiko egoitzara, <i>Juan Jose Ibarretxe</i> . . . . . | 13 |
| Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren bisita: Kronika . . . . .                                    | 17 |

## HERRI AGINTEEN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA: 2000-2004

|                                                                                                                       |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Herri Aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko <i>hitzarmena</i> : 2000-2004, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . .        | 21 |
| Euskaltzaindiaren <i>hitzarmen</i> nagusia, <i>M. Carmen Garmendia Lasa</i> . . . . .                                 | 23 |
| <i>Acuerdo</i> marco con Euskaltzaindia, <i>M. Carmen Garmendia Lasa</i> . . . . .                                    | 24 |
| Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, Foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko <i>hitzarmena</i> . . . . . | 25 |
| <i>Acuerdo</i> entre el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, diputaciones forales y Euskaltzaindia . . . . .          | 35 |
| Euskaltzaindia eta Herri Aginteen arteko <i>hitzarmena</i> . Agiria . . . . .                                         | 47 |
| <i>Convenio</i> entre las Instituciones Públicas y Euskaltzaindia . . . . .                                           | 50 |
| Euskaltzaindia eta Herri Aginteen arteko <i>hitzarmena</i> . Kronika . . . . .                                        | 53 |

## EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

### Euskaltzaindiaren ARAUAK:

|                                                           |     |
|-----------------------------------------------------------|-----|
| 103.—Hiztegi batua: <i>tabako-to</i> . . . . .            | 59  |
| 104.—Hiztegi batua: <i>tobera-triskatu</i> . . . . .      | 67  |
| 105.—Hiztegi batua: <i>triskilatu-tzartasun</i> . . . . . | 74  |
| 106.—Hiztegi batua: <i>ubarroi-yuppie</i> . . . . .       | 84  |
| 107.—Hiztegi batua: <i>zabal-zuzter</i> . . . . .         | 100 |

### BATZAR AGIRIAK

|                                                                              |     |
|------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1999, X, XI, XII . . . . .                                                   | 131 |
| 2000, I, II, III . . . . .                                                   | 156 |
| * * *                                                                        |     |
| Modificación de los Estatutos de la R.A.L.V./Euskaltzaindia . . . . .        | 183 |
| * * *                                                                        |     |
| 2000.urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia, <i>Jose Luis Lizundia</i> . | 185 |

### HITZARMENAK

|                                                                              |     |
|------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia: 1999.eko <i>hitzarmena</i> | 189 |
| Euskaltzaindia eta UZEIren arteko Lankidetzaz- <i>hitzarmena</i> . . . . .   | 191 |

### IKERGAIAK

|                                                                                                       |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Victoriano Huiziren <i>Manual de Gramática bascongada</i> , <i>Patxi Goenaga</i> .                    | 199 |
| J. I. Arana eta E. S. Dodgson, <i>Patxi Altuna</i> . . . . .                                          | 211 |
| Eibarko idazleak, <i>Jose Antonio Arana Martija</i> . . . . .                                         | 241 |
| La americanización del apellido vasco en el oeste de los Estados Unidos, <i>Linda White</i> . . . . . | 249 |

## BESTE ZENBAIT TXOSTEN

### ONOMASTIKA

|                                                                                                       |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Lapurdiko Udal Izendegia . . . . .                                                                    | 267 |
| Toponimia txikia arautzeko irizpideak, <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Patxi Salaberri</i> . . . . . | 273 |
| Galde-crantzunak, <i>Jesus Mari Makatzaga</i> . . . . .                                               | 315 |

|                                                                                                        |     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK): Euskal deituren sarrera nagusiez, <i>Pruden Gartzia</i> . . . . . | 319 |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

## GRAMATIKA

|                            |     |
|----------------------------|-----|
| Galde-erantzunak . . . . . | 345 |
|----------------------------|-----|

## BERRIAK

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Palabras de Jean Haritschelhar, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por el Excmo. señor D. Mariano Rajoy, Ministro de Educación y Cultura, a la Junta de Gobierno de la Institución el día 16 de noviembre de 1999, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . . | 361 |
| Palabras de <i>Jean Haritschelhar</i> , Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por la Excm. señora Dña. Esperanza Aguirre, Presidenta del Senado, a la Junta de Gobierno de la Institución el día 16 de noviembre de 1999 . . . . .                        | 363 |
| Euskaltzaindiak <i>Etxabe</i> idazlearen eskuizkribu baten dohaintza jaso du .                                                                                                                                                                                                                                              | 365 |
| Donostiako Apezpikuari bisita, <i>Jose Luis Lizundia</i> . . . . .                                                                                                                                                                                                                                                          | 367 |
| Topagunea . . . . .                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | 369 |
| Juan Mari Otegi, Euskadiko Kutzako burua, <i>Jean Haritschelhar</i> . . .                                                                                                                                                                                                                                                   | 371 |
| Pioneer Theater, Reno (Nevada), <i>Henrike Knörr</i> . . . . .                                                                                                                                                                                                                                                              | 373 |
| Renoko Aste Nagusia, <i>Henrike Knörr</i> . . . . .                                                                                                                                                                                                                                                                         | 375 |

## AURKEZPENAK

|                                                                                                 |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Aita Aranaren <i>Egunaria</i> aurkeztean, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . .                   | 379 |
| <i>Egunaria</i> liburukiaren aurkezpena, <i>Patxi Altuna</i> . . . . .                          | 381 |
| Aita Aranaren <i>Egunaria</i> liburuaren epilogoaz, <i>Jose Antonio Arana Martija</i> . . . . . | 385 |
| Aita Aranaren <i>Egunaria</i> liburuaren aurkezpenean, <i>Rosa Miren Pagola</i>                 | 387 |

## EUSKALTZAINDIAREN ETA BILBAO BIZKAIA KUTXA-REN LITERATURA SARIAK

|                                                                                                             |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| BBK - Euskaltzaindia: Literatura sari-banaketa, <i>Jean Haritschelhar</i> .                                 | 391 |
| BBK-Euskaltzaindia: Literatura sariak . . . . .                                                             | 395 |
| Premios literarios de Euskaltzaindia y la BBK . . . . .                                                     | 397 |
| R. M. Azkue sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea . . . . .                       | 415 |
| R. M. Azkue sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea, <i>Henrike Knörr</i> . . . . . | 417 |
| R. M. Azkue sariak, <i>Jose Antonio Arana Martija</i> . . . . .                                             | 419 |
| Azkue Literatura sariak: 1998ko liburua eta 1999ko oinarriak, <i>Jose Ramon Bilbao</i> . . . . .            | 421 |
| R. M. Azkue sariak, 1999 . . . . .                                                                          | 423 |
| Azkue Literatura sariak: 1999ko epaia, <i>Jose Ramon Bilbao</i> . . . . .                                   | 433 |

## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA: ANTOLOGIA

|                                                                                                  |     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Euskal Herriko Hizkuntz Atlas. <i>Antologia</i> , <i>Juan Jose Arrieta</i> . . . . .             | 437 |
| Ohiko euskal mintzamoldeen <i>Antologiaren</i> aurkezpena, <i>Beñat Oihartzabal</i> . . . . .    | 439 |
| Euskal Herriko Hizkuntz Atlas. <i>Antologia</i> , <i>Ricardo Badiola Uriarte</i> .               | 443 |
| Ohiko euskal mintzamoldeen <i>Antologia</i> , <i>Isaak Atutxa</i> . . . . .                      | 447 |
| Ohiko euskal mintzamoldeen <i>Antologia</i> -ren aurkezpena, <i>Jean Haritschelhar</i> . . . . . | 451 |

## HIL BERRIAK

|                                                        |     |
|--------------------------------------------------------|-----|
| André Martinet, <i>Beñat Oihartzabal</i> . . . . .     | 457 |
| Basarri joan zaigu, <i>Juan Mari Lekuona</i> . . . . . | 465 |

**JUAN JOSE IBARRETXE  
LEHENDAKARIAREN BISITA  
EUSKALTZAINDIKO EGOITZARA**

*Bilbo, egoitza, 1999-XII-30*



## JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIAREN BISITA EGOITZARA

1999-XII-30

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Lehendakari jauna,  
Agintari anderea,  
Euskaltzainkideak,  
Euskaltzaindiko langileak,  
Prentsako jaun andreak,

Pozten nau, Lehendakari jauna, zu hemen ikusteak. Uste dut lehen aldi-  
kotz sartzen zarela etxe hontan eta, beraz, ongi etorri berezi bat eskaintzen di-  
zut, bihotz bihotzez.

Etxe hau ez da Euskaltzaindiarena, baina bai Euskaltzaindiaren egoitza, Bizkaiko foru-aldundiak erosia, Makua jauna zela orduan diputatu nagusi. Egia erran, etxe hau izana zen joan den mendean Bizkaiko diputazioa eta gero ber-  
tze esku batzuetara joanik, hotela lehenik —Hotel Excelsior uste dut izan zela— bankua gero Banco Bilbao. Pentsatzen dut Makua jaunak bazakikeela zer elgarritzeta izan zen Jose Antonio Agirre lehendakari eta Resurrección María de Azkue euskaltzainburuaren artean gerla garaian.

Ikusiz non kokatua zen Euskaltzaindia Ribera 6-eko etxean erran zion le-  
hendakariak euskaltzainburuari gerla irabazi bezain laster Eusko Jaurlaritzak ezarriko zuela Euskaltzaindia behar zen eta merezi zuen tokian.

Gerla galdurik, nehor ez zen Euskaltzaindiaren egoitzaz axolatu, nahiz Bizkaiko diputazioa harremanetan sartu zen Azkue-rekin 1941-ean. Nihaurek ezagutu dut Euskaltzaindia toki askotan: Ribera 6-ko etxean lehenik, Arbieta 3-ko etxean eta El Cano 5-eko etxean gero, Bizkaiko foru-aldundiari esker. Azkenik Jose Antonio Agirre lehendakariak hitzemaña, Makua jaunak, Biz-  
kaiko diputatu nagusi zelarik, bete du lehendakariaren asmoa, hitza hitz baita euskaldunek daukaten eginbidea.

Etxea erosi, dena hustu, bost solairutan eraberritu, behar den duintasuna eman ez eta etxearen apaintzeko, juntatu zaie Bizkaiko foru-aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako gobernuari eta Arabako eta Gipuzkoako foru-aldiak. Gero areto honetarik aterako garelarik ikusiko duzu, Lehendakari jauna, nola banatuak diren solairuak, lehenean administrazioa, bigarrenen batzar-gela, batzorde-gelak eta euskaltzainburuaren, buruordearen, idazkariaren eta diruzainaren bulegoak, eta gero bi solairutan banatuak biblioteca eta artxibategia.

Gurekin zaudenez gero, ene eskerrik beroenak nahi dizkizut eskaini Euskaltzaindiaren izenean estrenatuko dugulakotz egun gure Akademiaren informatizatzea. Eusko Jaurlaritzari bereziki zor diogu, nahiz bertze diru laguntzak etorri diren bertze Institutuzioen ganik. Lanak eginak izan dira denbora laburrez hautatua izan den Odei etxeari esker. Merezki dituzte Odei-ko arduradunek eta langileek gure txalorik beroenak.

Aro berri batean sartzen da Euskaltzaindia geroari begira jarritz informatikaren bitartez. Gaurkotzen da "intranet" sarea hedatuz ordezkaritzetara eta zerbitzu guzietara ; oraitkotzen da ere "internet"-i esker, mundu zabalera igortzen ahal baititu bere lanak. Ez daukitzute egun aipatu, Lehendakari jauna, jadanik aipatu baikenituen egin dizugun bisitan. Azken mende laurden honetan ez baita lo egon Euskaltzaindia, munduko ikerlari guziek, munduko euskaltzale guziek jakin dezakete zer den Euskaltzaindia, nola sartu den euskara batuan, zer erabaki mota hartu dituen eta abar...

Duela 450 urte baxenabartar apez batek Mosen Bernat Etxeparekoak bota zuelarik bere oihua : « *Euskara, jalgi hadi mundu guzira* » ez zuen pentsatzen, orainko tresneriarekin munduko lau hegalek eta bortz kontinentetara hedatua izanzen zela egiazki euskararen hotsa eta mezua. Hala izanzen da hemen-dik goiti.

Berriz ere ongi etorri zuri, Lehendakari jauna.

## **JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIAREN BISITA EUSKALTZAINDIKO EGOITZARA**

*1999-XII-30*

*Juan Jose Ibarretxe,  
Euskadiko Lehendakaria*

### **ARBOR ALDIZKARIRAKO KOMENTARIOA**

Estatuko erakunde akadernikoei buruzko ale monografiko bat argitaratzeko *Arbor* aldizkariak aurrera eraman duen ekimena, inolako zalantzarik gabe, irakurle eta hiritar guztientzako lan baliagarri eta interes handikoa izango da.

Gutziz egokia da ideia hau. Batez ere momentu hauetan, bakoitzaren jarrerara ideologikoak defendatzen direnean, nolabaiteko fundamentalismo edo esentzialismo bat nagusitzen dela ematen duelako. Ikuspuntu horretatik komenigarria da, nire ustez, kultura eta zientziaren mundutik, norbaitek azpimarratzea aniztasunak ematen dituen ondasun eta aberastasunak, gogoetan behar bezala kontrastatu eta osatu ahal izateko.

*Arbor* aldizkariaren ale honetan deskribatzen diren erakundeak –Andaluzia, Galizia, Katalunia, Euskadikoak– kultura eta akademia-aberastasunaren seinak dira. Elkarriketa eta elkarren arteko ulermena ezartzeko gonbitea luzatzeaz gain komunikazio eta bizikidetzarako irekita dauden nortasun anitzen baieztapena dira.

Euskadiri dagokionez, hautatu diren bi erakundeak –Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza– oso adierazgarriak dira. Biak ere, ia ehun urtekoak dira eta ontzat ematen dituzte euskal kultura eta hizkuntzaren interes eta bizkortasuna. Era berean, euskaltasuna ulertzeko modu bat islatzen dute, hizkuntza eta kultura badituen erkidego baten inguruko terminoetan; horrela, posible zaigu lurralde guztietako euskaldunoi hitz egin, helburuak partitu, elkarrekin ulertu eta egitea.

Ez da harritzekoa bi erakunde horiek hain denbora luzean bizirik irautea eta, lozorro eta ahulezian denbora asko eman ondoren, jatorrizko zentzua eta bizitasuna berreskuratzea. Euskal Herri osoko euskaldun guztiok antzematen

dugu gure izaera eta bietan elkar aurkitzen dugu, hain sakonak diren koiunturaren arabera zatiketa eta desadostasunen gainetik.

*Arbor* aldizkariak emaitza egokia eta, are gehiago, beharrezkoa egin du. Horregati, bertan azaltzen diren bi euskal erakundeak animatu behar dira, lanean jarrai dezaten, horrela, milaka urteko hizkuntza eta kulturaren inguru euskaldun guztien arteko loturak indartu eta sendotzeko.

## COMENTARIO PARA LA REVISTA *ARBOR*

La iniciativa tomada por la revista *Arbor* para editar un número monográfico dedicado a las instituciones académicas del Estado es, sin duda, un trabajo que será de utilidad y de interés para sus lectores y, por extensión, para el resto de los ciudadanos.

Es una idea oportuna. Vivimos inmersos en un ambiente en el que parece primar un cierto fundamentalismo o un cierto esencialismo en la defensa de las respectivas posiciones ideológicas de cada uno. Resulta, desde este punto de vista, conveniente que alguien destaque, desde la cultura y la ciencia, la riqueza que aporta la diversidad entendida como una forma de contrastar y complementar el pensamiento.

Las instituciones que en este número de *Arbor* se describen –andaluzas, gallegas, catalanas, vascas– son un signo de riqueza cultural y académica, una invitación al diálogo y a la comprensión, una afirmación de identidades plurales abiertas a la comunicación mutua y a la convivencia.

Por lo que a Euskadi respecta, las dos instituciones elegidas –Euskaltzaindia y Eusko Ikaskuntza– son especialmente significativas. Ambas, casi centenarias, son el exponente de la pujanza y del interés que suscita la cultura y la lengua vasca. Reflejan, además, un modo de entender la vasquidad en unos términos –de comunidad lingüística y cultural– en los que los vascos de todos los territorios podemos dialogar, compartir objetivos, comprendernos y colaborar.

No es extraño que hayan pervivido tanto tiempo y que hoy, tras largo tiempo de letargo y languidecimiento, vuelvan a recobrar su original sentido y vitalidad. Por ellas nos reconocemos y nos encontramos todos los vascos de toda Euskal Herria, por encima de otras divisiones y desencuentros más coyunturales y, a las apariencias, menos profundos.

La revista *Arbor* ha llevado a cabo una aportación oportuna y hasta necesaria. Por ello no cabe más que animar a las dos instituciones vascas a profundizar en su labor y trabajo para fortalecer la vinculación de todos los vascos en torno a la lengua y cultura milenarias.



## **JUAN JOSE IBARRETXE Lehendakariaren bisita.**

### **Kronika**

1999.eko abenduaren 30ean, eguerdiko 12etan, Euskaltzaindiaren egoitzara etorri da Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakari jauna.

Foru kaleko sarreran itxoitzen egon dira Euskaltzaindiaren Zuzendaritza-koak eta Josune Ariztondo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburordea.

Beheko batzar aretora pasatu eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak ongi etorria ematen dio.

Jarraian, Lehendakariak hitzaldi labur bat egiten du, euskaraz lehenabizi, gaztelaniaz gero eta, berriz ere, euskaraz amaitzen du.

Aretoan, ezkerretan, jartzen dira Henrike Knörr euskaltzainburordea, Patxi Goenaga idazkaria, Jose Antonio Arana Martija diruzaina, Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea, Josune Ariztondo Hizkuntza Politikarako sailburordea, *Odeiko* Vicente Berriocanal, Paco Diaz de Zerio, Iñaki Iza eta Jose Manuel Lazkano. Eskuinaldean, Euskaltzaindiko egoitzan egun horretan lanean daudenak. Baita kazetari eta argazkilarik andana bat ere.

Jarraian, egoitzako lehen solairutik, bulego solairutik, alegia, jotzen du bigarren solairura, batzar gelan Euskaltzaindiaren informatika ezarpenaren berri ematen zaiolarik. Horretarako Patxi Goenaga idazkariak *Web*-gune eta zenbaiten agerpen laburra, *Deitura Izendegia* eta beste erakusten ditu.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Ibarretxe Lehendakariari eskaintzen dio ohorezko liburuan sina dezan, beronek testu hau jartzen duelarik:

*Kristau aroa baino lehen mintzatua  
mendez mende iraun duen hizkuntza bakartua  
Europa anitzean ez dadila izan baztertua  
baizik eta mende eta milurte berrian biziberritua.*

Ondoren, Lehendakaria, Zuzendaritzarekin batera, Azkue Bibliotekara igotzen da. Bertan, Pruden Gartzia Isasti zuzendariak, xehetasunak ematen dizkio.

Eta honenbestez amaitzen da bisita.



**HERRI AGINTEEN ETA  
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO  
HITZARMENA: 2000-2004**



## HERRI AGINTEEN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA: 2000-2004

Euskaltzaindiko egoitzan - 2000/03/03

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Agintari andereak eta jaunak,  
Euskaltzainkideak,  
Jaun-andereak,  
aratsalde on.

Hirugarren aldikotz Euskaltzaindiaren izenean sinatuko dut Herri aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, bortz urterentzat eta denbora berean aurtengo eranskina. Plazerekin ikusten ditut hemen bilduak gure egoitzan Mari Karmen Garmendia Lasa anderea Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Jesus María Laguna Peña jauna Nafarroako gobernuan Hezkuntza eta Kulturako kontseilaria, Pedro San Cristoval Murua jauna Arabako Kultura diputatua, Ana Madariaga Ugarte anderea Bizkaiko Kultura diputatua, Luis Mari Bandres jauna Gipuzkoako Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatua. Ongi etorri zuei!

Bortz urterentzat eskaintzen diguzue Hegoaldeko bi gobernuak eta hiru Foru-aldundiek bozkatu duten diru-laguntza. Beharrezkoa dugu, hala nola beharrezkoa dugun Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak emaiten diguna. Alabainan, aspaldian hasi ditugun ikerketak eta lanak agertzen dira urtero, izan dadin *Orotariko Euskal Hiztegia* edo *Gramatikaren lehen urratsak*, atzo goizean aurkeztu dugun *Ohiko Mintzamoldeen Antologia*, *Atlasaren lehenbiziko liburukia* plazaratuko dugularik aurtien naski, ahortzi gabe *Onomasticon Vasconiae* sorta eta ere *Iker* bilduman René Lafonen artikulua 900 orrialdeko liburu gotor batean bilduak eta *Euskaren lekukoak* deritzan bilduma.

Ikus dezakezue zenbait urteren lan ixila baina beharrezkoa eramanik agertzen direla orai uzta nasaia, fruitu aberatsak, horiek guziak Euskal Herri osoari eskainiak. Zuen diru-laguntzari esker sortzen dira, Euskaltzaindiak bere baitan dauzkan eta kanpotik biltzen dituen ikerlari jakintsunek lantzen eta maitzen dituztelarik. Bakoitzak berea emanez sekulan egin ez diren iker-lanak

eta arauak kaleratzen dira. Barkatuko didazue irriño bat: beti prest gaudelarik gehiagoren hartzeko, bihurtzen dizkitzuet emaiten duzuenarentzat ene eskerrik beroenak bihotz bihotzez.

Aurtengo eranskina sinatu baino lehen eta horren izenpetzeko agurtzen ditut ere etxe hontara etorri diren Josune Ariztondo Akarregi anderea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz politikarako sailburuordea, Fernando Pérez de Viñaspre Márquez Nafarroako Hizkuntz politikarako zuzendari nagusia, Lorea Le-anizbarrutia anderea Gipuzkoako euskararen arduraduna eta Gotzon Lobera jauna Bizkaiko euskararen arduraduna. Ongi etorriak izan zarete gure egoitza honetan.

Baitakit Josune Ariztondo andereak uzten duela bere kargua Euskadi Buru Batzarrera izendatua baita, nahi dizkiot zorionak eskaini eta erran, denbora be-rean, gure arteko harremanak onak eta goxoak izan direla egon den denbora guzian eta bihotzez eskertzen dudala.

## EUSKALTZAINDIAREN *HITZARMEN* NAGUSIA

*Bilbon, 2000eko martxoaren 3an*

*M. Carmen Garmendia Lasa,  
Kultura sailburua*

Euskaltzaindiaren eta hemen ordezkaturik gauden erakundeen arteko oinarriak finkatzeko izenpetu berri dugun hitzarmen hau ez da berria. Datozen bost urterako izenpetu dugun lankidetzaren hitzarmen honek, 1989. urtean hasi genuen harremanak bizirik eta indarrean dirauela erakusten du eta asmo haren jarraipen da. 1989a aipatu dudan arren, hastapenetara joz gero, 1918. eta 1919. urteetara bueltatu beharko genuke, hain zuzen ere, urte horietan sortu baitzen Euskaltzaindia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundiek Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako egitasmoarekin bat egin zutenean. Euskal Herrian, –Estatutuaren bidez, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Amejoramendu Legearen bidez Nafarroan– erakunde berriak sortu diren arren, hasierako lankidetzarako asmo haiek ez dira aldatu.

Jarraipen hau izatea guztiz esanguratsua da, esan nahi baitu hemen gauden erakundeok, gure bereizgarriak bere horretan mantenduz eta, politika eta gizarte mailako prozedura ezberdinak jarraitu ditugun arren, hizkuntza eta kultura eremu berekoak garela eta gainera, prest gaudela, aurrerantzean ere, eremu horiek babestu eta sustatzeko. Beraz, gure hizkuntza zaindu eta biziberrietzeko erakundeek bat egitea, –eta parekotasuna onartzen badidazue–, anfiktionia edo kultura konfederazio antzeko zerbaiten adierazgarri da, euskal herriek bat egin dute, bakoitzak bere autonomiari uko egin gabe, guztionak diren interesak defendatzeko eta kultura eta hizkuntza beraren jabe garenaren isla, Helade zaharreko hiriek egin ohi zuten antzera. Greziar izatea, mundua ulertzeko eta munduan bizitzeko modu berezi bat zela esan zitekeen, Greziak bere baitan zituen erakunde politiko zein administratiboak zirenak zirela ere. Gurean ere, eta Euskaltzaindiaren inguruan bilduta gauden honetan, antzeko zerbait gertatzen zaigula esatera ausartuko nintzateke: euskaldun izatea, hizkuntza eta kultura beraren jabe izatea, mundua eta gure ingurua modu berezi batean ulertzeko zio dela. Hori bada, ez gehiago baina ezta gutxiago ere.

Hau da, nire ustez, *hitzarmen* honek izan dezakeen balio eta pragmatismoaz batera, ekitaldi honek duen zentzu sinbolikoa.

Eskerrik asko.

## **ACUERDO MARCO CON EUSKALTZAINDIA**

*Bilbao, 3 de marzo de 2000*

*M. Carmen Garmendia Lasa,  
Consejera de Cultura del Gobierno Vasco*

El convenio que hoy hemos firmado y que supone un marco estable de colaboración para los próximos cinco años no es nuevo. Es la continuación y la reafirmación de una relación que iniciamos en 1989 y que se ha mantenido hasta ahora. Podríamos decir que ni siquiera en aquella fecha de 1989 se produjo una innovación sustancial. Más bien, fue una vuelta al origen, una recuperación de aquel espíritu originario que en 1918 y 1919 dio origen a Euskaltzaindia/R.A.L.V., cuando las cuatro Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra dieron su respaldo al proyecto presentado por la Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntza. La nueva institucionalización de Euskal Herria, nacida, para la Comunidad Autónoma del País Vasco, de su Estatuto y, para Navarra, de su Ley de Amejoramiento, ha introducido, a este respecto, sólo cambios formales en aquel espíritu originario de colaboración.

Esta continuidad es relevante. Significa que las instituciones implicadas, manteniendo intacta nuestra respectiva singularidad y por encima de los distintos procesos políticos y sociales que cada una ha seguido, coincidimos en el reconocimiento de nuestra pertenencia común a un mismo ámbito lingüístico-cultural y en nuestra voluntad de preservarla y fomentarla. En este sentido, nuestra convergencia institucional en torno al cuidado y promoción de nuestra lengua propia representa, si ustedes me permiten la analogía, una especie de anfictiónía o confederación cultural, en la que los territorios vascones coincidimos, cada cual desde su respectiva autonomía, al modo en que lo hacían las antiguas ciudades griegas, para promover nuestros intereses comunes y como reflejo de nuestra común pertenencia cultural y lingüística. Así, lo mismo que alguien pudo decir que ser griego no era sino un modo peculiar de entender el mundo y de estar en él, con independencia de la institucionalización político-administrativa de la helenidad, también nosotros podemos afirmar hoy, unidos en torno a Euskaltzaindia, que nuestra euskaldunidad, nuestra pertenencia al universo lingüístico y cultural del euskera, es nuestra particular manera de entender y de expresar el mundo que nos rodea. Nada más que eso, pero tampoco nada menos.

Este es, creo yo, más allá de los significados pragmáticos y utilitarios que sin duda contiene, el sentido simbólico del acto que hoy celebramos.

Muchas gracias.

**EUSKO JAURLARITZAREN, NAFARROAKO  
GOBERNUAREN, FORU ALDUNDIEN ETA  
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA**

*Bilbon, 2000ko martxoaren 8an*

Batetik, M. CARMEN GARMENDIA LASA andereak, Eusko Jaurlari-  
tzaren Kultura sailburuak Eusko Jaurlaritzaren izenean...

JESUS M<sup>a</sup> LAGUNA PEÑA jaunak, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza  
eta Kultura kontseilariak.

PEDRO SANCRISTOVAL MURUA jaunak, Arabako Foru Aldundiaren  
Kultura diputatuak.

ANA MADARIAGA UGARTE andereak, Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura diputatuak.

LUIS M. BANDRES UNANUE jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatuak.

Bestetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE euskaltzainburuak.

**PARTE HARTZEN DUTELARIK**

Lehenengo bostek nork bere erakundearen izenean eta haren ordezkari.

Azkenak Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari.

Honako *hitzarmen* hau elkarri aitortzeko gai direlarik, hauxe

**ADIERAZI DUTE:**

Lehenengo.–Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako aldundiek 1918an  
sortu zutenetik, berauen onespenez eta diru-laguntzaz jardun duela Euskal-  
tzaindiak.

Bigarren.–Estatuaren antzaldatzearekin batera, otsailaren 26ko 573/1976  
Dekretuak Euskaltzaindiaren berariazko onarpena agertu zuela aurrerantzera-  
ko Euskararen Erret Akademia izena emanaz eta haren arautegia onartuz.

Hirugarren.—Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, euskara hizkuntza ofizialtzat hartzeaz bat, Euskaltzaindia euskarari dagozkionetan, erakunde aholku emale ofizial izango dela aitortzen duela 6. artikuluan. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak bere babesa, onespina eta diru-laguntza eskaintzen dizkio Euskaltzaindiari.

Laugarren.—Era berean, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak bere 3.3. artikuluan dioenaren arabera, Euskaltzaindia hizkuntza arauetara dagokienean erakunde aholku emale ofiziala izanik, Nafarroako Gobernuak iniziatiba ezberdinez baliaturik, bere laguntza eta onespina eskaini eta eman dizkiola erakunde honi.

Bosgarren.—Goian aipaturiko herri-aginte desberdinek, hasieran bakarka eta ondoren geroz eta elkarlan estuagoan, hainbat neurri hartu dituztela azken urteotan erregeakademia honen ekintzak sustatzeko.

Horren harian, azken mugarrira, berez garrantzitsua dena, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, foru aldundien eta Euskaltzaindiaren artean 1989an sei urterako sinatutako hitzarmena da.

Bertan, *hitzarmen* berri honen bidez berebiziko indarrez berritu eta bermatu nahi den diru zein baliabide lankidetzaren egitura oinarriak finkatu ziren.

Bestalde, hitzarmen horren indarraldia amaitu ondoren, goian aipaturiko Herri Aginteez bost urterako hitzarmen berria sinatu zuten 1995ean.

Halaber, UZEI Euskaltzaindiarentzat Lexikografiako bi lan garrantzitsu garatzen ari da azken urteotan, hain zuzen ere, EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa) 1987az gero eta Hiztegi Batua 1992az gero. Datozen hiru urteotan, hots, 2002. urtea arte, UZEIk eta Euskaltzaindiak 2000ko urtariraren 21ean izenpetutako hitzarmena dela medio, aipaturiko lanak burutu ahal izango dira.

Lan horiek amaitu orduko, etorkizunean lexikografi alorrean landu beharko liratekeen lanetara buruzko gogoeta egingo du Euskaltzaindiak eta lan horiek aurrera eramateko orduan, UZEIk arlo horretan duen esperientzia kontuan hartuko du.

Horregatik guztiagatik, hauxe

HITZARTU DUTE:

### **Lehena.—Hitzarmenaren xedea**

1.1. Hitzarmen honen xedea batetik Euskaltzaindiaren eta bestetik Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako Foru Aldundien arteko hitzarmen oinarriak finkatzea da. Era berean, erakundearen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko alde desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea.

1.2. Aurreko pasartean aipaturiko xedeekin bat datozen Euskal Herriaren gainerako lurraldeetako herri aginteak bildu ahal izango dira hitzarmen honetara, horretarako hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeak finka ditzakeen baldintzen arabera. Baldintza horiek ezin izango dira hitzarmen honetan jasotzen direnak oinarrian edo era nabarmenean aldatzeko modukoak.

### **Bigarrena.—Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen hau bost urtez izango da indarrean, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia bada hitzarmenkideen aurrekontu orokorretan, ekitaldi bakoitzean; dena dela, hitzarmenkideek hala erabakitzen badute indarraldia beste horrenbeste luzatu ahal izango da, baldintza beretan.

Abiaburu-hitzarmen honetan ezarritakoaren kaltetan joan gabe, urteko hitzarmenak izenpetu eta honi atxikiko zaizkio. Urteko hitzarmen horietan zehaztuko dira, hain zuzen, hitzarmenkideek urte bakoitzean bete behar dituzten eginbeharrak.

### **Hirugarrena.—Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen betebeharrak**

Honako baldintza hauek betetzeko hitza ematen du, luze-zabalean, Euskaltzaindiak:

#### **3.1. Aurrekontu, ekonomia eta finantza izaerakoak**

3.1.1. Urteroko aurrekontugaiak aurkeztuko dizkie izenpetzen duten herri aginteei. Aurrekontugai horien azalpenak ondoko puntuok hartuko ditu kontuan:

##### **a) Aurrekontu arruntak:**

a.1.) Euskaltzaindiaren langile taldearen osaera eta kostua. Hauetan, erakundearenak izanik ere, lan programa zein azpi-programekin zuzen-zuzeneko loturarik ez duten langileak aipatuko dira, baita, kasuan-kasuan, euskaltzainen ordainsariak edo/eta dietak ere.

a.2.) Euskaltzaindiaren funtzionamendu gastuak: lan programa edo azpi-programekin zuzen-zuzeneko zerikusirik ez duten bulego gastuak, komunikabideak, joan-etorriak, zerbitzuen funtzionamendua, batzar-gastuak, ohiko zaintze eta konponketak...

a.3.) Euskaltzaindiaren inbertsio-gastuak: lan- programa edo azpi-programekin zuzen-zuzeneko zerikusirik ez duten altzariak eta bulegorako tresneria, idazmakinak, fotokopiagailuak, ordenagailuak...

a.4.) Lan-programa edo azpi-programekin zuzen-zuzeneko zerikusirik ez duten aurrekontu arruntetako gainerako gastuak.

berriren bat martxan jarri nahi badu, haiei dagozkien aurreproiektuak prestatu eta garaiz aurkeztuko dizkie aipatu herri aginteei.

Bertan, besteak beste, honako puntuok azalduko dira beharrezko xehetasunez: proiektu berriaren xedea, epe iraupena, kostua (urtez urtekoa eta gutzirakoa) eta baliabideak (giza jendezkoak, antolamenduzkoak, materialak).

Proiektu horientzat herri aginteen diru-laguntza egonez gero, honako hitzarmen honen bosgarren atalean aipatzen den urtean urteko hitzarmenaren osagarri izango den hitzarmena sinatuko da.

### 3.3. Bestelako betebeharrak

3.3.1. Ekintza planean begiz jotako langintzak honetan edo hartan etenik izanez gero, horren guztiaren berri emango dio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan sortzen den Batzorde Teknikoari eta doan eskainiko ere dio batzorde honi behar adinbateko laguntza bere txostenez eta programa zein ikerketa proiektuen oroitidazkiaz zuzen jabetzeko.

3.3.2. Euskaltzaindiak berak aldeztutako aurretik finkaturiko baldintzak betezen dituzten ikertzaileei bere azterlan eta ikerketa zerbitzuetara sarbide eman gogot die Euskaltzaindiak.

3.3.3. Euskal Herriaren lurraldeetako unibertsitateekin, publiko zein pribatuekin, hizkuntzalaritzaren alorreko ikertzaileen prestakuntza lanean parte hartuko du Euskaltzaindiak, beraiek hala eskatzen badiote.

3.3.4. Indarrean dauden legeak eta arauzko erabakiek ezarri duten bezala, hizkuntzazko zerbitzua emango die Euskaltzaindiak kasuan kasuko herri-aginteei: Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, foru aldundiei, udalei eta berariazko erakunde publikoei.

## **Laugarrena.—Hitzarmena izenpetzen duten herri aginteek Euskaltzaindiarekiko dituzten betebeharrak**

4.1. Hitzarmena izenpetu duten herri aginteek, urteko aurrekontuak jasotzen dituzten lege-egitasmoetan edo foru-arauetan, Euskaltzaindiarentzako diru-izendapena onartuko dutelako ardura hartzen dute bere gain, Euskaltzaindiak hitzarmen honetan jasotakoa bete ahal izan dezan.

4.2. Sinatzaile den herri aginte bakoitzari dagozkion aurrekontu-sail hauen zenbatekoa, hitzarmen honen bosgarren atalean zehaztutako prozedura bete ondoren, Jarraipen Batzordeak proposatutako aurrekontu dirutzari atal honetan finkatzen den ekarpen ehunekoa ezarriz ateratzen dena izango da.

4.3. Hitzarmena izenpetzen duten herri aginteek, nork bere esparruan, behar adina neurri hartuko dute hitzarturikoa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko.

b) Programa aurrekontuak:

b.1.) Martxan dauden programen eta azpiprogramen aurrekontuak. Hauek Euskaltzaindiaren egiturazko gastuekin zerikusirik ez duten ikerketa lankide hitzartuak eta bekadunen gastuak, funtzionamenduzkoak zein diruzkoak jasoko dituzte era banatuan.

b.2.) Martxan jarri nahi liratekeen programa edo azpiprograma berrien aurrekontuak a) atalean esaniko moduan.

3.1.2. Urtea amaitutakoan, urteari dagozkion aurrekontu arruntaren zein programakakoaren kitapena aurkeztuko die Euskaltzaindiak hitzarmen hau sinatzen duten herri aginteei. Era berean egoera-balantzea zein ekitaldi bukarako ekonomi eta finantza egoera agertuko dituzten kontabilitate-agiriak

Ildo beretik, jasotako dirua zertan erabili den azaltzen duen oroitidazkia aurkeztuko die, eta honekin batera burutzen ari den lana medio, sor daitezkeen gastuen jatorrizko frogagiri edo fotokopia konpultsatuak ere bai.

Hurrengo urteko otsailaren 28rako luzatu beharko ditu, beranduenik, horren azalpenak, egokien deritzen argibideekin batera.

3.2. Ekintzabidezko baldintzak zein materialak

3.2.1. Martxan dauden programen eta azpiprogramen urteko ekintza asmo xehetuak aurkeztuko ditu Euskaltzaindiak; begiz jotako xedeak, kronograma, giza baliabideak, baliabide materialak...

Ekintza asmo hauek urteroko aurrekontugaiekin batera aurkeztuko dira.

Urte anitzetako ekintza asmoen kasuan, urteari dagozkionak zehaztuko dira.

3.2.2. Eskuarlean dituen lan programen zein azpiprogramen eta hartarako dirubideen informazio jarraitua eskainiko die Euskaltzaindiak *hitzarmena* izenpetzen duten herri aginteei. Horretarako, besteak beste,

a) Barne funtzionamenduan nahiz programen mamikuntzan emandako pausoak eta jasotako emaitzak azalduz, txostenak aurkeztuko dizkie izenpetzen duten herri-aginteei. Txostenak, urteko hitzarmenak programa bakoitzarekiko finkatzen duenaren arabera izango dira.

Txosten ekonomikoak, berriz, sei hilabetez behinekoak izango dira.

b) Azkenik, hitzarmena izenpetzen duten herri aginteei eska diezaioketen osagarritzko edozein argibide eskainiko duela hitz ematen du Euskaltzaindiak.

3.2.3. Euskaltzaindiak, aurrekontu-ekitaldian zehar, izenpetzen duten herri-aginteei osorik edo zati batez finantzatutako programa edo azpiprograma

4.4. Hasieran, izenpetzen duen herri aginte bakoitzak honako ekarpen-maila hau izango du Euskaltzaindiari diruz eusteko:

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza osoaren %59,67.

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza osoaren %9,94.

Arabako Foru Aldundiak diru-laguntza osoaren % 4,85.

Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza osoaren %15,60.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza osoaren %9,94.

4.5. Aurreko puntuan finkatutako ehuneakoak urtero berrikusi ahal izango dira, hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeak horretaz erabaki dezakeenaren arabera.

### **Bosgarrena.—Prozedura**

5.1. Hirugarren klausulan zehaztutako egiturari jarraituz prestaturiko behin-behineko aurrekontuak urte natural bakoitzeko irailaren 15a baino lehen aurkeztuko dizkio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan sortzen den Jarraipen Batzordeari. Horri guztiari, klausula honetan zehazten den ezinbesteko informazioa erantsiko zaio.

5.2. Jarraipen Batzordeak, urriaren 15a baino lehen ohiko batzarrean bildu beharko duenak, esaniko agiriak aztertuko ditu eta hurrengo urterako aurrekontu dirutza finkatuko. Dirutza horri laugarren klausulan zehaztutako ehuneakoak ezarri ondoren finkatuko da herri- aginte bakoitzak nork bere Aurrekontu Nagusietan Euskaltzaindiari diru-laguntza gisa eman beharrekoa.

5.3. Aurrekontu dirutzak zehatz-mehatz bereiztu beharko ditu Euskaltzaindiaren finantziazio arrunterako zatia zein hurrengo urteko programak eta azpi-programak finantziatzekoa.

Dirutza horren eta onartu eta diruz lagundutako programa eta azpi-programen berri emango zaio Euskaltzaindiari jakitun egon dadin eta behar diren ondorioetarako.

5.4. Bai aurrekontu dirutza bai diruz lagundutako programa zein azpi-programak, Euskaltzaindiak hurrengo urtean bete beharrekoak direnak, urtean urteko lankidetzaren baitan izango dira.

Hau, diru-laguntzak zehaztu eta jakinarazi ondoren, finkatuko dute bi aldeek.

Protokoloa sinatu ostean, aldez aurretik bidalitako behin-behineko aurrekontutik aldendutako behin betikoa onartzen badu Euskaltzaindiak, onartutako aurrekontuaren ale bat emango zaio Jarraipen Batzordeari jakitun izan dadin.

5.5. Urtean urteko diru-laguntzen ordainketa, beharrezkoak diren administrazio bideak betetzerik izanez gero, era honetan bideratuko da:

– Laguntza osoaren lehen erdia ekitaldi bakoitzerako diru-laguntzak izendatu eta hilabeteko epean.

– Laguntza osoaren bigarren erdia ekainean.

5.6. Gaur egun indarrean dagoen legediari jarraituz, bai hitzarmen hau izenpetu aurretik, bai hitzarmen honen klausuletan zehazten diren herri aginteen diru kopuruak jaso aurretik, urtean-urtean Euskaltzaindiak ogasunari ordaindu beharreko zergak, batetik, eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak, bestetik, egunean dituen ziurtagiriak aurkeztuko ditu.

### **Seigarrena.–Jarraipen Batzordearena**

6.1. Hitzarmen hau izenpetu eta, beranduenik, handik hilabeteko epean batzorde bi izendatuko dira haren mamikuntza zuzenerako.

6.2. Ondoko kideoz osatuko da Jarraipen Batzordea:

a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzordeburuari dagokion egitekoa beteko duena.

b) Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

c) Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.

d) Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.

f) Eusko Jaurlaritzako Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordeko idazkariari dagokion egitekoa beteko duena.

g) Euskaltzainburua edo berak izendaturiko ordezkaria.

h) Euskaltzaindiko Idazkaria edo berak izendaturiko ordezkaria.

i) Euskaltzaindiko Diruzaina edo berak izendaturiko ordezkaria.

6.3. Jarraipen Batzordeko bileretara Euskaltzaindiko beste hiru ordezkariak joan ahal izango dute. Berauek hitza izango dute, baina ez botorik.

6.4. Jarraipen Batzordearen eginkizun dira hitzarmen hau behar bezala betetzeko koordinazio eta kontrol lanaz gain:

a) Euskaltzaindia hitzartutako lanak zuzen eta garaiz bideratzen ari den erabakitzea.

b) Herri Aginteez horren beharrik ikus dezaten kasuetan, Euskaltzaindiari corpus plangintzaren alorreko beharrak edota lehentasun iritziak aurkeztea.

c) Herri Aginteeek diruz lagundutakoei dagokienez, Euskaltzaindiaren programen eta azpiprogramen emaitzak argitaratzeari dagokion guztia proposatzea.

d) Urteko aurrekontuko diru-kopuru guztia proposatzea, hitzarmena izenpetzen duen herri agente bakoitzak dagokion organoaren bidez Euskaltzaindiari izendatutako diru-laguntza eman diezaion hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

e) Euskaltzaindiari agindutako diru-kopuruak garaiz eta arauz iristarazten ahalegintzea.

f) Euskaltzaindiari, euskarari dagokionez, erakunde aholku-emaile den aldetik, dagozkion itzal eta eskubideak segurtatu eta zaintzea bere agente esparruetan.

g) Euskaltzaindiaren urteko ekintza plan guztiak eta aldian aldiko txostenak jaso eta aztertuko dituen Batzorde Teknikoa izendatzea.

6.5. Jarraipen Batzordea eratzeko quorum-ak haren kideen arteko gehien-goia behar izango du.

6.6. Orokorrean ahobatezko adostasunez hartuko ditu Jarraipen Batzordeak, ahal delarik, bere erabakiak. Halakorik lortu ezin denean, batzordearen erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira.

6.7. Urtean zehar, gutxienez, bi bilera egingo dira, lehen lehenbiziko sei hilabetea kontu errendapena aztertzeko, eta bigarren bigarren sei hilabetea, hurrengo urterako Aurrekontuak onartuko dituzten Lege eta Foru-Arau Egitasmoetan Euskaltzaindiari ezarriko zaizkion kopuruak ikusi eta proposatzeko.

Hauetaz gain, Jarraipen Batzordeko bi kidek gutxienez hala eskaturik, Jarraipen Batzordeko buruak hilabeteko epean gehienez, ez-ohizko bilerarako deia egin ahal izango du.

### **Zazpigarrena.-Batzorde Teknikoarena**

7.1. Hiru kide izango ditu Batzorde Teknikoak Jarraipen Batzordeak izendatuak. Programen eta azpiprogramen jarraipena zuzen bideratu ahal izateko bai lanaren alderdi teknikoaz eta bai ekonomikoaz jakitea duten ordezkariak izendatuko dira batzorde honetarako.

7.2. Batzorde Teknikoaren berariazko eginkizunak honako hauek dira:

a) Euskaltzaindiaren urteko ekintza plan guztiak eta aldian aldiko txostenak jaso eta aztertuko ditu. Kontu-errendapena aztertzeko, lehenbiziko sei hilabetea bilduko da, eta aurrekontuak aztertzeko, bigarren sei hilabetea.

b) Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren onespenez, beharrezkoa gertatzen den guztietan programa eta azpiprograma desberdinen lantaldeekin aurrez aurreko bilerak egingo ditu, besteak beste, hitzarmendutako programa eta azpi-programen behin-behineko ebaluazioa eginez eta lan bakoitzaren egoera zehatza bertan ikuskatuz.

c) Urteko kontu, aurrekontu, kontabilitate paperak eta balantzea aztertuko ditu.

d) Aurreko pauso horien guztien ondorioz, beharrezko argibideak eta ebaluazio txostenak aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

7.3. Euskaltzaindiak bidezko ikusten dituen arrazoibide edo alegazioak azaldu ahal izango dizkie Batzorde Teknikoaren txostenei.

### **Zortzigarrena.—Hitzarmena bukatzeko arrazoiak**

Hitzarmen hau indargabetu egin ahal izango da, ondoko gertaera hauetarikoa bat suertatzen denean:

a) Sinatzaile diren alde guztien adostasuna.

b) Euskaltzaindiak bere eginbeharretan hutsegite larria izatea. Jarraipen Batzordearen alde aurretiko adostasunez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tramitaturiko espedientean halaxe adierazitakoan hartuko da hutsegite hori aintzakotzat.

### **Bederatzigarrena.—Diru itzulera**

Hitzarmen hau bere horretan betetzen ez bada, edota emandako dirua beste eginkizunetarako erabiltzen, ez da ordainketarik jarraituko eta xede horretarako lehendik jasotako laguntza kopuruak dagozkien administrazioetan altxortegi nagusietara itzuli beharko dira, berez legozkioken lege ekintzez eta isunez gainera. Diru kopuru horiek diru sarrera publikotzat hartuko dira lege aldetik.


*Sotil* hitzaren kasuan ez omen dago aterabiderik, datuen arabera. Bi adibide erantsiko dira: *haren arrazoibide sotilak*; *haren gorpuz sotila*.

*Sozietate* hitza sartzeara interesgarri ikusten du Urrutiak, inongo adierarik eman gabe. E. Larrek ere hitz hori Iparraldean aspalditik sartua dela esan du. Azkenean honela utzi da: *sozietate*-1\* e. **gizarte**; 2, *elkarte mota, sozietateen alorreko legeria*.

*Su*-ren azpisarrerak direla eta *suan/sutan/surtan* auzia atera du Sarasolak argitu beharrekotzat. Datuak hobeki aztertu behar dira eta hurrengoan erabakiko da. Bestalde, *su(-)argi* eta horiek hurrengorako uztea erabaki da.

*Subirano/soberano* hautua ere geroکو utzi zen. Bozkatu da eta hamabi euskaltzain agertu dira *subirano* eta *subiranotasun* formen alde. Beraz, forma horiek onartu dira.

*Suposatu*-ri buruzko datuak ere argitzeko eskatu zitzaion batzordeari. Aditz hau oso erabilia da bi adieratan. *Egunkariaren Estilo liburuak* ahal dela aditz honetatik ihes egitea gomendatzen du. Beraz, badirudi badela adostasuna. Euskaltzain batzuek hitza gaitzestea eskatzen dute. Beste batzuek aipatu gabe uztea nahiago dute. B. Oihartzabalaren proposamena da, hitz hau tradiziozkoa ez denez, oraingoz ez sartzeara baina kondenatu ere ez oraingoz, behar bada hitz horren adiera guztietarako ordain jatorrik ez baita izango. Bozkatu da eta hamasei botoz, zerrendatik kanpo uztea erabaki da, besterik gabe.

- Onomastika: *San, santu, done* eta ingurukoei buruzko gomendio-erabakia.

Patxi Salaberriri eman zaio hitza lehenbizi. Hark dioenez, Onomastika batzordeko eta Hiztegi Batuko batzorde ordezkarien arteko bilkuran ez zen adostasunik lortu. Gainera, M. Azkaratek bidali zuen agiriak ez ditu han esanak ongi biltzen. Azkarate andreak gehitu du nahiago lukeela bilkura hartakoez Haritschelhar jauna -bileran izan baitzen- aurrean dela eztabaidatzea. Ez daki non dagoen desadostasuna.

Ondoen, Salaberri jaunak bi batzordeen arteko bilkurari buruzko txostena irakurri du, desadostasuna non datzan azaltzeko asmoz. M. Azkaratek dio euskaltzainei bil-

kura hartako agiri gisa banatu zaien izkribua ez dela bilkuraren agiria, bere izkribua baizik, hots: berak bilera hartatik ateratako ondorioa.

B. Oihartzabalek galde egin du ea jendea horrelako bilkuretara doanean, zertara doan. Ea gero berriro alderdi bakoitzak bere batzordera itzuli behar duen.

M. Azkaratek garbi utzi nahi izan du bere asmoa ez zela bilera hartakoak gaur eztabaidatzea. Beste zenbait euskaltzainek ere parte hartu dute eztabaidan (Satrustegik, Goenagak, San Martinek, Iñigok, ...) eta azkenik ontzat eman da hurrengo bilkurarako dokumentu bakar bat, adostasuna zertan dagoen eta adostasunik zertan ez dagoen argi erakutsiko duena, ekartzeko bilkurara, hemen puntu guztiak eztabaidatu eta bozkatzeko. Dokumentu hori bilkura eginez edo posta elektronikoz mamituko da.

- *Tobera triskantza* zerrendaren aurkezpena.

*Tobera-triskantza* hiztegi zerrenda banatu zaie euskaltzainei. Eskuratutako zerrendari zenbait kenketa egin zaizkio batzordetik bertatik: *tokitxo, tokolo, toleatu, tolesge, topaketa, torna, torroil, toton, tototu, toxikatu, trabesa\** eta *trailatu*.

- *Zenbatzailedun sintagmak nola erabili iraupena eta maiztasuna adierazteko* txostenaren aurkezpena.

Gramatika batzordeak landutako araugai honen aurkezpenak eztabaida luze xamarra ere ekarri du berekin. Nolanahi ere, euskaltzainek hilaren hogeia arte dute oharak egiteko epea, beti bezala.

- *Tabako-to* zerrendaren eztabaida.

Lehendabizi, X. Kintanaren oharra hartu dira eztabaidagai.

*Tanto/tantu* auziaz Kintanak galde egiten du ea *tanto*-ren aldeko lekukotasun gehiago ote dagoen *tantu*-ren alde baino. Baietz dirudi. Euskara Batuko batzordearen gehiengoak ere *tanto* formaren aldeko jarrera erakusten du. Hala ematea onartu da.

*Tatuaje* hitza zerrendatik oraingoz kentzea onartu da.

Zerrendan *taxista* forma gaitzestea, *taxi(-)gidari*-ren alde, gehiegizkoa iruditzen zaio ohargileari. Batzordeak *taxista* hitza espainolarena dela irizten dio eta bereari eusten. Dena dela, beste ordain batzuk ere aipatu dira. Azkenean, *taxilari* eta *taxi(-)gidari*-ren arteko aukera zerbait argitzeko eskatu zaio batzordeari.

*Telefonatu* aditzaren erregimena argitzeko eskaria egiten du Kintanak. Iparraldeko hitza denez, Iparraldeko euskaltzainei galde egin zaie. Adibide bat ezartzea onartu da: *bihar telefonatuko dizut*.

Hari berari tiraka, *telefonoa jo* azpisarreraz eztabaida sortu da. Batzuek bitxi irizten diote. Eztabaida luzea izan da hemen ere. Azkenean, botoetara jo da: bederatzi euskaltzain agertu dira azpisarrera hori kentzearen alde. Lau, uztearen alde. Beraz, *telefonoz deitu* azpisarrera bakarrik utziko da zerrendan. *Telefonoa jo* bigarren itzulirako geratuko litzateke.

*Termino* hitzari 'teknika hitza' azalpena eranstea ez zaio ohargileari aski iruditzen. Etsenpluren bat gehitzea eskatzen du. Honako hau erantsiko zaio: *Hizkuntzalari-tzako terminoa*.

*Testu* hitzari dagozkion bi esangurak gehitzea nahi luke ohargileak. Dagoen bezala uztea erabaki da. Hamar euskaltzainen botoak hala erabaki du.

*Tinbre* hitzari *Akust.* oharra erantsiko zaio.

*Tintatu* eta *tindatu* bi hitz desberdin gisa ematea nahi luke ohargileak. Ez da onartu oharra. Horrenbestez, puntu honetan ez zaio aldaketarik ezarriko zerrendari.

*Tisis* eta *tisiko* hitzak ez dira, Kintanaren aburuz, zerrendan lekua izateko modukoak. Hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Titiko* hitzaren kategoria eta esangura argitzeko eskatzen du Kintanak. Onartu da oharra: izena dela esango da eta 'titia hartzen duen haurra' ezarriko da esangura argitzeko. Adibidea ere emango da: *Haurren eta titikoen ahotik*.

Ordu bata eta erdietan batzarra eten egin da Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoari Aramaioko udalaren domina emateko. Pujana jaunak ez zuen izan bere garaian Aramaiora joateko modurik eta gaur hartu du Euskaltzaindiaren egoitzan, euskaltzainez eta senitartekoz inguratuik, herriko alkate den Nafarrate jaunaren eskutik, Aramaioko domina. Hitz labur batzuk eskaini dituzte bai H. Knörr jaunak, bai alkateak. Pujana jaunak ere esker hitzak izan ditu, horretarako Patxi Uribarrenek bere ahotza utzi diolarik.

#### ● XV. Biltzarraren batzorde akademikoa eta antolakizunekoa osatzea.

Duela zenbait hilabete onartutako batzordeak osatzeko proposamena ekarri du Zuzendaritzak, berehala lanean has dadin. Proposamena honako hau da:

Batzorde akademikoa: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, batzordeburu; P. Goenaga, idazkaria, batzorde idazkari; eta kide gisa, B. Oihartzabal (Iker sailburua eta Dialektologia batzordeburua), Patxi Altuna (Gramatika batzordeburua), G. Rebuschi (euskaltzain urgazlea eta hizkuntzalaria) eta J. Gorrotxategi (hizkuntzalaria).

Antolakizun batzordea: J. A. Arana (diruzaina), batzordeburu; J. L. Lizundia (idazkariorde-kudeatzailea), batzorde idazkari; eta kide gisa, J. J. Zearreta (ekonomia eragilea), Pello Telleria (eragile teknikaria), J. A. Aduriz (Hiztegi Batuko batzorde idazkaria) eta J. M. Makazaga (Gramatika batzorde idazkaria).

A. Urrutiak batzorde akademikoaren osaera apur bat motz ikusten du. Soziolinguistikaren aldetik beste norbait ere gehitu beharko litzatekeela uste du. *Ad cautelam* onartu da proposamena, baina, gaien arabera, gehitze hori komeni den ala ez hurrengoan aztertuko da.

J. A. Aranak ere zenbait proposamen ekarri ditu: batetik, beste batzordeño bat osatzea bi buruekin eta bi idazkariekin. Batzordeño honen eginbeharra bi batzordeen lana koordinatzea izango litzateke. Bestalde, antolakizun batzordean zerrenda zabalik uztea proposatzen du, premien arabera. Proposamen hauek ere onartu dira.

*Eskuarteakoak.*

J. L. Lizundiak Errose Bustintza “Mañariko”-ren mendeurreneko ospakizunen berri eman du.

Bestalde, Euskaltzaindiko literatura sarietarako epaimahaikideen proposamena egin da eta onartu:

*Txomin Agirre eleberri sarirako:* Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

*Toribio Altzaga antzerki sarirako:* Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

*Felipe Arrese Beitia olerki sarirako:* Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona.

*Mikel Zarate saio sarirako:* Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Andolin Eguzkitza.

*Zuberoako herri eta herritarren izendegiarekin* egin den liburuxka ere banatu zaie euskaltzainei.

*Azken ordukoak.*

Satrustegi jaunak Euskaltzaindiko Zuzendaritzari egindako gutuna irakurri du euskaltzainen aurrean. Irailaren 29an euskaltzainei zuzendutako gutun bat idatzi zuen EHU-k kaleratu berri duen *Euskaltzaindiaren araugintza berria* izeneko liburua argitaratzea salatuz. Gutun honi Zuzendaritzak erantzun zion urriaren 22an. Oraingoa Zuzendaritzaren gutunari erantzutera dator. Satrustegiren lehenbiziko idazki hartan ez omen zen pertsonekin sartu, ekintza bat salatu besterik ez omen zen egiten. Gertatua larritzat dauka Euskaltzaindiaren burujabegoa eta nortasuna baitaude zalantzan. Kakoa honako hau omen da: noiz eman duen Euskaltzaindiak arauen liburua berak argitaratu aurretik beste norbaitek plazaratzeko baimena. Bestalde, zalantzan jartzen du Zuzendaritzaren ustezko eskubidea Euskaltzaindiaren Arauak inori emateko nahiz ukatzeko.

Ondoren, Andres Urrutiak hartu du hitza. Borondate txarrik ez dela izan argi dauka, baina nahi luke ziurtatzea Euskaltzaindiak izango duela beti lehentasuna bere lanak, eta bereziki *Arauak*, argitaratzerakoan. Garbi izan beharko litzateke zein den jabea, nahiz eta horrek ez duen kentzen jabe denak beste batzuei erreproduktzio eskubideak uztea, beti ere baldintza batzuen barruan.

Kintana jaunak ere hitz egin du, argitalpenaren helburua zein izan den azalduz, zenbat ale kaleratu diren eta abar. San Martin jaunak ere Zuzendaritzaren eskubideak noraino iristen diren argitzea nahi luke eta Euskaltzaindiak bere jabegoa behar bezala zaintzea. Alde honetatik B. Oihartzabalen ustez, Euskaltzaindiak ongi zaindu behar lituzke bere-bereak diren argitalpenak. Besteren eskua sarturik dutenak, berriz, libre utzi behar lituzke. Nolanahi ere, *Arauak* bezalako argitalpenei zabalkunde ahalik eta handiena ematen saiatu behar luke Euskaltzaindiak.

P. Goenagak hartu du hitza ondoren: J. M. Satrustegiren gutunari Zuzendaritzak egoki iritzi zion erantzuna eman ziola eta denek ezagutzen dutela. Urrutia jaunak eskatzen duen bezala, ziurtatua dagoela, inolako zalantzarik gabe, Euskaltzaindiak izan

behar duela eta izango duela lehentasuna horrelako argitalpenak egiteko orduan. Are gehiago: istilua sortu duen argitalpenean bertan ez dela biltzen arau bat ere Euskaltzaindiak argitaratu gabekorik. Eta norbait *Hiztegi Batuaren* azken argitalpen osoaz ari bada pentsatzen, argi dagoela lan hori, osorik eta bere arau-balio guztiarekin, Euskaltzaindiak argitaratuko duela bere garaian. Eta gertatuaren ondoren bi lezio behintzat atera dituela: bata, batzordeetan erabakitzen diren kontuen jarraipen xehea ziurtatu beharra, gerta ez dadin batzorde batetik beste batera bidaltzea arazoren baten konponbidea eta gero konponbide hori bidean galtzea. Eta, bestetik, axola duten gauzetan, eta bereziki hirugarren pertsonekin zerikusia dutenetan, txosten juridikorik izan gabe ez jotzea.

Eta arratsaldeko seiak eta erdietan amaitutzat eman da batzarra.

Euskaltzainburuak

Idazkariak

Jean Haritschelhar

Patxi Goenaga

\* \* \*

## Donostian, 1999ko azaroaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, euskaltzainburuordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea,  
eta R. Badiola, argitalpen eragilea  
(azken ordukoetan)

1999ko azaroaren 26an, Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian, bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta laurdenetan hasi da bilera. Ezkerreko zutabea jasotzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi du F. Ondarra jaunak.

### ● *Aurreko batzar-agiria onartzea.*

Inoren oharrik gabe onartu da aurreko hileko batzar-agiria.

### ● *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak zorionak eman nahi izan dizkio Antonio Zavalá euskaltzainari berrikitan jaso duen *Doctor honoris causa* izendapenagatik. Deustuko unibertsitatean egin zen akademi ekitaldira jende ugari bildu zela esan du eta Euskaltzaindiaren ordezkaritza on bat ere hantzean izan zela.

Ondoren, 'Basarri' euskaltzain ohorezko zenaren heriotzaren berri eman du eta Euskaltzaindiaren dolumina azaldu.

### ● *Hizkuntza arauak.*

"Zenbatzaileak sintagmak nola erabili iraupena eta maiztasuna adierazteko"-  
*araua.*

P. Goenagak adierazi du Euskara Batuko batzordeak iradokitako oharrei ezin zaie-  
la behar bezala erantzun batzarrean inprobisatuz eta hobe dela araua aldera Gramatika batzordera bidaltzea han egoki diren aldaketak egin diezazkioten. Aldaketok egin ondoren testu berria bozkatzeko bidezkoago litzatekeela. Hala onartu da.

Dena dela, A. Iñigo jaunak ohartarazi du inesiboaren ordezkari instrumentala bar-  
ra erabiltzen dela Nafarroan.

*Hiztegi Batuko sor-suziri zerrendako suan/surtan/sutan erabakitzea.*

Aurreko bileran gai honi buruzko txostena ekarriko zela agindu zen. Miren Azkaratek eman ditu azalpenak eta eztabaida sortu da. X. Kintanak inkesta txiki bat egin omen du Bizkaian: zenbait lekutan *surtan* darabilte. San Martin jaunak gehitu du *surtu* ez dela inon esaten, *sutu* baizik. Satrustegik, berriz, dio kontu hau aspaldi tratatua zuela Euskaltzaindiak eta gauzak argi zeudela uste zuela. Azkenik, Miren Azkaratek esan du, datuen arabera, *suan* forma batez ere Ipar-Ekialdekoa dela. Nolanahi ere, argi daude bi muturrak: *suan*, mugatu singular gisa (*infernuko suan* bezalakoetan) orokorra da; *sutan*, aditzondo gisa ere (*basoa sutan dago* edo *norbait sutan jarri zen* bezalakoetan) da zalantzarik. Hirugarren erabilera da zalantzarikoa, hor hiru forma ageri baitira Euskal Herrian barrena: *suan*, *surtan* eta *sutan*. Gauzak horrela, honako erabaki hau hartu da:

**Suan-1**, *infernuko suan*. 2, *Ipar.* eta *Naf.*, *behar dela artoa suan erre*.

Eta hau bezala, *sura*, *sutik* eta *suko*.

**Su( r )tan, su( r )tara, su( r )tatik, su( r )tako**, *Heg.*, *surtara bota papera*; *urrea surtan garbiago egiten da*.

**Sutan-1** ‘suak harturik’, *basoa sutan dago*. 2. ‘haserre bizian’, *sutan jarri zen gure gizona*.

*Tabako-to zerrenda amaitzea.*

H. Knörren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrek.

*Tabako-hauts* hitzari sarrera ematea ez da onartu. Bigarren itzulirako utzi da, Larremendik berak, adibidez, *sudur-hauts* erabili baitzuen.

*Tabako-ontzi* sartzea eskatzen du ohargileak. Datuak hobeki aztertu behar direla uste du batzordeak, *toxa* ere hor baitago.

*Tai gabe* sarreran euskalkiari dagokion informazioa zuzendu beharra ikusten du Knörrek. “batez ere Zub.” Oharra ezarriko zaio.

*Talka* sarreran *ahari-talka* azpisarrera gehitzea eskatzen du ohargileak baina ez da onartu.

*Talmud* letra larri idatzita eskaintzea onartu da.

*Taloi* hitza bigarren itzulirako utzi da.

*Tamaina* sarreran *Heg.* eta *Herr.* oharrak gehitzea eskatzen da. *Heg.* ezartzea onartu da baina ez *Herr.*

*Tankera* sarreran *tankera hartu* azpisarrera gehitzea ez da onartu. *Tankera hartu* ala *tankera eman* den argitu beharko litzateke. Kontu hau, horrenbestez, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Tarritatu* eta *tarritamendu* bigarren itzulirako utzi dira.

*Tasun*-en sarreran *Tekn.* oharra sobera dela irizten dio ohargileak. Bestalde, *tasun* sartuz gero, *keria* ere sartu beharko litzatekeela. *Tekn.* delako hori kentzea onartu da.

Gainera, argitasun gehiago eskaintze aldera, 'ezaugarria, nolakotasuna' adierak dituela esango da.

*Tatuaje* sarrera dagoeneko kendua da zerrendatik.

*Tegi*-ren lehenbiziko adiera 'tokia' dela esateari ez dio aski iritzi ohargileak. Eztabaida luzearen ondoren, 'abere edo tresnenezako toki itxia' dela esatea onartu da.

*Tekla* hitza *Heg.* dela esaten da zerrendan. Ohargileak euskara batuan nola behar duen galdetzen du. Sarrera hori dagoen bezala uztea erabaki da.

*Telekopia* eta *telekopiagailu* zerrendan sartzearen aldeko da Knörr jauna. Eztabaida luzea ekarri du honek. Azkenean, bigarren itzulirako uztea erabaki da. Baina *telex* ere zerrendatik ezabatzea onartu da. Honen ordez, *fax* hitzari leku egingo zaio zerrendan dagokion lekuan.

*Teniente* hitzaren parean ageri den *lotinant* bere lekuan ez omen da ageri, baina Euskara Batuko batzordeko ordezkariaren arabera, dagokion tokian sartua dago jada.

*Tente*-ren azpisarrera gisa *tente potente* agerraraztea eskatzen du ohargileak. Onartu da. Otsobiren adibide batez hornitua emango da.

*Tentuz*, *tentu*-ren azpisarrera gisa sartzea ez da onartu, horrelako formak automatikoak direlakoan.

*Tilista* sartzea onartu da, "h. dilista" oharrarekin.

*Tira* hitzari *Herr.* marka zor zaiola dio Knörrek. Euskaltzainek ez diote hala iritzi. Aldiz, *Heg.* marka ezartzea erabaki da. Bide batez, *tira*-2 sarreran parentesi artean ematen dena kendu egin behar dela esan du M. Azkaratek.

*Titia kendu* azpisarrera bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Toka* bere tokira eramango da.

Andres Urrutia jaunaren oharrak hartu dira ondoren aztergai.

*Takar* hitza sartzea onartu da, 'zakarra, latza' adiera duela esanaz.

*Takigrafia* ere onartu da.

*Talde* hitza *talde*-ren azpisarrera gisa hobeto legokeela uste du Urrutiak. Batzordearen arabera, *-ka* atzizkia duten guztiei berariazko sarrera ematen zaie.

*Taloi* hitzaz jadanik erabakia hartu du batzarra.

*Tandem*, *tapioka* eta *tarifa* zerrendaratzea onartu da. *Tasa*, berriz, bigarren itzulirako izango litzateke.

*Tatarrez* hitzari leku egitea eskatzen du Urrutiak. Hurrengorako txostena prestatuko da.

*Telekomando* hitza dela eta, Euskara Batuko batzordeari txostena eskatzea erabaki da gaur gauzak nola dabiltzan ikusteko.

*Termiko*, *termostato*, *terrakota*, *tifoi* eta *tifus* hitzak sartzea onartu da.

*Tindi* eta *tiple* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

*Tira ahala* azpisarrerari *indar guztiarekin* adiera ere eranstea erabaki da.

Ondoren, A. Iñigok ohar bat egin du *in voce*: *talo(-)burdin* sartzea eskatu du. Onartu da.

Eztabaidarako markatutako hitzen azterketari ekin dio azkenik batzarrak. *Tipust-tapast/tipustapast* auzian bigarren forma onartu da. Honekin batera, *tipustapastean* eta *tipustapasteko* azpisarrerak joango dira.

*Tisi/tisiko* hitz parela dela eta, badirudi *hetika* hitzari eman beharko litzaiokeela lehentasuna. Horrenbestez, honela joango dira sarrera horiek: *tisi*, *Heg. Herr.* ‘hetika, tuberkulosia’; *tisiko*, *Heg. Herr.*

***Tobera-triskatu*** zerrendaren eztabaida.

Kintana jaunak aurkeztutako oharrak aztertu dira lehenbizi.

*Toileta* eta *tortotx* hitzak zerrendatik kentzekoak dira.

*Total*-entzako adibide egokirik aurkitu ez denez, bere horretan uztea erabaki da.

*Toto* hitzaren adiera gisa ‘zakurra’ ematen da zerrendan, baina *zakur/txakur* auzia oraindik argitzeke dago. Nolanahi ere, zerrenda hau argitara orduko, auzi hori ere erabakia izango da.

*Toton* egin hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Trabeskatu*-ri buruzko argitasunak nahi lituzke Kintanak. *Zeharkatu*-ren baliokide ote den jakin nahi litzateke. Oraingoz, horrela uztea erabaki da. Xehetasun gehiago, agian, bigarren itzulian.

*Traiektu* eta *trajectoria* zerrendatik kentzekoak dira.

*Tranbia* hitza bere garaian eztabaidatu zen eta, Kintanaren oharra gorabehera, bere horretan uztea erabaki da.

*Tresor* sarrera aldatzea onartu da. Batetik, *Ipar.* eta *Zah.* dela esango da. Bestetik, *-r* biguna duela ere adieraziko da. Adiera gisa, berriz, ‘altxorra’ emango da.

*Tripotx* hitzarekin ere eztabaida sortu da. Kintanak bi adiera ematea eskatzen du. Azkenean, bakarra ematea onartu da: ***tripotx*** ‘ardi(-)erraiak’.

H. Knörren oharrak jarri dira ondoren mahai gainean.

*Tokamen* hitzari *Heg.* marka ezartzea onartu da.

*Tokitan/tokietan* zalantza agertu du E. Knörr jaunak. Ez bide dago argi mugatua ala mugagabea behar duen. Datuak hobeki aztertuko dira eta hurrengoan ekarriko da proposamen zehatza.

*Toles* gaztelaniazko “pliego”-ren ordaina izan ote daitekeen galdetzen du ohargileak. Kontu hau hurrengo itzulirako uztea onartu da.

*Toletiko* hitza ere hurrengorako utzi da.

*Tomo* eta *liburuki* elkarren ordain izan ote daitezkeen galdtzen du Knörrek. Azkue bibliotekan katalogatze lanetan ari direnei galdetzea komeni dela esan da. Arana jaunak ekarriko du txostena. Bitartean, *tomo* = *liburuki* gisa utziko da.

*Tonatu* hitzari *Zub.* oharra erantsiko zaio.

*Tonto* eta *tontakeria* hitzei erabilerari buruzko markak falta zaizkiela uste du ohargileak. Batzordearen ustez, ez du horrelako markarik behar. Honela emango da sarre-ra hori: **tonto**-1 ‘ergela, zozoa’; 2, *Ipar.* ‘motela’.

*Topina* hitza sartzea onartu da: *topina*\* e. **tupina**.

*Torlojo/torloju* auzia bigarren formaren alde erabaki da. Hortaz, *torloju* forma hobetsiko da.

*Traba* sarreran *traba egin* azpisarrera ematea onartu da.

*Trabeskatu* dagoen bezala uzteari hobeki iritzi dio batzarrak.

*Traskil* hitza falta omen da. Hala ere, *trauskil*-en aldaera bat litzatekeela dirudi. Honela emango da, horrenbestez: *traskil*\* e. **trauskil**.

*Trankart egin*-entzat *Zah.* marka eskatzen du Knörrek. *g. er.* marka ezarriko zaio.

*Trebe*-ren erabilera argitzea nahi du ohargileak, *ni ez naiz trebe* (= *ni ez naiz auzartzen*) modukoak sarraziz. Itzuli honetan, dagoen bezala uztea erabaki da.

*Trenbide* sarreran “=burdinbide” ematea eskatzen da. Baina *burdinbide* sarreran horrela ez zela markatu erantzun zaio batzordetik. Gainera, bakoitza bere aldetik ematea egokiago dela dirudi. Dena dela, Urrutia jaunak uste du Uriarte batek, adibidez, *burdinbide* itzuli zuela. Kontsulta egingo duela esan du. Dena dela, oraingoz dagoen bezala uztea erabaki da.

*Trenka* hitza hurrengorako uztea onartu da.

*Tripazain* hitzarendako *Lgart.* marka eskatzen du Knörrek. Ez da onartu.

*Trisipu* hitza, azkenik, bigarren itzulirako uztea onartu da.

Andres Urrutiaren oharrak hartu dira aztergai ondoren.

*Toki*-ren azpisarrera gisa ageri den *-en tokian*-en ordez *-(r)en tokian* jartzea onartu da.

*Tolerante* eta *tolerantzia* hitzak sartzea onartu da. Orobat, *tonbola* hitza ere.

*Tonika* hitza hurrengorako uztea erabaki da.

*Topiko* hitzari sarrera egingo zaio, izen nahiz izenondo izan daitekeela adieraziz. Honako bi adibide hauek gehituz emango da hori aditzera: *hizlari horrek topiko ugarri erabiltzen du; gai topikoa*.

*Torax* sartzea onartu da. Bide batez, *abdomen* hitzari ere leku egingo zaio zerrendan dagokion tokian.

*Toxikazio* eta *toxikomania* bigarren itzulirako utzi dira.

*Traina* hitza sartzea proposatzen du ohargileak. Euskara Batuko batzordearen ustez, hobe litzateke bigarren itzulirako uztea. Oso hitz ezaguna omen da arrantzaletan, bereziki. Hurrengorako datuak hobeki begiratzeko proposamena onartu da.

*Trakeotomia* sartzea onartu da, baita *trakzio* eta *transfusio* ere.

*Trasteleku*-ri leku egitea eskatzen du Urrutiak. Jendeak gero eta usuago darabilen *trastero* hitza baino egokiagoa dela uste du eta hari bidea isteko egoki izan litekeela sartzea. Botoetara jo da eta honako hau izan da emaitza: hamabost euskaltzainek sarztearen aldeko botoa eman dute, batek ezezko botoa eman du eta bik zuri bozkatu dute. Honela geratuko dira, horrenbestez, sarrerak: *trastero*\* e. **traste(-)leku**, batetik, eta **traste(-)leku**, bestetik.

*Tren*-en azpisarrera gisa, *tren geltoki*, *tren makina* eta *tren gidari* sartzeko modukoak ikusten ditu ohargileak. *Tren geltoki* sartzea onartu da. Gainerakoak, hurrengorako utzi dira.

Urrutia jaunak *tribunal* hitz mailegatuaren beharrik ez du ikusten zerrendan. Honela uztea erabaki da: **tribunal**, g. g. er. 1. 'auzitegia'; 2. 'epaimahaia'.

Azkenik, eztabaidarako utzitako hitzak aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

*Tortiko* hitza bigarren itzulirako uztea onartu da.

*Tortoil/tortola* aukeraz luze mintzatu dira batzartuak. Azkenean, *uso* sarrerara iris-tean trenkatzeko asmotan utzi da.

*Trebes/trabes* auzia aztertu da ondoren. Iparraldean *trebes* idatzi izan dute. Azkenean, proposamen hau egin da: **trabes**-1. 'apustua'; 2. *Bizk.* h. **trebes**. Eta honako hau ere bai: **trebes** Adlag. 'zeharka' eta **trebeska**, azpisarrera gisa. *Trabeskatu* dagoen bezala utzi da. Proposamen hau bozkatu da honako emaitza izan delarik: baietz hamabost euskaltzainek; ezetz, hiruk.

Puntu honetan utzi da *tobera-triskantza* zerrendaren eztabaida.

#### ● *Eskuarteakoak.*

*Jagon sailkide berriak izendatzea.*

Batzordeak hala proposaturik, jagon sailkide berri izendatu dira Paskual Rekalde eta Pello Esnal jaunak.

*Zuzendaritzak Madrilera egindako bidaiaren berri.*

Euskaltzainburuak zuzendaritzak Madrilera azaroaren hamaseian egindako bidaiaren berri eman die gainerako euskaltzainei. Bidaia honen berri jasotzen duen idazlan baten kopia ere banatu die euskaltzainburuak. Hezkuntza ministro den Mariano Rajoy jaunarekin izandako bileraren berri eman die eta, Espainiako senatuburu den Esperanza Aguirre andreak gonbidaturik, Euskal Herriko senatariekin izandako bazkariaren berri ere.

Bestalde, Madrileko Euskal Etxeak ohorezko bazkide izendatu du Euskaltzaindia. Izendapen hori ere egun berean gauzatu zen.

● *Azken ordukoak*

*Hurrengo bilera.*

Hurrengo bilera bi egunez luzatuko dela adierazi zaie euskaltzainei. Abenduaren 16 eta 17an izango da. Behar dutenei ostatua gordeko zaie.

*Hiztegi Batua lantzeko prozedura aldaketa.*

Euskaltzaindiak BBV-rekin duen konpromisoa betetzea zail ikusten da. Hala ere, hasieran ezarritako epeak ahal den neurrian betetzen saiatu beharko luke Euskaltzaindiak. Hori dela eta, lan prozedura aldatzea proposatu du Zuzendaritzak eta hala onartu da: hemendik aurrerako zerrendak I. Sarasolaren eta J. A. Adurizen artean prestatuko dituzte. Zerrenda hauek zuzenean euskaltzainen esku jarriko lirатеke, Euskara Batuko Batzordetik pasatu gabe. Euskaltzainek oharrak egiteko aukera izango dute orain arte bezala eta oharrak hileroko bileran aztertuko dira. Hemen arazo gertatzen diren hitzak batzordera bidaliko lirатеke txostena prestatzeko. Modu honetara, lana ari-nago egitea espero da.

Datorren asterako *T* eta *U* zerrendak prest izango dituzte euskaltzainek. Oharrak egiteko epea hilaren 13a arte izango da. Ohar horien gainean egingo da lan abenduaren 16-17ko bileran. Gero aztertuko da *Z* letrari dagokion zerrenda.

Nolanahi ere, urtearen amaieran BBV-ko arduradunei lanaren kontuak zertan diren azalduko zaie gutun baten bidez.

*Liburu berriak.*

Bestalde, Ricardo Badiolaren eskutik Gramatika batzordearen azken emaitza den *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. V liburuki berria jaso dute euskaltzainek.

1998ko Azkue Sariko lanez osaturiko *Narrazioak eta olerkiak* liburukiaren ale bana ere jaso dute euskaltzainek.

Eta ordu biak eta erdietan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Donostian, 1999ko azaroaren 26an*

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1999ko azaroaren 26an, arratsaldeko lau eta erdietan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak hil berri diren Anbrosio Zatarain euskaltzain urgazlearen eta Jose Antonio Loidi eta Bernardo Estornes Lasa euskaltzain ohorezkoen omenezko ageriko batzarrari.

J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria eta J. A. Arana diruzaina eseri dira mahaiburuan, honako euskaltzainak ere bileran direla: P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia. Ezin etorria adierazi dute H. Knörrek, X. Kintanak eta P. Ondarrak.

Euskaltzain urgazle hauek ere izan dira: J. A. Aduriz, Antton Aranburu, Pakita Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, Juan Garmendia, M<sup>a</sup> Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, J. J. Zearreta eta J. R. Zubimendi.

Euskaltzain jaun-andre hauez gainera, hiru omenduen senitarteko ugari ere bildu dira aretoan.

Batzarraren hasieran bilduak agurtu ditu euskaltzainburuak eta omenduen familiakoei Euskaltzaindiaren dolua agertu.

Ondoren, idazkariak hartu du hitza goizeko bilkuraren berri emateko. Hiztegi batuen inguruan egin den lana aipatu du batez ere. Zuzendaritzak berrikitan Madrilera egindako bidaia ere aipatu du.

Gero, euskaltzainburuak Mikel Atxaga jaunari eman dio hitza Anbrosio Zatarain euskaltzain urgazle zenaren hilberria irakurtzeko. Zenduaren jatorriari dagozkion gora-beherak aipatu ditu, haren merezimenduak, zaletasunak eta euskara batuaren inguruan izan zuen jokaera eta abar. Gizon jakintsua, kultura handikoa, euskaltzalea eta aber-tzalea.

Hitzaldi mamitsu eta hunkigarri honen ostean Juan San Martin jaunak irakurri du bere hilberri txostena J. A. Loidi euskaltzain ohorezko zenaren omenetan. Euskal nobelagintzaren historiari betiko loturik geratuko den gizon honen bizitza, ikasketak eta merezimendu ugariak goraiatu ditu.

Bernardo Estornes Lasa euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena irakurri du azkenik J. M. Satrustegi jaunak. Estornes Lasaren eskutik altxor handi bat jaso du Euskal Herriak. Diru-kontularitzak eta finantza munduak baino gehiago erakarri zuen eus-

kaltzaletasunak. Erbesteko ogi mindua dastatzea ere egokitu zitzaion urte luzeetan zehar. Lan ugari utzi zuen bere bizi luze eta emankorrean.

Jendeak hiru hitzaldiak eskertu eta txalotu ditu. Haritschelhar jaunaren hitzetan, Euskaltzaindiak bere eginbidea betetzen du zenduak direnak omenduz. Orain, entzundako hitzaldiei esker, hobeki dakite denek nor izan ziren Zatarain, Loidi eta Estornes. Hiru euskaltzain suhar horiek Euskaltzaindiak gogoan atxikiko dituela esan die familiakoei.

Euskaltzainburuaren hitz horiekin amaitutzat eman da ekitaldia, arratsaldeko seiak laurden gutxi zirela.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Patxi Goenaga,  
idazkaria

\* \* \*

## Bilbon, 1999ko abenduaren 16 eta 17an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, euskaltzainburuordea,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Charritton,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
B. Oihartzabal,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea.  
Arratsaldean: P. Goenaga, P. Altuna  
eta Miren Azkarate.

1999ko abenduaren 16an, Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamaiketan hasi da bilera. Ezkerreko zutabea jasotzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute, 16ko goizeko bilkurara P. Altunak, P. Goenagak eta Miren Azkaratek. Erabateko ezin etorria adierazi dute, berriz, J. L. Davantek, X. Diharceek, E. Larrek eta P. Ondarrak.

### *Zorionak emanaz.*

Martin Ugalde euskaltzain ohorezkoari zorionak bidaltzea erabakitzen da, atzo, Donostian, Euskal Herriko Unibertsitateak "Honoris causa doktoretza" eman ziolako.

Pedro Migel Etxenike eta Juan Jose Goirienari ere zorionak bidaltzea proposatzen du euskaltzainburuak eta onartzen da, atzoko Euskal Herriko Unibertsitateko ekitaldian biok omenduak izan baitziren.

Idazkariorde-kudeatzaileak, era berean, aditzera ematen du, nola joan den larunbatean, Baionan, J. Haritschelhar euskaltzainburuari *Lapurdum* aldizkariaren 4. alea, ohiz kanpoko, bere omenez aurkeztu zioten, Jean Baptiste Orpustan euskaltzain urgazlea delarik horren zuzendaria. Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoari ere Gipuzkoako Diputazioak aurtengo Anton d'Abbadia saria emango dio; honi ere zorionak igortzea erabakitzen da.

### *2000. urteko batzar egutegia.*

Gai ordena aldaturik, 2000. urterako batzar egutegiari lotzen zaio jarraian. J.L. Lizundiak irakurtzen du txostena, banan-banan datak eta ospakizunak zehaztuz. Laburbilduz, ospakizunetan, maiatzaren 5 eta 6an, Legazpiko Udaletxean, hileroko batzarraz gain, Gerhard Bähr euskaltzain urgazle eta euskalariaren mendeurrena ospatu da; maiatzaren 26 eta 27an, hileroko batzarra eta Andres Iñigoren sarrera hitzaldia, Iruñean edo Iturenen; irailaren 29 eta 30ean, Zizur Txikian, *San Fermin* ikastolaren eskariz, eta *Nafarroa Oinez* dela eta, hileroko batzarra eta jardunaldiren bat; abenduaren 28an eta 29an, egoitzan, hileroko batzarra eta VI. Herri Literatura Jardunaldiak, eus-

kal esapideei buruz eta Justo Maria Mokoroaren omenetan. Horrez gain, udaberri beranduan hiztegi-gintza-lexikografiaz jardunaldiren bat antolatzea onartu da. Hileroko batzarren gainontzeko zerrenda eranskinean ikusten da. P. Charritton Iparraldeko ordezkariak "in voce" iradokizun bat egiten du eta hau da: uztailaren 21ean, Goienetxe Donibane Lohizuneko auzapez euskaltzale eta idazlearen heriotzako mendeurrena dela, eta, nahiz eta idazle oparoegia ez izan, bera izan zela Euskal Tradizioa eta Euskal Lore Jokoen sustatzailea. Bilduen ustez ongi letorke Lapurdiko kostako hiri horretan bilera egitea. Onartzen da proposamena eta, beraz, aldaketa horrekin birresten da datorren urteko batzar egutegia.

### Hizkuntz arauak

1. Hiztegi Batuko *tabako-to* zerrendan erabakizun gelditzen ziren hitz bi aztertzen dira. *Tatarrez* onartu da eta *telekomando*, oraingoz, ez onartzea erabaki da. Bigarren hitz hau dela eta, komenigarritzat jotzen da, datorren urtean egingo diren hiztegi-gintza jardunaldietan gaur egun hainbeste erabiltzen diren hitz modernoek, zer trataera beharko luketen jorratzea.

2. *Tobera-triskatu* hitz-zerrenda amaitzen da: *traditu* onartzen da saldu-saldukeria adierazteko; *trafiko* onartzen da, merkataritza eta droga adierazteko; *tragedia* onartzen da; trahitu e. **traditu**; *tregoa* onartzen da, lerro berean, *menia* / *su-etena* / *gudu-etena*.

*Bilbao-Bizkaia Kutxa* - *Euskaltzaindiaren* lau literatur sariak banatzeko, 12,30etan, bilkurak eten bat izan du. *Txomin Agirre eleberria* saria: Aitor Arana Lauzuriagak irabazi du; *Toribio Altzaga antzerkikoa*: Mikel Ugalde Ugartek; *Felipe Arrese Beitia olerkikoa*: Juan Luis Zabala Artetxek eta *Mikel Zarate saiakerakoa*: Joxe Manuel Odriozola Lizarribarrek.

Arratsaldean, lauak bost gutxitan, berriro ekin dio lanari batzarrak, hiztegi batu-ko zerrendak aztertuz.

### 3. *Triskilatu-tzartasun* zerrenda.

Lehenbizi X. Kintanaren oharrak jarri dira mahai gainean.

*Troinu* sarrerari, ohargileak eskatu bezala, adiera gehitzea onartu da: 'korapiloa'.

*Troskismo/troskista* idazkeraren ordez *trotskismo* eta *trotskista* ezartzea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

*Trosta* hitzeko adibidea aldatzea onartu da. Batetik, **trosta** *trostan dabil zaldia*, ez *lauhazka* emango da, eta, azpisarrerara gisa, **trostaka** adlag. 'trostan'.

*Txadon* hitzari g.g.e. oharra ezartzea eskatzen du Kintanak. Hitza zerrendatik ezabatzea erabaki da azkenean.

*Txakolin* hitzaren ondoan "txakoli\* e. **txakolin**" sarrera ipintzeko eskaria ez da onartu, beharrik ez delakoan.

*Txapeloker* sarrean lagunarteko hitza dela adieraziko da eta, adiera ematerakoan 'guardia zibila' ezarriko da, bi hitzetan.

*Txarpoil* hitzari 'ezkaia' adiera duela erantsiko zaio.

*Txindor* hitzari, berriz, *Bizk.* oharra gehituko zaio.

*Txip* hitzaren sarrera zuzentzea ere onartu da: **txip** *Informat* ezarriko da, zerrendan datorrenaren kontra, hemen *xip* forma onesten baita.

*In voce* ohar gisa, *txangurro* ezartzea eskatu du Kintanak zerrendan ageri den *txangurru*-ren ordez. Lekukotasun gehienak, ordea, *txangurru*-ren aldekoak direnez, ez da onartu oharra. Beraz, lehengoan utzi da.

Kintanak **Ubarroi-yuppie** zerrendari egindako oharrak aztertu dira ondoren. Ikus aurrerago, agiri honetan.

Andres Urrutiak aurkeztutako oharren eztabaidak, berriz, honako emaitza izan du:

*Tronu* hitzaren azpisarrera gisa lehen ageri ziren *tronugabetu*, *tronugabetze*, *tronuratu* eta *tronuratze* hitzekin zer gertatu den galdetzen du ohargileak. Aski lekukotasunik ez, nonbait, eta bertan behera utzi ditu batzordeak. Bigarren itzulirako geratu dira.

*Ttanta* hitza sartzea onartu da, *adkor* oharraz hornitua.

*Ttotta* sartzea ez da onartu.

*Tuberkulu* hitza hasiera bateko zerrendatik nolatan “erori” den galde egiten du ohargileak. Bigarren egunean ikusteko utzi da.

*Tutik* hitza, alfabetoaren arabera dagokion lekuan ezarriko da.

*Txainku* eta *txandarma* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Ohargileak *txantaje/txantaia* auziaren aurrean zerbait esatea eskatzen du. Eztabaidatu ondoren, *xantaia* forma ematea onartu da.

*Txikit*-en parean *txikitandik* ere gehitzea ez da beharrezko ikusi.

*Txindi* sarrerari hirugarren adiera bat (‘dirua’) gehitzeko eskaria ez da onartu.

*Txintik* hitza, alfabetoaren arabera dagokion lekuan jarriko da.

Huts grafikoak zuzentzea ere onartu da: *tximu*, *tximitx*, *txip* eta *txitxi* sarreretan agertu behar dutenak h. edo e. dira, puntuz hornituak, alegia.

*Txitxi*-ren azpisarrera gisa, *txitxi(-)burruntzi* hitza ematea onartu da.

*Txoriburu* hitzari ere zerrendan leku egitea onartu da.

*Txula* hitza sartzea ez da onartu. Izatekotan, hurrengo itzulian.

*Txurrun* ere bigarren itzulirako utzi da.

Eztabaidarako utziak ziren hitzak hartu dira ondoren solasgai:

*Tona/tuna* auzia berehala ebatzi da: “tuna\* *Zub.* e. **tona-2**” ezarriko da zerrendan. Ondorioz, *tunatu* sarrera ere kendu egin da.

*Txakur/zakur* eztabaidari ekin dio ondoren batzarrak. Eztabaidan baterako eta besterako argudioak erabili dira. Gero, bozketa egitea proposatu da, erabakigarria izan gabe, iritzia nondik norakoak diren ikusteko. Beldur izatekoa zen bezala, 7-7 izan da bozketaren emaitza. Horrenbestez, bigarren egunerako utzi da kontu hau, datu gehiago izateko esperantzaz.

*Txigortu/xigortu* eztabaidatu eta bozkatu da ondoren. Hemen emaitza argiagoa izan da: zortzi boto *txigortu*-ren alde eta lau *xigortu*-ren alde. Horrenbestez, *txigortu* forma onartu da.

Eztabaidak hartu duen bidea ikusirik, Miren Azkarate andreak ohar bat egin du, hots: ondo ikusten duela banan-banan egitea, baina gero dena batera ikusi beharko litzatekeela. Ontzat eman da.

Bide beretik, *tximino/zimino* auziaz eztabaidatu da. Datuen arabera, *tximino* da nagusi. Bozkatu da eta hona emaitza: *tximino* formaren alde 9 boto, bi *zimino*-ren alde eta beste bi boto, zuri. Hortaz, *tximino* ematea erabaki da.

*Txistera/xistera* bikotearen aurrean, berriz, honako erabaki hau hartu da: 11 botogatik, *xistera* forma hartuko da 'pilota-jokoko tresna' adierarekin. Hitz horren beste adierak bigarren itzulirako utzi dira.

*Txanka* eta *txota* sarreraren inguruan ere izan da eztabaida. Lehenbizikoaren sarre-ra honela utzi da: **txanka** 1. *Bizk.* 'hanka'; 2. pl. 'makuluak'; 3. 'karta'. *Txota*, berriz, honela uztea erabaki da: **txota** *Heg.* 'txanka' (karta).

Eta honenbestez, bilera eten egin da, arratsaldeko zazpitan.

\* \* \*

Abenduaren 17an, goizeko hamarrek eta erdietan, ekin dio, atzera, lanari Euskaltzaindiak.

#### 4. *Ubarroi-yuppie* zerrenda.

Xabier Kintanaren oharren eztabaidaren emaitza honako hau da:

*Ubarroi*-ren orde zuzenago irizten dio ohargileak *uherroi* formari. Baina testuetan ageri dena *ubarroi* denez, ez da onartu oharra.

*Udara* hitzari "e." edo "h." oharrak zor zaizkiola uste du ohargileak. Ez da onartu.

*Udare* eta *madari* parekotzat ematea ez da onartu. Gainera, Charritton jaunaren ustez, *udare* dira fruitu guztiak. Ezer ez aldatzea erabaki da.

*Uger* sarreraren hirugarren adiera bat gehitzea onartu da: 3. e. **igeri**.

*Uhaitz* sarrera aldatzea ez da onartu.

*Uharka* sarrerari 'ibaletako presa' adiera gehitzea eskatzen du ohargileak. Baina esangura horrekin ageri dena *uberka* forma omen da. Hala ere, honela ematea onartu da: 1. adieran *adlag.* dela esango da eta bigarren adieran, berriz, *iz.* kategoriakoa dela eta 'urtegia' adiera duela.

*Ugazaita*, *ugazalaba* eta *ugaz-seme* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

*Uhin* hitzari beste adibide bat gehitzea onartu da: *itsasoko uhinak*.

*Umeteria* sarrerari g. er. oharraren ordezt, *Bizk.* erantsiko zaio, ohargileak eskatu bezala.

Kintana jaunak, zerrendak dioenaren kontra, *umore* eta *umorista* h-rekin nahi lituzke. Bozkatu ondoren, bederatzi botoz gauzak dauden bezala uztea erabaki da.

*Unai* formaren ordezt *unain* ematearen aldeko eskaria ez da onartu. *Unai* forma baita nagusi testuetan. Dena dela, 'behizaina' dela erantsiko zaio.

*Untxi* formaren ordezt *untxe* ezartzea ez da onartu, forma nagusia zerrendan ageri dena baita.

*Urpekontzi* eta *urre-bits* hitzak sartzea ez da onartu.

*Urrikaldu* sarreran honako adibide hauek ipiniko dira: *jauna, urrikal zakizkit; nagusia urrikaldu zen mirabe hartaz*.

*Urrikalgaitz* sartzea ez da onartu.

*Urrin* 'usain ona' barik 'usaina, eta bereziki txarra' jartzeko proposamena ez zaio onartu ohargileari.

*Urritx*-en ordezt *hurritx* eskatzen du Kintanak. Ez da onartu.

*Urrutizkin* hitzari "g.g.er." oharra gehitzea onartu da.

*Urtats*-en ordezt *urtatse* emateko arrazoirik ez du ikusi batzarrak eta ez da onartu oharra.

*Ur-txakur*-en sarreran eskaintzen diren adierak atzekoz aurrera ematea onartu da: 1. 'arrantzaleei txalupetako lanetan laguntzen dien txakurra'. 2. 'igaraba'.

Zerrendan esaten denaren kontra, Kintanak *Urtzi* forma gordetzea proposatzen du jainkoaren izen gisa. Ez da onartu.

*Uztargi*-ren grafia zalantzarria zaio ohargileari. Nahiago luke *s*-duna. Dena dela, hitz hau badirudi Larramendiri zor zaiola. Horrenbestez, ez da onartu oharra.

Ohargileak *whisky* hitzaren azken letrak duen arazoaren aurrean (*whisky*, baina *whiskia*, *whiskirik* eta abar beharko luke) zerbait adieraztea eskatzen du. Denak *-i* letraz amaiturik ematea erabaki da.

*Xagu* eta *xaguxar* formak ez gaitzesteko eskaria ez da onartu.

*Xamar* eta *txamarra* ez dira gauza bera. Horregatik, ez da onartu aldaketarik. Hala ere, *Ipar.* ez ezik, *Naf.* ere badela adieraziko da.

*Xarmagarri*-ren ondoan *xarmangarri* ere jartzea ez da onartu.

*Xehe*-ren sarrerako adibidea zuzentzea onartu da: *azalpen aberatsa eta xehea* izango da adibide zuzena.

*Xerlo* sarrerari adiera erantsiko zaio: 'ile sorta'. Horrezaz gainera, *Zah.* oharra ere gehituko zaio.

*Xitu* barik *txitu* behar luke, ohargilearen arabera. Ez da onartu proposamena.

*Txopa/\*xopa* bikotearen aurrean eredutzat *popa* nahiago luke ohargileak. Ez da onartu.

*Xukadera* sarrerari 'esku-zapia' adiera gehituko zaio.

*Xularme* hitzari "g.g.er." oharra erantsiko zaio.

Zerrendan hitz asko dira, Andres Iñigoren ustez, Iparraldeko ez ezik Nafarroako-ak ere direnak. Horrenbestez, zerrendako zenbait hitzi *Ipar.* eta *Naf.* oharra ezartzea onartu da. Hona hemen hitz horiek: *ulitxa*, *urin*, *urindatu*, *urineko*, *urinezatu*, *urintsu*, *urrikitu*, *usaia*, *xahutu*, *xamar-I*, *xardina*, *ximiko*, *xingar*, *xoratu*, *xorrotx* eta *xuxen*. Hau dela eta, Charritton jaunak gauza bera egiteko proposatu dio Iñigori A letratik aurrera. Onartu du.

Bestalde, zerrendan *uzker* hitzari egozten zaion erabilera esparrua ere aldatzea erabaki da: *Bizk.* ez ezik, *Ipar.* ere badela adieraziko da.

H. Knörr jaunaren oharren azterketaren emaitza honako hau izan da:

*Udamin* sartzea ez da onartu. Bigarren itzulirako utzi da. Ez dago argi nola erabiltzen den.

*Ufaka* sartzea erabaki da, adlag. dela esanaz.

*Ugazaita* bigarren itzulirako uztea erabaki da. Ez dago argi adiera. Hobe eremu horretako hitz guztiak (*aitabitxi*, *aitaponteko*, *ugazaita* eta abar) batera aztertzea. Beraz, hurrengorako.

*Uhertu* hitzaren adiera figuratua aipatzeko eskaria ez da ontzat eman.

*Ukabilkari* hitza *boxeolari*-ren parean jartzea ez da onartu.

*Ukaldi*-ren azpisarrera gisa *telefono ukaldi*-ri leku egiteari ez dio batzarrak zuzen iritzi. Beraz, dagoen dagoenean uztea erabaki da.

*Ume*-ren azpian *ume jende* azpisarrera gehitzea ez da premiazko ikusi.

*Umel* sarrera argitze aldera, honela uztea erabaki da: **umel** 1. *Bizk.* 'fruitu heldu-heldua'. 2. *Bizk.* 'hezea'.

*Umoretsu* sartzea onartu da.

*Uneoro*-ren falta somatzen du ohargileak. Ez du batzarrak hala ikusi, sintagma gisa ematekoa baita: *une oro*, alegia.

*Upatz* bigarren itzulirako utzi da. Aldaera asko ditu.

*Upelategi*-ren ordez *upeltegi* ematea onartu da.

*Urdinxka* hitzari adiera gehitzea eskatzen du Knörr jaunak. Ez da beharrezko ikusi, automatikoa baita.

*Urezta(ga)ilu* sartzea ez da onartu.

*Urmael*-en ordez *urmahel* jartzeko eskaria ez da onartu.

*Urpeko* sarreraren kategoria marka jarriko da: **urpeko** iz. 'itsaspekoa'.

*Urrieta* zubereraren eremutik landa ere erabilia dela uste du ohargileak. Dagoen bezala uztea erabaki da.

*Urrikaldu* hitza "batez ere *Ipar*." dela esango da.

*Urrun*-en azpian *urrundik* ez esapidea aipatzea eskatzen du ohargileak. Bigarren itzulirako utzi da.

*Urruntxo*, *urrunxko* eta horrelako diminutiboak sartzea ez da onartu.

*Urte askotako* esapidea sartzea ere ez da beharrezko ikusi.

*Urtebete* sarrera adibidez hornitzea eskatzen du Knörr jaunak, erabilera argitze-ko. *Urtebete*, *hilabete* eta *astebete* ez dira berdin erabiltzen. Horregatik, gaia Gramatika batzordera bidaltzeko proposamena egin da hasieran, baina gero adibideak ematea erabaki da. *Urtebete*-ren sarreraren honako hau emango da: *urtebete pasatu zuen Ameriket*an, eta honen parean, gaitzetsia, beste hau: *urtebete bat egon zen gaixorik*\* e. *urtebete egon zen gaixorik*. *Astebete*-k ere modu berean jotzen du. Beraz, hala adieraziko da dagokion lekuan. *Hilabete*-ren kasuan, berriz, biak onartuko dira: *hilabete egon zen gaixorik*; *hiru hilabete egon zen gaixorik*.

*Uste*-ren sarrera argiago eman behar litzatekeela uste du ohargileak, \**usten det* eta honen kidekoei bidea ixteko. Baina zerrendan ematen den informazioarekin aski dela iritzi diote euskaltzainek.

*Uxo*-ri sarrera beregaina ukatzen dio ohargileak. Ez da ontzat hartu eskaria.

*Uxual(a)* eta *uztarkari* hitzak sartzea ez da onartu.

*Xabal* dagoen bezala utzi da.

*Xah* letra xehez ezartzea onartu da.

*Xartatu*, *xarto* gehitzea ontzat eman da: *xartatu*\* e. **txertatu**; *xarto*\* e. **txerto**.

*Xehe* hitzari zerrendan ematen zaizkion adierez gainera beste bat eskatzen du ohargileak (*emazte xheha* bezalakoei leku egiteko). Ez da beharrezko ikusi ezer erans-tea.

*Xenda* hitzean *Naf.* eta *Zub.* dela adieraziko da.

*Xendra*-ri, berriz, *BN*, *L* oharra ezarriko zaio *Ipar*.-en orde. Eta, ondorioz, *B* le-tran ageri den *bidexenda*-ren orde, *bidexendra* ezarriko da.

Zerrendan *xiberera* hitzean "h. zuberera" ezartzea ez du bidezko ikusten Knörr jaunak. Dagoen bezala uztea erabaki da, hala ere.

*Ximenki* bigarren itzulirako utzi da, adibide gutxi eta adiera asko baititu, antza.

*Xirribikari* sartzea ez da onartu.

*Xixte* hitza ere bigarren itzulirako uztea erabaki da. Orobat, *xorte* hitza ere.

*Yate*-ren parean, forma hobetsi gisa, *laket-ontzi* ematea nahi luke ohargileak. Ez da onartu. *Yate* hitzaren formaz, berriz, gero eztabaidatuko da.

Andres Urrutia jaunaren oharren eztabaidaren emaitza honako hau izan da:

*Ubazter* sarreran ‘ur-bazterra’ ageri da, baina honek *ur*-en azpisarrera gisa *ur-bazter* agertzea eskatzen du. Onartu da.

*Udazale* sartzeko proposamena ez da onartu.

*Ugalkor*-en azpisarrera gisa *ugalkortasun* sartzea onartu da.

*Ugazama* bezala, *ugazaita*, *ugazalaba* eta abar sartzea ez da onartu oraingoz, gauzak aski ilun baitaude.

*Ukigaitz* bigarren itzulirako utzi da.

*Une*-ren azpisarrera modura, *unean-unean* eta *unean-une*ko sartzea onartu da. Honekin batera, aldian-aldiko sartzea ere onartu da. Aldiz, *tokian-tokian* kendu egingo da.

*Unekada* eta *upagintza* hitzak sartzea ez da onartu.

*Urbanizatu* eta *urbanismo*-ri buruz eztabaida piztu da. Azkenean, *urbanismo* bigarren itzulirako uztea erabaki da. *Urbanizatu*, berriz, botoetara eraman da: sartzearen aldeko agertu dira bederatzi euskaltzain; bostek kontra bozkatu dute eta batek zuri. Beraz, *urbanizatu*-ri leku egingo zaio zerrendan.

*Urinketa* eta *urraspide* bigarren itzulirako utzi dira.

*Urgauzi* marratxorik gabe zergatik ageri den galdetzen du ohargileak. Marratxoa ezartzea onartu da: *ur-jauzi*.

*Xaratila*-ren ordez *txaratila* forma hobesten da zerrendan. Hala ere, *txaratila* hau ez da ageri inon zerrendatua. Zuzentzea onartu da.

*Xilografia* zerrendaratzea proposatzen du Urrutia jaunak, nazioarteko hitza dela eta. Hala onartu da.

Iñigo jaunak, ahoz, *udal-barruti* hitzari ere leku egitea proposatzen du. Andres Urrutiak, hala ere, arazoak daudela uste du, *udal-mugarte* hitzak ere kurritzen baitu, nonbait. Iñigoren proposamena bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketa horrek: sartzearen alde, sei boto; kontra, lau, eta bi zuri. Gauza ez da, horrenbestez, argitu. Andres Iñigoren eta Andres Urrutiaren artean txostena prestatuko dute eta txosten horren arabera hartuko da erabakia hurrengoan.

Ondoren, Miren Azkaratek eskatu du *xafilakor* hitza zerrendatik kentzea. Gaizki eratutako hitza omen da. Kentzea erabaki da.

Azkenik, eztabaidarako utzitako hitzak aztertzeari ekin dio batzarrak.

*Umegorri* sarreran “batez ere *Bizk.*” oharra ezarriko da eta “peior.” dela ere bai.

*Urguilu* eta *urguilutsu* hitzei *Ipar.* oharra gehituko zaie.

*Xango* hitza honela uztea erabaki da: **xango**-1 *Ipar.* ‘txanka (karta)’.

*Xehela* hitza ere iparraldekoiei galdetzeko markatua dator zerrendan. Honako hau erabaki da: *xehela*\* e. **xeila**. Honen sarrera, berriz, honela utzi da: **xeila** *Ipar.* ‘kereta’.

*Xirimiri* dela eta, hona hemen hartutako erabakia: xirimiri\* e. **zirimiri**. Eta siri-miri\* e. **zirimiri**.

*Yate* formari buruzko eztabaida etorri da ondoren. Sarasola jaunak *iote* forma proposatzen du. Hitza kentzea ere proposatu da. Azkenean, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Yogur* hitzaren eztabaida *jogurt* formaren alde erabaki da. Beraz, hitz hau *J* letraren azpira eramango da.

*Xigortu/txigortu* eztabaida bigarrenaren alde erabakia denez, sarrera guztiak (*xigor*, *xigorgailu*, *xigorki*, *xigortu*) erabaki honen arabera ezarriko dira (e. *txigor*, *txigorgailu*, *txigorki*, *txigortu*) bere lekuan.

Eztabaida luzea izan da *txakur/zakur* auzia dela eta. Batetik, *zakur* Bizkaian ez da erabiltzen. Bestetik, *txakur* zenbaitentzat adierazkorra litzateke. Bi sistema bateraezin daude aurrez aurre. Gauzak nola dabiltzan aztertu ondoren, honako hau proposatu eta bozkatu da: **txakur** *Canis familiaris*; **zakur**, batez ere *BN*, *L* eta *Naf*. 'txakurra'; **xakur** *BN*, *L* eta *Naf*. Adkor. Hamabi euskaltzain agertu dira proposamenaren alde, kontra, bat, eta zuri bozkatu dute bik. Proposamena onartu da, horrenbestez.

Hurrango eztabaida *txerri* hitzari buruzkoa izan da. Bozkatu den proposamena honako hau izan da: **txerri** *Sus scrofa*; **zerri** batez ere *Ipar*. eta *Naf*. 'txerria'; **xerri** *Ipar* eta *Naf*. Adkor. Proposamenaren aldeko 13 boto izan dira, kontrako bakarra eta zuri beste bat. Beraz, proposamena onartu da. Honen arabera, *txerri-bazka* hitzari *Ipar*. oharra kendu egin behar zaio. Bestalde, *txerritegi* hitza bere soilean utziko da *txerri-kor*-ren baliokide dela esan gabe.

*Zekor/txekor* eztabaida *Z* letrarako utzi da.

*Hemendik aurrerako lanaz zenbait xehetasun.*

Lana ahalik eta eperik laburrenean burutu ahal izateko, zenbait neurri hartu beharra ikusi da. Aurreko zerrendak berrikusi beharra dago, batetik. Lan hori bideratzeko, lehen urrats gisa, Sarasolaren eta Adurizen artean A-E bitarteko zerrendak aztertuko dituzte egin beharreko ikutuak zein diren ikusteko. Bestalde, A. Urrutiak *nart*. oharra non sartu behar den erabaki ahal izateko, ohar hori legokiekeen hitzen zerrenda prestatuko du.

Urtarrileko bileran *Z* letrako zerrenda aztertuko da. *Naf*. oharra behar duten hitzak zein diren ere ikusiko da gainerako berrikustekin batera. Nolanahi ere, *Z* zerrendari buruzko oharrak egiteko epea urtarrilaren 20a artekoa izango da.

Eta hilaren bukaeran BBV-koei gutun bat egingo zaie *Hiztegi Batua* zertan den azalduz.

Horrela amaitu da bi egun hauetako hizkuntza-arauen eztabaida.

*Euskaltzainburuaren urrezko eztaiak.*

Bilera amaitu aurretik, ordea, Haritschelhar jaunak adierazi du duela berrogeita hamar urte, gaurko egunez, ezkondu zela Colettekin Boulogne-Villancourt-en eta hori euskaltzainekin ere ospatu nahi duela, Euskaltzaindia izan baita beretzat bigarren fa-

milia. Bilduek zorionak eman dizkiote eta ordu biak hogei gutxitan amaitutzat eman da bilera. Ondoren, *lunch*-a izan da urtemuga hori ospatzeko Euskaltzaindiaren egoitzan bertan, non euskaltzainez gainera bertako langileek ere parte hartu duten.

*Euskaltzaindiaren informatika ezarpenaren aurkezpena.*

Arratsaldean, lauetan hasita, Euskaltzaindiak azken hilabete hauetan informatika ezarpenari begira egindako lanaren emaitza aurkeztu da. Aurkezpena euskaltzainei zuzendua izan da, baina baita herri aginteei ere. Ekitaldi irekia izan da eta, euskaltzainez gain, Josune Ariztondo Hizkuntza Politika sailburuordea eta Gotzon Lobera Bizkaiko Diputazioko Euskara zuzendaria ere bileran izan dira. Lehendabizi, euskaltzainburuak hitz egin du, informatika ezarpena bideratu ahal izan bada, herri aginteen laguntzari esker izan dela adierazteko eta laguntza hori eskertzeko. Ariztondo andreak ere hitz egin du herri aginteen zeregina zein izan den azaltzeko. Ondoren, idazkariak hartu du hitza ekitaldiaren nondik norakoa azalduz. Euskaltzaindiak xahar antzeko itxura eman dezake, baina bizi-bizi jarraitzeko erabakia hartua duenez, ezinbestekotzat jo du gaurko teknologiak eskaintzen dituen baliabideak bereganatzea.

Ondoren, informatika ezarpenaren ezaugarri nagusiak azaldu zaizkie bilduei. P. Goenagak ezarpen hori nola egin den eta zertan datzan azaldu du lehenengo. Gero, prestatu den web-gunera erakutsi du: zer itxura duen, zer atal izango dituen eta abar. Urtarrilean sarean egon gaitezkeela adierazi du. Gero, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* migrazioa nola izan den azaldu du *Aurten Bai*-ko Andoni Unzalu jaunak eta hemendik aurrera lana nola egin ahal izango den arlo honetan. Euskal Herriko Atlasaren aurkezpen bat ere egin du, bildutako informazioa kudeatzeko eta jendearen esku jartzeko prestatu diren aplikazioen berri emanaz.

Arratsaldeko bostak eta erdietan amaitutzat eman da aurkezpen ekitaldi hau.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Bilbon, 2000.eko urtarrilaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, euskaltzainburuordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
J. L. Davant,  
P. Charritton,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
B. Oihartzabal,  
F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea.

2000.eko urtarrilaren 28an, Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta erdietan eman zaio hasiera bilkurari. Alboko zutabeen jasotzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute Miren Azkaratek, P. Charrittonek, J. M. Lekuonak eta Pello Salaburuk.

### *Aurreko agiria onartzea*

Inork ez du oharrik egin eta, horrenbestez, onartutzat eman da aurreko hileko batzar agiria.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Antonio Zavalaren arreba hil dela eta Euskaltzaindiak doluminak ematea eskatu du euskaltzainburuak. Hala onartu da.

Bestalde, zorionak eman nahi izan dizkie Aurelia Arkotxa andreari tesiak eta ikerketak zuzendu ahal izateko legez behar den baimena lortu duelako, Manu Lopez Gaseniri, euskaratutako haur literaturaz berrikitan defenditu duen tesiagatik, eta Ch. Videgaini, katedrako bidea irekia duelako jadanik.

### *Eskuartekoak*

Eskuartekoetan, lehenbizi BBK-k babesten dituen aurtengo Azkue literatur sarien berri eman zaie euskaltzainei. Sarion aldarrikapena eta banaketa ordu batean egingo da egoitzan bertan.

Bestalde, G. Bähr euskaltzalearen mendeurrena dela eta, Legazpiko Udalak argitara duen egutegia eskuratu zaie euskaltzainei.

J. A. Aranak BBV fundazioko M<sup>a</sup> Luisa Oihartzabal andreari *Hiztegi Batua* dela eta egindako bisitaren berri eman du.

Azkenik, batzar gelan erakusgai jarri den Sabino Aranaren erretratuaren xehetasunak eman zaizkie euskaltzainei: Asartaren jatorrizkoaren gainean Ciga pintoreak egindako kopia dela eta modu onean eskuratzeko aukera izan duela Euskaltzaindiak.

### *Hizkuntza arauak*

#### **Zabal-zuzter** hitz zerrenda onartzea

X. Kintanak aurkeztutako oharren azterketari ekin dio batzarrak lehenbizi.

Aurreko zerrendan *sifilis* hitza, forma horretan, onartu zen. Baina, ohargilearen iritiz, hitz horri ez dagokio amaieran *-s-rik*. Hala onartu da: *sifili*, hortaz.

*Zadorlari* hitzari *Zah.* oharra barik *g.g.e.* h. **idazkari** ezartzea onartu da.

*Zangurru*-ren sarreraz baliatuz, ohargileak berriro ere *txangurro*-ren aldeko apustua egin nahi du. J. San Martinek dio hori erabakitzeke Bizente Lafitte-ren hiztegira jo behar litzatekeela. Nolanahi ere, kontua dagoeneko erabakia dagoenez, bere horretan uztea erabaki da. Izan ere, dauden datuak *txangurru*-ren aldekoak omen dira. Hortaz, ez da Kintanaren oharra onartu.

*Zaran* sarreran ematen den azalpena baino egokiagotzat dauka ohargileak 'saski biribil eta handia' bezalako bat. 'Saski mota' barik 'saski handia' ezartzea onartu da adiera argitze aldera.

*Zela* hitzari 'zaldiaren gaineko jarlekua' gehitzea onartu da, baina ez da onartu, ohargilearen proposamenaren kontra, 'nola' aditzondoaren baliokidetzat ematea bigadiera batean.

*Zeledratu* hitza zerrendatik kentzea onartu da. Bigarren itzulian sartuko da, behar diren ohar guztiekin.

*Zepelin* ala *zeppelin* behar duen bozkatu da. Lehenbiziko forma onartu da: hamar boto hiruren kontra. Beraz, zerrenda dagoen-dagoenean utzi da.

*Zer* sarreran, lehenbiziko balioa argitzeko, adibide egokia eskatzen du ohargileak. *Zerk ikaratu zaitu?* erantsiko zaio.

*Zerrama* sarrera aurreko bileran onartutakoaren arabera zuzenduko da: *txerrama* hitzari emango zaio lehentasuna. *Zerrikume* hitzarekin ere gauza bera egingo da.

*Zertifikatu* sarreran onesten diren *ziurtagiri* eta *sinestamendu* hitzen ondoan *egiaztagiri* hitzari ere leku egitea proposatzen du ohargileak. Bozkatu da eta hamar boto agertu dira gauzak dauden bezala uztearen alde. Hala onartu da, hortaz.

*Zertako* sarreran, erabilera eremua markatzeko, *Ipar.* eta *Naf.* eranstea onartu da.

*Zertan* hitzari, gramatika kategoria gehituko zaio: izena dela esango da. Horrela aski argi gelditzen dela iritzi diote euskaltzainek.

*Zesto* hitzari, ohargilearen proposamena onartuz, *Heg.* eta *Herr.* oharrak gehitu ko zaizkio.

J. San Martinek, ahoz, *zesura* hitzaz galde egin du. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Zezin* hitzaren ordeztzeak *zezina* nahiago luke Kintanak. Lekukotasunen arabera, *zezina* litzateke nagusi. Horrenbestez, zerrenda dagoen bezala uztea onartu da.

*Zigilu* hitzari adierazten erantzena onartu da: **zigilu** 1. *erregeren zigiluarekin*; 2. (gutun azalekako). Eta *seilu* sarrerari, *Heg.* oharraz gainera, 'zigilua' adiera gehituko zaio.

*Zilarbizi* hitzari "g.g.e." oharra erantzeko eskaria ez da onartu. Hitz horrek tradizio handia bide du.

*Zimino* sarrera aldatzea onartu da, dagoeneko erabakitakoaren arabera. *Ipar.* 'tximino' ezarriko da.

*Zirin* hitzaren balioak eztabaidatu da ondoren. Azkenean, honela gelditu da sarrera: **zirin** 1 iz. 'hegaztien gorotza, gorotz mehea'; 2 izond. batez ere *Bizk.* 'zirika-tzailea'.

*Zirkunzidatu* hitzari "g.g.e." oharren ordeztze "zah." ezarriko zaio, gainerako guztia lehengoan utziz.

*Zirrara*-ren azpisarrera gisa *zirrara eman*, *zirrara sortu* bezalakoak ematea ez da onartu.

*Zirto* hitzaren adiera honela ematea onartu da: 'erantzun zorrotza eta erimaduna'.

*Zita*-ren bigarren adiera bat ('aipua, aipamena') erantzen ez da onartu.

*Zizalkaka* ez da onartu. Eta *zizi-paza* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Zoriondu* sarrerari "g.g.e." oharra ezabatuko zaio eta honako adiera hau duela esango: 'zorionak eman, zorionak esan'. Bide batez, P. Goenagak *zorionak* hitzari leku egitea proposatu du, azpisarrera gisa. Onartu da proposamena. Honela emango da azpisarrera hori: **zorionak** 1 interjek.; 2 iz. 'goresmenak'. (*gaur nire zorionak dira\** e. *gaur nire urtebetetzea da*).

*Zoru*-ren inguruan eztabaida luzea piztu da. Ohargileak *lurra* eta *behea* edo *behearen gaina* eta abar bereizteak proposatzen du. Ez da onartu proposamena eta, beraz, gauzak zeuden bezala utzi dira.

*Zuku* hitza dela eta, gauzak zehaztasun handiagoz erabiltze aldera, *laranja-zukua* ere, adibide gisa, erantzen onartu da.

Ondoren, Andres Iñigo jaunaren oharra aztertzeari ekin dio batzarrak. Iñigok adierazten eman du zenbait laguni Nafarroan erabiltzen diren hitzei buruzko oharra egiteko eskatu diela eta z- letratik hasi direla hain zuzen. Horiexek dira euskaltzainek oraingoan mahai ganean dituztenak.

Onartu da *zafra*, *zangar* eta *zango-motz* hitzei *Naf.* oharra gehitzea. *Zafratu* hitza, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da, *zango-makur*, *zango-mehe* eta *hanka-mehe* bezala.

*Naf.* oharra gehitu zaie honako hitz hauei ere: *zanpa-zanpa*, *zanpaka*, *zanzpako*, *zanzpaldi*, *zapatu*, *zare*, *zerendako*, *zingil*, *zingilika*, *zirtaka* eta *ziztako-ri*.

*Zanzpateko* sartzea ere onartu da, 'kolpea' emanaz adiera gisa eta *Naf.* oharrik gabe.

*Zanpantzar* hitza argitzeko 'inauterietako lastozko irudia' ezarriko zaio adieratzat.

*Zarta*-1 hitzari ere *Naf.* oharra gehitzea onartu da, 'masailekoa' adiera ez ezik 'ipurdikoa' ere emanaz.

*Zanpatu*-ri bigarren adiera bat eranstea proposatzen du ohargileak: 2 *Naf.* 'jo, jipoitu'. Onartu da, baina beste hurrenkera batean emanaz adierok: 1 'jo, jipoitu'; 2 *du* aditza *Gip. g.er.* 'zapaldu'.

*Zapaldi*, berriz, *Ipar.* eta *Naf.* dela esango da.

*Buru-zare* bigarren itzulirako utzi da. Zerrendan ageri den *zarrasta* 'urradura' hitzaren ondoan ohargileak agerrarazi nahi lituzkeen *zarrata*, *zarratako*, *zarrazta* eta *zarraztako* hitzak ere bigarren itzulirako utzi dira.

*Zehar-haize* hitzari leku egitea ontzat eman da, 'ipar-mendebaldeko haizea' adiera emanaz.

*Zimista* dela eta, ez aipatzea erabaki da baina bai *ximixa*: *ximixa* *Lap.* eta *Naf.* 'tximista'.

*Zirta* sarrera zuzendu egin da *Ipar.* eta *Naf.* ezarriz.

*Zorrizu* eta *kakazu* hitzak sartzea onartu da, biak *Ipar.* eta *Naf.* oharrez horniturik. *Zoldazu*, berriz, bigarren itzulirako utzi da.

Eta honenbestez, ordu batean, bilera eten egin da Azkue literatura sariak banatzeko.

\* \* \*

Arratsaldeko saioari hiru eta erdietan eman zaio hasiera, Andres Urrutia jaunaren oharrak eztabaidagai harturik.

*Zabaltoki* eta *zador* hitzak ez dira zerrendarako onartu.

*Zahar* hitzaren azpisarrerara gisa *zahar-hitza* sartzea onartu da, honako adibide hau daramala: *zahar-hitzak*, *zuhur-hitzak*.

*Zaindegi* hitza sartzeko proposamena ontzat eman da.

*Zaldiño* hitza sartu ala ez bozkatu da. Sei euskaltzain agertu dira sartzearen alde eta lau kontra. Sartzea erabaki da.

*Zapasalto* ez da onartu, lekukotasun faltaz.

*Zaramatika* ere, *kalamatrika* bezala, bigarren itzulirako uztea egokiago ikusi da.

*Zarrastel* eta *zarrastelkeria* ere bigarren itzulirako utzi dira.

*Zatibitu* sartzea onartu da.

Bigarren itzulirako utzi dira, berriz, *zausta-zausta*, *zelulanitz*, *zenbatetsi/zenbatetspen* eta *zerrepel/zerrepeldu*.

*Zergaldi* ontzat eman da.

*Zilipurdi* eta *zilipurdika* hitzak ere onartu dira: *zilipurdi* iz. 'itzulipurdia'.

*Ziro* hitza ez da onartu.

*Zirrosi*, alfabeto hurrenkeraren arabera dagokion lekura eramango da.

*Zirrin-zarran* bigarren itzulirako utzi da.

*Zuhurtziagabekeria* hitza sartzea ez da onartu, bai, ordea, *zuzkitu* eta *zuzkidura*.

Ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

*Zigarreta/zigarro* bikotea formaz eta esanahiz bereizirik eman ala ez bozkatu da. Bereizketa egitea onartu da: hamahiru boto izan dira horren alde.

*Zitara/kitara* auzia dela eta, hurrengorako argitasun gehiago eskatuko zaio UZEI-ri.

*Zapatila* hitzaren inguruko auzia honela ebatzi da: **zapatila** h. **txapin**.

*Zapazto* hitzari honako ohar hau erantsiko zaio: *Bizk.* ‘narratsa’.

*Zapelatz* forma onartu da. Adiera argitzeko (*buteo* sp.) oharra ezarriko zaio.

*Zapo* sarrera honela uztea erabaki da: **zapo** 1 ornodun urlehortarra (*Bufo*); 2 arraina (*Lophius*). *Apo* hitzean, berriz, *Ipar.* eta *Naf.* ‘zapoa’ ezarriko da.

*Zarratu* hitzari buruz *Bizk.* eta “du aditza” dela esango da. Adiera, berriz, ‘itxi, bildu’ gisa emango da.

*Zerratu*-rentzat honako hau erabaki da: **zerratu** 1 *Ipar.* eta *Naf.* ‘itxi’; 2 ‘trabesa, tratua egin’.

*Zarrarazi* hitza zerrendatik ezabatzea onartu da.

*Zartagin/zartagina* eztabaida lehenbiziko formaren alde erabaki da. *Zartagin* forma jasoko da zerrendan.

*Ze* sarrerari buruzko erabakia honako hau izan da: **ze** Lgart. 1 h. **ezen**, **zeren**; 2 h. **zer**, **zein**.

*Zerrarra*n ala *zerra-arrain* auzia bigarrenaren alde ebatzi da: *zerra(-)arrain* gisa jasoko da, horrenbestez, zerrendan.

*Zinema/zine* bikotearen aurrean lehenbizikoari lehentasuna ematea onartu da. Beraz, **zine** h. **zinema** gisa emango da.

*Zurgatu/xurgatu* auzia otsailerako utzi da, datu gehiago eskuratu ondoren erabakitzeko.

*Zurikin* forma hobetsi da, bestalde, *xurikin* eta *txurikin*-en kaltetan.

Eta, horrenbestez, oraindik zintzilik dauden kontuak gorabehera, zerrenda amaitzat eman da.

Zerrenda osoaren berrikustea dela eta, Ibon Sarasolak zenbait ohar egin ditu hurrengo bilerari begira: alde batetik, *udal-barruti* delakoaren eztabaida dago; bestetik, hala dagokien hitzak *Ipar.* eta *Naf.* oharrez hornitzea; *Nart.* oharra duten hitzen zerrenda onartzea (honi buruzko galbaheketa Sarasolak berak egingo du); eta azkenik, A-letraren azken argitaldia izango dena onartzea.

Kontu hauei dagozkien langaiak dagoeneko eskuetan dituzkete euskaltzainek. Beraz, oharrak, beti bezala, hilaren hogeirako aurkeztu behar dira.

Euskaltzaindiak Hiztegi Batu honekin eskubete lan duenez, euskaltzainburuak ohartarazi du otsaileko bilkura bi egunez luzatu beharko dela.

Eta besterik gabe, arratsaldeko seietan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Donostian, 2000.eko otsailaren 24 eta 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea, (24ko bilkuran)  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate (24koan)  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana, (25ekoan)  
E. Larre,  
J. M. Lekuona, (25ekoan)  
B. Oihartzabal, (25ekoan)  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
P. Salaburu (24koan)  
J. M. Satrustegi (25ekoan)  
eta A. Urrutia euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea,  
R. Badiola, argitalpen eragilea  
(hasieran) eta  
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea  
(hasieran eta amaieran)

Donostian, Diputazioaren jau-  
regian, 2000.eko otsailaren 24an eta  
25ean bildu da Euskaltzaindia bere hile-  
roko batzarra egiteko. Ostegunean, arra-  
tsaldeko lauetan eman zaio hasiera bilku-  
rari. Parte hartu dutenen izenak  
ezkerreko zutabeen jasotzen dira. Ezin  
etorria adierazi dute Xabier Kintanak,  
Beñat Oihartzabalek eta J. M. Satrustegik  
(24an); Miren Azkaratek, Henrike Knö-  
rrek eta Pello Salaburuk (25ean); eta  
Ibon Sarasolak (egun bietan).

### ● *Aurreko batzar-agiria onartzea.*

M. Azkaratek ohartarazi du *zine-  
ma/zine* delako auziaz hartutako erabakia  
jasotzerakoan oker bat dagoela, *zinema*  
formari eman baitzitzaien lehentasuna.  
Idazkariak onartu du oharra. Eta besterik  
gabe, ontzat eman da agiria.

Bestalde, M. Azkaratek eskatu du  
oharrak ahal dela posta elektronikoz he-  
laraztea P. Telleriari eta, gero, honek de-  
nen ohar-zerrenda euskaltzain guztiei  
igortzea. Ontzat eman da proposamena.

### ● *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak Herri Aginteeziko hitzarmen berria (testua karpetan dute eus-  
kaltzainek) datorren hilaren 3an sinatuko dela azaldu du. Ekitaldia Euskaltzaindiaren  
egoitzan izango dela.

Bestalde, Nafarroako agintariekin izandako bilkuraren berri eman du. M. Sanz  
Nafarroako gobernuburarekin eta Yolanda Barcina Iruñeko alkate andrearekin bildu  
dela Zuzendaritza eta dena ongi joan dela. Bilkurok hilaren 22an izan dira.

### ● *Eskuartekoak*

*Trebiñoko herri-izendegiaz eskaria.*

Trebiñoko udalak hartu duen erabakiaren berri eman zaie euskaltzainei. Akordio-  
aren arabera, Trebiñoko Konderriko udalerria osatzen duten herrixken euskal izende-

gia burutzeko eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Erabakia interesgarritzat jo du euskaltzainburuak eta Onomastika batzordea berehala hasiko da lanean erabaki hori gauzatu ahal izateko.

#### *Informatikariaren kontratazioa.*

Hautatze lana burutu ondoren, Euskaltzaindiak informatikari berri bat duela azaldu du euskaltzainburuak: Iñaki Kareaga jauna izan da aukeratua eta martxoaren 6an hasiko da lanean, Euskaltzaindiaren informatika arloa zuzentzen.

#### *Euskal Herritar Unibertsala izendatzeko proposamena.*

Urtero Eusko Jaurlaritzak egiten duen deiari erantzunez, zuzendaritzak Camdesus jaunaren izena aurkezteko proposamena egin du. Baionako semea da eta oraintsu arte Nazioarteko Moneta Funtsaren zuzendaria izan da. Aho batez onartu da hautagaitza.

#### ● *Hizkuntza arauak.*

##### *Aurreko bileran zintzilik utzitako hitzak.*

**Zurgatu/xurgatu.** Dirudienez, *xurgatu* forma da nagusi gaur. *Zurgatu* zerabiltenak ere *xurgatu*-ra pasatu dira azken aldian. Adieretan ere ez dago bereizketa handiegirik. Horrenbestez, *xurgatu* onartzea erabaki da oraingoz. Gero ikusiko da ea *zurgatu*-ri lekurik egin behar ote zaion.

**Zitara/kitara.** Lehen *kitara* erabiltzen zen (Orixek, Zaitetik eta abarrek), baina gero *zitara* nagusitu da, Bibliaren itzulpenetan beretan ere. *Zitara* forma jasotzea erabaki da, hortaz.

**Udal barruti dela eta,** A. Iñigo jaunak aurkeztu du prestatutako txostena. A. Urrutiaren aburuz, hitz hori zertarako erabiliko den argitu behar da lehenbizi: 'término municipal', 'distrito municipal' ala zer. Horrelako hitz elkartuak sortzeko gramatika-oztoporik ez badago ere, terminologia kontua denez eta hau argitzea Euskaltzaindiari baino areago beste batzuei dagokienez, eztabaida luzearen ondoren, *udal* hitza soil-soilik ematea erabaki da.

##### *Hiztegi Batuaren berrikusketan egindako aldaketen berri ematea eta eztabaida.*

Miren Azkaratek eman ditu zenbait azalpen. Herri izenak eta hizkuntza izenak erantsi zaizkio zerrendari. Bestalde, zerrendaren formatua ere bateratu egin da. Azkarate andreak bereziki Onomastika batzordekideei eskatu die herri eta hizkuntza izenok ongi kontrolatzeko, badaezpada ere.

Egin diren bestelako aldaketa sistematikoen berri ere eman du.

Ondoren, forma jakinetan egindako aldaketa nabarmenenak azaldu ditu:

*Aaiundar* zerrendatik kendu da.

*Abelazkuntza* berrikustea proposatzen da zerrendan. Dagoen bezala uztea erabaki da azkenean.

*Adiakatu* sarreran aditz direnei ezartzen zaizkien oharrak gehituko zaizkio.

*Adur* hitza zerrendan agertuko da bere bi adierekin.

*Ahaire-ri Zub.* oharra erantsiko zaio *Ipar.*-en ordeez.

*Akeita*-ren sarrera honela uztea erabaki da: **akeita** g.g.er. 'kafea'.

*Aldeztu* ('defenditu/defendatu') aditzari ere leku egingo zaio.

*Almaatar* hitza kendu egingo da.

*Andare/anddere/andere* hitzen gainean izandako eztabaida honela ebatzi da: *and-dere* forma bigarren itzulirako utzi da. **Andere** *Ipar.* 'andrea'. Eta **andare** *Heg.* 'pan-pina'.

*Arrastiri* hitza *Ipar.* marka soilarekin utziko da.

*Arto*-ren azpisarrera gisa ageri diren hitz elkartuetan *arto*- forman ematen da lehen osagaia. Zalantza agertu da ea *arta*- forman ere eman behar ote liratekeen, sinonimo gisa edo. Gauzak dauden bezala uztea erabaki da.

*Atzarri* hitza berrikustekotzat emana zetorren zerrendan. Eztabaidaren ondoren, honela emango da: *atzarri* 1. aditza; 2. izond. *Atzartu*, berriz, izond. soil gisa emango da. *Izarri* eta *itzartu* hitzekin ere modu berean jokatuko da.

*Baltiko* hitza "izond." oharraz horniturik emango da. Adibideak ematen hasi eta "Itsaso Baltikoa" ematea ez du oso egoki ikusten zenbaitek. Eztabaida piztu da, baina azkenean bere horretan uztea erabaki da, izenondoa dela aditzera emanaz.

*Bereizi/bereiztu* formen arteko lehia bide zorrotzetik erabaki da: bereiztu\* e. **bereizi**.

*Berpiztu*-ren aditzoinaren forma *berpizt* ala *berpitz* erabaki beharra aldarrikatzen da zerrendan. *Berpitz* forma onartu da.

*Bihurdikatu*-ren parean izen gisa ematen den *bihurdika* hitza adizlagun ere ba ote den galde egiten du M. Azkaratek. Iparraldeko euskaltzainen arabera, ez da. Beraz, ez da hori aipatuko.

*Deitura/abizen* bikotea dela eta, honako erabaki hau hartu da: **abizen** 'pertsona deitura' gisa emango da eta *deitura* sarrera, berriz, inolako oharririk gabe.

*Derrigor* eta beronen 'familiako' hitzei buruz ere luze joan da eztabaida. Honela emango da: **derrigor** *Heg.* h. **baitezpada**, **nahitaez**. **Derrigorrean** *Heg.* h. **behartuta**. **Derrigorrez**\* e. **derrigorrean**. **Derrigorre(z)ko** *Heg.* h. **baitezpadako**, **nahitaezko**.

*Deserritu/deserriratu* auziaz ere izan da eztabaida. Baliteke *deserritu* forma batzere partizipio gisa erabilia izatea. Kontu hau urrenborako argitzen saiatuko dira batzordekoak.

*Desterratu*, dagoen bezala utzi da.

*Egurketa* sarreran, batetik, *Ipar.* eta *Naf.* dela adieraziko da. Bestetik, 3. adieran ('egur pila') iz. kategoriakoa dela argituko da.

*Elikapen* hitzaren berri nola eman eztabaidatu da ondoren. Hona hemen hartutako erabakia: **elikapen** 'elikatzea'.

*Errebista* sarreran "1 ikuskapen" kendu egin dute zerrenda prestatzaileek. Bigarren itzulirako uztea erabaki da adiera horren kontua.

*Ezkonanaia*, *ezkonarreba* eta *ezkonahizpa* ageri baitira zerrendan, Urrutia jaunak *ezkon neba* ere erabiltzen ote den ikusi beharko litzatekeela dio. Hurrengorako saiaturako da begiratzen.

Bestalde, *astebete* hitza dagokion lekuan sartzea onartu da. Eta *biao* hitzari, sinonimo gisa, *siesta* hitza ezarriko zaio alboan.

*Bidaia* aditzaren erregimena ere argitu da: *du* aditza dela esango da.

*Butroi* hitzaren sinonimotzat emango da *pertola*.

*Dejeneratu* eta abarren grafia berrikusi beharra azpimarratu du M. Azkaratek. Hurrengo bilerarako eskuetan izango dute euskaltzainek *g/j* grafien arazoa duten hitzen zerrenda. Honi buruz erabakitzen denak bere eragina izango du ahoskerari buruz emandako arau eta gomendioetan.

*Eiretar*-i *irlandar* ezarriko zaio sinonimotzat.

*Erreket*e (soldadua) hitza eranstea ere onartu da.

*Emokin* sin. *smoking* eranstea dela eta, hasierako "==" ikur guztiak orain "sin." bihurtzea eztabaidan jarri da, zail egiten baita hitz beraren forma desberdinak sinonimotzat ematea. Horregatik, "sin." barik, agian hobe litzateke beste zeinuren bat bilatzea. Miren Azkaratek lehengo "==" zeinuaren ordain egokiagoa bilatzen ahalegin daitzelaz eskatu die euskaltzainei.

*Esprint* hitza sartu behar da.

Batzordeak *eskrupulo* ematen du zerrendan. Agian hobe, ordea, *eskrupulu*. Zernahi gisaz, hori bigarren egunean erabakitzeko utzi da.

Horrela amaitutzat eman da *A-E* zerrendarako proposatu diren egokitze, gehitze eta aldaketak.

Ondoren, ohargileek egindako oharrak hartuko dira eztabaidagai. Hori dela eta, gauzak behar baino gehiago ez luzatzeko, honako bi irizpide hauek onartu dira aho batez: a) gauza berriak sartzeko aukerarik ez da eman behar. Hots: bigarren itzulirakoak orain sartzea ez da bidezko; eta b) lehen eztabaidatutako gauzarik ez eztabaidatzea berriro.

Eta horrenbestez, zortziak eta bostean amaitutzat eman da lehenbiziko eguneko eztabaida-saio luzea.

Hilaren 25ean goizeko 10ak eta erdietan eman zaio hasiera bilkurari.

### *Nazioarteko hitzen zerrendaz*

Zerrendari egindako oharrak aztertzen hasi baino lehen Urrutiak proposatzen du K letratik aurrerako zerrenda ere osatzea. Onartu da proposamena.

X. Kintanak egindako oharrrak aztertu dira lehenbizi:

*Ampere* eta *anperemetro* hitzak Kintanak, Ampère fisikariari zor zaion errespetuagatik *-m*-rekin ematea nahiago luke. B. Oihartzabalen ustez, beste hizkuntzetan gauzak nola diren ikusi beharko litzateke. Eztabaida labur baten ondoren, bozkatu da eta 13 botogatik *-n*-rekin uztea erabaki da.

*Degeneratu* eta antzekoak aurrerago aztertzeko utziak dira.

*Destilatu*-ren ordez *distilatu* nahi luke Kintanak. Botoetara jo da eta ez da onartu proposamena, hamabi boto izan baitira *destilatu* formaren alde.

*Dosi*-ren sinonimo gisa *harraldi* ezartzea bigarren itzulirako utzi da.

*Eskrupulo/eskrupulu* bikotearen aurrean *eskrupulu* forma hobetsi da. Zortzi boto izan dira proposamenaren alde.

*Esoteriko*-ren ondoan *esoterismo* ere sartzea onartu da (9 boto izan ditu alde), baina *exoteriko* antonimoa sartzea ez da ontzat eman.

Urrutiaren zerrendan ageri den *etimon* baino nahiago luke ohargileak *etimo* forma. Bozkatu ondoren, *etimo* hartzea onartu da: 9 boto izan ditu forma honek alde, *etimon*-ek sei izan dituen bitartean.

*Flautista* kentzeko proposamena ez da onartu.

*Kantziler* baino egokiagotzat dauka Kintanak *kantzelari*. Ez da onartu proposamena: hamar boto biren kontra.

Urrutiaren zerrendan ageri den *klabier* hitza ez da, Kintanaren aburuz, hain naizartekoa. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Konkurrentzia* eta *lehiakidetz*a sinonimo ikusten ditu ohargileak. Ez da onartu proposamena. "Batez ere Ekon." oharra gehituko zaio hitz horri.

*Kontralto*-ren ordez *kontraltu* ezartzea ez da onartu.

Txomin Peillen jaunaren oharren eztabaidak, berriz, honako emaitza hau izan du:

*Anonimo*-ren parean, sinonimo gisa, *izengabeko* ematea ez da onartu.

Ez da onartu, *arkaiko* eta *zaharkitu* parean jartzea ere.

*Azeleragailu* hitza dela eta sortu den eztabaidaren haritik, Kintanak *azeleratu* hizari behintzat leku egin beharko litzaiokeela esan du. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Autoritario* hitzaz sortu da ondoren eztabaida. Charritton jaunak *larderia* hitzari *Ipar*. oharra kentzea eskatzen du. Oharra idatziz egin dezala eskatu zaio hurrengo egunerako. Nolanahi ere, *autoritario* hitza kendu ala atxiki behar den bozkatu da: bederatzire boto atxikitzearen alde, zortzi kentzearen alde. Gauzak horrela, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Epitafio* baino gustukoago du Peillenek *ilartitz*. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Esteta*-ren parean *ederzale* ezartzea ez da onartu, ez eta ere *kontinental*-en parean *legorreko* ezartzea.

Bestalde, *estruktural* hitza zerrendatik kentzea erabaki da: 11 boto 2-ren kontra.

Urrutia jaunak ere aurkeztu ditu zenbait ohar “nart.” zerrendari buruz:

*Adoptatu* eta *adopzio* hitzen arazoa hurrengo bileran aztertzeko utzi da. Hitzen baten beharra ikusi da, baina beldur izateko da horrelako hitz bat hartuz gero, jatorrari bidea oztopa diezaiokeela. Sarasolari galde egingo zaio hurrengo bileran zergatik utzi dituen hitz hauek kanpoan.

*Arpegio* hitzari leku egitea ez da onartu.

*Eskuadra* zuzenduko da, zerrendan “eskudra” ageri baita. Bide batez, Kintanak *eskuaira*-ri buruzko argitasunak gehitzea nahi du. Ez da onartu.

*Homonimo* eta *antonimo* sartzea onartu da. Baita *kolesterol* hitza ere. Nolanahi ere oharrak kontrolatu beharra ikusi da. Kasu honetan, adibidez, *Med.* oharra gehitzen bada, beste batzuetan ere gehitu beharko litzateke, *epilepsia*-rencan, esaterako. Irizpide bakarrari eustea komeni da: Aduriz jaunari edo, agin dakioke lan hau egitea.

**A-E** zerrendetarako *X.Kintanaren oharren azterketa*.

*Aberri* eta *sorterri* sinonimotzat ematea ez da onartu.

*Abesti* eta *kantu*, eta *abestu* eta *kantatu* ere sinonimotzat eman beharrik ez da ikusi eta ez da onartu.

*Abokatu*-ren sinonimo gisa ematen diren *legelari* eta *legegizon* kentzea erabaki da: *abokatu* hitza bere soilean uztea erabaki da.

*Adi egon*-ekin batera *adi ibili* jartzea ez da onartu.

*Agur* hitzaren adiera argitu beharrik ez da ikusi eta, horrenbestez, ez da onartu oharra.

Ez da onartu *agure zahar* eta *atso zahar* gehitzea.

*Ahal izan*-i buruzko informazio gehiago eskatzen du ohargileak, *ezin*-ekin egiten den bezala. Ez da onartu.

*Aio*-ri esangura eranstea ez da beharrezko ikusi.

*Aitzur*, baserriko lanabesaz gainera, bizarra mozteko tresna ere badela adieraztea eskatzen du ohargileak. Ez da ontrat eman.

*Aiutu* hitzari esangura eranstea ez da onartu.

*Aizkolari* sartzea onartu da, baina *aizkol joko*, ez.

Ohargileak berak erretiratu ditu *aizto/ganibet* eta *aldundi/diputazio* hitzei buruzko oharrak.

*Altxatu*-ren ondoan altzatu\* e. **altxatu** sarrera jartzea ez da onartu: botoetara jo da eta hamaika boto izan dira zerrenda ez ukitzearen aldeko.

*Amankomun* eta *komun*, biak, maila berean sartzearen aldeko da ohargilea. Ez da onartu proposamena.

*Amultsu* hitza sartzea onartu da. Hala ere, *arrai*-ren adiera ematerakoan 'alaia' bakarrik utziko da, zerrendan zetorren 'amultsua' ezabatuta.

*Amona mantangorri* baino egokiagotzat dauka Kintanak *amona mantalgorri*. Ez da onartu.

*Andre*-ren parean andra\* e. **andre** ezartzea ez da onartu: hamaika boto seiren kontra. Honek ez du esan nahi Onomastikan erabiltzen diren *Andra Mari* bezalakoak zi-legi ez direnik.

*Anana* bigarren itzulirako utzi da.

*Anitz*-en kokagunea argitze aldera informazio gehiago eman beharrik ez da ikusi.

*Antropologo* hitza bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Apo* hitzean *Ipar*. eta *Naf*. 'zapoa' eranstea ontzat eman da.

*Aprendiz* hitzari "batez ere *Ipar*." oharra kentzea erabaki da.

*Arbolazain* bigarren itzulirako utzi da.

*Ardi*-ri bigarren adiera gehitzea onartu da (9 boto alde, 3 kontra): 2 Bizk. 'arka-kusoa, kukusoa'.

*Argi*-ren azpisarrera gisa *argi eta garbi* ezartzea ez da onartu.

*Arkeologo* bigarren itzulirako utzi da.

*Arnasa* sarreran *hitz elkarketako* behar du eta ez *hitzelkarketako*.

*Arra*-ren definizioa ematea ez da onartu.

*Arrabio* hitzaren inguruan eztabaida luzea piztu da, zein animalia izendatzeko erabiltzen den ez baitago argi, antza. *Salamandra sp.* erantsiko da, besterik gabe.

Hemen, ordu bietan, bilera eten egin da bazkaltzeko.

Arratsaldean, laueta ekin diote euskaltzainek berriro lanari. Eta X. Kintanak aurkeztutako oharren eztabaidak segitu du.

*Arroz* hitzaren azpisarrera gisa, *arroz(-)esne* sartzea onartu da.

*Artikulatu* hitza bigarren itzulirako utzi da.

Ohargileak berak erretiratu ditu honako ohar hauek: *asiar*, *astrologo*, *astronomo* eta *atara*.

*Atzamar* sarreran ageri den *h. atzapar* ez da zuzena eta horren ordeztu 'hatza' azalpena emango da, besterik gabe.

*Auma* formaren ordeztu *aume* hobetsi da eta hala ematea erabaki.

*Auzo*-ri 3. adiera bat eranstea eskatzen du ohargileak. Bigarren adieran bertan iz. eta izond. dela adieraziko da.

*Azaluskeria*-ren parean *azaluts* nahiz *azal-huts* eskatzen ditu ohargileak. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Azpisarrera* hitza sartzea onartu da.

*Aztiatu* esangura eransteke proposamena ez da onartu.

*Bainu(-)ontzi* sartzea ontzat eman da.

*Baita* soil-soilik ere erabil daitekeenez, hori nolabait aditzera ematea eskatzen du ohargileak. Ontzat eman da. Honela utzi da sarrera: *baita (... ere) / bai eta ... ere*.

*Bar* sarreran “h. taberna, ostatu” eman beharrean honela jartzea onartu da: **bar** ‘taberna, ostatua’.

Zerrendan ageri diren *barne luzego* eta *habearte*, biak, kentzea onartu da.

*Behar izan*-en erregimena argitzeko eskaria ez da onartu

**Beharri Ipar.** h. **belarri** ezarri beharrean *e. belarri* eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

*Bela(-)ontzi* sartzea erabaki da.

*Benda*, *beneno* eta *bengantza*, zerrendan datozen bezala uztea erabaki da.

*Bermatu* sarreraren adierak eta adibideak atzekoz aurrera emanak ageri omen dira. Argiago uzteko, honela emango dira: 1 *da* ad. ‘euskarri hartu, uste osoa izan’ *ukondo- ez leihoan bermatu zen*; *Jainkoaren baitan bermatzen gara*. 2 *du* ad. ‘berme eman’: *erlijioak betiko bizitza bermatzen digu*. 3 *da* ad. ‘saiatu’ *berma hadi lana ongi egiten*.

*Beroki* bere horretan uztea erabaki da.

*Betazpi* eta *begi(-)zulo* sinonimotzat ez ematea onartu da.

*Betun* hitzarentzat bigarren adiera bat (‘asfalto mota’) gehitzea ez da onartu oraingoz. Bigarren itzulirako utzi da.

*Biao* sarreraren adibide bat gehitzea ongi ikusi da: *konde jauna biaoa egiten dago*.

*Bien bitartean* bi aldiz ageri denez, bigarrena kenduko da.

*Bihoztoi* dagoen bezala utziko da. Baita *bobina* sarrera ere.

*Bitarteko* sarreraren ageri den adibidean *hordikeria* behar du eta ez *ordikeria*.

*Blindatu* eta *blindaje* sartzea ez da onartu.

*Bortu*-ren adiera gisa ‘goi mendia’ ezarriko da.

*Brodatu* eta *buru(-)orratz* dauden daudenetan utzi dira. Baita *buzkantz* hitza ere.

*Canberrar* ageri da zerrendan. Kintanaren arabera, *camberrar* onartu zen bere garaian. Hala bada, hala izan bedi.

*Compact disc* zerrendatik kentzea onartu da. Ordain gisa, *disco*-ren azpisarrera gisa, *disco trinko* sartzea erabaki da.

*Darwinista* sartzea ez da onartu.

Zerrendan *epidermis* gehitu da, antza. Batetik hitz honek  $\rightarrow$ s gabe behar lukeela dio ohargileak. Bestetik, *dermi* hitzak ere agertu behar omen luke. *Epidermi* ematea onartu da, forma horretan. *Dermi*, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Desertu* sarrera aldatzea ongi ikusi du batzarrak: **desertu** 'basamortua', besterik gabe.

*Dinosauro* hitza sartzea onartu da.

*Disko* formaren erabilera bultzatzeko, diska\* e. **disko** sarrera gehitzea ongi ikusi da.

*Disketa/diskete* sartzea ez da beharrezko ikusi. *Ditxo* hitza ere ez.

Honako hitz hauek sartzea ere ez da onartu: *drogazale*, *drogazaletasun*, *droga-menpeko*, *droga-menpekotasun* eta *drogoso*.

*Egur* sarrera bere horretan uztea erabaki da

*Entrenatu*, *entrenatzaile* eta *entrenamendu* hitzak sartzeko proposamena ez da on-tzat eman.

**Eki** h. **eguzki** eman beharrean, egokiagotzat jo da bakoitza bere aldetik ematea, nahiz eta *eki* sarrean *batez ere Zub*. 'eguzkia' adierazi.

Elektrikari\* e. **argiketari** sarrera eztabaidatu da ondoren, ohargilearen eskariz. Azkenean bozkatu da: hamar euskaltzain kentzearen alde eta bost atxikitzearen alde. Bigarren itzulirako uztea erabaki da azkenean.

*Emigrante* sartzea ez da onartu.

*Enbusteria* hitzari *Heg*. oharra gehitzea onartu da.

*Entziklopedista* hitza bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Ereserki* dagoen bezala uztea onartu da.

*Eri*-ren orde *erhi* formari leku egitea nahi luke ohargileak. Eztabaida luzearen ondoren, hala ere, oharra erretiratu egin du Kintana jaunak.

**Errefrau** h. **atsotitz** baino nahiago du Kintanak **errefrau** 'atsotitza'. Ez da onar-tu. Zernahi gisaz, B. Oihartzabal jaunak gogorarazi dio "\*" zeinurik ez duten hitz guz-tiak erabilgarri direla euskara baturako. Eta kontu honek oso argi gelditu behar duela *Hiztegiaren* argitalpena egiten denerako.

*Errege* hitzaren deklinabideaz oharrak egitea ez da onartu.

*Erregistro/erregistro* auzia gainerako zerrendaren barruan erabakiko da.

Errez\* e. **erraz** gehitzea ez da onartu. *Erromantze*, *erti*, *ertigintza*, *ertilari* eta *es-karmentu* dauden daudenetan uztea erabaki du batzarrak. Eskeini\* eta eskini\* sarre-rak gehitzea ere ez da onartu. *Eskoladun* sartzea ere ez da on-tzat eman.

*Eskolapio* sartzea on-tzat eman da.

*Eskolau* sarrera kentzea onartu da.

*Eskuarteko* hitzari zerrendan ezarri zaion adiera, 'diru xheca', kentzea erabaki da.

*Eskukada* eta *eskutada* bi sarrera beregain gisa ematea onartu da.

*Espantu* zerrendan datorren bezala uztea onartu da. *Espektakulo*, berriz, zerrendatik kentzea erabaki da, *esperto* hitza bezalaxe.

Espia\* hitz gaitzetsiarekin batera *espioi*, *espiatu*, *espioitza* hitzak sartzeko proposamena egin du Kintanak. *Espioi* hitza sartzea onartu da, baina gainerakoak ez.

*Esplizitoki* zerrendatik kentzea erabaki da.

*Estasi*, *estatika*, *ekstasi* eta abarrei buruzko auzia ekarri du berriro ohargileak euskaltzainen artera. Berriz ere luze joan da eztabaida, azkenean, Euskaltzaindiak bere garaian onartu zuena berresteko: ez da Kintanaren oharra ontzat hartu.

*Estrainio* bere horretan utzi da.

*Etxadi*-ri g.g.er. oharra gehitzea ontzat eman da.

*Etxandre* sarreran ematen den adiera desagokia da, nonbait, *etxandre* eta *etxekoandre* ez baitira gauza bera. Horrenbestez, *etxandre* soil-soilik ematea onartu da.

Euskera\* e. **euskara** gehitzea eskatzen du Kintanak, *erdera/erdara*-rekin hartu den bideari jarraituz. *Erdera*\* sarrera kentzea erabaki da, *erdara* soila utziz.

*Exorzismo* eta *exorzista* formen ordeztu *exortzismo* eta *exortzista* nahi lituzke ohargileak. Bozkatu da eta 12 euskaltzain agertu dira puntu honetan zerrenda ez ukitzearen alde, bi kontra eta bat zuri. Beraz, dagoen bezala utzi da.

*Ezeduki* eta *ezetsi*-ren esangura argitzeko proposamena ez da kontuan hartu.

*Ezta* ... *ere*-ren kasuan *baita* ... *ere*-rentzat onartu den bide bera aplikatzea onartu da: *ezta* (... *ere*) / *ez eta* ... *ere*.

Azkenik, *astrologo*, *arkeologo* eta abarrei buruz zerrenda bat osatzeko proposamena onartu da. Zerrenda hori begien aurrean duelarik, har dezake Euskaltzaindiak behar den bidea.

Azkenik, zerrenda berriak banatu zaizkie euskaltzainei. Horrela, hitz zerrenda osoa dukete eta baita batzordean egindako aldaketa-birmoldaketan zerrenda ere. Zernahi gisaz, A. Urrutiak eskari bat egin du, eztabaida arinago eta zuzenago eramate aldera: hurrengo bileran Sarasolak eta Azkaratek etortzerik ez badute, etor dadila behintat J. A. Aduriz jauna. Onartu da eskaria eta, nolanahi ere, martxoko bilerarako etortzeko eskatuko zaio Adurizi.

Eta horrenbestez, arratsaldeko zazpiak eta hogeian hil honetako bilera bikoitza amaitutzat eman da.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

## AGERIKO BATZARRA

*Donostian, 2000.eko otsailaren 24an*

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 2000.eko otsailaren 24an, eguerdiko hamabi eta erdietan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak Jose Ignazio Aranaren *Egunaria*-ren aurkezpena eta zendu berri diren A. Martinet eta Basarri euskaltzain ohorezkoen omenetan Euskaltzaindiak eratutako ageriko batzarrari. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina eta P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra eta Tx. Peillen euskaltzainak.

Euskaltzain urgazleak, berriz, J. L. Lizundia, M. Atxaga, R. Badiola, G. Barandiaran, J. M. Etxezarreta, J. M. Larrarte, M<sup>a</sup> P. Lasarte, R. M. Pagola eta J. J. Zea-rreta.

Euskaltzain jaun-andre hauez gainera, Iñaki Eizmendi “Basarri”-ren senitartekoak ere bildu dira aretoan.

Mahaian euskaltzainburuaz gainera, P. Altuna, J. A. Arana, J. L. Lizundia eta Rosa Miren Pagola jaun-andreak eseri dira. Diputazioko agintaririk ez da izan, dolu ofizialeko eguna baita.

Lehenbizi, euskaltzainburua mintzatu da, ekitaldiaren berri laburra emanaz. Ondoren, J. L. Lizundia eta J. A. Arana jaunek hitz egin dute Jose Ignazio Aranaren *Egunari*az prestatu duten prologoaz eta epilogoaz. Gero P. Altunak berak azaldu du zer den prestatu duen lana eta gainerako gorabeherak, egilearen bizitzaren zenbait zertzelada barne. Azkenik, R. M. Pagola mintzatu da Deustuko Unibertsitatearen ordezkari gisa Altuna jaunak egindako lanaren merezimendu handiez.

Hilberriei dagokienez, lehendabizi B. Oihartzabalek A. Martinet hizkuntzalariari buruz prestatu txostena irakurri du Charritton jaunak, egileak ez baitu etortzerik izan. Frantziar hizkuntzalariaren lana eta bizitza aztertu ditu eta euskal hitzkuntzalaritzarekin izandako loturak.

Azkenik, J. M. Lekuonak Basarri bertsolari handiaren ohorez prestatutako txostena irakurri du, ohiko zehaztuz eta goxotasunez, bertsolaritzaren historian dagoen lekua eta izan duen garrantzia aipatuz.

Eta besterik gabe, ordu biak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Patxi Goenaga,  
idazkaria

## Bilbon, 2000.eko martxoaren 30ean eta 31an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea, (30ean)  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
P. Salaburu,  
J. San Martin (31n)  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia (30ean)  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea eta  
M. Gorrotxategi, Onomastika  
batzorde idazkaria (lehen gaian)

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko  
egoitzan, 2000.eko martxoaren 30ean eta  
31n bildu da Euskaltzaindia hileroko ba-  
tzarra egiteko.

Ostegunean, arratsaldeko lauak eta ha-  
marrean eman zaio hasiera bilkurari. Par-  
te hartu dutenen izenak ezkerreko zuta-  
bean jasotzen dira. Ezin etorria adierazi  
dute E. Larrek bi egunetarako, J. San  
Martinek osteguneko bilkurarako eta H.  
Knörrek eta A. Urrutiak ostiralekorako.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea.*

Inoren oharrik ezean, ontzat eman dira  
aurreko hileko bilkuretako bi agiriak.

### *Euskaltzainburuaren hitzak.*

Juan Maria Uriarte Donostiako apezpiku  
berriari egindako bisitaz hitz egin du le-  
henbizi euskaltzainburuak. Hilaren 17an  
izan zen eta giro atseginean igaro zen  
dena.

Terence H. Wilbur hizkuntzalari eta euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri  
eman du ondoren. 76 urte zituelarik hil da Los Angelesen martxoaren 7an. Hil berri  
txostena egiteko Andolin Eguzkitza urgazleari eskatuko zaio.

Euskaltzaindiarekin harremanak dituzten Herri aginteen artean ere aldaketak izan  
direla azaldu du Haritschelhar jaunak: Josune Ariztondoren lekua hartu du Xabier Aiz-  
puruak eta honek utzitakoa, berriz, Lorea Bilbao andreak.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatean egin berri diren hauteskundeen ondorioz,  
Euskaltzaindiak Miren Azkarate eta Pello Salaburu euskaltzainak nolabait berreskura-  
tu dituela esan du.

● *Eskuartekoak.*

*Euskaltzaindiaren araudi aldaketa BOE-n.*

Madrileko *Boletín Oficial del Estado* delakoan (martxoaren 4ko alean) argitaratu eman da 272/2000 Errege Dekretua, zeinetan Euskaltzaindiaren araudiko zenbait artikuluren aldaketa ontzat ematen baita. Euskaltzain guztiei eman zaie dekretuaren kopia bana.

*Literatur sariketetarako epaimahaikide proposamenak.*

Urtero Madrilen ematen diren "literatur sari nazionaletarako" Euskaltzaindiaren izenean parte hartuko duten epaimahaikideen izendapena onartu da: poesia arlorako, Lourdes Otaegi; narratziarako, Patri Urkizu; saiakerarako, Jon Kortazar; antzerkirako, Ana Toledo; haur eta gazte literaturarako, M. Jose Olaziregi eta itzulpen sarirako, Lourdes Auzmendi.

"Premio Nacional de las Letras Españolas" delakorako, azkenik, Miren Azkarate izendatzea onartu da.

● *Hizkuntza arauak.*

● *Onomastika: "Lapurdiko udal izendegia" onartzea.*

Mikel Gorrotxategi jaunak egin du aurkezpena, H. Knörr batzordeburuaren ezin etorriagatik. Aurkeztutako ohar guztiak dagokien izenaren azpian bildu dira euskaltzainen lana errazteko eta arazoa argiago ikusteko. Batetik, 1966an Dassancek egindako zerrenda oinarri harturik Euskaltzaindiak 1979an argitaratutako izendegian biltzen diren izenak ematen dira eta, ondoan, proposatzen diren aldaketak. Zerrenda honi buruz iritzia emateko eskatu zaie Iparraldeko euskaltzainei eta horien arabera egin dira zenbait aldaketa proposamen.

*Azkaine/Azkain* hautuak ekarri du lehenbiziko eztabaida. Oihartzabalek ez du ikusten zergatik hautatu behar den bietariko bat, biak erabiltzen direla kontuan izanik. Peillenen ustez, formarik zaharrenari eutsi behar litzaioke, erabilia bada. Eztabaida pisika bat izan da eta azkenean, Oihartzabalek esan du bitasunarendako lekurik ez bada, berak *Azkaine*-ren alde egingo lukeela, hau baita gehien erabiltzen dena. Bozkatu da eta hamaika boto izan ditu *Azkaine* formak bere alde, lau kontra eta bat zuri. Horrenbestez, txostenean proposatzen zen aldaketa ez da onartu: *Azkaine* bere horretan geratu da.

*Biarritz/Miarritze* forma bikoitza onartzea 1994an erabakia du jadanik Euskaltzaindiak.

*Donibane Lohizune* marratxorik gabe ematea proposatzen da txostenean eta hala onartu da.

*Beskoitze* forma ez du atsegin Kintana jaunak, nahiago du *Beraskoitze*. A. Iñigo-ren ustez, badirudi ez dela beti berdin jokatzeko: batzuetan ahozkoari ematen baitzaio lehentasuna. Oihartzabalek erantzun dio esanaz ez dela hori egia eta zerrendan proposatzen diren forma guztiak testu idatzietatik jasoak direla.

*Ahazparne* forma dela eta, *Hazparne* behar duela esan du Haritschelhar jaunak. Horretan ez dela dudarik. Horrela utzi da, hortaz.

*Uztaritze/Uztaritz* bikoteaz ere eztabaidatu da ondoren. Azkenean, *Uztaritze* forma utzi da.

Aurkezpen-eztabaida honen ondoren, zerrenda osoa bozkatu da eta hamalau boto izan dira aldekoak. Beraz, onartutzat eman da.

Herritarren izenak direla eta, lehengo zerrendan ematen zen *doniandar*-en ordeaz, *donibandar* sartu da. Bestalde, zerrendan jasotzen diren zenbait hitzetan ageri den *-uiar* amaieraren ordeaz, *-uar* ematea onartu da: *itsasuar, jatsuar, haltsuar*. Hamasei boto izan ditu proposamen honek.

### ● *Hiztegi Batua.*

Miren Azkaratek, orain arte eskuartean erabili direnez gain beste dokumentu bat aurkeztu du. Jasotako oharrak beste modu batera sailkatzen ahalegindu da eztabaida errazteko asmotan.

Bestalde, otsaileko bilkuran onartutako zenbait aldaketa ez dira, antza, bidezko, batzarrak berak hartutako erabakiaren kontrakoak zirelako. Aurreko bilkuran erabaki zen ez zela gauza berririk gehituko, zerrendako hitzen batean biltzen den informazioak, koherentziagatik, beste nonbait gehitzea eska dezakeen informazioa ez bada. Eta bere garaian eztabaidatuak ere ez zirela ontzat emango. Azkarate andrearen aburuz, ordea, azken bileran ez zen hori erabat errespetatu eta, horrenbestez, orduan onartutako zenbait aldaketa berrikustea proposatzen du.

Xabier Kintanak ez du onartzen lehengo eguneko erabakiak orain atzera aldatzea. Sarasolak erantzun dio esanaz egun hartan erabaki ziren zenbait gauza geure aurreko erabakien kontra aldatu zirela eta oinarri sendorik gabe, aldatu ere.

Otsaileko bilkuran egindako aldaketak direla eta, ontzat eman da M.Azkarateren iritzia:

*Auzo:* iz. kategoria erantsi zitzaion eta onartzekoa da.

*Espetakulo:* ez zegoen hasierako zerrendan. Nazioarteko hitzen zerrendatik sartu zen. Baina Sarasolaren hiztegian *Zah.* dela esaten da. Ez dago arazorik kentzeko.

*Esperto* ere ez zegoen hasierako zerrendan, eta ez zen Nazioarteko zerrendan sartzekoa ere. Ez dago arazorik kentzeko.

*Etxandre* hitza *OEH*-ren arabera, “ama de casa, señora de casa” da. Eta *etxe*-ko *andre*, lehena baino askoz erabiliagoa, datuen arabera. Nahi bada, oraingoz utz daiteke horrela, baina bigarren itzulian berriro aztertu beharko da.

Ondoren “Eztabaidarako ohar berriak” izenburupean bildutako oharrak aztertu dira:

Tx. Peillenen oharren azterketak honako emaitza hau eman du:

*Alegera:* *Ipar.* ‘alaia’

*Bakardade:* *Heg.* behar du

*Balderna: Lap.* behar du

*Bordalde:* 'etxaldea' kenduko da. Horren ordeztu 'borda eta ingurua' ezarriko da.

*Fagot: Mus.* erantsiko zaio.

*Foka: Fam. Phocidae. Sin. Itsas txakur.* Eta *itsas txakur* honen arabera moldatu-ko da.

Andres Urrutiaren oharrak honela gelditu dira:

*Arraingorri* sarreraren "fam." oharra ageri da. Onartu da laburduren zerrendan hau ere jasotzea.

*Arrosel* hitzari izen teknikoa eranstea onartu da: *Pagellus centrodontus*.

*Ber* sarreraren ageri den "junt" laburdura laburduren zerrendan jasotzea onartu da.

*Bistatik alde egin* horrela idatziko da.

*Boa* sarreraren ageri den laburdura, "subfam.", zerrendan jasoko da.

*Brusa/bularretako* sarreraren batean *jantzia* eta bestean *janzkia* hitzak erabiltzea ez du egoki ikusten ohargileak. Hala ere, dauden bezala uztea onartu da.

*Euskal Herria* sarrera zuzentzea onartu da: -a kenduko zaio eta adibidea erantsiko.

*Euskal Autonomia Erkidegoa* sarreraren ere gauza bera: -a kendu behar zaio eta adibidea erantsi.

Ez sarreraren "partikula" ezarriko da.

*Ezdeus:* 1. izond. jarri behar da.

*ezpata(-)belar* sarreraren hitz teknikoa ezarriko da: *Carex pendula*.

H. Knörren oharrak:

*Ailegatu: Herr.* marka erantsiko zaio.

Aitor: *du* ad. erantsiko zaio.

*Aldiri(ak): aldiriko tren* sarrera eman da, baina hobe dirudi *aldiri* sarrera ematea, adibide bat ondoan duela: *Bartzelonako aldirietan*. Eta gero *aldiriko tren* azpisarrera gisa emango da.

*Alegia:* (partikula) behar du.

*Alha:* adibideren bat erantsiko zaio: *Ordenagailua alhan dut*.

*Amama:* ez zaio markarik erantsiko. Zuberoan ere erabiltzen da, Davantek dioenez.

*fio izan: Lgart.* erantsiko zaio.

*Ingurumen* hitza dela eta zalantzak daude, nonbait, bere garaian erabaki zenaz. Nolanahi ere, honako adibide hau erantsiko zaio: *autobideek kalte handiak egiten dizkiote ingurumenari*.

X. Kintanaren oharra:

*-en fabore* azpisarreraren ordeztu *-en fabore(tan)* nahiago du Kintanak. Erabilerak aztertuz, bi azpisarrerak eman daitezke, biak ugari erabili baitira.

*Gainbegiratu bat egin.* Kintanak *egin* eta *eman*-en arteko zalantza agertu du. Ibiñagabeitiak *eman*, Mitxelenak *egin*. Biak eman daitezke.

*Gaizo:* *Gaizo ni!* adibidea erantsiko da.

*Gazur:* *Gaztari gazura atera; odol gazura* adibideak sar daitezke, azken *-r* hori biguna dela erakusteko.

*Goratasun* sarreraren *Ama Birjinaren goratasuna* jarriko da adibide gisa, *andrede-na Maria*-ren ordeztu.

*Harrezkero:* *harez gero\** emango da sarrera gisa eta ez *harez\** bakarrik.

*Hedexuri:* ‘jendarrea’ erantsiko zaio eta *Lgart*.

*Hego:* 2. ‘haize-mota’ behar du, parentesia kenduta.

*Ipotx:* sartzekoa da.

Andres Urrutiaren oharra:

*Film* bere lekura eramango da, alfabeto ordenaren arabera.

*Funditu* sarreraren ageri dena *bonbilla* izango da eta ez *bonbila*.

*Has:* *buru-has* emango da sarrera gisa *buruhas*-en ordeztu eta *has* sarrerako adibideetan, *mahunga-has* ipiniko da, gero hala baitator *mahunga* sarreraren.

*Igel:* izen zientifikoa gehituko zaio: *Fam. Ranidae* eta *Hylidae*

*Komuniatu:* paradigma osoa eta erregimena gehituko da. *du* ad. dela esango da.

*Larri* sarreraren, 2. adieran “(estutasunekoa)” emango da eta ez “estuasunekoa”.

*Pitean:* *txitean-pitean* behar du.

*Potka:* bere lekura eramango da

*Postposizio:* laburduretan ere *-t* eta guzti azalduko da.

*Sagarrondo:* izen zientifikoa erantsiko zaio.

*Sekzio:* laburduren zerrendari *Zientz.* laburdura gehituko zaio.

*Sormen:* bere lekura eramango da.

*Suspense:* laburduren zerrendari *Zin.* erantsiko zaio.

Txostenaren B atalera pasatu aurretik, otsaileko batzarrean aurkeztu baina E letrairaino bakarrik onartu zen “Hiztegi Batua. Aldaketa-birmoldaketan berriematea (III)” izeneko dokumentua hartu dute hizpide euskaltzainek. F-Z arteko zerrendan egin diren aldaketak eta egokitzapenak ikusi eta ontzat eman dira. Dena dela, X. Kintanak *batbedera* hitza hartu du ahotan eta zerrendan sartzea eskatu. *EGLU*-n hitz hori jasoa da-

goenez, sartu beharrekotzat ikusi da, nahiz eta nola idatzi behar den ez dagoen oso argi. Azkenean, bozkatu da eta hamasei boto izan dira **batbedera Ipar**. izord. zerrendan ezartzearen aldeko.

*Horrenbestez* hitzari buruz ere izan da eztabaida, sarrera beregainik ba ote dagoion ala ez. Azkenean, baietz erabaki da. Baina, *hartara* aditzondoaren pareko lirakeen *horretara* eta *honetara* kendu egingo dira zerrendatik oraingo. Bigarren itzulirako hobeto aztertu beharko da hitz hauen kontua.

Ondoan, eztabaidaren gidari jardun duen Miren Azkaratek G/J grafien arazoaz eta *-ontzi* eta *-harri* osagaiak dituzten hitz elkartuen idazkeraz diharduen txostenaren azken orrialdeari erreparatzeko eskatu die euskaltzainei. Horretaz ostiraleko bilkuran hartuko da erabakia.

Eta gaueko bederatzia eta laurdenetan amaitu da osteguneko saioa.

\* \* \*

Ostiralean goizeko hamarrak eta hamarrean hasi da batzarra. Oraingoan bere garaian eztabaidatuak izan bide diren kontuak ekarri dira mahaira. Lehenbizi, otsaileko bilkuran egindako aldaketez atzera gogoeta egitea eskatzen da Azkarateren dokumentuan.

Otsaileko bilkuran gertatua prozedurazko hutsegite bat izan zela pentsatuz, zuzendu beharrik baden ala ez ikusi nahi izan da. Horretarako, botoetara jo da: bederatzia boto izan dira zuzentzearen aldeko, hiru kontrako eta bost zuri. Horrenbestez, otsaileko bilkuraren aurreko egoerara itzultzea erabaki da. X. Kintanak, orduan, aurreko bileran egindako defentsa bera egiteko eskubidea aldarrikatu du. Eztabaidaren ondorioz, aurreko aldaketa guztiak atzera bota dira, *atzamar* sarrerari eta *elektrikari* hitzari dagokiena izan ezik. *Atzamar* sarreran, bigarren adiera gisa *Bizk*. 'hatza' ezarriko da. *Elektrikari* hitzari buruz ere lehen hartu zen erabakiari eutsi zaio.

Ondoan, gaur eztabaidatzeko ekarri diren oharrak aztertu dira.

Tx. Peillenek erretiratu egin ditu bere oharrak.

H. Knörren oharrak ere ez dira onartu, baina **ala-2** sarreran parentesi artekoa honela joango da: ("baina ik. *Alafede, alajainkoa*).

X. Kintanaren oharren azterketaren ondorioa honako hau izan da:

*garatxa, garitxa* formak sartzea onartu da: *garitxa*\* e. **garatxo** eta *garatxa*\* e. **garatxo**.

*Giputz* eta *gipuzkoar* sarrerak direla eta, bakoitzari bere lekua emango zaio: **giputz** 1. 'gipuzkeraz mintzatzen dena'; 2. 'gipuzkoarra'. Eta **gipuzkoar** (herritarra).

*Goroldio*: klasea, familia, aurretik ematen da oro har. Dena den *Cl*. behar luke.

*Hel*: *Hel guri!* adibidea erantsiko zaio.

*Hildako* sarrera honela utziko da: **hildako** iz. *Heg. Hildakoen artean* 'hilen artean'.

*Hosto galkor* kendu egingo da. *Hosto erorkor* bere lekuan utziko da.

*ibai(-)adar/ ibaiadar*: *ibaiadar* elkartuta idaztea erabaki da, eta bere lekura eramatea.

*Indoeuropea*: 47. arauan *indoeuropea/indoeuropar hizkuntza* ematen denez, honela agertuko da zerrendan:

**indoeuropar** (herritarra); azpisarrera **indoeuropar hizkuntzak**.

**indoeuropea** (hizkuntza).

*Izterbegi* sarrera aldatzea erabaki da: **izterbegi** batez ere *Zub.* 'etsai pertsonala'.

*Jubilazio*: Urrutiaren proposamena izan zen bere garaian jubilazio\* e. **erretiro** ezartzea, eta hala onartu zen 1998ko urtarrileko bileran (*Euskera* 43, 168. orr.). Gauzak dauden bezala utziko dira. Bide batez, **erretreta** hitzari *Ipar.* marka ezarriko zaio.

J.M. Satrustegiren oharretatik *lamia* hitzari dagokiona bozkatu da. Hamabost euskaltzain agertu dira *lamina* formaren alde; lau, *lamia*-ren alde. Hortaz, *lamina* forma sartuko da zerrendan.

A. Urrutiaren oharrak ere ez dira onartu.

Beti ere iritsitako oharrekin Miren Azkaratek prestatutako txostenari jarraituz, "C. Informazio berria" izeneko atala aztertu da ondoren.

Otsaileko bilkuran egindako aldaketei buruz honako hau izan da emaitza:

*bainu (-) ontzi* sartu zen otsailekoan. *OEHN* ez dago horren lekukotasunik. Dena dela, *bainuontzi* forman sartzearabaki da.

*bela (-) ontzi* hitz berria izan arren, *belaontzi* sartzearabaki da.

*disco trinko* azpisarrera hau gehitzeko datuak hobeto aztertu beharko lirateke. Hitz berria da, eta ez da EEBSen 10. heinera arteko hitzen zerrendan azaldu. Beraz, bigarren itzulirako uztea onartu da.

*Dinosauro*: hala ematea onartu da bilkuran.

*Epidermis*: ez zetorren hasierako zerrendan. Nazioarteko hitz modura gehitu da. Baina aztertu egin beharko litzateke zein formatan erabiltzen den. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*espia, espioi*: *espia*\* e. **espioi** ematea onartu da. Eta gero *espioi* bere lekuan sartu da.

Eztabaidagai diren ohar berrien zerrenda aztertu da ondoren. Peillenen oharrei dagokienez, *arrazakeria*, *autopista* eta *bedar*, berriak izanik, ez dira orain sartzekoak.

*faktura*: ez da orain sartzekoa, *ordainagiri* sin. *faktura* ere ez baitago.

*gerok*: absolutiboa bakarrik sartu da, normala denez.

*gorbera*, *haize gorria*, *haize beltza*, *hegatx-2* eta *horitza*-ri buruzko oharrak ez dira orain sartzekoak.

*min*: (2. izond.) *adiskide mina* adibidea erantsiko da, bigarren adiera horretarako.

*uztar*: oharrean eskatzen den adiera zehaztapena hiztegia osatzean gehitzekoa da. Ez da, horrenbestez, onartu.

H. Knörren oharrak:

*absurdo*: *zentzugabe* hitza hobesteko proposamena ez da orain gehitzekoa.

*aditz-erro*: *aditzoin* sartu denez, ez da orain sartzekoa.

*aditz-izen*: ez da orain sartzekoa.

*baseliza*: *ermita* hobesteko proposamena ez da orain sartzekoa.

*basozain*: *oihantzain* sinonimotzat emateko proposamena ere ez da orain sartzekoa.

*elkarretaratze*: ez da orain sartzekoa.

*geure*: Linschmann-Aresti delako legearen arabera eskatzen den gomendioa ez da gorkio hiztegiari.

*giro*: azpisarrerak egonik, ez da adibideen beharrik ikusten.

X. Kintana:

*laboratu* hitzari "h." oharra kentzea ez da onartu.

*laboragarri*, *laboratzaile*: *laboratu Zah.* bada, ez du zentzurik familia osatzeak. Beraz, ez dira sartuko.

*fietro*: ez dago hain argi nazioarteko hitzak, formaz, berdinak direnik. Ezin da orain sartu.

*futxo*: (harridura adierazteko) gehituko da.

*gezteran egin / ibili*: berriak direnez, azpisarrera hauek sartu aurretik, hobeto aztertu behar dira.

*gisu*: 'karea' da. Adibideak ikustea baino ez dago. Definitzaile hori emango zaio, beraz.

*gotzain*, *gotzaindegi*...: *apezpiku* eta abarren sinonimo direla adierazteko proposamena hurrengo itzulirako utzi da, izatekotan. *Apezpiku* sarreran ez da sinonimorik eman.

*granada*: definizio ez denez, ez da komatxo artean ematekoa. Fruitu adiera berria da, bigarren itzulirako utzi da, datuak hobeto aztertu ondoren.

*grina*: eskatzen den 2. adiera, 'zaldi, txerri eta basurdeen ile latzak', hurrengo itzulirako, izatekotan.

*harem*: bigarren itzulirako, berria baita.

*hipnotiko*, *hipnotizatu*...: ezin dira orain sartu.

*hipotetiko*: ezin da orain sartu.

*hormirudi*: ezin da orain sartu.

*iberiar*: erantsiko da, *iz.* eta *izond.* kategoriak emanaz.

*inpresio*: ez da orain sartzekoa

*isun*: *isuna barkatu* azpisarrera ez da orain sartzekoa; hobeto aztertu behar dira datuak.

*izterbegigo*: ez da orain sartzekoa.

*jakitun*: *jakitun egin*, *jakitun egon*, *jakitun ipini* azpisarrerak eranstea onartu da.

*jardunean egon*, *jarduneko...*: bigarren itzulirako utzi dira.

Ondoren, zintzilik utzia zen *xabalina* sarerrerari buruzko txostena aurkeztu da. Kontua *xabalina* ala *txabalina* behar duen litzateke. *Xabalina* forma onartu da aho batez.

*Erabaki beharreko beste auziak.*

*G/f arazoa duten hitzak.*

Mailegu berriak, oro har, -g- grafiarekin emango dira. Beraz, -j- grafiarekin arau-tuetatik aldatzekoak izango lirateke: *degeneratu*, *diligentzia*, *erregistro* eta *original* idatziz. Eta erabaki gabe utzitakoen artean, -g- grafiarekin beharko lukete beste hauek ere: *prestigio*, *pribilegio*, *sakrilegio*.

Bestalde, ahoskera araua pitin bat "leundu" beharra dakar horrek. Dagokion arauan ageri den aditza aldatuz konponduko da kontua. Araua honela mintzo da: "<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*)..." Horren ordeaz, beraz, beste hau emango da: "<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar litzateke ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*)..."

-ontzi eta -harri

Barne koherentziaren arabera, bigarren osagaitzat *harri* eta *ontzi* dutenak bildu dira. Onartu den proposamena honako hau izan da: *kareharri* eta *segarri* elkarturik ematea, *latsarri* eta *mugarri* bezala. *Iman* (-) *harri* ez litzateke aldatuko, -nh- multzoa eragozteko, ezta *behaztopa* (-) *harri* ere horrela erabili baita. Gainera, *botarri* / *bota-harri* eztabaidatu da eta bozkatu: zortzi boto bigarrenaren alde eta sei lehenaren alde. Beraz, *bota-harri* onartu da.

*Ontzi* bigarren osagai dutenekin, onartu den proposamen hau izan da: a) lehen osagaia silaba batekoa edo bikoa denean, elkarturik idaztea. Beraz: *baleontzi*, *loreontzi* eta *orratzontzi*; baita *teontzi* eta *laketontzi* ere. b) Lehen osagaia hiru silabakoa denean, ez da elkarturik idatziko.

*Ontzi*, adiera metaforikoa duenean, elkarturik idatziko da. Beraz, aldatu beharrekoak dira *negarrontzi* eta *gezurrontzi*.

*Hiztegi Batuaren argitalpenaz.*

*Hiztegi Batua* onartutzat eman da, horrenbestez. Gero, argitaratzeari buruz mintzatu dira euskaltzainak. Liburuki berean hiztegiak gainera beste arauak argitaratzea ere egoki ikusi da. Pello Salaburu arduratuko da, Sarasolaren eta Aduriz jaunen laguntzaz,

Arauak argitalpen berri honetarako prestatzeaz. Euskaltzainburuaren sarreraz aparte beste sarrera bat ere egingo zaio, beharrezko azalpenak bilduko dituen. Sarrera hau Sarasolaren esku utzi da eta hamar bat egunen buruan helaraziko zaie testua euskaltzainei, dagozkien oharrak egin ditzaten. Honetarako epea ere ezarri da: apirilaren hamazazpirako egon behar dute ohar horiek Pello Telleriaren eskuetan, posta elektronikoz, ahal dela. Horrela, Euskaltzaindiak azken onarpena emango lioke argitaratuko den lanari eta hortik aurrera argitalpenaren babesle den BBVA Fundazioaren esku jarriko litzateke testu osoa.

*UEMA auzia dela eta, J. San Martinen eskaria.*


San Martin jaunak Euskaltzainburuari gutun bat egin dio UEMA-k jaso duen epaiaren aurrean Euskaltzaindiak babesa eman behar liokeela aldarrikatuz. Ontzat eman da proposamena, baina hori bideratzea Jagon saileko Sustapen batzordearen esku uztea egoki ikusi da, Urrutia jauna bileran ez bada ere. Euskaltzaindiak ahala emango lioke batzordeari Euskaltzaindiaren izenean egoki den erantzuna presta dezan. Aho batez onartu da proposamena.

Eta horrenbestez, ordu biak laurden gutxitan amaitutzat eman da hil honetako bilerara.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*



# BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO

AÑO CCCXL

SÁBADO 4 DE MARZO DE 2000

NÚMERO 55

ESTE NÚMERO CONSTA DE DOS FASCÍCULOS  
(Fascículo segundo encartado)

FASCÍCULO PRIMERO

**Real Academia de la Lengua Vasca. Estatutos.**—Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los Estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, aprobados por Decreto 573/1976, de 26 de febrero.

A.9 9149



MINISTERIO  
DE LA PRESIDENCIA

**4328** REAL DECRETO 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los Estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, aprobados por Decreto 573/1976, de 26 de febrero.

Los vigentes Estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia fueron aprobados por Decreto 573/1976, de 26 de febrero. No obstante, los nuevos proyectos, actividades y métodos de trabajo de la institución justifican la necesidad de una mayor flexibilidad organizativa, propósito fundamental al que responde la presente reforma.

En lo que se refiere a los fines estatutarios, solo se han querido efectuar aquellas modificaciones concretas necesarias para adecuarlos a la nueva realidad, al existir cátedras de lengua y literatura vasca en algunas universidades y dado lo establecido en el artículo 6.4 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, así como el artículo 3.3 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, aprobado por el Parlamento Foral de Navarra, que reconocen a la Real Academia como institución consultiva oficial.

Por otra parte, para una mayor eficacia organizativa, se establece que los cargos de la institución tengan una duración de cuatro años, ya que el actual mandato bienal resulta demasiado reducido, lo que especialmente se ha evidenciado en el caso del funcionamiento de la Junta de Gobierno.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Educación y Cultura, previo informe del Instituto de España y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 25 de febrero de 2000,

#### DISPONGO:

**Artículo único.** *Alcance de la modificación.*

Se modifican los artículos relacionados a continuación de los Estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, aprobados por Decreto 573/1976, de 26 de febrero, quedando redactados en los términos que se indican:

«Artículo 1.

i) Promover los estudios de filología y lingüística impulsando la creación de cátedras de lengua y literatura vasca.

j) Como institución consultiva oficial en materia de lengua, expedir los oportunos certificados, informes y dictámenes.»

«Artículo 5.

La Academia contará con una Junta de Gobierno, compuesta del Presidente-Director, de un Vicepresidente, de un Secretario y de un Tesorero, así como de los Presidentes de la Sección de Investigación y de la Sección Tutelar.

Todos habrán de ser miembros de número. El cargo de Vicepresidente podrá ser desempeñado simultáneamente, bien por el Presidente de la Sección de Investigación, bien por el de la Sección Tutelar.»

«Artículo 15.

La institución tiene su sede en Bilbao. Su domicilio actual es plaza Nueva, número 15.»

«Artículo 17.

Las Juntas de la institución podrán ser ordinarias y extraordinarias, públicas o privadas. Todos los meses se celebrará en principio alguna de estas reuniones, y a ellas deberán asistir todos los académicos de número. En caso de no poder hacerlo, deberán excusar su ausencia.

Artículo 18.

En las sesiones privadas ordinarias se tratarán cuestiones internas y cuestiones académicas. Cuando se traten cuestiones académicas, podrán asistir también los académicos honorarios y correspondientes, con voz, pero sin voto.

Artículo 19.

Las sesiones públicas se celebrarán con motivo de la recepción y tomas de posesión de los nuevos académicos de número, homenajes, conmemoraciones y actos, en general, que a juicio de la Junta de Gobierno deban ser revestidos de especial solemnidad.

Artículo 20.

Las sesiones extraordinarias serán convocadas exclusivamente por decisión de la Junta de Gobierno, que estará obligada a convocarla cuando lo soliciten por escrito cinco académicos de número.»

«Artículo 25.

Cuando se trate de asuntos previamente declarados importantes por el Presidente-Director será preciso que la propuesta obtenga, en primera convocatoria, la mayoría absoluta de los votos de los académicos de número; en segunda convocatoria, en cambio, será suficiente la mayoría simple.»

«Artículo 27.

Los fondos de la institución estarán constituidos:

a) Por las subvenciones y donativos del Estado, Comunidades Autónomas, Diputaciones Forales y Ayuntamientos, así como de instituciones, asociaciones y particulares.

b) Por el producto de las publicaciones y trabajos de la Academia.

c) Cualquier otro ingreso que la Academia pueda obtener de la explotación de su patrimonio.

Artículo 28.

Los cargos de la Junta de Gobierno se proveerán por cuatro años. Los nombrados pueden ser reelegidos.»

«Artículo 36.

La recepción de los nuevos académicos de número se efectuará en sesión pública. El académico electo pronunciará el discurso de ingreso y será contestado por un académico de número.»

«Artículo 40.

La Academia publicará un boletín periódico, donde figurarán, juntamente con trabajos lingüísticos y literarios, las actas y acuerdos de la institución. Asimismo, editará trabajos que concuerden con sus fines.

Artículo 41.

Las disposiciones de estos Estatutos serán desarrolladas en los reglamentos oportunos. La Academia tendrá facultad para desarrollar las disposiciones de estos Estatutos en el reglamento interno, así como en los distintos reglamentos especiales.»

**Disposición final única.** *Entrada en vigor.*

El presente Real Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

Dado en Madrid a 25 de febrero de 2000.

JUAN CARLOS R.

El Ministro de Educación y Cultura,  
MARIANO RAJOY BREY

## 2000. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

*Bilbao, 1999-XII-16*

*Jose Luis Lizundia,  
idazkariorde-kudeatzailea*

Bame Erregelen arabera, urte amaierarantz, hurrengo urteko batzar egutegi proposamena Zuzendaritzara aurkeztea dagokit. Ohi bezala, horretarako euskal bibliografiari begirada zabal bat eman ondoren hil honen 2an aurkeztu nion eta haren iradokizunak kontuan izanik, gaur, abenduko hileroko batzarrera dakart.

Ospakizunei dagokienez, heldu den urterako hauek atzeman ditut: Gerhard Bähr aleman jatorrizko legazpiar euskaltzain urgazle eta ia euskaltzain oso izatera iritsi zen euskalariarena; Andres Iñigo Ariztegi euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia, eta Iruñerriko *San Fermin* ikastolaren 30. urteurrena eta *Nafarroa Oinez* dela eta, egindakoa.

Bestalde, saiatu naiz mendeurren edo ospakizun txikiren bat bilatzen, hileroko batzar edo bestetan egitarautu beharrean, batzordeen bilerekin txertatzeko. Horrela egin dugu aurten Mañarian, Zuzendaritzaz gain, Literatura Ikerketa eta Onomastika batzordeak bilduz, Errose Bustintza "Manariko" idazlearen mendeurrenean, urriaren 21ean eta 22an. Uste dut hori dela bidea, zeren eta zenbait aldiz euskaltzian batek baino gehiagok eta kanpotik ere, eskatzen badigute, ahal delarik, hileroko batzarrari etekin gehiago ateratzeko, hobe dela, egoitzan, batez ere, edo ordezkaritzetan biltzea. Horrez gain, informatika ezarpenaren ondorioz, egoitzako areto nagusia, aurrerapen tekniko informatiko guztiekin hornitua izango da, hileroko batzarrari etekin akademiko gehiago ateratzeko. Batzorde gehienek, bestalde, Donostiako ordezkaritzan biltzeko aukera dute eta baliatzen dira horretarako, leku aproposa delako, hilerokorako leku gutxiegi baldin badugu ere, eta Diputaziora joan beharra izan, azaroan bertan gertatu zen moduan.

Apirileko azken ostirala, Arabako zaindariaren eguna da, San Prudentzio eta Bazko Astea; aurrekoa ere, 21a, Ostiral Santu. Horregatik bada, eta Legazpiko Udal eta elkarteei so eginez, maiatzaren 5ean, lehen ostiralean, bertan egingo genuke, apirilari dagokion bilera. Lehen ere, horrela inoiz egin da, hilabete baten data desegokia izanez gero, hurrengo hileko hasierako eta amaierako asteetan bilduz.

Andres Iñigorekin hitz egin ondoren, berari baitagokio eguna eta tokia proposatzea, maiatzaren 26-27an izango litzateke; tokia, ordea, oraindik ez du ziurtatu; Iruñean, Foru Diputazioan, edo nortasun aitortua duen leku baten; edo, bestela, nahiago luke bere sorterriko Udaletxean, Iturenen, egitea.

Irailakoa jadanik eskatua du San Fermin ikastolak Zizur Txikin egitea. Iruñean hainbeste aldiz bildu bada ere Euskaltzaindia, Iruinerriko beste inora ez da joan. Horretarako Zizur Txiki egokia litzateke eta ikastola hori Nafarroan aintzindari izan da alderdi askotatik. Hor, egin ziren, bestalde, euskalduntze ikastaro trinkoak 1971 eta 1972. urteetan. Bestalde, urte askotan, hor izan da Jesus Atxa, euskaltzain ohorezkoa, zuzendari. Iraila, gai batez edo bestez, jardunaldiren bat egiteko data aproposa eta ikastola hau leku erosoak litzateke.

Abenduaren 28-29an, Herri-Literatura azpibatzaordeak bere VI. Jardunaldiak antolatzeke asmoa du. Lehendabizikoak 1991n, kontapoesiaz, Billabonan egin ziren; II.ak, 1993an, herri narratibaz, Donostian; III.ak, 1995ean, ahoz-kotasunaz, Oiartzunen; IV.ak, 1997an, paramiologiak, Durangon eta V.ak, azkenak, 1998an, herri antzerkiak, Tolosan. Jardunaldiak gai bati buruz egin dira eta heldu den urtekoak *euskal esaerei* buruz programatu ditu Justo Maria Mokoroaren omenez, Bilbon. Egoitza hautatu da kokagunetzat, zeren eta, nahiz eta Tolosakoa izan, bere bizitza gehiena Bilbon egin baitzuen.

Udaberri beranduan, Hiztegi Batuaren lehen itzulia bukatu bezain laster, lexikografiak, hiztegi gintzak, alegia, jardunaldiren bat antolatu beharra ikusi du Zuzendaritzak, oraingoz data jakinik gabe. Lehendik ere Hondarribian (1981), Lekunberrin (1986), Plentzian (1987), Bidarrain (1988), Uitzin (1988), Aia-Laurgainen (1991) eta Saran (1991) bildu da Euskaltzaindia hiztegi gintzak, orokorki, edo, bereziki, aldiro, LEF, EEBs edo Hiztegi Batuaz aritzeko.

Gehigarria: Pierre Charritton, Iparraldeko ordezkariak “in voce”, egun egin duen proposamena onartzen da. Ondorioz, uztailaren 21eko bilkura Donibane Lohizunen egingo litzateke, bertako auzapez, idazle eta euskaltzale suhar izan zen Albert Goienetxeren omenez, haren heriotza-mendeurrenkari.

Beraz, 2000. urterako egutegi hau birresten da:

- Urtarrilaren 28an, egoitzan.
- Otsailaren 25ean, Donostian.
- Martxoaren 31n, egoitzan.
- Maiatzaren 5 eta 6an, Legazpin.
- Maiatzaren 26 eta 27an, Nafarroan.
- Ekainaren 30ean, egoitzan.
- Uztailaren 21ean, Donibane Lohizunen.
- Irailaren 29 eta 30ean, Zizur Txikian.
- Urriaren 27an, egoitzan.
- Azaroaren 24an, Donostian.
- Abenduaren 28 eta 29an, egoitzan

**HITZARMENAK**



**Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia:  
1999.eko hitzarmena**

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea den Pello Salaburu Etxeberria jaunak eta Euskaltzainburua den Jean Haritschelhar jaunak, 1999ko ekainaren 16an, Bilbon bildurik, honako hau erabakitzen dute:

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Euskaltzaindiak lankidetzaz *hitzarmena* sinatua dute elkarlana sustatzeko eta bi erakundeetako kideentzat interesgarri izan daitezkeen lanen argitalpenak bultzatzeko. Lan horietarako 8.000.000 ptako dirukopurua jarriko du EHUK eta Euskaltzaindiak jartzen di-tuen baliabideak beste horrenbestean baloratzen dira. Hau egitea erabaki zuen erakunde bien jarraipen batzordeak bere azkeneko bilkuran, 1999ko ekainaren 2an.

Honako hauek dira dirukopuru honekin bideratzen diren lanak:

|                                                                   |                      |
|-------------------------------------------------------------------|----------------------|
| 1. <i>Hitz Elkarketa - II</i> (argitalpenaren azken prestaketa)   | 550.000              |
| 2. <i>Euskal Gramatika - Lehen Urratsak - V</i>                   | 2.500.000            |
| 3. <i>Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental - I</i> | 2.700.000            |
| 4. <i>Orotariko Euskal Hiztegia - Corpusaren CDROM</i>            | 2.250.000            |
|                                                                   | <hr/> 8.000.000 pta. |

Agiri hau sinatzen denean ordainduko dizkio EHUK Euskaltzaindiari 4.000.000 pezeta, aipatu kopuruaren erdia eta, beste erdia, aurtengo urtea amaitu baino lehen.

Eta hau sinatzen da Leioan eta Bilbon, 1999ko ekainaren 16an.

Pello Salaburu Etxeberria jauna,  
Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorea

Jean Haritschelhar jauna,  
euskaltzainburua



## **EUSKALTZAINDIA ETA UZEIren arteko LANKIDETZA-HITZARMENA**

### **BILDURIK**

Batetik,

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Euskaltzainburua, Euskaltzain-  
diaren izenean.

Bestetik,

JAVIER SAIZAR BADIOLA, UZEIko lehendakaria, UZEIren izenean.

Alderdi biek aitortzen diote elkarri *hitzarmen* hau sinatzeko ahalmena,  
hori dela eta, honako hau

### **ADIERAZTEN DUTE**

1. Euskaltzaindia instituzio bat dela, 1918. urtean Araba, Gipuzkoa, Na-  
farroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua, besteak beste xede  
hauek dituelarik:

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batu-  
ra heltzeko lan egitea.

2. Hezkuntza Ministerioak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bidez  
Euskaltzaindia eta honen Arautegia onartu zituela, Erret Akademia legez ofi-  
zialduz.

3. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ere aholkularitza ofizia-  
la aitortu diotela bakoitzaren legerian.

4. UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) 1977an eus-  
kararen modernizazioaren alorreko ikerketa lanean jarduteko sortu zen iraba-

zi asmorik gabeko erakundea dela eta 1989an Onura Publikoko aitortpena jaso zuela Eusko Jaurlaritzatik.

5. UZEI, Ekainaren 16ko 226/1987 Dekretuaren arabera eta berariazko lankidetzaren hitzarmena izenpetuz, Eusko Jaurlaritzaren Babespeko Elkartetik bihurtu zela hizkuntza plangintzazko ikerlanean aritzeko.

6. Herri-aginte eta erakunde ezberdinek, hasieran bakarka eta ondoren geroz eta elkarlan estuagoan, hainbat neurri hartu dituztela azken urteotan UZEIren ekintzak sustatzeko.

7. Euskararen normalkuntza bizkortzeko asmoz, hitz altxorra aztertu, finkatu eta normalizatzeko oinarriak jartzen ari dela Euskaltzaindia, UZEIrekin lankidetzan, eta jarduera horrek herri-aginteen eta erakundeen diru-babesa duela.

8. Urteetako lankidetzan, parte zuzena izan duela UZEIek Euskaltzaindiaren Hiztegi gintza alorreko proiektuetan, honen epe luzeko plangintzaren barruan (ikus *Euskera* XXXI (2. aldia), 127-142) zehaztu izan zaizkion egitekoetan; horrela,

a) Euskaltzaindiaren gidaritzaren akademikoaren pean, EEBS proiektua (ikus *Euskera* XXXII (2. aldia), 343-348) gauzatuz joan da 1987az gero, XX. mendeko euskal testuen inbentario sailkatua eginez, lagina definituz eta jaso beharreko testu-zatiak jaso, egituratu eta lematizatuz;

b) eta 1992az gero, Hiztegi Batuaren lanketan (ikus *Euskera* XXXVI (2. aldia), 1135-1145) esku hartu du, Batzorde/Lantaldeen langaiak prestatuz, horien bilerekin arduratuz eta horien ekarriak Euskaltzaindiari eta gizarteari helaraziz.

9. Lankidetzaren honi jarraibidea ematea dela erakunde baten gogoan, ahalik eta etekinik onuratsuen atera ahal izateko urteotan bildu den eskarmentuari, metatu den informazioari eta lan egiteko moduez ikasi denari, ondoko urteetako egitasmo berriak elkarrekin gogoetatuz, aztertuz eta landuz.

10. Euskaltzaindiari dagokiola osorik Hiztegi gintza alorreko gidaritzaren akademikoa; lankidetzaren bestelako alderdiak modu zuzenagoan bideratzeko, berriz, erakunde baten arteko harreman estuagoa finkatu nahi dutela, hitzarmen baten bidez.

## HITZARTZEN DUTE

### 1. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da, hiztegi gintza alorreko lanetan, Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko harremanari eta lankidetzari oinarriak finkatzea.

## **2. Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen honen indarraldia hiru urtekoa izango da, eta hitzarmenkideek hala erabakitzen badute, luzatu ahal izango da indarraldi hori.

Abiaburu-*hitzarmen* honetan ezarritakoaren kaltetan joan gabe, urtean urteko protokolo erantsiak izenpetuko dira eta honi atxikiko, protokolo horietan zehaztuz urte bakoitzeko eginbeharrak.

## **3. UZEIk bere gain hartzen dituen betebeharrak**

3.1. UZEIren betebeharrak orokorrak hauek izango dira: batetik, euskarak azken urteotan lexiko-berrikuntzan egin duen bidearen deskribapen ahalik eta zehatzena eta objektiboa eskuratzea eta, bestetik, Euskaltzaindiak etorkizunean egin beharreko Hiztegi Arauemaileranzko bidean dagokion batzordeari behar den informazioa eta prestalana eskaintzea, hartarako azpiegitura eta datu-base lexikografikoa mantenduz eta osatuz.

3.2. Betebeharrak orokorrean gain, urtean urteko protokolo erantsian onartutako proiektuak burutuko ditu UZEIk horien xede, kronograma, baliabide eta aurrekontuen arabera.

3.3. UZEIk hitzematzen du, halaber: a) urtero hurrengo urtean egin beharreko lanen aurrekontua aurkeztuko diola Euskaltzaindiari, lantaldearen osaketa eta kostuak zehaztuz; b) urtea amaitzean, aurrekontuaren likidazioa eta jasotako dirua zertan erabili den azaltzen duen txostena aurkeztuko diola Euskaltzaindiari.

## **4. Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen betebeharrak**

4.1. Esku arteko lanak amaitu baino lehen, Euskaltzaindiak gogoeta egingo du lan horien jarraipenaz eta Hiztegi gintzaren alorrean egin beharreko urratsaz, eta horiek gauzatzeko orduan arreta berezia eskainiko dio UZEIren eskarmentuari eta lankidetzari.

4.2. Euskaltzaindiak urte bakoitzeko protokoloan erabakitako diru-kopurua emango dio UZEIri epe hauetan:

- Diru-kopuru osoaren erdia urtarilaren 31 baino lehen.
- Diru-kopuru osoaren beste erdia ekainaren 30a baino lehen.

## **5. Prozedura**

5.1. Hurrengo urteko lan-programak eta aurrekontua irailaren 15a baino lehen aurkeztuko dizkio UZEIk Euskaltzaindiari. Hauek onartuz gero, hurrengo urteko hitzarmenaren protokoloa prestatuko da eta Jarraipen Batzordeak emango dio oniritzia.

5.2. Jarraipen Batzordearen urriko bileran hurrengo urteko protokolo erantsia aztertu eta onartuko da, bi aldeak ados egonez gero.

5.3. Urtea bukatu baino lehen, aurrez onartutako protokolo erantsia izenpetuko dute bi aldeetako ordezkariak.

5.4. Urtea bukatzean, otsailaren 28rako txosten teknikoa eta ekonomikoa aurkeztuko dizkio UZEIk Euskaltzaindiari.

## **6. Jarraipen batzordea**

Euskaltzaindiak eta UZEIk bina ordezkariko Jarraipen Batzordea eratuko dute, hitzarmenean jasotzen dena koordinatu eta mamitzeko.

Batzordea urtean bitan bilduko da gutxienez, martxoan eta urrian.

## **7. Hitzarmena bukatzeko arrazoiak**

Hitzarmen hau indargabetu ahal izango da ondoko gertaeretako baten ondorioz:

- a) Bi aldeak ados jartzea
- b) UZEIk edo Euskaltzaindiak bere eginbeharrak ez betetzea

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, bi erakundeek ordezkariak izenpetzen dute ale bikoitzetan.

Donostian, 2000ko urtarrilaren 21ean

Euskaltzaindiaren ordezkari

Jean Haritschelhar Duhalde

UZEIren ordezkari

Javier Saizar Badiola

# **EUSKALTZAINDIA ETA UZEIren ARTEKO HITZARMENA**

## **2000. URTERAKO PROTOKOLOA**

### **BILDURIK**

Batetik,

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Euskaltzainburua, Euskaltzaindiaren izenean.

Bestetik,

JAVIER SAIZAR BADIOLA, UZEIko lehendakaria, UZEIren izenean.

Alderdi biek aitortzen diote elkarri *hitzarmen* hau sinatzeko ahalmena. Hori dela eta, honako hau

### **ADIERAZTEN DUTE**

Euskaltzaindiak eta UZEIk 2000ko urtarrilaren 21ean izenpetutako hitzarmen-markoaren arabera, eta hura betez, 2000. urteko diru-ordainketak eta egin beharreko lanak kontuan hartuta,

### **HITZARTZEN DUTE**

1. UZEIk 2000. urtean ondoko lan hauek egiteko konpromisoa hartzen duela:

#### **1.1. Hiztegi Batuko prestalana**

- Hiztegi Batuko lantaldearentzat 5000 forma biltzen dituzten hitz-zerrendak prestatu (J, K, L eta M letrak).
- I, J, K, L eta M hasierako hitz-zerrendetatik txostengai posibleak aukeratu eta txostenak eta hauen laburpenak egin.
- Iritzi-emaileen oharrak bideratu eta oharrak jaso eta sistematizatu.

- Euskara Batuko batzordetik etor daitezkeen informazio-eskaerei erantzun.

- Hiztegi Batuko lantaldearen ardura eta idazkaritza-lanak burutu, bai eta Euskara Batuko batzordearekiko harremanak ere.

#### 1.2. Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa

- 1997ko eta 1998ko euskal produkzioari dagokion inbentario sailkatua egin, lagin estatistikoa aukeratu, SGML formatuan zuzendu/kodetu eta automatikoki lematizatu.

- 1900-1990 urteak hartzen dituen corpora SGMLra pasatzen jarraitu, XX. mendeko testu guztiak formatu berean izateko. Aurten euskara batuan dauden testuak egokituko dira.

- SGMLra pasata dagoen corpus zatia kontsultagai jarri sarean urte bukaerarako.

2. Proiektu horiek, aurkeztutako ekintza-planean esandako eran mamituko dituela UZEIk.

3. Lan horiek egiteko berrogeita bi milioi hirurehun eta laurogei mila hirurehun eta berrogeita hamar (42.380.350) pezetako diru-laguntza emango dio la Euskaltzaindiak UZEIri 2000. urtean.

4. 2000. urterako diru-laguntza era honetan bideratuko dela:

a) diru-laguntza osoaren lehen erdia urtarrilean

b) diru-laguntza osoaren bigarren erdia ekainean

Onorioz, dokumentu hau 2000ko urtarilaren 21eko *hitzarmenari* erantsen zaio, haren zati bihurtuz.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, bi erakundeek ordezkariak izenpetzen dute ale bikoitzez.

Donostian, 2000ko urtarilaren 21ean.

Euskaltzaindiaren ordezkari  
Jean Haritschelhar Duhalde

UZEIren ordezkari  
Javier Saizar Badiola

**IKERGAIK**



## VICTORIANO HUIZIREN MANUAL DE GRAMATICA BASCONGADA (1)

Patxi Goenaga

Etxarri-Aranazko herriak eta Euskaltzaindiak Victoriano Huiziri omenaldi egin nahi dion honetan haren *Gramatikaren* zenbait zertzelada eskaini nahi nituzke ondoko lerrootan.

### 1. Huiziren gramatika “eskuliburu” bat da.

Hau da lehenbizi egin beharreko oharra. Ez da euskal gramatikazko tratatu bat, hizkuntza ikasteko lagungarri bat baizik.

“¿Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Nabarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe más lengua que el baskuenz; por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana, del Santo Evangelio, corrección de los vicios y administración de los Santos Sacramentos, debe ser en baskuenz; y á nadie se le oculta que para esto es preciso saber leer, escribir, entender y hablar el baskuenz, si no queremos conocer, como hasta ahora, casos de ver á Sacerdotes que, solos y sin saber palabra de él, han tenido que habérselas con feligresías en donde no había más que dos ó tres empleados públicos que entendieran su castellano (y esto ha sucedido con cabildantes míos), siendo consiguiente en los mismas la indiferencia religiosa. Y no basta que el Sacerdote haya nacido de padres bascongados y en pueblo bascongado, pues muchos de éstos no pueden cumplir, como se debe desear, con sus obligaciones, sin más que esto. Para éstos, pues, principalmente, y para todos los que tienen algunas nociones de la misma lengua, son los preceptos que se encontrarán en este MANUAL á muy poca costa y con pocos ratos de vela; pero también para los que le ignoran, porque añadiendo á una disposición regular alguna asiduidad en el estudio del mismo, para los cuatro meses habrán vencido todas las dificultades que amenazan abrumar al que no hace más que empezar á leer la portada de un tratado cualquiera, y lo cierra como imposible.

Mi objeto, pues, es sujetar á reglas (y no todas inventadas por cierto), en dialecto nabarro, el baskuenz que anda hecho jiras y desfigurado, sin guía fijo aun entre bascongados, y extenderlo entre castellanos como el mejor baluarte de nuestras venerandas tradiciones y fueros, y mayor gloria de Dios” (VIII orr.).

---

(1) Lan hau Etxarri-Aranatzen 1999ko ekainaren 24an Euskaltzaindiak Victoriano Huiziren eta Aingeru Irigarainen omenez egindako ekitaldian aurkeztu zen.

Argi dago, hortaz, “manual” delako honen helburua. Besterik da helburu hori hor aipatzen diren epeetan eta hain neke gutxiarekin lor ote daitekeen. Egi-leak ez dirudi zalantza handirik duenik, zeren liburua osatzen duten “diálogo” horietako batean honako hau ageri da (ik. 93-94 orr.):

“*Maisuba*. Badakizu euskaras?

- I.* Bai, jauna, nere erriko izkuntzau badakit zerbait.  
*M.* Badakizu eskribatzen eta irakurtzen ongi mintza modubortan?  
*I.* Ez, jauna, gure erriyan eta aldekoetan ez tet uste badala iyor euskara ongi eskribatzen eta irakurtzen dakienik.  
*E.* Nola da bada ori izanik euskaldunak?  
*I.* Zergati emen ezta auskarasko libururik, edo guchi, denak erderaskuak dabizkigu eskuetan; baiya ustedet laster ikasko naukela eta ez nola nai, baizik erakusteko moduban, ikasi eskero libruchuontan aurretik dauden lecio edo erreglak.”

Propaganda faltagatik behintzat ez da izango.

## 2. Liburuaren egitura.

Ohiko gramatiketan jasotzen diren atalak jasotzen dira mintzagai hartu dugun gramatika honetan.

a. Lehenbizi, gramatika bera dator, honako atal hauek osatua:

- 1) Alfabeto.
- 2) Artículo
- 3) Nombres: “simplemente tal”
  - Nombre verbal
  - Nombre sustantivo
  - Nombre adjetivo
  - Nombre simple
  - Nombre compuesto
  - Numeral
  - Ordinal
- 4) Declinación
- 5) Pronombres: Personales
  - Demostrativos
  - Posesivos (2)
  - Relativos (sic): *nor, nork, zein, zeiniek, zer, zerk.*
  - Indefinidos
  - Reflexivos (*buru* + algún posesivo)

---

(2) Erakusleen artean biltzen ditu au ‘este’ eta onena ‘de este’ tankerakoak, baina ni, zu, eta abar bezalakoak izenordain pertsonaltzat jotzen dituen bitartean, nerea, zurea, eta abar “pose-sivos” gisa jasotzen ditu. (ik. Huizi 1899, 7). Garbi dago arrazoia: gaztelaniaz onena ‘de este’ den bitartean, nerea, zurea eta antzekoak ‘mío’, ‘tuyo’ dira eta hauek izenordain posesibotzat hartzen dira. “Onena” delako hori ‘suyo’ ere badela pentsa zezakeen, hala ere.

- 6) Grados del adjetivo (3)
- 7) Participio
- 8) Verbos (auxiliares, activos, ...)
- 9) Adverbio
- 10) Preposición (=posposición)
- 11) Conjunciones
- 12) Interjecciones

Hau litzateke gramatika partea osatuko lukeen atala (1-75 orr.). Liburuaren erdia pasa.

b. Horrezaz gainera badakar mila bat hitzeko Hiztegi bat: DICCIONARIO de algunas voces más usadas en esta Villa de Echarri-Aranaz y en su comarca. Hiztegi hau dela eta, bitxi gertatzen da alfabeto ordenari zein errespeto gutxi erakusten dion egileak. Izan ere, letrak ongi ordenatuak ageri badira ere, letra bakoitzean jasotzen diren hitzek ez dute inongo hurrenkera alfabetikorik jarraitzen: *baia*-ren ondoren *beia* dator, gero *biorra* baina ondoren *basua*, *baria*, *belia*, adibidez. Edo *aita*, *aza*-ren ondoren. Eta horrela dena.

c. Gero ariketa-gaiak edo izango liratekeenak datoz. Lehenbizi “Temas” izenburupean sei gai txiki, perpaus laburrez osatuak. Ondoren, “Diálogo” izeneko bat: hasieran galde-erantzunka emana, eta gero gai mamitsuagoak eskainiz. Bai gaiak, bai elkarrizketa, hizkuntza bitan emanak. Ondoren dator testu luze bat, euskara hutsean, elizaren historiaz eta bereziki Erromako Aita Santuek beren botere politikoa galdu zutenekoaz. Kontu hau garai hartan ari zenez gertatzen, pentsa liteke Huizi integristaren emaitza originala datekeela. Honen ondoren “Ejercicios de construcción gramatical” atala dakar (115-138 orr.), ariketa gisa aurkeztua eta, amaitzeko, hiru ipuin labor eta San Migeli eskainitako beste horrenbeste kanta.

Liburua amaitzeko (145-148 orr.), eranskin gisa emana dator hainbat partikula eta atzizkiren erabilera argitzen duen atal bat, joskera eta morfologia arazo zenbait aipatuz. Azken eranskin hau ere harrigarri gertatzen da, huts-zuzenketaren ondoren baitator, beraz inprimategitik bueltan etorri ondoren erantsitako zer baita. Benetako eranskin bat, alegai azken momentuan erantsitako adabakia dela esango nuke.

Horra 145 orrialdetan barrena Huizik eskaitzen duen liburuaren edukia.

---

(3) Konparatiboen adibideak erdal itzulpenez hornitzerakoan huts nabarmena egiten du Huizik (ik. 7. orr.): gizona beziñ ona ‘tan bueno como él’ itzultzen du eta gizona baño obia, berri, ‘hombre mejor’ itzultzen du. Harrigarri xamarra, dena dela.

### 3. Huiziren Gramatikaren iturriak.

Huizik ez du xehetasun handiegirik ematen bere lanaren iturriez. Ez dakar bibliografiarik ere. Eta aipatzen dituen autore bakarrak Larramendi eta Lardizabal dira. Lardizabalen *Gramatica Bascongada* delakoaren eragina begien bistakoa da, baina are begien bistakoagoa den beste iturri bat ere badu Huiziren lanak, nahiz eta berak ezertarako aipatu ere egiten ez duen: Luis Astigarraga y Ugarteren *Diccionario Manual vascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de Guipúzcoa con ejemplos en varios idiomas*. Liburu honek hainbat argitalpen izan zituen. Lehenbizikoa 1825ean eta, azkena, oker ez banago, 1935ean. Bizkaierara ere itzulia izan zen, Arrese Beitiaren eskutik jatorrizko lanak zeraman izenburu ia berbera zera-malarik: *Diccionario Manual Bascongado y Castellano y elementos de Gramática para uso de la juventud de Vizcaya, con ejemplos en ambos idiomas*. Hau 1884an argitaratu zen.

Iturri hau begien bistakoa dela esan dugu. Hain zuzen, Huiziren lanean 115-138 orrialdeetan biltzen diren “Ejercicios de construcción gramatical” dir-lakoak, hitzez hitz daude hartuak Astigarragaren lanetik. Nik neuk 1887ko argitalpena erabili dut. Beharbada, hauxe izango zuen esku artean Huizik ere. Arrese Beitiarena 1884koa denez, honek 1883koa erabil zezakeen. Bertsio desberdinen artean aldaketa txiki batzuk badira, baina huskeriak. Bat aipatzekotan, Astigarragak (85. orr.) *oquerra decan anca bucazac zucentzez* dioen lekuan, Arrese Beitiak *oquerra duan anquea amaituic zucentzez* ematen du baina Huizik (ik. 130. orr) *okerra dekan anka zuzenzak* ematen du. Aditzari edo zenbait hitzi dagozkionak dira aldaketok, beti ere Etxarriko euskarara nolabait egokitzeko asmotan, Arrese Beitiarena bizkaierara egokiturik zegoen bezalaxe.

Egia da beste testu batzuk ere biltzen dituela, San Migeli eskainitako kantak, adibidez edo Elizaren historiako atal luzea (105-114 orr.). Atal honek badu beste berezitasun bat ere: beste guztietan testua euskaraz eta gaztelaniaz ematen den bitartean, hau, berriz, 134-142 orrialeetan biltzen diren hiru ipuintxoak bezala, euskara soilean. Aita Santuak botere mundutarra galtzeaz ez dirudi oso ados dagoenik egilea. Dena dela, momentu honetan ez nago testu honen iturria zein datekeen esateko moduan. Gaztelaniazko ordainik ez izateak pentsarazi diezaguke jatorrizkoa dela, Huizirena berarena ote den ez jakin arren.

Eta ariketetan eta testuetan ez ezik, Huiziren gramatika soilezko atalean ere nabari ote daitezke iturrien nondik norakoak? Argi dago baietz. Batetik Lardizabalen lana hor dago. Aipatu ere egiten du. Baina Astigarragaren lanaren oihartzunak ere erraz nabari daitezke. Esan daiteke lan horretan oinarriturik moldatu zuela eskuartean dugun *Gramatica Bascongada* hau. Harrigarria dena da iturririk ez aipatzea, kontuan izanik, jatorrizko testuak arrakasta handia izan zuela. Arrese Beitiaren egokitzapenaren atarikoan honela mintzo da argitaratzailea:

“Al efecto, con la buena cooperación de un distinguido bascófilo vizcaino, cuya ilustración es notoria, y no obstante que por no molestar su excesiva modestia se omite su nombre, hasta tanto que él se digne autorizarnos para ello, se ha confeccionado el popular Diccionario Manual bascongado (...) por el reputado y conocido escritor D. Luis de Astigarraga y Ugarte”. (Arrese Beitiarena 1884, VI. orr).

Testua moldatu beharra izan zuen Huizik, Astigarragarena, Arrese Beitiarena bezala, elebiduna baitzen. Gainera, jatorrizkoak helburutzat ez zuen haurrei euskal gramatika irakastea, gaztelaniazkoa irakastea baizik:

“En ninguna provincia de España es tan necesario este estudio como en el país bascongado donde el único idioma que se aprende en la juventud es el bascuense; y donde la lengua castellana es tan exótica como la francesa ó la de otra cualquiera nación estrangera, particularmente en algunas aldeas. (...)”

Para facilitar pues á la juventud bascongada el estudio de la gramática castellana y aun de la latina, he creído muy conveniente coordinar y publicar este diccionario manual poniendo antes de él algunas observaciones sobre ambas lenguas” (Astigarraga 1887, VIII-IX).

Huizik bestelako asmoa agertzen du:

“Eztezaket izan nik asmorik iyori Euskara erakusteko, baiya iduritzen zait gaurko egunian Iparaldeko Euskalerrietan dagon itz edo mintza modua ikasi eskero elkar aditü gentzakela eta ez giñakela galduko emendi kampuan, eta artarako nei nauzke eman erregla batzuk nere Euskara erraz ikasteko edozeiñek; es-tet uste iñoren jakinduriarik mermatuko dutela geionetan” (Huizi 1899, IV. orr.)

Nolanahi ere, ez da oso ongi ulertzen iturriak ez aipatzea gure gramatikariak, handik eta hemendik noizbait pilatutako lanak eta adabakiak azken unean, presaka, bildu beharra izan zuelako ez bada.

Huiziren liburuan, gramatikaren atalean, aditzak hartzen du lekuri handiena (8-71 orrialdeak). Horrenbestez, inon aurkitzekotan hemen aurkituko ditugu aipatu ditugun lan horien zantzuak. Ondoko taula honetan aski ongi ikus daitekeela uste dut hiru lan horien parekotasuna (4).

Bide batez, aipagarria iruditzen zait Arrese Beitiaren argitalpenaren sarrean nola interpretatzen den bi hizkuntzen arteko “jokoa”. Honela dio:

“... me ha parecido del caso arreglar el Diccionario Manual bascongado y castellano de D. Luis de Astigarraga y Ugarte para uso de la juventud vizcaina, á fin de facilitar á los Sres. Profesores de primera enseñanza de ambos sexos, en dicha Provincia, todo aquello que contribuya á hacer que sus discípulos se ejerciten á la vez en la conversación de ambos idiomas; es decir, en el castellano con relación al dialecto vizcaino”. (V. orr.)

---

(4) Bide batez, konpara bedi hau Canpionen eskemarekin (Campion 1885, 347) eta berehala ohartuko gara iturriak non dituen Huizik. Campionen lana askoz modernoagoa begitantzen zaigu Baina, nolanahi ere, Huizik ez zuen Campionen lana aintzat hartu.

| LARDIZABAL                                                   | ASTIGARRAGA<br>ARRESE BEITIA                    | HUIZI                                                       |
|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| <b>Infinitivo</b>                                            | <b>Infinitivo</b>                               | <b>Infinitivo</b>                                           |
| Presente ( <i>jan, ja-tea</i> )                              | Presente ( <i>izan / jan</i> )                  | presente ( <i>izan / eraman / joan</i> )                    |
| Pretérito ( <i>jan-izan</i> )                                | Pretérito ( <i>izan izan / jan izan</i> )       | pretérito ( — / <i>eraman izan / joana izan</i> )           |
| Futuro ( <i>jan-bear</i> )                                   | Futuro ( <i>izan bear / jan bear</i> )          | futuro ( <i>izan bear / eraman bear / joan bear</i> )       |
| Participio pres. ( <i>ja-ten</i> )                           | Participio ( — / <i>jana</i> )                  | participio ( — / <i>eramanik, eramana / joana</i> )         |
| Participio pret. ( <i>jan-a</i> )                            | Partic. Pres. ( <i>izaten / —</i> )             | participio pres. ( <i>izaten / —</i> )                      |
| Participio fut. ( <i>jan-go duena</i> )                      | Partic. Pret. ( <i>izan / —</i> )               | partic. Pret. ( <i>izan / —</i> )                           |
| Partic. Fut. Compuesto ( <i>jan-izango</i> )                 | Partic. Fut. ( <i>izango / —</i> )              | parti. Fut. ( <i>izain-izanen / —</i> )                     |
| Gerundio de genit. y dat. ( <i>ja-teco</i> )                 | Gerundio ( <i>jaten</i> )                       | Gerundio ( — / <i>eramaten / joaten, joan eskero</i> )      |
| Gerundio de acusat. ( <i>ja-tera</i> )                       | Gerundio de genit. y dat. ( <i>iza-teco</i> )   | Gerundio de genit. y dativo ( <i>izateko / —</i> )          |
|                                                              | Gerundio de acusat. ( <i>izatera / —</i> )      | Gerundio de acusat. ( <i>izatera / —</i> )                  |
| Ablativo absoluto ( <i>jan-ic, jan-da, jan-ta, jan-eta</i> ) | Ablativo absoluto ( <i>izanic / jan-nic</i> )   | De ablativo absoluto ( <i>izanic / —</i> )                  |
| <b>Indicativo</b>                                            | <b>Indicativo</b>                               | <b>Indicativo</b>                                           |
| Presente ( <i>jaten det</i> )                                | presente ( <i>jaten det</i> )                   | presente ( <i>esaten det</i> )                              |
| pretérito imperfecto ( <i>jaten nuen</i> )                   | pretérito imperfecto ( <i>jaten nuen</i> )      | pretérito imperfecto ( <i>esaten nuen</i> )                 |
| pretérito perfecto próximo ( <i>jan det</i> )                | pretérito perfecto ( <i>jan nuen</i> ) (5)      | {pasado/pretérito} próximo ( <i>esan det</i> )              |
| pretérito perfecto remoto ( <i>jan nuen</i> )                | pret. próximo ( <i>jan det</i> )                | {pasado/remoto} ( <i>esan nuen</i> )                        |
| pretérito pluscuamperfecto ( <i>jan izan nuen</i> )          | pret. anterior ( <i>jan nuen</i> )              | pretérito pluscuamperfecto ( <i>maitatu izan ninduzun</i> ) |
| futuro imperfecto ( <i>jango det</i> )                       | pret. pluscuamperfecto ( <i>jan izan nuen</i> ) | futuro imperfecto ( <i>esanen det</i> )                     |
| futuro perfecto próximo ( <i>jan izango det</i> )            | futuro imperfecto ( <i>jango det</i> )          | futuro perfecto ( <i>ikasi izanen det</i> )                 |
| futuro perfecto remoto ( <i>jan izango nuen</i> )            | futuro perfecto ( <i>jan izango det</i> )       |                                                             |

(5) *Pretérito perfecto* delakoa eta *pretérito anterior* euskaraz forma bereko gertatzen dira eskema honetan. Baina ematen zaion erdal ordainak (batean “yo comí” eta bestean, “yo hube comido”) justifikatuko luke Astigarragaren lanean bi aldiz ematea euskaraz. Gogoan izan lan hau, Huizirena ez bezala, gaztelaniaz irakasteko asmoz egina dela.

| LARDIZABAL                                                                                                                                                                                                     | ASTIGARRAGA<br>ARRESE BEITIA                                                                                                                                                                                                                                      | HUIZI                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Condicional</b><br><br>futuro absoluto ( <i>izango nuque</i> )<br>futuro condicionado ( <i>izango banu</i> )<br>pretérito absoluto ( <i>izango nuquean</i> )<br>pretérito condicionado ( <i>izan banu</i> ) |                                                                                                                                                                                                                                                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Supositivos (<i>amatu albadet / amatu albanau</i>)</li> <li>• Subjuntivo (<i>amatu albaneza</i>)</li> <li>• Condicional (<i>amatzen badet</i>)</li> <li>• Imperfecto (<i>amatuko banau</i>)</li> <li>• Pluscuamperfecto (<i>amatu izan banau</i>)</li> </ul>    |
| <b>Imperativo</b><br><br>( <i>izan ezazu</i> )                                                                                                                                                                 | <b>Imperativo</b><br><br>( <i>amatu ezazu</i> )                                                                                                                                                                                                                   | <b>Imperativo</b><br><br>( <i>amatu dezazu</i> )                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>Subjuntivo</b><br><br>presente ( <i>izan dezadan</i> )<br>pretérito ( <i>izan nezan</i> )                                                                                                                   | <b>Subjuntivo</b><br><br>presente ( <i>amatu dezadan</i> )<br>pretérito imperfecto ( <i>amatuco nuque</i> )<br>pretérito perfecto ( <i>amatu izan dezadan</i> )<br>pretérito pluscuamperfecto ( <i>amatu izango nuque</i> )<br>futuro ( <i>amatzen dedanean</i> ) | <b>Subjuntivo</b><br><br><ul style="list-style-type: none"> <li>• presente (<i>amatu dezadan</i>)</li> <li>• pretérito imperfecto (<i>amatuko nuke</i>)</li> <li>• futuro (<i>amatzen detenian</i>)</li> <li>• potencial (<i>amatu dezaket</i>)</li> <li>• imperfecto (<i>amatu neza-ken</i>)</li> </ul> |

Huizi, hala ere, ez da beste biak bezain sistematikoa. Ez du besteak bezain argi ematen kategorien arteko desberdintasuna. Hori argien subjuntibo, baldintzazko eta abarretan ikusten da. Huizi Astigarragaren inkongruentzia beretan erortzen da, kontuan izan gabe haren abiapuntua gaztelaniazko gramatikaren kategoriak zirela. Lardizabalek ongi ematen ditu subjuntiboko bi aditzaldiak. Gaizki kokatuak daudenak, bistan da, Astigarragaren eta Huiziren *amatuko nuke* bezalakoak dira, horiek nekez sar baitaitezke subjuntiboaren menpean (ik. 14. orr.).

Deklinabideari dagozkionetan ere argi dago Lardizabalen *Gramatica Vascongada* dagoela bai Astigarragaren lanaren azpian bai Huizirenarenean. Adibide gisa, hor dugu genitiborako ematen den forma: *Mariarena*.

Beste batzuetan, Astigarragarena dago, besterik gabe Huiziren lanaren azpian: batean eta bestean ematen diren adverbio zerrendak, esaterako, aski berdinak dira. Hurrenkera ere ia bera dute zerrenda biek.

Posposizioen kasuan, berriz, Huizik espreski aipatzen du Lardizabal (ik. 73 orr.).

Hortaz, Huiziren lanaren orijinaltasuna aski urria dela esan dezakegu.

#### 4. Zer dakar berririk, hortaz?

Kontua da Astigarragaren lana, bere garaian oso ezaguna izan bazen ere - hoguei bat argitalpen izan zituen- ez dira horiek Huiziren lanean inon aipatzen. Hau, berriz, euskal gramatiken artean aipatu izan da noizbait (ikus, adibidez, Añamendiren Hiztegia "Gramatica" sarrera). Bere garaian egunkarietan agertutako erreseina batek honela baloratzen du:

"Es obra sumamente apreciable por su sencillez y claridad en la que están explicadas con el mejor método y con abundantes ejemplos en castellano y vascuence las distintas partes de la oración, siendo notabilísima por la declinación de los nombres y por la riqueza que se nota en la estructura de sus verbos. Esta obra, basada en el estudio de los ocho dialectos vascongados, viene a llenar un gran vacío, pues se ocupa del dialecto navarro septentrional, por componer esta parte la mayoría de los vasco-navarros, y no haberse escrito gramática para ella, y con el fin de que se tenga un guía seguro a quien seguir" (*El Eco de Navarra*, 13 de agosto 1899. Ref. *Perez Goyena, Ensayo de Bibliografía Navarra*, t. IX, 265-266).

Egia da ematen diren azalpenak laburrak bezain argiak direla. Baina gehiegizko laudorioak direla ematen du.

Ordea gramatika gisa duen balioa mugatu xamarra izaki, Etxarriko euskararen ispilu izan zitekeen lan hau. Egiazki hala ote da? Damaso Intzak ez du uste:

"Bere idazti onetan garai askotan nasten du ango euskalkitxoaren bukaera, naiz geienean gipuzkoerazkoa erakutsi.

Berak adirazten du aldaketa au esanez: oartu naiz *aditzen* garai askotan, askarrezko edo pluraleko bigarren eta irugarren lagunen esanerak, banak dirala Barrankako erri aunditxo batzuetan. Etxarriaranatz'en, Arbizu ta Lakuntza'n (?) ibiltzen dute *bie* bukaera: *amatu dezubie-erosi biau zubie-ikasiko dezubie-eraman bear debie*; Ergun'n (Ergoiena) *dezie* bukaera ibiltzen da: *jan dezie-il dezie*; Borundan DEZEI: *ikusi dezei-jan dezei* eta beste aldaketa gutxiago esan nahi duen batzuek, auk nere iritzi estuan gipuzkoera ta bizkaieraren ustelkeri batzuek besterik ez dira. Bere erriko aldaketa batzuek lena gipuzkoeraz ta urrena bere erriko erara ekartzen ditu. *Dezute* edo *dezubie*, *dute* edo *debie*, *ziñaten* edo *ziñubien*, *zuten* edo *zabien*, *balau*, *dau* edo *du* (...)

Garai guzi auk Etxarriarantz'ko erara dira, baño bat baño geiago gipuzkoerazko bukaera emateagatik asko aldaturik daude. Argatik ez alde batekoak eta ez bestekoak gelditu dira. Etxarriarantz'ko euskalkitxo guzia batean argitaratzean argi ikusiko da egia" ( Intza (1920-1921, 32-35).

Hortaz, Huizik, aski moldatuak ematen dizkigu adizkiak. Hori ikusteko aski da begirada bat ematea Yrizarren lanari, nahiz eta Huizerenean askoz aditzaldi gehiago eskaintzen diren Yrizarrenean baino. Adibide bat jartzeko, har dezagun 28. orrialdean eskaintzen digun “pretérito próximo” delakoaren zati bat. Ezkerrean emango dugu Huizirena, eskuinean, berriz, Yrizarrena:

Huizi (28. orr.)

Yrizar (391 eta hurr.)

|                                                                            |                                                                                                          |
|----------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| NAUZU<br>NAU<br>NAUZUTE<br>NAUTE<br>ZAITUT<br>ZAITU<br>ZAITUGU<br>ZAITUZTE | NIEZU<br>NAU, ...<br>NIEZUBIE<br>NAUBIE, ...<br>ZAITUT, ...<br>ZEITTU, ...<br>ZEITTUGU, ...<br>ZEITTUBIE |
| NAIZ<br>ZERA<br>DA<br>GERA<br>ZERATE<br>DIRA                               | NEIZ<br>ZAA<br>DA<br>GAA<br>ZARIE<br>DIA                                                                 |
| DET<br>DEZU<br>DAU<br>DEGU<br>DEZUTE<br>DUTE                               | DET<br>DEZU<br>DAU<br>DEU<br>DEZUBIE<br>DEBIE/DUBIE                                                      |

Aldaketa asko aipa litezke. Zilegi izan bekit, nolanahi ere, bat aipatzea. Yrizarren datuen arabera, badirudi Etxarri Aranatz-en *didazu* eta antzekoen orde, *nauzu* erabiltzeko joera dagoela. Yrizarrek (1991, 392-393) *nietzu*-rentzat ‘tú me has’ eta ‘tú me lo has’, biak, ematen dizkigu. Etxarrin eta beste leku askotan gertatzen den oker hori gainditzen du Huizik. Hala ere, batzuetan hark ere huts egiten du. Ikus, adibidez, 39. orrialdean: *zuk esan nietzu* ‘tú me la has dicho’. Eta *zuk maitatu nauzu* ‘tú me has amado’.

##### 5. Azken oharrak.

Ez dut amaitu nahi beste hiru puntutxo<sup>4</sup> aipatu gabe:

a) batetik, aginteran, *ezazu* bezalako laguntzailearen orde *dezazu* ematen digu. Begien aurrean zituen erduetan horrelakorik ez zen. Astigarragari

mailegatutako testuetan *ezazu* ageri da inolako zalantzarik gabe. Hala ere, berak *dezazu* forma ematen du. Erregularitasunaren izenean edo. Hala ere, Hui-zi ez da batere koherente, zeren bere ariketetan *deseatu ezazu guchi* (123. or.) ematen du lasai asko, Astigarragak *guticiatu ezazu* dioen lekuan (76. or.) eta Arrese Beitiak (76. or.) ere *guticiatu eguizu*.

b) bada beste puntu bat ere oso harrigarria. Izenordainen deklinabidea ematen duenean (ik. 6. orr) NI, NIK, ...; ZU, ZUK, ...; I, IK, ...; GU, GUK, ... ematen du, baina ZUEK-en kasuan behin bakarrik ematen du forma hori: ZUEK, ZUEI, ZUENTZAT, ... zerrendatzen ditu, ZUEK behin bakarrik jaso-az. Baina aditz jokoan sartzen denean ez da inondik ere ageri GU, beti GUK: *guk gera* (8. orr), *guk izanen gera* (9. orr), *guk izan gaitezen* (9. orr.), *guk izanen giñan* (10), etab (6). Nola esplika hau? Ez, noski, inongo euskalkian horrelakorik esaten delako. Segurutik analogia gogoak eraman zuen horretara gure gramatikalaria, honen antzeko arrazoibidea asmatuz: *-k* pluralaren marka da, *gu* ere plurala da, beraz *guk* behar du. Ez zait beste azalpenik bururatzten. Hala ere, gogor egiten da euskaraz dakien batek horrelakoak asmatzea gramatika batean.

c) azkenik, zilegi izan bekit, *Manual* honetatik ariketa bat hautatzea. Egi-leak egoki ikusi zuen, Astigarragak bezala (7), “periodo” batzuk lantzeko. Ziur naiz neure ikasleei horrelako testu bat jarriko bagenie, nahiko arazo izango luke-  
tela. Hona hemen testu hori (130-131):

“Anciñako liburu batean irakurri det ongi itz egiten erakusteko fama aundi-  
diko maisu Sokrates-i joan zitzayola egun bates bere ikasle izan nayan orrako  
gazte emezortzi urterekin asko dakitela uste izanik berrogeyan ere asto aundi  
batzuek baizik ez diran oetatik bat, zefiak bere talentu eta jakinduri aundien  
onra eta alabanzak kontatu ondoren galdetu zion zenbat eramanen zion lezio  
bakoitzagatik, eta maisuak erantzutearekin beste ikasleai alako bi, arritü eta  
ofenditua erantzun zion ...”

Zail dirudi horrelako testu bat egokitzea ematea euskara ikasteko eskuli-  
buru batean. Hurrei euskara irakastea bada behintzat helburua

Hizpide eman digun lan honi adjektiboren bat jarri beharko banio, bitxia  
dela behintzat esan beharko nuke. Presaka moldatutako lana dela ematen du:  
handik eta hemendik gaiak bildu, egokitzen gehiegi saiatu gabe, nola-hala josi  
eta argitara eman. 145-148 bitarteko eranskin trinkoaren lekua ere ez da libu-  
ruan duena. Azken orrialde hauek “Corrigenda” delakoaren ondoren ematea  
oso esanguratsua da. Atal honetan sintaxia eta hitz eratorpena aipatzen dira be-

(6) Eta adizjokoaren azalpenean ez ezik, ariketa gisa ematen duen “Diálogo” delakoan age-  
ri da *guk gu-ren* orde: “Gelditü da gure artian Sacramentu Santuan *guk* salbatzeagatik” (104).  
Itzulpenak ez du zalantzarik: “por salvarnos”. Orrialde berean “*guk* galdurik geunden” irakur  
daiteke.

(7) Dena dela, Astigarragak eta Arrese Beitiak “errepochatu cion”, “errepochatu eutsan”  
dioten lekuan, Huizik “erantzun zion” dakar

reziki. Atal horren hutsunea nabarituko zuen egileak eta, besterik gabe, erantsi egin zizkion lanari. Osotasun handiena duen partea gramatikari dagokiona bera da. Hiztegiak, esan dugun bezala, alfabeto hurrenkera ez du errespetatzen eta, gainera, biltzen diren hitzek ez dute, berez, gero ariketetan eta abarretan ageri direnekin ikusteko handirik.

Honelako lan batek behar dituen atalak (gramatika, hiztegia eta ariketak) ongi biltzen ditu Huiziren lanak. Akatsa da eskuetan zituen langaiak taxutzen ez zuela behar bezala asmatu, beharbada presaka ibiltzeagatik. Presaka zergatik ibili zen, hori da nik ez dakidana. Argi dago egileak Nafarroan euskara zabaltzeko asmotan idatzia dela gramatika hau, baina bere inguruko arazoren bat zela medio, presaka ibili zen, antza, Huizi. Lanaren kalterako, noski.

## BIBLIOGRAFIA

- Arrese Beitia, F. (1884), *Diccionario Manual Bascongado y Castellano y Elementos de Gramática para uso de la Juventud de Vizcaya, con ejemplos en ambos idiomas*. Eusebio Lopez,. Tolosa.
- Astigarraga y Ugarte, Luis (1887 ), *Diccioanrio Manual Bascongado y Castellano y Elementos de Gramática para uso de la juventud dela M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa con ejemplos en ambos idiomas*. Eusebio Lopez, Tolosa.
- Huici, Victoriano (1899), *Manual de Gramática Bascongada dedicado á la Excma. Diputación de Nabarra y Seminario Conciliar de Pamplona*. Imprenta y Librería de Erice y Garcia, Pamplona.
- Intza, D. (1920-21), "Naparro'ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran", *Euskera* 1920-1921, 32-35 orr.
- Lardizabal, F. I. (1856), *Gramatica Vascongada*. Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, San Sebastian.
- Perez Goyena. *Ensayo de Bibliografía Navarra*, t. IX, (265-266)
- Yrizar, Pedro (1991), *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)*, tomo II. Euskaltzaindia, Bilbao.



## J. I. ARANA ETA E. S. DODGSON

*Patxi Altuna*

Joan zen udan Loiolako artxiboan ene begiek topo egin zuten halabe-harrez eskutitz mordoska batekin, Ingalaterrako hizkuntzalari eta euskalari Edward Spencer Dodgson jaunak aita Arana, jesuita azkoitiarrari, eginarekin. Gero ikasi dut Azkue jaunari eginiko beste sorta handi bat ere badagoela Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Hori jakitekotan ez nintzen abiatuko agian Aranari eginak aldatzera; zati bat bakarrik aldatzeak ez zuela merezi irudituko zitzaidan eta guzia aldatzea lan ikaragarria zela. Orain berriz, Aranari eginak aldatuz gero, Azkueri eginak ere aldatzera abiatuko naiz apika, elkarren aberasgarri izango direlakoan eta ni ere aberastuko nautelakoan. Garai batetik hona gainera Aranaren pertsonari dagokion guztia axola zait eta horrek bultzatu ninduen batik bat Loiolako zatiari ekitera. Ez naiz Frantzian ibilia eta ez dakit ongi-ongi frantsesa. Itzuri zaizkidan hutsak barkatuko dizkit irakurleak. Dodgsonen letra gainera batzuetan txikia eta iluna da, paperaren edo kartaren ertzetan arkakuso zanpatuaren parekoa.

Gutuneria hau aurkitu nuenean nik ez nekien ia deus ere Dodgson jaunaz eta argibide batzuen bila abiatu nintzen. Elhuyarko Entziklopediak 1857an jaio zela dio, galde-zefiu batekin, egia esan. Baina hala da. Berak Aranari 1893ko urtarrilaren 14an eginiko kartan (3) diotso: “Je suis né le 19 Nov. 1857” eta beste batean (14): “J’aurais complété 36 ans de vie dimanche prochaine”. Dodgsonnek Aranari egin lehen karta ez zaigu heldu, bai aldis Aranak hari eman erantzunaren zirriborroa; gure sorta honetako lehena da, Aranak Oñako erbestalditik 1892ko martxoan idatzi ziona. Hori pentsarazten digute bai Aranak bere erantzuna latinez hasi izanak, Dodgsonnek bezala –“latine exaratas”–, gero euskarara aldatzeko, Dodgsonnek eskatzen zion bezala, bai hasierako hotsandiko agurrak: “Perillustri D<sup>o</sup> Edward Spencer Dodgson...” eta konplimenduzko hitzak: “Tuas excepi... literas, quae quidem mihi pergratae exstitere” (1).

Dodgsonnek zenbait galdera egiten zion nonbait bere lehenbizikoan, gero gainerako eskutitzetan ere ohiko zuen bezala, eta zirriborro honetan horiei Aranak emango zizkien erantzunak ditugu (1). Agirian jartzekoak puntu hauek dira: Vinsoni eta Van Eysi aspaldi igerri omen die “ez batak eta ez besteak euskaraz ondo (ez) dakitela” eta arrazoi gutxiarekin jardun omen dira “A. Larramendi eta beste euskaldun zenbait jakintsuenen contra” eta haiek baino gehiago zekiela Bonaparte jaunak. Martin Kapanagaren izena agertzen da le-

hen aldiz eta gero beste eskutitz batzuetan ere bai, haren doktrina argitara dadin eskatuz. Vinsoni loturik Kapanaga agertzeak badu zergatia. Sail honetako 13. kartan Vinsonek orrialde batzuk ostu dizkiolako susmoa agertzen dio Aranari Dodgsonen eta ondoren idazten: "C'est Vinson qui a pratiquement volé le Capanaga de E. Lopez" (13). Hor berean, bigarren orriaren bazterrean, beste honako hau dio: "Si j'avais assez d'argent, Capanaga serait prêt avant le mois de Décembre"; hau urriaren erdialdean idatzi zuen, eta hurrengo eskutitzean (14) errakuntzei buruz hau ipiniko duela Frai Bartolomeren hitzak bereak eginez: "Uts oneetarean batzuk proban ez zirean, makinan galearen ifintzarekin sartu dire". Badaki zenbat adizkera ageri diren Kapanagaren dotrinan, 500. Horrenbestexa esan omen zion behin lagun bati eta horrenbestexa izaki: "Quelle prophetie!" (14) Azkenik erlijio kontua aipatu zion Dodgsonen nonbait, bera anglikanoa zela aitortuz, eta Aranak ikuspuntu hertsia agertzen dio batetik eta teologiko liburu sail luzea gomendatzen bestetik (1).

Hizpide hau maiz izango dute ahotan: "Zure elizaren kanpoko naiz, baina ez etsaia", diotso behin (2) Dodgsonen, eta "Emakume euskaldunarekin ezkondu banintz, katolikoa izango nintzatekeen", beste behin (3) eta San Pabloren hitzak glosatuz honela amaitzen du eskutitza: "Caritas Christi, Caritas Euskarica, Caritas Wykehamica urget me". Goraxeago bere aitari "ultra protestant" deitzen dio eta harekin arazoak izan zituela diosku (3). Aurrerago Aranak "Yo quisiera creer" liburuxka igorri zion (16). Ez dakigu liburu hau irakurtzearen ondorioa izan zen ala ez, baina kontua da hura hartu eta urtebete baino lehen bihotza zartatua agertzen diola: "Todos los pecadores sufren... Es difícil confesar en (sic) sangre frío (sic)...", etab., bere lekuan (20) irakurri ahal izango du gogo duenak. Honela amaitzen du hizpide hau: "Si tuviese hijos serían católicos".

Ezkondu eta katoliko izateko emakume euskalduna onena bezala, igeri egiteko Donostiako Kontxa ere paregabea iruditzen zaio: "*La Concha* c'est la meilleur école de natation du monde "para agir á la rana!" (11). Ez dira hor amaitzen Euskalerrriak haren ustez dituen munduko gauzarik onenak zerbaite-tarako. Hala Deban izan zen batean hango kalostreaz laudorio handia egingo digu, laster entzungo dugun bezala (12). Durangoko Gurutzeaga kaleko Gurutze Santua eta Karlos V.ren atea eta han ondoko etxe zahar, eskuan aingeru bat idazkun batekin duena, ez dio munduko ederrenak zirenik, baina bai mi-rtetsi zituela (2).

Bistan da urteen joan-etorrian Aranaganako txera handia biztu zitzaiola. Horren ezaugarri onentsua eskutitz baten (14) hasierako hitz hauek dirateke: "Mon cher ami epistolaire et Rev. Prêtre de Jésus Notre Seigneur, D. J. I. de Arana, exilé du pays Basque (hélas!), comme moi (hélas!), qué lástima!". Behin honela idazten dio: "C'est dommage que vous passez les années de votre maturité hors de votre patrie. Revênez à Euskal-erria comme un apôtre zélé!". Baleki nola eta zergatik igorri zuten kanpora! Baina ondoko hitzek era-kusten digute ez zela txera eta maitasuna bakarrik hitz horiek idazterazi ziz-

kiona, baietare hura Euskal herrian hurbil egoteak emango zion erraztasuna euskarazko dudak galdetzeko: “Il n’y a pas un Basque qui connaisse sa langue! C’est l’opinion de Van Eys, que je suis forcé d’adopter” (11) eta Bilbotik Salamankara joan behar zuen batean, “je n’aurai pas le temps de venir vous voir” idatzi zion (12). San Inazioaren idatzi guztien erabereko euskal argitalpen bat behar litzatekeela esaten dionean, galdegiten du: “Qui est plus capable que vous de la préparer en Guipuzcoan de l’ancienne école sans trop d’artificialité ni de fantaisie dans le langage?” (11). Oso bihotz oneko gizona delako zantzuak maiz ageri dira. Esate baterako, hurrengo igandean 36 urte beteko zituela esaten dion eskutitzean (14) honela diotsa gero: “Que Dieu me pardonne le mauvais emploi de mon temps et de ses dons de toute espèce!”.

Dodgsonen euskal literaturaren ezagutza handia du eta ezagutza ez ezik jabetza ere bai. Autore hauek eta hauen obrak maiz aipatzen ditu: Astarloaren sermoiak (“La langage en est assez simple”) (7,8)), Arana Jose Inazioaren bost liburutxo (5,6,7), Pierre d’Urteren (Bibliaren zati baten - Genesiaren lehen 27 kapituluaren - itzulpena irakurri du, eta ba omen da bat —10garren eskutitzean ematen digu haren izena, Llewelyn Thomas jauna— Genesi osoa eta Exodoa eta euskal hiztegia eta gramatika argitaratu nahi dituen; bai halaber Greathead jaunaren 1807ko mintzaldia (5), Oihenarten Atsotitzak (4), Kardaberaz “San Ignacioren Egercicioac” (1), Jose Antonio de Uriarteren “Marijaren illa, 1885n” eta honen hizkeraren gainean galdera mordoska egiten dio (9); Azkuek “Azkue”-z idatzitako liburu berria, “Bein da Betiko”, ikusi al duen galdeetzen dio Aranari (10) eta esaten badela bi urte Añibarroren liburu ere baduela (13). Iztueta euskal dantzei buruzko bi liburuak zirela eta, kritikazko bi artikulua agertu omen ziren argitaldari ingeles batean. Zenbait kantaren itzulpenak aski traketsak omen ziren; egilea nor zen ez zekien eta Aita Domingo Meagheren susmoa —“Jesuita eta Theologo andia... poeta oberenetacoa ere zan Gaztelaniaz eta Euskaraz”— azaltzen dio Aranari, zeren Iztueta beraren beste liburuan, Gipuzkoako Kondairan, kanta horietako bat azaltzen omen baita Meagheren izenarekin (16). Aranak erantzun zion nonbait itzulpenak Meagherenak izatea eta okerrak izatea ez zirela elkarrekin ezkontzen eta Dodgsonen aurkitu zuen horren irtenbidea (17).

Bere erbestaldiko egunik gehienak Vizeu-n, Portugalen, igarotzen zituen gero, hango literatura ere ongi ezagutzen zuen. Bermeoko seme Ercillaren *La Araucana* aipatzen dio behin (19) eta esaten haren azkeneko bertso saila euskaratu duela eta argitaratu *El Basco*-n. Hori dela eta, Aranak berriki itzulia eta *Euskalerrian* argitaratua zuen Camoens-en poema bat Dodgsonen “avec plaisir” irakurri duela diotso eta bide batez itzulpeneko zenbait hitzen esanahia galdegiten.

Euskara hobeki ikasi nahi du, ordea, eta Loiolako fraide-etxean eskolarik ematen al duten galdetzen dio Aranari (14). Bere euskal literaturazko ezagutzak ere zabaltu egin nahi ditu eta Arzak-ek Kapanagaren Dotrina argitaratu behar lukeela dio, “bestela ez naiz hark nahi bezala katoliko egingo” (4), eta

Aranak Kardaberazen eta Mendibururen obra osoak berrargitarazi behar lituzkeela (2). ("Combien le langage en est beau", dio Mendibururen Jesusen Bihotzaren liburuaz) (12), baina aldi berean liburu horren Aranak egin edizioa "selon moi ... est beaucoup trop peu fidèle" dio (13). Besteetan liburu baten izenburua zein den badaki, baina ez zein den egilea; hala nola 1869ko "Erli-gio eguiazcoaren siñaleak" deritzanarena (10). Aizpitarteren hiztegi-az ardura-tua dago eta hura Loiolako artxiboan ikusteko eta ikuskatzeko Oñan dagoen Aranari gutun bat eskatzen dio, Loiolako jesuitek ongi har dezaten. Berlingo *Euskara* aldizkarian artikulua bat idatzi nahi luke hartaz eta agian beste non-bait ere bai beste bat, ea inor gogutzen den hiztegia argitaratzera (10). Aizpitarteren Loiolako hiztegia ez zaio gogoko: "Pour la plupart les définitions ne consistent que d'un seul mot, en Castillan", etab. (12). Baina gehiago ere egin zuen Dodgsonen, liburu zahar batzuen edizio kritikoak; adibidez Mikoletaren "Modo breve"-rena (16), Kardaberazek bere garaian eginiko "Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac" liburuarena, Aranak eginiko San Inazioaren bizitza-rena, Kapanagaren Dotrinarena. Honen euskal hitzaurreak lanak eman zizkion eta Aranari itzulpena eskatu zion "en Castillan pur une traduction très littérale". "Baeroen" zer zitekeen ez zitzaion buruan sartzen eta "pourrait être une faute. Comment l'expliquez vous?" galdegiten dio. Ez halaber "ceinda" lo-kailua; ezin zion zentzu zehatza atzeman (18), ez eta Mikoletaren "oinerechu"-ri (16,17). 1764ko *Ispillua* delakoaren edizio berria desira du, baina dagoen dagoenean argitaratua, ortografiako aldaketarik gabe (14). Elkanoko Lizarragaren sermoi batzuk ere irakurri omen ditu, Donostian 1846an argitaratuak, gainerako guztiak ere egiteko asmoa omen du, eta ondoko latinezko esae-raz ematen digu aditzera ez dituela oso gogoko izan: "sed ipse sol habet macu-las", eguzkiak ere baditu itzalak, alegia (15).

Baina idazle guztietan gehiena Leizarragaz mintzo da. Lehen esana zion Aranari (5) laster argitaratzekotan zela Leizarragaren aditzaren Konkordantzia analitikoaren beste zati batzuk, bai eta Zuberoako "Santa Elena" pastoral-are. Hilabete batzuk geroago idazle beraz luzakiago mintzo da, eta gazteleraz gai-nera, eta hona bere iritzia: "Calvino ha traducido pero no siempre bien el grie-go original. La versión de San Jerónimo no está siempre fiel ni elegante. En mi concepto Leizarraga vale más como traductor que Calvino o San Jeróni-mo, pero es muy posible que una comparación de su texto con el griego indi-caría que Calvino le ha conducido en errores. Tenemos pues que juzgar el Basco de Leizarraga gramaticalmente y no teológicamente y atribuir los erro-res, si los hay desde el punto de vista doctrinal, a Calvino. Mi obra tiene por su "scopo" en primero lugar la gramática histórica y documentada del dioma bascongado, indirectamente la luz que sale de las palabras de un Apóstolo, aunque mal traducidas; será allí como una afloración adicionada" (9). Ezin uka bere hizkuntza ez izanik, poliki samar idatzia dagoela.

Leizarragak bere itzulpena ongi ala gaizki egin zuen esateko bazen nor. Gerke-za zaharra eta berria ikasia da, besteak beste. Etxepareren eta Etxeberri-

ren - “los Dantes de la Literatura Bascongada” omen direnen - bertso-lerroa hamabost silabakoa dela dio eta *político* izena Konstantinoplako poetek eman bazioten ere, lehenago ere bazela, Eskilok, Aristofanesez, Sofoklek eta Euripidek erabili zutela lerro hori. Bere artikulua bat aipatzen du (20).

Lapurteraz poematxo bat ondu zuen behin eta *La Unión Vascongada*n argitaratu titulu honekin: “Kiriskiletachoa” (10). Euskaraz idatzitako eskutitz horretan berean (9) esaten du Japongo iparraldeko lehen biztanleen, Ainuen, hizkuntza ikasten hasi dela; bere egituran ba omen du euskararen zerbait kutsu. Gero berriz (3,6) ekainean Oxforden egin behar duen hiru hizkuntzen, hots, gerkerak modernoa, errumanoaren eta armenieraren, azterketa prestatzen ari dela, diploma ateratzeko. Horrez gain latinez eta gerkeraz, frantsesez eta, jakina, ingelesez ere ongi moldatzen dela dakigunez gero, bistan da hizkuntza pilo ederraz hornitua dagoela.

Etimozale amorratua da. *Roma* Italiako hiriburuaren izena nondik ote datorren asmaketan ari dira Arana eta biak (4), eta Dodgsonek beste aldetik diotso Horatio, Erromako poetaren izena euskalduna dela, (*h*)*ora* txakurretik eta *-tto* atzizkitik datorrela (4). Alençon Frantziako hiritik *Ure* deritzan erreka igarotzen omen da eta ez ote da ibero-euskaldun izena galdegiten du (8). Aste Santuko eta Pazko igandeko elizkizunetan izana da berriki eta hitz hauetaz amaitzen du eskutitza: “Resurget cum Christo Euskarica lingua et luceat sicut flamma Pentecostalis» (8). Lehiatz eta luzaz mintzo da “berde” hitzaren etimoz (11): “Il est impossible phonétiquement de ne pas voir dans le Basque *verde* ou *berde* un mot néo-latin”. Aranak besterik uste zuen nonbait setatsuki - hala frogatzen digute Dodgsonen hurrengo eskutitzeko (12) hitz hauek: “Je garde mes opinions sur l’origine de *berde* et *olloa*, *ollascoa*, etc. - eta Dodgsonen aitortzen dio, “sans doute les Basques du temps de Sénèque ont dû posséder un mot propre pour cette couleur”, bai eta gero kontatzen ere zergatik hori galdu eta gaztelaniazkoa hartu zuten: “par la grande fréquence de l’emploi du mot *vert* dans les dialectes néo-latins qui ont assiégé le pays Basque». Prest al zaude, galdetzen dio gero, *ik-asi* hitzean ikusteko *ikusi* eta (*h*)*asi* nahasirik? —“quand on apprend on commence à voir” — eta baieztatzen “pollo” gaztelaniazkoa euskarazko “ollo”-ren aita dela, Uhlenbeck-ek urtebete lehenago esan bezala (11); halaber iparraldean *potchoak zakurra* esan nahi omen du eta horrek esplikatzen *otchoa* = *loup* (12). Honek guztiak bide ematen dio honako baieztapen biribil hau egiteko: “Les mots Basques *indigènes* sont à peine la *moitié* de ceux qu’on trouve dans les livres Basques” (11).

*Dodgson* deiturak berak ere sortu bide zuen bien artean lixkar koskorren bat. Ez dakigu zergatik, besteak galdeturik edo galdetu gabe, gauza da Aranak emana izan behar ziola bere iritzia, “fils d’un chien ou race canine» eta Dodgsoni ez gustatu, noski: bere deiturak, alegia, ezin esan nahi omen dezake hori “que pour une personne tout à fait ignorant de la philologie anglaise”. Beste interpretaziorik ere eman izan omen diote; berak nahiago duela pentsatu Veneziako duke batengandik datorrela, baina arazo horrek azken juiziorako gu-

txi balioko omen du. *Arana* deiturarekin beste horrenbeste gertatzen zaie. Dodgsonen *arrama* edota *armiarma* onartuko lituzke, baina norbaitek esan omen dio *zintzarria* esan nahi duela, “telle qu’on voit sur l’image de la Vierge de Aranzazu” (13). Beste bat: Oihenartek antzineko Euskal Herrian ipintzen dituen *Berones* direlakoek eta Portugaleko Beira hiriburuaren inguruko *Berones* deituek ere esplikatzten omen dute apika *Ber-uri-um* izena eta *Berones* ez omen litzateke *Iber-ones* – *bons / beres* baizik (13). Zortzi egun igaro omen ditu Andaluzia aldean (15), besteak beste Ayamonte aurrean. Gure Aya edo Ailla, “qui domine Irun et Andaya, comme on écrivait le nom d’Hendaya il y a deux cent ans”, oroitarazi omen dio izen horrek. *Ailla* irlanderez “amildegia, arkaitz maldatsua” omen da eta bai Ayari eta Hendayari, bai Ayamonteri ongi omen datorkie esanahi hori. Sagres aldera eta San Bizente deritzan lurmutur aldera – “le Sacrum Promontorium des anciens” – omen doa, zeren Emil Hübner jaunak, Berlingo Unibertsitateko irakasleak, eskatu omen baitio erkatzeko hango topografia Avienus-ek bere *Ora Maritima*-n ematen duen deskribapenarekin (15).

Zenbait hitzen etimoaz bere iritzia eskatzen badio, beste zenbait hitz eza gutzen ez dituenen esanahia ere galdetzen dio, Larramendirenen batez ere (15): “maintenant quelques questions sur *S. Agustiñ-en Doanditza* de Manuel Larramendi” eta hasi beretzat 5. orrialdea omen deneko “Bijoaz orain filosofo *errietariac* Santo Tomas– egana”-tik eta sermoiaren lehen zatiazen azken orrialdea arte – 12.a omen dena arte – galdetzen dizkio aipatzen dituen perpaus guztietako hitz azpimarratuen esanahiak: *errietariac*, *geren adiunetic*, eta *argi guzia dagocana*, etab., 15garren eskutitzean ageri diren bezala. Eskutitzaren lau orrialde betetzen dituzte galderek; galderek bakarrik ez, galderek eta horien ondoren Dodgsonen berak proposatzen, arriskatzten dituen erantzunek. Eskerrak azkenean barkazioa eskatzen dion. Zenbait hitz ulertzeko hor dabil leherrenak egiten eta aldi berean badaki, ustez, Zuberoan maiatzeko kanta batean heresia bat itzuri zaiela (17). Bai ote? Ez ote luke hobe beste karta batean dioenaz oroitu: “Mais l’usage du mot est souvent contraire à la raison” (21).

Beste inondik ez genekizkien gauza batzuk ikasten ditugu Aranaz eta beste. Behin 1868an Pirinioz honantzako Getarian, 1584 baino lehenagoko gutun batzuk aurkitu omen zituen. Hori kontatu zion nonbait Dodgsoni karta batean eta honek erantzuten: “Zergatik ez zenituen gorde edo argitara?” (12). Hor berean kontatzen dio Aranari Azkue Loiolara gogojardunak egitera joan berria zela – 1893ko irailekoa da karta – eta egun batzuk luzatuko bide zuela hango egona d’Abbadie jauna ikustearren “qui doit arriver le 9 Sept.” Oinatin sermoi bat erosi omen zuen errealean batean, baina ez daki noizkoa den ez eta norena, eta Aranari galdetzen dio ba al dakien. Beste bat ere aipatzen du geroago (22) Oinatin erosia eta errealean batean hau ere, baina hura noizkoa zen ez zekien eta hau bai: “manuscrit du siècle actuel”, Azpeitiko Martinez inprimalaria irarriko omen diona. Beste albistea: *Union Vascongada*-n azaldu omen da ezagutzen den lehen euskal kartaren bere kopia. Domekan Elorriora

joan eta meza nagusiko sermoia entzun omen zuen parrokian, “qui est une des plus belles dans le style Basque”. Hemen dio (12) goian Debako kalostraz idaroki duguna: “le meilleur exemplaire se trouve à Deva. Je voudrai bien pouvoir être enterré dans les cloîtres là!”. Meza nagusiak ez zituen higuin, dirudienez, zeren Abadiñon entzun zuenaz honela dio: “J’ai remarqué la beauté de la scène de la grande messe à Abadiano, les femmes en noir avec leurs tapis noirs et leurs *argizolak*, et de plus de hauts chandeliers portant d’immenses chandelles illuminées”. Mañarian San Inazioaren Ejerzizioen liburua erosi omen zuen bost pezetan, berak berriz argitaratzeko asmoa omen zuena; Fray Bartolomen dantzei buruzkoa ez omen zuen erosi beharrik izan, bai omen zeukalako; gainera han “l’on accuse le clergé local d’avarice extrême!”, baina Ejerzizioak hantxe erosi zituela esan digu! (12).

## 1.

Oña - Marzo 1892

Perillustri D<sup>o</sup> Edward Spencer Dodgson,  
Lutetio Parisiorum (Hôtel du Collège de France,  
Rue de la Sorbonne)

Tuas excepi latine Bayono in charta postali exaratas litteras, quae mihi quidem pergratae exstiterent. Quoniam vero, sub ipsarum finem, haec mihi verba singulari modestia subiungis, “Hoc peto ut benigne vasconice respondeas huic servo tuo”, vasconice libenter et centrali quidem Euskariae loquendi forma, quae mihi ut propria et vernacula ab incunabulis insonuit, breviter respondere contendam.

1. Zorzi izcundeetaco *liburu* aundi eder galai “El Liberalismo es pecado” deritzagunaren berri ugaria emana daducat luze ta zabal, argi ta garbi Bibliografia poliglota izenarekin ein nuen izcribaldian, zeña ill onen 6-an bialdu bainion zuretzat eta Arzac jaunarentzat Durangoco On Balbino adiskideari. Apaiz iracasle Sardá jaunaren liburucho ospatsu ori lenbizi euskarara itzuli zuben chit ondo ezpada-ere Zarauzco escolamaisu On Gregorio Arrue zana eta Barzelonan 1887an “La Hormiga de Oro”-gan moldizkiratua dago 220 orrialdetan 8an izen ezegoki onekin “Liberalen dotriña pecatu da”. Ori ta beste zazpi izcunde batera dagoen nerea, beste biurkeraric euskeraz ez det ezagutzen. (Gero letra ezberdinez erantsi dio: Bai beste liburucho (Pradera, Albizena).

2. El Concilio III de Toledo izena daducan zazpi mendeetaco liburua ezagutzen dezu, zedorrec dirazunez, bada eman zizun Bilbo-n Urkijo euskerazale jaun gazteac. Nai badezu bere azalkidacho bat iracurri, Paris-co Polybiblion-en arkituko dezu (Octobre 1891 p. 312, 313) eta luzaroago ta egokiago gatzelaniaz *El Siglo Futuro*-n (los días 14 y 16 de Julio de 1891). Eziñ det asmatu iñolaco moduz cer adirazi nai dirazun itz oekin: “Tuam versionem Concilii Toletani tertii Canonum nondum terminavi”. Ai zera numbait franzes,

ingeles edo beste izcundeen batera itzultzen Simonet jaunac argitaratutaco liburua?

3. Vinson eta Van Eys-ec argira emandaco izcribuetan aspaldi ezagutu nuen ez batac eta ez besteac euskera ondo (sic!) dakitela, eta A. Larramendi ta beste euskaldun zenbait jakintsuenen contra arrazoi guchirekin jardun diradela ta gai ontan oyec baño ezaguera geiyago ta juzgamen obecoa zala Lenencoi negargarri L.L. Bonaparte: onen bizitza edo biografia luzechoric inñorc argitaratu duen bai al dakizu? Euskerazko eta euskera ganaco izcribu ta liburu en azaldekinza aundiren bat argitaratzen ai al-zerade? Bada orlaco gauzaren bat dirudi zure esaera onec: “in Bibliographiam Vinsonianam supplementi primam partem iam edidi, etc.”. Ez det ezagutzen aitatzen didazun “Revue des Bibliothèques”. Vinson-ec ezagutu eziñ izan dituen euskerazko izcribuen izen ascocho euki bear ditu nere ustez On Carmelo Echegarai-c Donostian. Nic ere ez dauzkat guchi urte ascuan polliki-polliki bilduac. Ezaguna izango dezu noski D. Angel Allende de Salazaren obra: “Biblioteca del Bascófilo, Madrid 1882”. Obra ontan ere euskerazko escribu eta liburu asco falta dira.

4. Atsegin izango nuke zuc didazun eran Arzac jaunac *Euskal-errian* Capanaga-ren bi izcundezco liburuchoa argitaraco balu; ta ondoren ura baño zaarchoagoa dan Arratia-balleraco euskeran dagoen dotriña bat. Bi liburucho oyec alcar josita zeuzcan (ez dakit oraiñ) Tolosaco On Eusebio Lopez molde-zaleac.

5. Erruki aundia eman dit zугanaco, iracurteac “eandem et ego anglicanus opinionum confusione distractus a Catholicis Hispanis et Gallis humiliter peto”; bada pensatu det etzarala oraindic *Catolicoa edo Guzionkicoa* (katholikos), au da, ez daucazula gure animac salbatzeco oso bearra ta baicorra dan Erligio egiazcoa, edo etzerala Jesucristo-ren artaldean edo gure Eliza Ama Santaren semea ta beragatic ez ere Jaincoaren seme ta zeruco jabegai. Ala baltz, erregutzen dizut biotz-biotzetic, gure animen salbacioco jakinduriari aurreac emanic, latina ta beste izcuntza zenbait dakizkitzun ezker, bertatic Jaincoari ta Jesusen Ama Birjiña Maria egunero beren laguntza ta grazia escaturic, icasten asi zaiteala Teologo edo Jaincokinlari catolicoetan izen oneco trataduba: *Tractatus de vera seu christiana religione*. Liburuchoa nai badezu iracurri Aita Schouppe, Perrone... Jesus maiteac bete gaitzala bere ezaguera, grazia ta amorioz

J. I. Arana s.j.

Oharra: Beste orrialdetxo batean Teologiako autore pilo baten liburu en izenak ematen dizkio.

2.

12 Rue de la Sorbonne, Paris, 5 Décembre 1892

Mon Révérend Père J. I. (*de, ipini du berak*) Arana, merci de votre deuxième note, en Français cette fois. Je n'aurai pas le temps de lire tous les livres que vous me recommandez, mais je tâcherai de voir Suarez à la Bibliothèque Nationale où j'ai demandé en vain l'édition de Sarda en 8 langues. Mr. Azkue me dit que les pages de ce beau volume que je désire voir en sont pas numérotées. Mais pouvez vous me dire immédiatement *combien de Pages il y a?* Je n'ai pas encore reçu les 2es. épreuves de mon supplément à Vinson. J'y parle de vos renseignements. Je viens de faire une découverte horrible. J'ai acheté à la Librería Católica à Durango le 10 Octobre 1892 ce que je croyais être un exemplaire complet de "Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac, Iruñeco Libruguille Antonio Castilla-ren echean" (selon Vinson (p. 208) vers 1761. J'ai payé 2 pesetas (ou plutôt je dois toujours ce prix) ce bouquin de Cardaberaz. Mon relieur m'a dit aujourd'hui que les pages 147-158 inclusive y manquent. Je n'avais pas remarqué cela. Ça m'a affligé énormément. Si vous pouvez me trouver ces pages là je vous en serais éternellement obligé. Aussi pouvez vous me dire où je trouverais une édition entre 1700 ts 1760 du *texte original de ces Exercices de votre fondateur?* (dont j'ai en lecture la vie par l'abbé Lapitze en Basque basnavarrais 1867, l'auteur est à Buenos Aires depuis quelques années), ou bien si l'on en a changé le texte depuis. Si les Exercices tels qu'on les vend aujourd'hui sont absolument restés identiques avec le texte que Cardaberaz a connu, je me contenterais d'acheter une édition moderne. Vinson a reçu en cadeau de l'auteur la grammaire de la langue Azkue, avant même la publication du numéro de la *Revue de Linguistique* daté du 15 Oct. 1891, mais dans les 5 numéros paru depuis bien qu'il m'eût promis que si Mr. Azkue le lui donnait il parlerait de ce livre, il n'en a pas dit un mot. La Rédaction de l'*Eskualduna* l'a traité de la même façon. Veuillez bien exprimer à Mr. Azkue votre satisfaction en sachant son intention d'imprimer le catéchisme de Capanaga dont je vais lui envoyer ma copie dans quelques jours en lui conseillant de m'en envoyer les épreuves à corriger. Il a détruit plusieurs précieux documents que j'ai copiés pour lui et n'a pas gardé sa promesse de publier plusieurs autres contributions de ma part. Il n'est pas l'égal de Manterola. Je vous prie de faire publier une édition complète et uniforme des livres de Mendiburu et Cardaberaz. Dites moi encore quelques détails sur le dialecte du petit catéchisme attaché à l'exemplaire de celui de Capanaga que E. Lopez a prêté à J. Vinson. J'ai prié Vinson de le publier sans délai puisque c'est l'unique exemplaire connu. A présent je n'ai plus de temps. Si je suis au dehors de votre église je n'en suis pas l'ennemi. Il ne faut pas attribuer aux Anglicans des croyances ou des manques de croyances sans citer leurs documents officiels. Je suppose que vous admettiez que, comme le dit le Catéchisme anglican, il n'y a que deux sacrements "comme généralement, c'est à dire, universellement nécessaires au salut", puisqu'on peut se sauver sans le mariage, sans être ordonné, sans l'onction extrême, sans la confession, sans être confirmé. Je vous envoie deux de mes traductions en langue Basque.

Resp. 5 y 6 Enero 1893.

3.

Aranak honela dio orri baten aurkian:

"Nov. 20 de 1892.

A Mr. E. S. Dodgson (París)

Id. 5 Dic. 92

Id. 4 y 6 de Enero de 1893

Id. Marzo y Abril

Respondióse el 16 Abril 93.

1 Rue de la Sorbonne. Paris. 14 Janvier 1893

J'ai reçu les remerciements du R.P. Ramon de Vinuesa. Martinez n'a pas encore envoyé les épreuves du sermon. Je vous transmis sous ce pli les épreuves du commencement de mon édition de Capanaga. Je n'ôte que les fautes d'impression évidentes. Veuillez bien me donner en *Castillan* pur une traduction très littérale de la *préface Basque* destinée peut être à la publication. Je pense que *baeroen* pourrait être une faute. Comment l'expliquez vous: "ils effectivement avaient l'habitude d'offrir"? Capanaga emploie *ceinda* en deux ou trois sens différents dans cette préface. Est-ce que *ceinda* signifie "c'est à dire (ce qui est) par vanité", ou bien "de sorte que par vanité ils offraient"? *Armachac* est-il pour *armadac*? Il est évident que *eguiazcoen declaretan debendotrinea* est pour "eguiazcoen dotrinea declaretan debena", n'est ce pas? *Ceinda acudidu*: est-ce que *ceinda* signifie *de sorte qu'ils*, etc., ou bien est-il "*lesquels* ne pourraient être abordis"? "Bosoetara" (sic) pour *besoetara*, je pense. Le prix de mon Capanaga sera d'un franc. Voulez vous dire à E. Lopez qu'il faut m'envoyer votre préface sur Capanaga? Voulez vous ne permettre de l'imprimer? J'attends vos autres réponses. Votre bien obligé

E.S. Dodgson

Adresse: Hôtel Cadete, Vizeu, Portugal. J'y vais par mon propre désir pour avoir plus de liberté et de tranquillité.

19. 7X95

Cher et Rév. Bascophile Don J.I. de Arana,

Je vous ai transmis un exemplaire d'*El Basco* contenant une traduction de la Stance final de *La Araucana* de Ercilla, de Bermeo. Elle me vint par une subite inspiration vers 5 heures du matin de la nuit que j'ai passée chez D. F. de Arrese ta Beitia. J'ai changé 2 ou trois mots par son conseil. La trouvez vous tolérable? J'ai lu avec plaisir dans l'Euskalerria votre traduction d'un poème de Camoens, et je dois vous demander la signification de certains mots. *Bikaña*: je croyais que c'était une variante de *biguña*, *blando*. Mais D. J. M. de Bernaola qui me fit une visite ici il y a quelques jours me dit que c'est pour *bi-gaiña* = *doublement élevé*, *haut*. *Gorrixka* = est il la fleur *clavel*, en Anglais *pink*? *Belchun* je suppose est *noirâtre* = *belcharana*. *Ozgarbi*: beau ciel, tiempo limpido, sereno. *Ichas-arro* selon Don J. M. de B. non seulement *mer gonflée*, mais ce qu'on appelle en Anglais *the trough of the sea*, dépression dans la surface de la mer pendant l'orage. *Ezilariya* pour *ezti-lariya*, apaiseuse? Quae dulcificat? Vous ai-je dit qu'au mois de Septembre je suis allé voir la maison de la famille de St. Francois Xavier à Yatzu près St. Jean Pied de Port? Elle porte du côté des champs les armoiries de la famille. En Octobre je suis allé voir *Abiñaga*, près la gare de Pedernales où il y a une chapelle moderne de St. Antoine de Padoue et où selon la tradition locale sa grand-mère fut enlevée par des corsaires portugais. Don José Urzelay vint me voir hier et dina avec moi. Il a traduit en Basque les atzeneko hitzok de ma Capanaga à l'aide d'un moine qui connaît l'anglais. Pouvez vous répéter un peu plus clairement votre indication des inscriptions? Pouvez vous me donner le facsimile qu'on dit exister en lithographie des lettres de Motriko?

Adresse: E. S. Dodgson, Bilbao, ce 5 Déc. 1895

20.

Caro Señor mio y Rev. Presbítero Don J.I. de Arana,

Recibí hoy su amable carta. Todos los pecadores sufren aunque no confiesen ni sus pecados ni los dolores que éstos les ocasionan. Es difícil confesarse en sangre frío (sic) como una máquina hablante en presencia de aun un santo y fiel confesor, porque un presbítero aunque represente a Dios es un hombre y un pecador también, y es más fácil hablar con Dios en el templo del alma que con todas las condiciones que exige la formalidad de la confesión sacramental de los católicos. Muchas veces sin embargo he sentido inclinaciones a someterme a lo que buenos católicos han hallado una consolación y un auxilio útil. Estimo su zelo y fervor. Si tuviera hijos serían católicos.

El metro de quince sílabas de Dechepare y Echeberri, los Dantes de la literatura Bascongada, es *político* porque así lo llamaban el siglo once los poetas de Constantinopla, pero ellos le han dado tan sólo el nombre porque ya

existía en Eschylo (*Persae*), Aristóphanes, y aun en algunas partes de Sófocle y Eurípides. Véase mi artículo (*Varia*) en la *Revue de Linguistique* de 1892 o 3. Agradezco mucho su regalo de la hoja conteniendo las *Endechas* de Camoens y su respuesta a mis preguntas acerca de su traducción. Recibí el día 7 El Boletín de la Real Academia de este mes con 18 páginas de mis descripciones. Hay una ligera falta en la de Durango, un guión omitido y un L en Madrillen.

Recib. 21.XII.1895

Resp. Enero 1896 a Biarritz

21. 7.III.96

Hôtel Central, Biarritz. B. P. Francia. 7 Mars 1896.

Cher et Révérend ami Monsieur Don J.I. de Arana, Azkoitiarra,

Je vous remercie de votre longue lettre qui vint ce soir et du journal *El Basco* contenant une lettre du pauvre de José Urzelai qui démontre combien il a besoin d'être protégé! Merci des autres documents que vous m'envoyez au dedans de la lettre. Je vous engage de ne pas publier ni faire sculpter votre épitaphe. N'y a-t-il pas des fautes graves qu'il faut soustraire aux yeux des critiques prosodiques? J'admire autant que vous et le Prince L. L. Bonaparte et Mr. le Ch. Inchauspe. J'ai reçu une lettre de celui-ci ce matin. Il croit qu'il va mourir. Ecrivez-lui. *Osagarri* signifie santé dans le Basque de France: mais c'est étonnant. Votre emploi du mot paraît étymologiquement plus raisonnable. Mais l'usage est souvent contraire à la raison. Vous ne me dites pas avoir reçu de moi un numéro de *Notes et Queries* (¿???) et un autre de *The Gaelic Journal*. Je vous écrirai plus plus tard. Je vous enverrai mes inscriptions aussitôt que je les aurai reçues.

E.S. Dodgson.

22. 9.3.96

Cher et Révérend Monsieur J.I. de Arana,

J'ai pu apprendre du catalogue de Vinson que le fragment d'un livre que je vous ai annoncé dans ma carte postale expédiée d'Aranzazu appartient à la première édition du livre de Mendiburu sur le Sacré Cœur de Jésus. Ainsi j'avais *commencé* à croire avant de vous écrire de là. De retour à Oñate j'ai trouvé dans la même maison presque tout le reste de volume, qui porte en Vinson le numéro de 76.a. J'ai acheté là pour un real un sermon *manuscrit* du siècle actuel que P. Martinez va imprimer: 200 exemplaires pour 30 pesetas. Je vous prierai d'en corriger l'épreuve que je vous enverrai avec le manuscrit à la fin de Septembre. Je vais maintenant à Loyola, et je quitterai Azpeitia demain. Prière de m'envoyer *une copie* et une traduction des paroles marquées à crayon dans le poème Basque dans le numéro d'*El Cantabro* que je vous ai transmis aujourd'hui avec la *Union Vascongada* de Lundi qui contient ma copie de la première lettre connue en Langue Basque. Adieu. E. S. Dodgson.

26 Hôtel Peninsular, Madrid, Calle Mayor, fête de S. Michel 1896,

Cher et Révérend Père J.I. de Arana,

Depuis longtemps vous m'avez délaissé. Je suis retourné à Madrid Samedi matin après une absence de deux ans et à la fin d'un voyage de deux mois en Galice. Pourrai-je vous être utile dans les Bibliothèques d'ici? J'ai vu ce matin dans la Bibliothèque Nationale le Nouveau Testament Basque de 1571. Il porte la signature de

R.

8914; et je trouve que Vinson a mal copié ce qu'on lit en bas de l'écusson d'un propriétaire d'autrefois. Je l'ai transcrit ainsi:

|                                      |   |
|--------------------------------------|---|
| Ex Bibl.ca D. Ferdin. Josephi        | } |
| á Velasco, In Aula Criminali         |   |
| Sup.mi. Castellae senatus, Fiscalis. |   |

En face sur la page suivante on a écrit *Vease el Diccionario Vascongado del P. Larramendi en el prólogo fol. 36 v 37*. ¿Conoce Vd. qué sucedió con el exemplar imperfecto de los proverbios de Pamplona de 1596 que Cardaberas mandó a Larramendi? He hablado anteayer con el R. P. F. Fita.

E.S. Dodgson

Hauek dira Dodgsonen lau urtean, gutxi gorabehera, aita Aranari egin zizkion 23 eskutitzak. Aranak Dodgsoni eginak non ote daude? Azkeneko hau 1896ko urriaren 7an hartu zuen Oñan Aranak eta handik bi hilabete eta erdira, abenduaren 19an, beste mundura joan zen 58 urte zituela. Dodgson oraindik beste 26 biziko zen.



## EIBARKO IDAZLEAK

### *EIBARKO IDAZLIEN ETA IDAZLANEN ANTOLOGIA*

#### Aurkezpena

*Eibar, 2000-II-03*

*Jose Antonio Arana Martija*

“Asketsidazute, nere idaz-lan onen aurkezpena baño len, zuei agur egitera antzetzokian agertu banadi” Ez dira nire hitzak, Antonio Iturriotz idazle eibartarrarenak baizik, Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzate* eleberriaren itzulpeneko lehen hitzak, hain zuzen. Agurtzen zaitutuz, bada, jaun-andre entzuleok, baina kezkatu eta urduritsu nagoela aitortuz. Gaur eskuartean dugun *Eibarko idazlien eta idazlanen antologia* aurkeztea eskatu zidatenean, erreparo, zalantza eta beldurra ere izan nuen mandatua onartzeko, esku izateko aukera izan arren, ez neuzkalako jokoan hogeita hamaika irabazle ateratzeko. Eibarren bazeudela hiru errege eta batekoak esan nien proposatzaileei, nik baino hobeto bete zezaketenek zeregin hau. Gogoan neuzkan gai honetaz ni baino eibartar adituagoak eta hala azaldu nien. Baina esan zidatenez, etxeko eltzean egosi beharrean, hobe zela lapikoa kanpoko sukaldera eraman aldameneko gozagarri pitinen bat jakiak izan zezan. Hemen naukazue, bada, zuen alorreko euskara dela eta asko ikertu eta idatzi bada ere, kanpotik ikusita zerbait adierazi nahian.

Bizkaieraren esparrua dela eta, Louis Lucien Bonapartek egin zuen euskalkien sailkapenaz geroztik, asko izan dira azpieuskalkien sailkatzeak. Bergarako azpieuskalkian kokatzen zuen Bonapartek Eibarkoa. Ez zebilen urrun Koldo Zuazo eibartarrak eman digun sailkapenetik. Deba ibarreko bizkaiera hartzen du honek azpieuskalkitzat, Deba goienakoan Aramaio, Leintz, Oñati sarturik eta Deba erdikoan Bergara eta Eibar. Baina nik esango nuke Deba erdiko horretan berezi samarra dela Eibarkoa, gehienbat fonetika aldetik. Baina gero aztertuko dugun gaia da hau. Markinako euskararen eragina ere baduela Eibarkoak uste du Juan San Martinek. Ez dezagun ahaztu Juan Antonio Moguel, Eibarren jaioa (1745). Markinan bizi izan zela ia bizi osoan eta han idatzi zituela bere lanak; baina aipatu beharra da, baita ere, lehenak gipuzkeraz argitaratu zituela. Bera izan zen bizkaieran “j” biguna idazten hasi zen lehe-

na, “i-a” bitartean ahoskatuz. Harira datorrenez, esan behar da Bonaparte Eibartik iragan zela 1856.eko irailaren 22an. Badirudi 3.800 biztanle orduan zituene herri txiki honetan ez zela geratu Bilbotik Donostiara egin zuen bidaian. Osteren datu zehatzak ematen dizkigu Bonapartek eta egun horretan honako hau idazten du: “6. (goizeko 6etan) Bilbao, Begonia, Galdacano, Zornoza, Durango, Berriz, Ermua, *Eybar*, Elgoibar” non lotarako gcratu zen hurrengo egunean Donostiara abiatzeko. Izatez, Bergara zen administrazio aldetik eskualdearen burua eta Eibarrek baino biztanle gehiago zeukana, hots, 6.100 garai hartan. Bergarako Julian Atxotegirekin izan zituen harremanak eta azpieuskalki hau aztertzeko, besteak beste, honek idatzitako Dotrina erabili zuen eredutzat. Gai hau sakonki ikertzeko liburu interesgarri bat dugu, hots, *Bergarako Euskera* (1988) non egertzen den, sarrera gisa, Jerardo Elortzaren “Bergara eta euskara” iker-lana, eta gero beste kapitulu batzuk fonetikaz, deklinabideaz, aditz-jokoaz eta abar. Deba ibaiak Eibar eta Bergara arteko elkarbidea errazten du eta Azkonabieta mendiak ez dio oztopo handirik sortzen hizkeraren komunikazioari.

Marko honen barruan datorkigu gaur Eibarko euskararen berezitasunak adierazten dituen liburua: *Eibarko idazlien eta idazlanen antologia*, Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaizak paratua eta udaleko Euskara Batzordeak argitaratua. Ez da, izatez, gai honetaz argitaratzen den lehena. Nik etxean dauzkadan eta begiratu ahal izan ditudanak badira: Antxon Narbaizaren *Eibarko Gatzizenak* (1990), Juan Andres Argoitia, Nerea Azkarate eta Xabier Gezuragak argitaratu zuten *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk* (1995), Narbaizak berak atera zuen *Eibarko euskara: Guxtiespenaren historia* (1998) eta Imanol Laspiur, adiskide mina zenak, Serafin Basauriren hitzaurre eta laguntzarekin kaleratu zuen *Eibarrera jatorraren bidedetik* (1999). Baliteke beste liburu batzuk ere izatea, eta parka egidazue nik ez ezagutzea. Aldizkarietako artikulua ere ugari dira. Gaurko belaunaldiaz ari naiz emandako aipamenetan; baina zelan ez gogora ekarri Toribio Etxebarría eta Juan San Martinen lanak, zerrenda luzea emango liguketenak eta gerorako uzten ditudanak.

Nire ikerketatxo hau hasteko esan dezadan Eibarko euskara sarri eta leku askotan gutxietsia eta mehezprezatua izan dela. Inoiz entzuna dut Eibarko esaldi hau: “Hau dok trigua maduratzeko denbora”. Ez haserretu, mesedez, badaikit hau hala ez dela eta. Euskaltzaindiak 1959. eko azaroaren 6, 7 eta 8an antolatu zuenean Eibarren Euskalzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez, “Eibartarrak eta euskera” izenburuaz hitzaldia eman zuen Seber Altubek, arrasatear-gernikar euskaltzainak. Besteak beste, halakoak esan zizkigun: “Eibartarren euskera gramatikaz, garbi eta jator izan da beti; gaur ere bai; baina iztegiz mordoillo fama ematen diote. Fama ori ere ez da egiazkoa” Eta beste halako hau: “Esaera zaarrak dirauskigu: ‘Al danean al dana itxasoko arraiñik onena’. Al danean al dan bezela ekin diote, beraz, eibartarrek burdin-langintzan, saldu-erosietan, ... baita langilleen defentsako mitin eta

itzaldi guzietan ere. Parkatu, baiña ezin aztu ditut honelako bi predikalari: Don Poli, eskuma aldetik, eta Amuategi ezkerretik; baina biok eibartar jatorrak, biok euskaldun-euskaldun” Ondo ezagutzen zuen Altubek Eibarko euskara. Arrasatetik 1901ean Gernikara etorrira, 1913an lehendabiziko fabrika sortzearen lekuko izan zen: Rufino Unzeta eta Juan Esperanzak, Eibartik etorrira, *Astra* arma fabrika eraiki zuten eta bertatik ekarri horretarako trebetuta zeuden beharginak. Eta asko zirenez etorriak (eta ez trenak ekarriak, erdaldunengatik Gernikan esaten den bezala) eta denak Eibarko euskaldunak, euren aztarna utzi ziguten Gernikan, gehien bat hitz teknikoetan. Aipatu behar dut hemen, geroxeago Altubek berak sortu zuela beste arma fabrika bat, Alkartasuna izenekoa. Beraz, lanabes edo erreminten izenak, behintzat, ugaltu ziren Gernikako hizkeran.

Eibarrera mordoiloa dela esateak badakit eibartarrak mintzen dituela. Eta lagunartean haserrea sortzen bada ere, badira idatziz ere aurka azaldu direnak. Bat aukeratzearren, Juan San Martinek idatzitakoak irakurriko dizkizuet. Toribio Etxebarriaren “Flexiones verbales de Eibar” *Euskera* aldizkarian (1963-64) argitaratu zuenean, hitzaurretxoan hala zioen San Martinek:

“... por el exagerado criterio que siempre ha reinado en el país de considerarnos a los eibarreses de lenguaje extremadamente adulterado por el castellano. Este es un error de bulto, si lo analizamos bajo un punto de vista matemático: un eibarrés puede emplear en su léxico, suponiendo, un 40% de vocablos extraños, y no solo procedentes del castellano, sino de lenguas romances; un donostiarra, vamos a suponer, empleará un 15%, y no niego que pueda haber tal diferencia. Pero a su vez el eibarrés, en las relaciones normales de su vida cotidiana, empleará en su desenvolvimiento unas 6000 palabras; el donostiarra, tal vez porque desde anataño el euskera no es su lenguaje normal para las necesidades de la vida, empleará en proporción a los eibarreses, la mitad o poco más de vocablos, y como digo vocablos diría también flexiones verbales. Lo que hace que si el eibarrés emplea mayor número de vocablos de procedencia extraña, también emplea en mayor número los netamente euskaldunes. En un donostiarra salta a la vista la falta de recursos, pero aún no he oído a nadie hablar socarronamente de la pobreza del lenguaje donostiarra...”

Baina eibarreraren aberastasun hori ez datza bakarrik hitz arruntetan, aditz-jokoan, hitanoa erabileran eta bizkaierazko berba arkaikoetan. Industria eta teknika ere harrobi joriak dira eibartarren hizkerarako, bai maileguzko hitzak egokituz, baita berriak asmatuz ere. Etxaitar goitzenarekin idatzi zuen Jon Etxaide Ithartek *Euzko Gogoan* “Euskera Arriaroan” artikulua (1954) non esaten zuen *zulakaitz* hitzaren ordez “cincel” (edo “zizela”) erabiltzen zela Eibarren. Hala ulertu zuen Antonio Iturriotzek Etxaideren esaldia (nahiz eta nire ustez alderantziz izan, hots, “cincel”ari “zulakaitz” deitzen ziotela). Dena den,

aldizkari horren hurrengo alean Iturriotz eibartarrak erantzuten zion “egi garbiaren magaletik at dabillena” 1955eko lehen alean, “Etxeitar Jaunari” izenburuko artikuluan. Hara zer diotson:

“Cincel horrek zauritu dit apur bat ene eibartar izate arrotasuna... Jakiña, ezin genbilke eibartarrok arroegi geure izkeraren politasuna delata; erderakadak geron erausietan sarrerazten dituguna ezin uka dezakegu. Baiña non ote erderakeri oriek sartzen eztituen tokia? Zedorren errian, noski, dala dalakoa bera? ... Gure errian etzitzakio esaten “cincel” zulakaitzari, *goizabal* baizik; eta *beran* (berana) tresna ori estua danean ... beran ori burnia berontz sakaitzekoa izaten dalako”

Eta anekdota hau kontatzen dio/digu Iturriotzek lehen esandakoari jarraipena emanaz, armak bakarrik ez baitira esportatzen Eibartik euskal hitzak ere bai:

“Eibar’ko seme banakak joan oi ziran Oviedo’ra orain berrogeitamar urte ta geiagoz, (mendearen hasieran, beraz) ango izkillutegian lan egiñez. Egintza orren eragipenez, asturistarrek lantegi artan “la barautza”, “la ortza”, “la ardatza” izendatzen zituzten tresna oiek, gaztelaraz broca, cuchilla, machuelo diranok. Eibartar aiek “brokia” esaten ikasi bearrez (egun ia Euskalerrri osoan esaten dela dirudi) barautza esaten irakasi belarrimotxei; oar ezazu nolako sutsu erabil bearreko izango zituzten itz oriek, gutxienek geienei mingaña ezarrazteko”

Armagintzan Eibarren erabiltzen diren hitzen zerrenda ematen digute Ramiro Larrañagak *Síntesis Histórica de la Armería Vasca* liburuan (1981) eta *Museo de Armas. Eibar* ondo apainduan (1984). *Burdin laneko zenbait tekniku itz* idazlana zor diogu Juan San Martini (*Euzko Gogoia*, 1958). Arma fabrikak Soraluzen eta Eibarren XV. mendetik dira eta beste fabrika, tailer eta industriak geroztik, Unibertsitate Teknikoa barne (1968).

Eibarko beste berezitasun eta aberastasun bat hitanoaren erabilera da, hinkako hitzegite era edo hiketa. Dakizuenek, toka gizonezko bati hitzegiterakokan erabiltzen den aditzaren forma edo aldaera da, eta noka emakume bati hika egiteko aldaera. Eibarko aditz-jokoaren aberastasunari hau ere eransten zaio. Euskarak duen aditz-joko berezi honi buruz zera zioen Orixek (*Karmel*, 1960):

“Nik gitxienik dakidana Eibarko euskera da; baiñan ez dot itxi aitu бага aditzaren ioka-itz orreitatik bat bera ... Batez bere to-ta-no dabil ederto. Gaur Gipuz-Gipuzkoan zenbat ete dira berbeta au adituko dabenak?”

Vicente Agirre Gisasola (1829-1907) Eibarko medikuak ponteizen eta deitura hauekin argitaratu zuen jaioterriko Orueren moldiztegian *Tentativas de re-*

*construcción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra*, 407 orrialdeko liburua (1898), lehenago *Euskal-Erria* aldizkarian Jose Guisasaola goitzenarekin kaleratutako artikulua liburua honetan bateratuz. Zera diosku 1886an, Julien Vinsonen ikerketetaz baliatuz: “Los verbos alocutivos (hitano-koak noski) tienen en las lenguas americanas un sufijo “k” para el masculino y “n” para el femenino” Eta geroxeago (1888) adibideak ematen ditu: *deuz-tak*, *deuztan*. Baina hitanoaren erabilera murrizten zihola (agian, Eibarren) diosku (EE, 1888, XVIII, 316): “Zu, usted, quedó para el singular del trato cortés y concluyó por acorrallar a su antagonista “i”, cuyo uso se halla muy limitado, excepto entre jóvenes y criaturas”.

Iragan XIX. mendearen erdian ugari erabili zen hitanoa Euskal Herrian. L. L. Bonapartek *Le verbe Basque en tableaux* ikerlan paregabea, oharrez bete-ko kapitulu luzea eskaintzen die hitanozko formei, aditz alokutiboari hain zuzen. Baina “k” gizonentzat eta “n” emakumezkoentzat bereizten baditu ere, lau aditz-joko bakarrak ematen dizkigu: Gipuzkoa, Bizkaia, Laburdi eta Zuberoan bildutakoak. Pedro Yrizarrek, bere *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*, II, 409-436) delakoan, beti Bonaparte oinarritzat hartuz, eta Azkue, Etxebarria, San Martin eta Iñaki Gaminderen ikerketak gehituz, VII laukitan azaltzen digu Eibarko aditz-joko normala eta hitanozko bi formak bereizten ditu azpian. Eibarko Euskara Batzordeak osotu zituen bi aipatu lan hauek Aditz-Batzordia sortuz, zeinek lan oparoa argitaratu zuen 1998an: *Eibarko aditza* 233 orrialdeko liburua, aditz-joko osoa azaltzen duena.

Eibarko aditza dela eta, ezin dugu beste berezitasun bat ere ahaztu: aditz sintetikoaren ugaritasuna. Laguntzailearekin baliatu barik, idazle eibartar quztiek erruz erabiltzen dituzte forma sintetikoak eibarreraren aberastasuna erakutsiz.

Lexikoaz eta aditzaz iruzkin batzuk egin ditut, eibarrerari goi begirada bat emanaz. Baina bada beste berezitasun bat, kanpotik datorren bati gehien nabarmentzen zaiona: ahoskera. Gai honetaz aurkezten den liburuaren sarre-ran eta gero idazleen testuak ikertzerakoan esaten denari ondo deritzot. Bonapartek euskalkiak eta azpieuskalkiak bereizteko eta sailkatzeko, beste hizke-raren adierazgarri batzuk ahaztu barik, ahoskerako formen oharpenak idazten zituen paperetan, herriz-herri egiten zituen bidaiaren etenaldietan. Gernikan, esate baterako, oharpen hauek aurkitzen ditugu bidaiaren egunkarian: ie, ije, oa, ue, j, s. “J” letraren ahoskeran bi forma bereizten zituen: bata, gaztelania-ren gogorra eta bestea “d’mouillé, légèrement sifflant” hau da, palatizatua edo bustia. Guk bustidura eginaz ahoskatzen ditugun “egije”, “argije”, “mendije”, eibartarrek “egixa”, “argixa”, “mendixa” ahoskatzen duzue, bustidura azken muturreraino eramanda. Guk “t” letra bustitzen dugunean, “aite”, “politte”, eibartarrok gauza bera egiten duzue eta “tx” hiperpalatizatura jo. Badago bes-te ahoskera bat non gernikarrok zuek baino urrunago goazen palatizazioan: “dakixu”, “e(g)ixu”, “pixu”, “maixu” eta abar.

Bustidura hau aspaldidanik datorrena da, lehengo eta oraingo idazleetan. Ez dago antologiako testuak ikustea baizik. Eta berriz aipatuko dut lekukotasun bat. Vicente Agirre medikuak, lehen gogora ekarri ditudan lanetan, hala idazten du: “mendisan kerizia”, “gizonen jakiturisa”; baina irakurtzen dugu, baita ere, “estalgijek”, azken hau Gernikako eran.

R. M. Azkuek, hogeita hamabost urte geroago, Hizkuntz Atlasa burutze-ko asmoz eta euskara batuari bidea zabaltzeko, lexikoz, morfologiaz eta ahoskeraz galdeketa bat egin zuen Euskal Herri osoan, *Erizkizundi Irukoitza* izen-buruarekin, Ana Maria Etxaidek 1984an argitara eman zuena (Iker-3). Eibarko euskarari zegokiona Odon Apraizek egin zion Kaietano Kareagari, 49 urteko eibartarrari. Inkesta egin ondoren hau da Apraizek dioskuna:

“Kareaga, artífice eibarrés, representa bien el tipo euskaldun medio de su pueblo. En el léxico presenta grandes lagunas. En fonética es bastante conservador: “-a” de “egiza”, “eskua” no evolucionan a “-ixe”, “-uba” o “-ue”. Se conservan -n- y -g- intervocálicas. Entre los jóvenes (hay) más tendencia a la palatización haciendo “-ixa” < “-ija”; “-txe” < “-tte”. Por ejemplo: “baita < baitta < baitxa”.

Toponimian ere badauka lekukotasuna “s/z”ren palatizazioak. *Eibarko Hiri-toponimia* liburuan (Onomasticon Vasconiae, 13, 1995) agertzen dira honako toki-izen hauek: Arexita, Aritxuloeta, Axti, Elexalde (Gorosabel, 1862 = Elejalde), Saastixa, Tellerixa, Urkirixa. Baina Lisibaerreka eta Lisibaleku toponimoak ez dira “Lixiba-”ra bihurtu. Dena den, badirudi palatizazioa azken mendekoa dela.

Hau guztia esanda -eta esan ez dudana nire jakinezari atxeki behar zaio-zerbait gehiago egin nahi nuke Eibarko hizkerari buruz. Aurkezten den liburu bere osotasunean ondo egon arren, kritikatzeko bat egin behar diot eta horren haritik proposamena. Ondo dakigu gizakumeen lanak beti dituztela hutsuneak eta akatsak. “Humanum est errare” dio latinezko esaldi zaharrak. Baina errakuntza batzuk konponezinak badira, badaude zuzendu ahal direnak eta behar direnak ere. Eibarko idazleen biografiez ari naiz. Liburu honetan azaltzen direnak eskasak iruditzen zaizkit. Ez da liburu hau, jakina, halako helburua betetzeko lekuri proposena. Baina, nahiz eta hala beharrez laburrak izan, beste metodologia batekin burutu behar izan dira ematen direnak. Eta hemen dator aipatu dudana proposamena: Eibarko idazleen biografiak eta bibliografiak liburu baten azaltzea. Hemen gaudenok ondo dakigu nork egin leza-keen lan hau. Lehendik ere badu gai hau arakatua. Eibarko Udalak eta Euskara Batzordeak babestuko lukete lan hau burutzea?

Toribio Etxebarria eta Juan San Martinen datu bio-bibliografikoak ez noa hemen ematera. Luze jardun beharko nuke ahalegin honetan. Eta hitzaldirako jarri didaten denbora mugak ez dit astirik ematen, bestalde pozik egingo nukeen ekitaldirako. Dena den, bi ikerle eta idazle ospetsu hauek -eta ez euska-

ra arloan bakarrik, euskal kulturen baizik- ez ezagutzea lotsa eman behar lieke eibartarrei.

Erromualdo Galdos jesuita (1885-1953) ez da, tamalez, hain ezaguna. Erroman, Belgikako Marneffen eta Burgosko Oñan eman zituen bizitzako urterik gehienak. Erroman “Eskritura Santuetan” doktoregoa lortu zuen, Euskal Herrian oso gutxi jaso duten titulua. Han eta Marneffen zegoelarik, abertzalea zela eta, kontrolatua izan zen eta gurutzatu zituen gutunak bidali ondoren eta jaso baino lehen helarazteko irakurriak. Beste lan batzuen artean bi liburu prestatu zituen, maketazio aldetik bereziak eta moldiztegi ondo apainduak. Agustín Basterretxearen Pasioko bertsoak (1750) Oñan paratu zituen (1927-1928) eta Donostian ederki argitaratu (1928). *Dabiden abestiak* Marneffen euskarara itzuli eta argitaratzeko prestatu zituen. Eskuizkribu antzera kaleratu zen Erroman 1936an. Inprimaketa aldetik oso bitxiak direlako aipatu ditut biak. Gernikan idazten ari naizenez, hemengo berri bat eman behar dizuet eibartarroi. Galdosek ekarri zuen gure Andra Maria parrokiara, 1927.eko larunbat gurean, Alberto Brodzky, eskultore poloniarrek, egindako Bakardade Birjinaren irudia. Eliza honetan ikus daiteke. Eta eibartarra zenez, aipatu behar dizuet Juan Bautista Mendizabal eskultorearen bi irudi ditugula parrokia berean, 1814an erosiak: Kristoren Berpizkundea eta Kristo hila etzanda.

Antonio Iturriotz Urizarrek beteko du nire azken orrialdea. San Martinen esanetan, Eibarko hizkera jatorren erabili dauana Antonio izan da. Genekien gutxia hornitzea merezi zuen, beraz. Eibarren jaio zen 1900.eko martxoaren 12an (J.S.M.: *Escritores euskéricos*). Armagintza Eskolan heziketa teknikoaz jabetuz, Felisa Arrizabalaga Ibazeta eibartararekin ezkondu zen, gazte, 1921ean, zeina hil zitzaion 1936. eko abuztuan. Lau seme-alaba izan zituen: Ignacia (Baskaranen alarguna, Zarautzen bizi dena), Jose (“Pepito”, hamar urtekin Albaceten 1934an hil zena), Alicia (1927an jaioa) eta Aitor (1996an hila). Denak eibartarrak. Aurrera jo baino lehen esango dut datu hauek Aliciak emanak direla. Ricardo Macarrón pintorearekin ezkondata Madrilén bizi da eta bera ere pintorea da. Beste oleo askoren artean Julio Caro Barojaren bi erretratu egin ditu, bata Berako Itzean dagoena eta bestea Iruñeko Museoa.

Errepublikara garaietan, familia hartu eta Albacetera joan zen, non arma dena bat zabaldu zuen, Eibarkoak gehien bat salduz. Baina 1934.eko urriaren 4ko matxinada sortu zenean atxilotua izan zen Albaceten, eta denda zarratuta familia Eibarrera itzuli zen 1935ean. Ordurako kartzelatik ihes eginda zegoen Antonio eta Murtzian ezkatututa egon ondoren Aljeriako Oran hirira jo zuen eta handik Errusiara, non –Alicia alabak dioenez– lokomotora fabrika baten stajanovistekin lan egin zuen. Moskura ere heldu omen zen eta ez dakit hemengo unibertsitatean Politika Zientziak ikasteko aukerarik izango zuen, 1936ko udaberrian Eibarrera etorri baitzen.

Gerratea hasi zenean, han-hemenka ibili zen Errepublika eta “nazionalen” gudarostetan. Eibarren zegoela, Arrateko Ama Birjinaren pitxiak salbatzeko

lurperatu zituen, gero agertu zirenak. Errebaleko monja klarisak ezkutatzeke ere aukera izan zuen eta burutu asmoa. Zaragozako frentean (“legionarioa” izanik) Errepublikako armadara pasatu zen eta 1938an Errepublikako Estatua- ren urte gorria Odesara eramán zutenen artean aurkitzen zen. Itsasontzian urte gorri hori Ameriketara eramateko matxinada berotzen hasia zela sumatu zue- nean, aurkako talde baten buru eginda, lortu zuen Moskura heleraztea. Gero, Santanderreko Sardinero pasealekuan zebilelarik, atxilotu egin nahi izan zuten “nazionalak”, baina “legionario” karneta erakutsita, zigorra uxatu zuen. Gerra bukatuta, Albaceten agertzen zaigu eta handik Bartzelonako bidea hartzen du Frantziara joateko. Joan ere joan zen, baina zigor zelai batetan atxilotua izan zen. Handik ere ihes eginda, Iparraldeko baserrian aurkitu zuen babes-lekua. Baina Europako gerratea hasi zenean, Dominikar Errepublikara deserriratu zen eta handik, 1943an, Mexiko hiriburura abiatu zen, non bigarrenez ezkondu zen Martinez Artzapezpikuaren loba batekin. Aitor semea berarekin bizitzera era- man zuen Mexikora eta biak itzuli ziren Eibarrera 1975ean. Egotalditxo bat hemen eginda berriz joan zen Mexikora non 1982an (edo 1984an, ez dakit ziur) hil zen.

Halako abenturazale gizon batek nolako atseginez irakurriko zuen Pio Ba- rojaren *Zalakain el aventurero* argi izango duzue. Irakurri eta euskarara itzu- li ere egin zuen, egile beraren *La Leyenda de Jaun de Alzate* itzuli zuen mo- duan. *Altzateko Jaunen Irakurgaiaren* orijinala Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan daukagu, Juan San Martinek 1981.eko azaroaren 26an ekarria.”Al- tzateko Jauna” izenburuarekin eleberri honen XV. atala *Euzko Gogoan* argita- ratu zuen (1955); baina aldizkari honetan agertzen den testua eta eleberri oso- an ematen diguna desberdinak dira. Bi eleberriak, Zalakainena eta Altzateko Jaunarena, argitaratu gabe daude. Beste aldizkari batzuetan ere argitaratu zi- tuen euskarazko lanak.

Mexiko hiriburuan Versailles kalean bizi izan zen (87. zenbakian) Handik Jokin Zaitegiri, 1957.eko azaroaren 2lean idatziriko gutun batean hala dio:to:

“Berrogeitamar urtez goitik nitun nere euskera errikoi, pardel xama- rra erdi aazturik lotsarren nebillenian, baiña errimiñak arira erakar- ki, lotu nintzaion, nere bastertxoan bederen, euskera geitze ta apain- tze arloari. Ondo dakit oraindik guzia bearrez arkitzen naizela; alare zure aldizkari kemenduna bezain jakitun ori irakurritz aditaltzea orrenbaten aski izango zait euskaldun lez mailla egoki baten koka al izateko”

Eta honekin bukatzen dut. Har dezagun eredutzat Iturriotz eibartarra, inoiz ez bada berandu gure euskara hobetzeko eta ez dakienak ikasteko. Eibarko Eus- kara Batzordeari eskerrak, bada, euskara zuzpertzeko eta hedatzeko egiten duen ahaleginagatik. Gaur aurkezten den liburua dugu eredu eta adibide. Besterik ez.

## LA AMERICANIZACIÓN DEL APELLIDO VASCO EN EL OESTE DE LOS ESTADOS UNIDOS

*Linda White*

Este texto pretende indagar en el fenómeno del apellido vasco en el mundo angloparlante del Oeste de EEUU y en su evolución escrita y oral, es decir, en el proceso conocido como la americanización del apellido vasco.

Quisiera brevemente hacer un comentario sobre el uso del término “americano”. América es un continente y no un solo país. Desafortunadamente la mayoría de los ciudadanos de los EEUU de América no se dan cuenta de este hecho, ni saben por ejemplo que México es en realidad los EEUU de México. Aun teniendo conocimiento de ello, por el hecho de haberme criado en los EEUU de América, mi lenguaje también ha sido afectado. A pesar de que muchos emigrantes vascos emigraron a la América hispanoparlante, cuando empleo aquí los terminos EEUU, América y americano me refiero a EEUU de América angloparlante.

Para empezar me gustaría mostrarles algunos nombres americanos:

Hewart; Betterbide; Aguire; Mendive; Airyaga; Argosha; Ekaverya. ¿Los han reconocido? Así suenan algunos nombres vascos después de varias décadas en los EEUU como parte integrante de la cultura angloparlante de aquel país. ¿Les parecen a Uds. horribles? Estos son algunos ejemplos de las modificaciones que los apellidos vascos han sufrido en EEUU.

He aquí algunos apellidos corrompidos una vez más junto a su respectivo en el estado puro:

|            |              |            |
|------------|--------------|------------|
| Hewartiafʊ | ˈhju wərt    | Uharte     |
| Betterbide | ˈbɛtər ˌbaɪd | Beterbide  |
| Aguire     | ə ˈgwair     | Aguirre    |
| Mendive    | ˌmɛn daɪv    | Mendibe    |
| Airyaga    | ˈɛrɪ ˈaga    | Arriaga    |
| Argosha    | ɑr ˈɡouʃə    | Argoitia   |
| Ekaverya   | ˌɛkə ˈvɛrɪə  | Echeverria |

La mayor parte de la gente puede reconocer algunos de estos apellidos como vascos, a pesar de que están condicionados por el entorno angloparlante. Cualquier persona con un poco de conocimiento de lo vasco (y de los sonidos ingleses-americanos) puede identificar como apellidos vascos los siguientes: Arriaga, Mendive y Aguirre. Desafortunadamente son pocos los que pueden reconocer la etnicidad de "Hewart" o "Betterbide" sin verlos escritos como Uharte o Beterbide.

Empecé a estudiar el euskera en 1981, y poco después me di cuenta de que muchos vasco-americanos iban perdiendo no sólo la lengua sino el rasgo más básico de su etnicidad, es decir, el carácter vasco de su apellido. Los nombres vascos que escuchaba habían sufrido tal transformación, que al principio no sabía que eran vascos. Incluso los estudiantes en nuestras clases de euskera pronunciaban sus apellidos como nombres completamente americanos. Me di cuenta también que, después de estudiar la lengua, la mayoría continuaba usando la pronunciación americana de su apellido cuando hablaban con otros americanos. Pero cuando hablaban con una persona recién llegada del País Vasco o bien con una persona que sabía algo de euskera, estos vasco-americanos trataban de emplear la pronunciación "correcta", es decir, euskalduna, en vez de la americana.

Como resultado de estos ensayos estudiantiles pude ver que cada apellido vasco se podía pronunciar de tres maneras. Podemos llamar a la primera la pronunciación que el apellido tuvo originariamente en el País vasco, antes de que el poseedor (o la poseedora) de este apellido se fuera a EEUU. La segunda clase de pronunciación sería la americana. Esta categoría nace del hecho de que el apellido ha sido pronunciado miles de veces por lenguas angloparlantes. La tercera categoría sería la manera de pronunciar el apellido como si el que habla fuera un vasco-parlante cuando en efecto no lo es. Así, una persona americana (o americanizada) que tiene gran conciencia de su origen vasco, tratará de pronunciar su apellido como si fuera vasco-parlante. Pero esta tercera categoría de pronunciación no es americana ni vasca, sino un conjunto de sonidos que para el vasco-americano angloparlante se aproxima al sonido que se imagina que pueda ser vasco.

Aunque se ha escrito mucho sobre la historia y los orígenes del apellido vasco, no he encontrado nada escrito desde el punto de vista del cambio que se da en el carácter étnico de un apellido vasco, que se halla aislado como si se tratara de una isla pequeña en un mar de sonidos angloamericanos. Se ha escrito poco sobre la evolución del apellido vasco como vestigio del sistema patronímico del País Vasco y, más generalmente, de España hasta modificarse por escrito y por hablado, llegando a convertirse en otro apellido americano.

Por eso quise hablar con personas de apellido vasco en el Oeste de los EEUU para saber si mis observaciones desde el punto de vista del Programa

de Estudios Vascos valdrían para vascos no académicos. Durante este proceso descubrí algo muy interesante: muchos de estos vasco-americanos vacilaron antes de decirme que sí contestarían a mis preguntas. Al preguntarles por qué, me dijeron que creían que no sabían nada de sus apellidos excepto que estos eran de origen vasco. Casi todos se dan cuenta de que son vascos, aun los que tienen sólo al padre o a la madre vascos. Pero no estaban muy ciertos en cuanto a los hechos concretos. Temían que yo iba a preguntarles sobre el sentido literal de sus apellidos.

Al hablar con las personas de apellido vasco les pregunté seis cosas:

1. ¿Puede Ud. pronunciar su apellido para mí?
2. ¿Se considera Ud. vasco?
3. ¿Quién nació en los EEUU? ¿Ud.? ¿Los padres? ¿Los abuelos?
4. ¿Es su apellido una forma abreviada de otro apellido más largo que la familia usaba en Euskadi?
5. ¿Usa Ud. de vez en cuando una forma abreviada del apellido?
6. ¿Trata Ud. de corregir la pronunciación de otras personas cuando tratan de pronunciar su apellido?

Al escuchar la pronunciación del apellido, observé cómo lo hacían las diferentes personas. Al escucharles noté la pronunciación con símbolos fonéticos. No he tratado nunca de hacer un estudio lingüístico detallado, pero creo que puedo darles a Uds. unos ejemplos claros.

Para mí fue muy importante saber si una persona se consideraba vasca. Como dijeron Douglass y Bilbao en su libro *Amerikanuak* (Reno: University of Nevada Press, 1975, pg. 4), no es suficiente saber cuál es el apellido para saber si alguien es vasco o no. Mucha gente de apellido vasco vino aquí de Latinoamérica y se consideran no vascos sino Latinoamericanos. (Douglass y Bilbao, p. 4)

Es importante saber quién nació aquí, porque una persona nacida en el País vasco tendría quizá mayor influencia de sus padres y de su familia en lo que se refiere a la pronunciación del apellido.

Me parece que las tres últimas preguntas no necesitan ninguna explicación.

En cuanto a las palabras "patronímico" y "apellido", me parece que la palabra "patronímico" pierde su fuerza y su especificidad en EEUU, a causa de la costumbre existente de tomar el apellido del lado paterno de la familia. Por eso, prefiero referirme al "apellido" en vez de "patronímico". Muchos vasco-americanos derivan su etnicidad del lado materno, y por eso cuando hablan de sus orígenes, usan el apellido vasco de la madre. Después de dos o tres ge-

neraciones, es muy difícil saber de memoria si este apellido pertenecía originalmente al padre de la madre o a la madre de la madre. Es decir, para los americanos en general todo apellido viene del padre y por eso no distinguen claramente entre los nombres de origen materno y los de origen paterno. Esto se hace más evidente, si optamos por el uso de la palabra "apellido" cuando hablamos del nombre familiar vasco en los EEUU.

Me limito a los estados occidentales de los EEUU, porque la mayoría de la población vasco-americana habita allá, sobre todo en California, Nevada y Idaho.

La evolución o americanización del apellido vasco en el Oeste de EEUU se manifiesta de diversas maneras. Podemos distinguir tres tipos de cambio o evolución: el cambio impuesto por cualquier persona exterior, es decir, un cambio inesperado; el cambio iniciado por el individuo mismo, un cambio deliberado; el cambio que se da a causa de vivir en una cultura angloparlante, no deliberado pero al mismo tiempo no inesperado tampoco. Dentro de estos tres grupos podemos hablar de otras categorías.

Dentro del primer grupo encontramos variaciones escritas, es decir, de ortografía, refiriéndome sobre todo a los cambios iniciados por las autoridades de inmigración que, sin pensar, escriben lo que oyen, sin saber exactamente lo que es. Cabe también en este primer grupo la abreviatura de nombres largos para ser mejor reconocidos en un entorno no-vasco. No obstante el individuo puede iniciar este cambio, y por eso esa clase de evolución puede pertenecer también al segundo grupo. Claramente los cambios iniciados por el individuo mismo caben en el segundo grupo. Este tipo de cambio incluye la adición de un elemento étnico no-vasco para dar al apellido un sabor escocés o irlandés, etc., para que el individuo pueda mejor pertenecer a un grupo étnico no-vasco. Y por fin hay el cambio "deus ex maquina" (donde cada apellido y su historia es un pequeño drama y el dios es el inglés americano), el tipo que pertenece al tercer grupo. Aquí encontramos la americanización que ocurre naturalmente, es decir, los cambios de pronunciación que transforman un apellido vasco en un nombre quizá raro, pero claramente americano.

### **Las variaciones escritas**

En cuanto a la ortografía o forma escrita de los apellidos, después de hablar con varios vasco-americanos supe que era casi imposible saber cuándo se concretó la ortografía del apellido vasco. Muchos de ellos con quienes hablé creían que el apellido vino del País Vasco en su forma actual. Algunos de estos no se dan cuenta de que el euskara es una lengua no-indoeuropea y por eso no saben que sus apellidos pueden ser escritos de manera muy diferente.

El apellido con el número más grande de variaciones ortográficas es *Etxeberri* (o *Etxeberria*). En la guía telefónica del norte de Nevada hallé seis (6) maneras distintas de escribir *Etxeberri(a)*:

Echevarria (11 veces)

Echeverria (13 veces)

Etcheberry (3 veces)

Etcheverria (2 veces)

Etcheverry (11 veces)

Etxeberri (1 vez)

Sin duda alguna, muchas de estas variaciones existían antes de que la persona llegara a los EEUU. Sabemos que los vascos del norte han seguido las reglas de ortografía francesa y los del sur han empleado las reglas españolas para escribir sus nombres. No podemos saber en la mayoría de los casos qué pasó en el momento de entrar en los EEUU en cuanto al apellido. Quizás el inmigrante entró por Ellis Island y un registrador escribió el nombre vasco tal como le sonó y de ahí la forma ortográfica actual del apellido. Quizás el inmigrante entró antes de la época de Ellis Island (1891-1954) y escribió su apellido como le habían enseñado sus padres. En cuanto a este tema de ortografía podemos hablar con mayor seguridad de sus aspectos negativos. Podemos examinar, por ejemplo, lo que un oficial americano nativo y angloparlante no hubiera hecho.

Si pensamos un poco en las reglas de ortografía americana, sabemos que ningún americano escribiría el apellido *Etxeberri* de la manera que lo haría un vasco, es decir, E-T-X-E-B-E-RR-I. Las palabras inglesas no acaban in *i*. No se incluye tampoco la combinación -tx. Por eso los apellidos y nombres puramente vascos suenan un tanto misteriosos para los americanos no-euskera-parlantes.

Por ejemplo, el nombre Mertxe siempre va precedido de Mr. (señor) en los EEUU, porque a los americanos les parece masculino. Por otra parte el nombre Gorka siempre lleva el título Ms. (señora o señorita). Parece que la proximidad de la lengua española nos ha acostumbrado a la idea de *-a* como terminación femenina y *-o* como masculina. Pero Mertxe, a causa de la combinación -rtx- y la terminación *-e*, no nos da ninguna pista sobre el sexo de la persona. Entonces, ¿por qué suponemos que es masculino? Primero, porque la terminación *e* no hace ninguna referencia de su masculinidad o feminidad para nosotros. En inglés tenemos nombres de hombres y de mujeres que terminan así. Pero la combinación -rtx- no existe en inglés. Además de esto, el uso de la *x* no es muy común. Así, esta combinación nos choca y nos pa-

rece muy dura. Para mí, esta es la principal razón por la cual suponemos que Mertxe es nombre masculino. Pero salimos del tema.

En cuanto a las variaciones que se permiten en la ortografía de apellidos vascos, muchas personas que llevan una forma de Etxeberri son inflexibles con respecto a la ortografía de su versión personal del apellido. Más de una persona me ha dicho que les importa mucho el uso del diacrítico (o la falta, si no lo usan), y sobre todo es importante saber si lo escriben con “etch” o “ech”. La mayoría que escriben con “etch” son de familias que se originaron en Iparralde, mientras que los que escriben con “ech” tienen sus orígenes en Hegoalde. El mantenimiento de la ortografía del apellido representa la continuación del hilo familiar que se extiende por los siglos y tras miles de kilómetros para llegar al pueblo y a la provincia de donde salieron los antepasados que emigraron al nuevo mundo (1).

### **Los cambios iniciados por el individuo**

Descubrí que para la mayoría de los vascos la forma de su apellido, es decir, la totalidad del apellido es inviolable. Casi nadie usa la forma abreviada de su apellido. Sin embargo, hay dos casos que puedo mencionar aquí. El profesor Juan Magunagoicoechea ha empleado durante muchos años la forma abreviada Maguna porque era casi imposible para los americanos pronunciar Magunagoicoechea. El segundo caso nos demuestra cómo un rasgo étnico no-vasco puede ser insertado en un apellido. Hay una familia en Nevada que se llama McErquiaga. El apellido está escrito de forma escocesa.

### **Los cambios *deus ex maquina***

Trato aquí del hecho de que una persona que ha escuchado solamente el inglés durante toda su vida no puede entender sonidos extranjeros. Cuanto más extraño el sonido, tanto más difícil de entender. La mayoría de los americanos pueden identificar los sonidos españoles o latinoamericanos, pero los apellidos vascos son más raros para los americanos que incluso los nombres japoneses. La lengua inglesa es un dios celoso. Si un apellido no es inglés, los angloparlantes lo transformarán en un apellido americano. Lo harán pronunciándolo mal repetidamente hasta que el vasco-americano se acostumbre al nombre mal pronunciado y quizá empiece él mismo a emplear también la pro-

---

(1) Una de las personas que me insistió en la ortografía de su apellido fue Begoña Echeverría, una vasca-americana que fundó con otras dos el trío musical de Noka. Noka, también, se puede encontrar en el Internet.

nunciación americanizada. Pude constatar esta influencia y ver este proceso al hablar con los vascos-americanos. Pero descubrí algo un poco inesperado.

Me parecía natural que los vasco-americanos se sintieran orgullosos en cuanto a sus apellidos. Pero la intensidad de este orgullo y la dedicación a la idea de proteger y mantener la etnicidad del apellido vasco me sorprendió. Añadí la última pregunta de mi cuestionario esperando que tal vez alguien me contara una anécdota, nada más. Pero todos los vasco-americanos con quienes hablé tenían algo que decir sobre este asunto. Algunos de ellos me respondieron vehementemente que sí, que siempre iban corrigiendo la pronunciación de sus apellidos.

Yo esperaba encontrar un proceso de americanización del apellido vasco que avanzase inexorablemente hasta el punto de no identificar la etnicidad del apellido sin verlo escrito. Los vascos de los EEUU me han sorprendido con la intensidad de sus esfuerzos en este aspecto. Aunque hayan perdido el euskera, se acuerdan de un sonido o de un ritmo especial que, para ellos, es vasco y se dedican a mantenerlo. Quizá para Uds. aquí en Euskadi los sonidos que resultan de sus esfuerzos parecen bastante americanizados, pero es obvio que para el oído americano hay algo exótico en su pronunciación.

### Pronunciaciones empleadas por vasco-americanos

Sin embargo es verdad que el inglés y los sonidos y acentos de esta lengua afectan a la pronunciación del apellido vasco. Tomemos el apellido vasco más común en los EEUU como ejemplo de esta influencia, el apellido *Etxeberri*. Estas pronunciaciones son muy aceptables para los vasco-americanos.

|             |             |               |
|-------------|-------------|---------------|
| (Oralmente) | Echevarria  |               |
|             | Echeverria  | ə ,tʃɛvə 'ɾiə |
|             | Etcheverria |               |
|             | Etcheverry  | 'ɛtʃə ,vɛɾɪ   |
|             | Etcheberry  | 'ɛtʃə ,bɛɾɪ   |
|             | Etxeberri   |               |

Adibide gehiago: Arrarasko *Alporro* eta Arrasateko *Kobaundi* espezifikotzat jotzen ditugu, eta *erreka* eta *zubia* generikotzat, *Alporroko erreka* (*NTEM-XLIV*, 36) eta *Kobaundiko zubia* (Arrasate, Ormaetxea, 1996, 140) toponimoetan; era berean, Goizuetaiko *Gorostin* espezifikoa da bakarrik azaltzen denean eta *Gorostingo zokoa* deizioan (*NTEM-XLVII*, 96); hondarreko honetako *zokoa*, berriz, generikotzat hartzen dugu. Herri bereko *Ibarrola* espezifikoa da bakarrik erabiltzen denean edo *Ibarrolako borda*, *Ibarrolako erreka*, *Ibarrolako harriaren gaina* eta *Ibarrolako zokoa* deizioetan. Azken hauetako *borda*, *erreka* eta *zokoa*, aldiz, generikoak dira (*NTEM-XLVII*, 97-98).

Nolanahi ere, *Ibarrolako harriaren gaina* deizioan generikoa zein den ez da zeharo garbi ageri; *Ibarrolako harria* huts-hutsa azalduko balitz arazorik ez genuke, baina *gaina* posposizioa eramateak, jabego genitiboaren hondarkia bitartekotzaz, gauzak konplikatzeko ditu. Zernahi gisaz guk, grafia dela eta, harriaren *gaina* segida generikotzat hartuko dugu, eta hizkuntza estandarreko

erregelen arabera idatziko. Izan ere, hau da espezifikiko / generiko bereizketak duen ondorioz larrienetakoa: espezifikoak, Euskaltzaindiak Bergarako biltzarrean (1978: 22) erabakitakoari jarraikiz, ez dira zeharo euskara batuan ibiltzen den ortografiarekin idazten; honetan *il*-z eta *in*-z irudikatzen diren zegoen bezala alboko eta sudurkaria, esaterako, *ll* eta *ñ* idazten dira toponimoetan, espezifikoetan, baina *il* eta *in* generikoetan, izen arruntzat hartzen baitira.

Adib.: *Abadiño, Iruñea, Ollogioen, Oñati, Gereño...*

Orobat, batuan erabiltzen den *h* ez da espezifikoetan ematen, baldin ebakitzen ez bada, baina bai generikoetan. Hortaz, *Arana* idazten dugu Agezako toponimoa, *Arana* ebakitzen delako (Salaberri, 1994: 98), baina *Harpeko pentzea*, *Hegiluze* eta *Hegixorrotxa* idazten ditugu Luzaideko toki izenak, hirurak ere aspirazioz ebakitzen direlako (edo ebaki daitezkeelako) (NTEM-XXXV, 189-190). Bestalde, Galipentzun *Albozko harana*, *Garandako harana* eta *Ibarrereko harana* ditugu (Salaberri, 1994: 344, 403, 410), *Alboz*, *Garanda* eta *Ibarrera* historikoen aldamenean, eta Areson *Gurutzetako hegia* (NTEM-XLVIII, 40) arautu da bertakoen ahotan *Gurutzetako egie* dena (*Gurutzeta* ere badago), esan bezala generikoetan euskara batuaren erregelak begiratu ohi direlako.

Traperok dio (1995: 50-51) «espezifikiko» eta «generiko»-ren artekoa ez dagokiola bi izen mota izateari, bi izenen artean finkatzen den erlazio semantikoari baizik. Autore honen arabera bakarka definitzen diren beste izen kategorien aldean, izen bat generikotzat edo espezifikotzat hartzeko kontrajarritako bi terminoak behar dira, bereizketa semantikan oinarritzen baita zeharo.

Gure irudiko Traperok dioenak ez du balio erabat euskararendako, besteak beste bakarrik dauden izenak espezifikotzat jotzen ez dituelako, gure artean halakotzat aitortzen diren bitartean, idatziz emateko orduan bederen (cf. Euskaltzaindiaren Bergarako biltzarraren esandakoa).

Aipatu ikertzailearen arabera *Teror de Arriba* deizioan *Teror* generikoa litzateke, eta *Barranco de Teror*-en, berriz, espezifikoa. Euskaraz Etxarri-Aranazko *Beheko basoa*-ko *basoa* osagaia eta Uharte-Arakilgo *Goieneko harrate*, *Goiko larrainak* eta *Goiko legarra*-ko *harrate*, *larrainak* eta *legarra* izenak generikotzat har daitezkeela uste dugu (NTEM-XII, 39, 143), eta berdin Doneztebeko *Beheitiko iratzelaia* eta *Goiko iratzelaia*-ko *iratzelaia* (Iñigo, 1996: 106, 12), eta horregatik idazten ditugu hemen azaltzen diren moduan. Bestalde, berez generikoa denak atzizkiren bat badarama uste dugu, normalean bederen, generikotasuna erabat galtzen duela eta espezifikotzat erabili eta idatzi behar dela. Hau da, esate baterako, Arbizuko *Beheko Larrañeta* eta *Goiko Larrañeta* toponimoetako *Larrañeta* osagaiaren kasua, etorkiz, aitortu beharra dago, apelatibo hutsa baldin bazen ere. Oraingoan, beraz, *Bekolarrañeta* eta *Goikolarrañeta* arautu beharra dagoela uste dugu.

Uharte-Arakilgo *Lehendabiziko pulpitu*a eta *Bigarren pulpitu*a deizioetako *pulpitu*a generikotzat eman beharra da gure iritziz (cf. *Arregiko pulpitu*

[NTEM-XII, 130, 135 eta 152]], baina ez herri bereko (ibid., 160) eta Ezkurako *Pulpitu*. Oraingoan grafia arazorik ez egon arren, beste batzuetan badi-ra horrelakoak, aurreko paragrafoan ikusi bezala.

Ados gaude Traperorekin Kanariasko *Polígono de la Cruz de Piedra* toponimoan *piedra* ez dela *polígono*-ren espezifikoa dioenean, euskaraz ere Zozaiako *Harrizko gurutze* toponimoan (NTEM-LII-2, 210) *Harrizko* osagaia *gurutze*-ren espezifikoa ez den bezala.

Espezifiko / generiko partiketaz ari beharrean *Spore* (1980: 11-12) izen berezia / izen arrunta bereizketaz mintzo da, toponimia frantsesa aztertzerakoan, baina iristen duen ondorioarekin gu ez gaude ados, eta ez dugu uste euskal toponimiaren arautzeko azterketa egokia denik. Ikertzaile honen arabera izen arruntzat edozein toponimo hartu behar da, baldin eta hiztegian azaltzen bada, baina gero aldakuntzak egitera behartua ikusten du bere burua, batez ere epitetoak besarkatzeko.

Euskaraz zenbaitetan *espezifikoa + deklinabide hondarkia + generikoa + toponimia atzizkia* segida dugu; honelakoetan dena batera idaztea gomendatzen da, atzizki toponimikoa azaltzea generikoa espezifikoa bilakatu delako seinale baita, gure irudiko.

Adib.: *Apezarensoroburueta*, ez *Apezaren soroburueta* (Arbizu, NTEM-XII, 65), baina *Altzanburuko lizarretako zokoa*, ez *Altzanburukolizarretako zokoa* (Goizueta, NTEM-XLVII, 57), hondarreko toponimo honetan *lizarretako* hori deklinatutako izen arrunta besterik ez delako.

Batzuetan toponimia atzizkia duen osagaia, bitxia badirudi ere, generikotzat hartua izan dela ikusten da; generikotzat hartua egote hori txandakatzean, beste generiko batekilako aldizkatzean ikusten da hobekiena.

Adib.: *Alduntzinmendiko harxurieta* (*Alduntzinmendi* eta *Alduntzinmendiko bidea* ere badira), ez *Alduntzinmendikoarxurieta* (Goizueta, NTEM-XLVII, 55), *Amigoneko buztinzuloeta* (*Amigonea* etxe izena da, Lesaka, NTEM-IL, 200), *Apezaren berroko gatzarrieta* (*Apezaren berro* eta *Apezaren berroko kaskoa* ere ibiltzen dira, Garralda, NTEM-XXXIV, 149-150).

### 1.3.1. Deklinabide hondarkia duen aldaera vs. horrelakorik ez duena, edo osagaiak batera vs. bereiz ematea

Leku genitiboaren ordeztu jabetza genitiboa duten toponimoetan ere ezin esan daiteke lehen zatia espezifikoa denik, eta bigarrena generikoa.

Adib.: *Etxarriren partzela* (Areso; NTEM-XLVIII, 38), *Juanitoren soro haundia* (Urdiain; NTEM-X, 99), *Sorginen euntzea* (Leatxe; Salaberri, 1994: 564).

Jabego genitiboaren hondarkia duten toponimo hauen osagaiak bereiz idatzi behar direla irudi du, tartean deklinabide hondarkia dagoelako (*Madozko apezaren xenda*; Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 154). Atzizkia eguneroko hizkeraren ildotik laburtua kausitzen badugu atzera eginen dugu, eta osorik idatziko: *Apezan arria*, *Apezan gurutzea* -> *Apezaren harria*, *Apezaren gurutzea* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 60-61). Atzizkia beti laburtua aurkitzen badugu, aspaldidanik, badirudi loturik idazteko eskubidea badugula.

Adib.: *Petringesala* (Uxue; Salaberri, 1994: 860).

Beste deklinabide hondarkiren bat azaltzen denean ere, hau zein ere den, toponimoaren osagaiak bereiz idatziko ditugu.

Adib.: *Mutiloara bidea* (Iruñea; Jimeno Jurío & Salaberri, 1994: 115); *Olatza bidea* (*Olaçabidea* "Olatza doan bidea", Badostain, 1616; Pr-Auritz, 2. k., 4); *Bustazuriko erre kara bidea* (Asterain, 1683, Jimeno Jurío, 1986: 67(2)).

Tartean deklinabide hondarik ez bada, osagaiak lotuta idatziko ditugu, leku izen horren egitura eta osatzen duten elementuen izaera zein ere baitira. Beraz, berdin jokatu da *izena* + *izena* duten egituretan, *izen* + *izenondoa* dutenetan... eta abarretan. Osagai kopuruak ez du honetan, hortaz, ikuskizunik.

Adib.: *Altziturrieta*, *Altziturrietatxiki* (Etxarri-Aranatz, *NTEM-XII*, 33), *Errekagorri*, *Errekagorribideazpia* (Urretxu, Ugarte, 1998: 82-83), *Gazteluiturri* (Abadiño), *Iguzkiagirregaña* (Adana, Araba), *Oianguren*, *Oiangurentxialdea* (Zumarraga, Ugarte, 1998: 383), *Pagoleorragaburu* (Munitibar), *Zubietagañekoa* (Aramaio), ...

Puntu honetan bereziki aipagarriak dira mende baldeko etxe izenak, maiz auzo izena ere barruan dutenak. Horrelakoak ere elkaturik emango dira, tartean atzizkirik agertzen ez bada: *Barinagaerrementeria* (Markina-Xemein), *Garaitaurtenengoa* (Zornotza), *Uribetxebarria* (Aretxabaleta)... e.a.

Zenbaitetan toponimo bera, batean deklinabide hondarkiaz horniturik aurkituko dugu eta hurrengoan gabe; idazkerak ere formaren arabera izan behar du.

Adib.: *Indusigibel*, *Indusigibeleko pausua* eta *Indusigibelpausua*; *Iturrotz*, *Iturrotzaldapa* eta *Iturrozko aldapa*; *Txutxu*, *Txutxuberokia* eta *Txutxuko berokia*, denak Lergan (Salaberri, 1994: 616-617, 620-621 eta 653-654), *Mugitz* - *Mugiz*, *Mugizko azpia* eta *Mugitzazpia* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 136).

Aldaki bakarra hautatu beharrean gertatuz gero, zuzeneko lotura duena hautatuko dugu, normalean laburragoa delako eta arautzeko orduan zailtasun

(2) C-rekin izkiriaturik ageri da, jakina.

gutxiago izaten dituelako. Hortaz, *Indusigibelpausua*, *Iturrotzaldapa*, *Txutxuberokia*, *Mugitzazpia*...

### 1.3.2. Tokian tokiko hizkeraren ezaugarriak noraino sartu generikoetan?

Generikoak izen arruntak direla esan dugu, baina lekuan lekuko ezaugarri bereziek toponimoen arautzean izan behar duten tokiaz mintzatzen garenean ikusiko dugun bezala, zenbait aldiz aparteko tratamendua behar dute, euskara estandarretik urruntzen dena. Hau ez da beti erraz zehazten, aldaeren artekoa metroka edo kiloka neurtzen ez delako.

Nolanahi ere, uste dugu gure literaturan tradizio handi samarra duten formak sartu behar direla, bai eta ere bestelako arrazoiren batengatik (dialektologian duten pisuagatik, gertakari fonetiko-fonologiko, morfologiko... garrantzizkoren bat islatzen dutelako...) bereziak diren aldaerak: *gastulu* eta *uturri* Erronkari aldean, *atxa* eta *gana* mendebaldeko hizkeretan, *sario* Nafarroako alderdi zabal batean, *-a + a*-ren disimilaziotik ateratako *-ea*-dun formak (*errekea*-ren tankerakoak; ez, ordea, *errekea*, *errekie*... e.a.) Euskal Herriko erdialde-mendebaldean; *-a + a*-ren batuketatik atera den *-ara* (*errekara* 'errek'aren modukoak) Zaraitzun, *xilo* edo *zilo* ekialdean... e.a.

Generikoak, oro har, euskara batuan eman behar direla uste dugu, baina esan bezala tokian tokiko aldaerak ere onartu behar dira, aski sustraiturik eta erabiliak badira.

Puntu honetan bi eratako generikoak bereizi behar ditugu:

1.- Beti izenarekin agertzen direnak, nolabait izenaren osagai direnak, leku izen baten gainean eraikitako aldakiak sarri: *Kosinengo xilo*, *Koxinengo borda* Luzaiden, esaterako (*NTEM-XXXV*, 196).

2.- Hautazko dei genitzakeenak: *Atxuri haitza*, *Etxebarria baserria*, *Ibaizabal ibaia*, etab.

Lehenengo saileko generikoetan lekuan lekuko ezaugarriak hobeki gorde daitezke, betiere egungo ebakera laburtu edo herrikoiegiak saihesten direla.

Bigarren saileko generikoak mapen argitasunagatik edo bestelako arrazoiren batengatik eman behar badira batuan emango dira, baldin eta barne koherentzia apurtzen ez bada, ez baitirudi oso egokia denik *atxa*, *errekea*, *gana* agertzen den inguru batean *haitza*, *erreka*, *gaina* ere agertzea, konparaziorako, bertako aldizkatzea ez bada bederen.

### 1.3.3. Artikulurik gabe azaltzen zaizkigun generikoak

Ohikoenak ez badira ere, maiz artikulurik gabeko generikoa duten toponimoak aurkitzen ditugu han-hemenka:

Adib: *Atazar*, *Atazarko gurutze* (eta *Atazarko portua*, Arruazu; *NTEM-XII*, 109), *Boñiz* eta *Boñizko zulo* (Uharte-Arakil; *NTEM-XII*, 136); *Iramendi* eta *Iramendiko kasko*; *Koskarte*, *Koskarteko beroki*, *Koskarteko bizkar*, *Koskarteko lepo* eta *Koskarteko ospel* (Zilbeti, *NTEM-XXXV*, 153-155).

Honelakoak bereiz ematen ditugu arruntean; alabaina, izan daiteke inoiz salbuespenen bat, ohituraz batentzat hartzen eta idazten den toponimoren bat, bereziki espezifikoa beste generiko batez lagundurik kausitzen ez dugunean. Hauek, halere, eta esan bezala, salbuespenak dira. Etxe izenak ere salbuespentzat hartu behar dira, hauen osagaiak eskuarki batera idazten direlako (*Goi-koetxea*, konparaziorako); honetaz ikus beherago dioguna.

### 1.3.4. Artikuluz hornitutako toponimoak

Gorago esan bezala, izena bakarrik azaltzen denean guk espezifikotzat jotzen dugu; esaterako, gorago aipatutako Agezako *Arana* bere horretan idazten dugu, *h*-rik gabe, Nafarroako herri horretan, guk dakigula, ez baitzen aspiraziorik euskaraz mintzatzen zen azken garaian. Beraz, *Arana* hori espezifikotzat jotzen dugu, baina honek ez du esan nahi izen ihartu eta ezin mugituzkotzat eman behar dugunik, dokumentazioak eta egungo erabilerak erakusten digutenez, hau ez baitzen horrela. Esan nahi duguna da *Arana* agertu arren herri berean *Araneko erreka* ere badugula, nahiz gero ihartzeak ere ez diren hain bitxiak (*Aranako erreka*-en tankerakoez ari gara) (Salaberri, 1994: 98-99).

Horregatik, uste dugu artikuludun espezifikoak oro har *-a*-tzat hartu behar ditugula, hau da, toponimia nagusian *Bizkaia* *-a* deklinatzen den moduan deklinatu behar direla. Izan ere, *Bizkaia* *-a* ezartzen dugunean esan nahi dugu bukaerako *-a* hori artikulua dela, eta deklinatzerakoan *begia* edo *etxea*-ren eredu erabili behar dela, hots, *Bizkaia*, *Bizkaiak*, *Bizkaiari* baina *Bizkaiko*, *Bizkaitik* eta *Bizkaira* esan eta idatzi behar dela. Hortaz, *Arana* edo *Bizkarra*-ren modukoek ere *-a* izan behar dutela uste dugu, eta *Araneko*, *Aranera*, *Aranetik*, *Bizkarrean*, *Bizkarretik*, *Bizkarrera* deklinatu behar direla, beharra dagoe-nean. Ildo beretik, Iruñeko *Arrosadia* izena *Arrosadiko*, *Arrosadira*, *Arrosaditik* deklinatuko da, eta Gasteizko *Aranbizkarra* *Aranbizkarrean*, *Aranbizkarretik*, *Aranbizkarrera*... e.a.

Badira, alabaina, ihartuta finkatu direlako arau hau begiratzen ez duten toponimoak, euskara oraino bizirik dagoen alderdi zabalean. Honelakoetan, jakina, lekuan lekuko erabilerari erreparatu behar zaio eta hura ontzat hartu. Esaterako, hor dugu orain *-a* berezkoa duen Mutrikuko *Astigarribia* auzo izena, nahiz jatorriz, bistan denez, *-a* hori artikulua besterik ez zen, jantzi-erantzikoa beraz. Euskara galdu berria den alderdiko adibidea Altsasuko *Bazterrotzako haitza* izan daiteke (*NTEM-IX*, 38).

### 1.3.5. Ozenez bukatzen diren toponimoetan deklinabide hondarkiareki-ko lotura nola egin

Toponimoa ozenez bukatzen denean (-n eta -l-z eskuarki, -r-z ere bai, zenbaitetan) maiz arazoa izaten da aldaera arautuan leku genitiboaren hondarkiak nolako itxura izan behar duen espezifikoa eta generikoa arteko lotura egitean, egungo hizkera bizian maiz sinkopak eta laburketak gertatzen baitira. Askotan arazorik ez dago, eta dagoena onetsi besterik ez da egin behar.

Adib.: *Aitzabalgo treguarria*; *Aralarko San Migel* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123, 127); *Ontsarango bidea*; *Otermingo itxitua*; *Otsolizarreko Zezelaingo soroa*; *Ubango erreka* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 83, 84, 86).

Beste batzuetan, albokoaren atzean bereziki, -ko dugu, ez -go, hizkera arruntean *hilko dira* dugun bezala, *hilgo dira*-ren partez:

Adib.: *Baratzail* eta *Baratzailko ataka* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 75); *Berrazar* eta *Berrazarko erreka* (Ituren, Iñigo, 1996: 239).

Aldi eta alde orotarako balio duen irizpidea ematea ez da erraza oraingoan, baina esan dezakegu *Zabaleko* / *Zabalgo* / *Zabalko* + generikoa-ren tankerako segidak ditugunean lehen biak izaten direla zaharrenak (*Zabala* -> *Zabaleko*, *Zabal* -> *Zabalgo*) eta hirugarrena berriena. Hortaz, ahal delarik, lehen bietako baten alde egin behar dela uste dugu.

Nolanahi ere, dokumentaziorik ez denean dagoena onartu beharko da. Adib.: *Iturritzar* eta *Iturritxarko aska*, *Iturritxarko erreka* (Leitza, *NTEM-XLVIII*, 95).

### 1.3.6. Txistukari afrikariz bukatzen diren toponimoak

Txistukari afrikariz (-tz eta -ts-z arruntean) amaitzen diren espezifikoei leku genitiboaren hondarkia maiz zuzenean eranstean zaie, hau da, *Oskotz* eta *Oskozko* esaten da, ez *Oskotzeko*. Honelakoetan euskaraz ohikoena, adibidean ikusten den bezala, afrikaria frikari bilakatzea da (cf. *Alaitz* eta *Alaizko iturria*, Uharte-Arakilen, *NTEM-XII*, 124-125, *Ostokaitz* eta *Ostokaizko etxeazpia* Gaintzan, *NTEM-XLVI*, 83); joera hau zaharra da eta dokumentazioa kontra mintzo ez bada ontzat hartu behar dela uste dugu.

Badira, halaber, ondoan herskari ahoskabea izanagatik afrikaria atxikitzen duten toponimoak.

Adib.: *Okorraitz* eta *Okorraitzko kaskoa*; *Sollatsko kalparra* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 83).

Gauza bera edo antzekoa gerta daiteke hitz barruan.

Adib.: *Aitzpuntatxorrotx* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 124), *Auritzmuga* (Garralda, *NTEM-XXXIV*, 152), *Beatzmearreta* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 75).

Honelakoetan ere uste dugu segida bizi horiek ontzat eman behar direla, betiere espezifikoa agertzen badira. Inoiz gerta daiteke egun bi ebakerak izatea; honelakoetan bat hautatuko da, dokumentazioa aintzat harturik. Adibidez, Iñigok (Doneztebe, 1996: 96) *Aritzmendi* arautu du *Aritzmendi / Arizmendi* erraten dena.

Zenbaitetan herri hizkeran lotura bokala galdu da, eta irudi luke toponimoa arautzean bokal hori atzera ekarri behar dela. Adibidez, Uharte-Arakilgo *Posterokuaitz*, *Posterukuaitz* toponimoa *Posteroko haitz* arautu beharra dago, eta honen eratorria den *Posterokuaitzko lezie* izena *Posteroko haitzeko lezea* eman behar da, ez *\*Posteroko haizko lezea* (NTEM-XII, 160). Arazoa izaten da honelakoetan toponimoak erabiliaren erabiliaz ihartu egiten direla eta hasierako motibazioa galtzen dutela edo, behintzat, motibazio hori ilunduta gelditzen dela.

### 1.3.7. Mailegu berriak vs. hizkuntza estandarrean onartzen diren izenak, generikoetan

Maiz ikusten dugu garai batean ardurakoak ziren generikoak, Hegoaldean gaztelaniaren eraginez, gero eta baztertuago daudela, eta izen jatorren ordez usu tradizio handirik ez duten maileguak hartzen direla. Esaterako, gureak diren *altxonbidea*, *etxola*, *gaina*, *harrobia*, *idoia*, *koba*, *soila*... eta besteren ordainetan *kañada*, *txabola*, *altua*, *kantera*, *baltsa*, *kueba*, *rasua* eta abar aurkitzen ditugu generikotzat egungo toponimia bizian. Honelako kasuetan uste dugu azken orduko berrikeriak baztertzekoak direla –eman dugun zerrenda-txoan izen guztiak ez dira maila berekoak– eta horien partez gure artean tradizio handiagoa duten generikoak hobetsi behar direla, ahal denean Euskaltzaindiaren hiztegi batua gida harturik.

Zalantzezko kasua Aezkoan erabiltzen den *peina* mailegua izan daiteke, hau bertako hizkeran ongi errotua baitago, nozitu duen despalatalizatze bilakaerak argi adierazten duen moduan; Nafarroako toponimia bilketan *Arrigorriko peina* arautu zen *Arrigorriko peina* esaten dena. Antzekoa da Urdiaingo *Azpiko maiztia* (NTEM-X, 87), generikoa herrian errotutako hitza dela irudi baitu.

Hiztegi batuaren gida euskaraz aldaera asko dituen generikoa aurkitzen dugunean ere behar-beharrezkoa zaigu. Hau, da, adibidez, *mospela*, *nospela*, *ospela*, *suspela*, *uzpela*... itxurez kausitzen dugun izenaren kasua. Hemen hiztegi batuan ageri den *ospela* hobetsiko dugu generikotzat. Nolanahi ere, zenbait tokitan gogorra izan daiteke aurreko paragrafoan ematen diren generiko-etako batzuk onartzea, arrazoi dialektalak direla bide, esaterako; horrelakoetan egokiena mailegua atxikitzea dela uste dugu.

Adib.: *Artiako txabolie* -> *Arteagako txabolea* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 111).

Beste arazo bat orain arte euskaraz ibili ez diren generikoei dagokiena da, *depósito*, *pista forestal* eta abarren modukoei, hain zuzen ere. Kasu hone-tan *ur-biltegi*, *basabide* edo *mendi-bide*.. e.a. hobetsi ziren Nafarroako topo-nimiaren arautzea egitean, eta uste dugu orain ere berdin jokatu behar dela. Zer esanik ez, euskarazko izen zaharra erdarazko berriagoaren aldamenean aurkitzen dugunean lehen hori hobetsiko dugu, joera gure artean euskal gene-rikoak baztertu eta erdarazkoak nagusitzea izan baita.

Adib.: *Arrizurragako arrobia* / *La Cantera* -> *Arrizurragako harrobia* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 99).

Azkenik, erdarazko *río*-ren euskarazko ordainaz hitz pareia esan nahi dugu. Kontzeptu hori adierazteko hizkuntza estandarreko *ibai* erabil daiteke ubiderik garrantzizkoenak adierazi nahi direnean: *Deba ibaia*, *Urumea ibaia*... Gainerakoetan tokian tokiko usadio eta azturak errespetatu daitezkeela uste dugu: *erreka*, *ugaldea*..., aldaera herrikoi berrien ordainez jatorrizko formak sartuz (*ugaldea*, ez *ubaldia*, *ubeldia*, *gualdia* adibidez) eta gogor egiten diren maileguak baztertuz (*irrioa*-ren modukoak; ikus gorago dioguna, atal hone-tan).

Ubideez mintzatzerakoan *erreka*-k arazoa sortzen du edo sor dezake: nola idatzi behar dugu, oinarriari loturik ala *ibaia*-rekin egiten den bezala bereizir-ik? Hemen uste dugu irizpide finko zurrunik ematerik ez dagoela, eta kasu bakoitzean ikusi behar dela. Zernahi gisaz, *aurkintza izena* + *erreka* denean bi osagaiok loturik eman badaitezke ere, ezin gauza bera egingo dugu ubide-aren izena aurkintza izena ez denean. Adibidez, *Ezkurra ugaldea* arautuko dugu Elgorriagan (Iñigo, 1996: 181), *Ezkurra* herri izena bai baina Elgorria-gako dermio izena ez delako.

Beste batzuetan leku genitiboaren hondarkia da zuzeneko lotura galaraz-ten diguna.

Adib.: *Gangara* / *Gangarako erreka* (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 181); *Txa-parloa* / *Txaparloako erreka* (Abaurregaina, NTEM-XXXIV, 51).

### 1.3.8. Generikoa konposatua denean

Maiz generikoa hitz bakar batez osaturik egon beharrean biz edo gehia-goz osaturik egoten da.

Adib.: *Araneko berroandia* (Garralda, NTEM-XXXV, 150), *Araneko be-lagittiki* (Bertiz); *Sarabeko bidezarra* (Urdiain, NTEM-X, 107).

Honelakoetan uste dugu generikoa izen gehi izenondoz osaturik badago bi hitzetan eman behar dela, honela: *Araneko berro handia*, *Araneko belagi ttiki*, *Sarabeko bide zaharra*.

Bukaeran nolabaiteko ihartzeari gertatu dela adierazten duen elementuren bat badago, badirudi dena batean idaztea dela zuhurrena. Esaterako, aipatu dugun Garraaldako *Araneke berro handia*-rekin “pendant” egiten duen *Araneke berrotxikinea* badirudi horrela idatzi behar dela, amaierako *-ea* horrek toponimoak nolabaiteko lexikalizazio maila iritsi duela adierazten baitigu. Antzeko kasua da Abaurregaineko *Etxeberriko bordaxarrak* (NTEM-XXXIV, 41), zein bere horretan eman behar dugula irudi baitu. Kontuan hartu behar da hemen *xarra* dugula, ez batuko *zaharra*, eta erdaraz *Bordaxarres de Etxeberri* esaten dela.

Osagaiak izen generikoa eta posposizioa badira, ordea, uste dugu gehienetan biak batean eman behar ditugula, izen elkartzat.

Adib.: *Araneke xiloaldea* (Hiriberri-Aezkoa, NTEM-XXXIV, 176); *Arburuko bordagaina* (eta *Arburuko borda*, *Arburuko erreka*, *Arburuko zelaia*, Donztebe, Iñigo, 1996: 95-96).

### 1.3.9. Bokalkatzea

Zenbaitetan, espezifikoetan bereziki, izen beraren bi aldaera aurkitzen ditugu, bat apofonia deitu ohi dena aurkezten duena, eta bestea horrelakorik ez duena. Euskara bizi den herrietan uste dugu egun ibiltzen den forma hautatu behar dela, eta toponimoa desagertua denean maiztasunik handiena duen aldaera hobetsi behar dela. Bigarren kasu honetan apofonia jasandako aldaera aukeratu behar dela uste dugu, biek pisu bera edo antzekoa badute.

Adib.: *Bidapea* / *Bidepea* -> *Bidapea*; *Usadorrea* / *Usodorrea* -> *Usadorrea*.

Nolanahi ere, eta beti bezala, dokumentazioa aztertu behar da, honen emana erabakigarria izan baitaiteke.

### 1.3.10. Elkarketako aldaerak

Askotan toponimo berak bi aldaera hurbileko baina ez zeharo berdinak aurkeztu ohi ditu dokumentazioan, hauetako batek oinarritzat izen osoa duen larrik eta besteak, berriz, izen horren elkarketako aldaera.

Adib.: *Iturberri* (egun) / *Ituriberri* (1943an) Ziordian (NTEM-IX, 97), *Itturberri* (orain), *Ituriberri* (1728), *Yturiberri* (1795) Arantzian (NTEM-IL, 48).

Gure irudiko, euskara bizirik den lekuetan egungo aldaera hautatu beharra da, dokumentuetan aldizkatzea izan arren. Beraz, *Iturberri* arautuko ditugu Ziordiko eta Arantzako toponimoak. Bi aldaerak egun bizirik dauden kasuetan uste dugu, bat aukeratu behar eta, elkarketako aldaera aurkezten duena hautatu behar dela.

Adib.: *Arnabarreta / Arrinabarreta* -> *Arnabarreta* (Garaioa, *NTEM-XX-XIV*, 129), *Iturraldea / Iturrialdea* -> *Iturraldea* (Aribe, *ibid.*, 116), *Iturrioz / Iturroz* -> *Iturrotz* (Garaioa, *ibid.*, 137).

Honelakoetan dokumentazioa kontuan edukitzea biziki garrantzikoa da, zeren, adibidez, agirietan beti *iturri*- badugu eta orain *Iturri*- eta *Itur*- batera, *Iturri*- hautetsi beharko baitugu, ez *Itur*-.

Toponimoa desagertu bada eta hala ere arautu behar badugu, badirudi zuhurrena dokumentazioan ohikoena den aldakia hautatea dela.

#### 1.4. Aldaera osoak eta aldaera laburtuak; errestituzioak egin beharra

Gai interesgarri baina irristakor honetaz mintzatzean sarreran esandakoaz oroitu behar dugu, alegia, itxuragabetzea, itxuraldatzea eta barne bilakaera gertakari desberdinak direla eta ezin dela hiru kasuotan berdin joka.

Itxuragabetze edo itxuragaiztotzea euskara galdu eta erdara nagusitzearen ondorio denean toponimoa bere onera ekarri behar dela uste dugu. Hemen arazoa da "bere onera ekartzeko"-tzat zer ulertzen den zehaztea, ezin baitugu, jakina, XII edo XIII. mendeetako aldaera dokumentaletara itzuli. Honelakoetan ikusi behar da arautzea egiten ari garen herrian euskara noiz edo noiztsu galdu zen, eta horren arabera erabaki, ez baita berdin, esaterako, Zaraitzuko toponimia arautzea edo Galipentzuko, Nafarroako adibidea paratzeagatik. Esan nahi dugu hondarreko herrirako XVII. mendeko lekukoek eta XVIII.ekoaren hasmentakoek garrantzi berezia dutela, badakigulako euskara bertan azken mende horren lehen erdian galdu zela. Zaraitzun, berriz, mende hartako lekukotasunak kontuan eduki behar direla dudarik ez dago, baina erabakigarriagoak izan behar dute XX.ekoek, euskara Pirinioetako ibar horretan XX. mendean galdu delako.

Adibidez, Galipentzuko oraingo *Birbiria* ezin dugu dagoen-dagoenean onartu; 1793ko *Bibiguerria* eta 1795eko *Biriverri* ere ezin dira onetsi gure ustean, baina bai 1723ko *Bideberria* (Salaberri, 1994: 369).

Beste alde batetik, errestituzioa egiterakoan gogoan hartu behar da etorkizko aldaeraren eta egungo aldaeraren arteko aldea handiegia izan daitekeela (cf. aipatu dugun Artaxoako *Enekoargedasko iturria* -> *Kaskiturria*). Hemen ere ezin da balio orokorreko irizpiderik eman, eta kasu bakoitzean ikusi beharko da noraino irits daitekeen, kontuan edukiz beti ere aukeratzen den aldaera euskaldunok euskaraz mintzatzen ginenean sortutako forma izan behar duela, II. eremuan, hots, euskaldun izanikako Euskal Herrian. Gogoan hartu behar da, orobat, arautzea egiteko ditugun aukerak; adibidez, Lergako *Takurreka*-ren kasuan badirudi *Urretako erreka* finkatzea dela aukera ia bakarra (Salaberri, 1994: 656), eta Arrasateko *Bioso*-ren kasuan ere antzera, Ormaeak (1996: 91) egin zuen bezala *Bidasoro* baizik ezin baita eman.

*Bidasoro* bakarrik eman daitekeela diogu, baina beharbada norbaitek pentsatuko du *Bioso* arautzea ere zilegi dela, edo herri bereko, Arrasateko, *Jai-berri* dagoen-dagoenean eman daitekeela, *Jauregiberri*-ra itzuli gabe (Ormaetxea, 1996:135-136). Guk ez dugu horrela uste. Izan ere, gure toki izenetan belaunaldiz belaunaldi igaro den kultura ondarea dago, guk gorde behar duguna, azken orduko berrikeriak onartu gabe. Adibidez, ez dugu uste Arabako Arluzea herriko *La Ostia* bere horretan uztea egokia denik; honen ordainez dokumentazioko *Elxaostea* eman beharko dugu, bistan denez. Honek etxe izen-atarako ere balio du, zeren, nork onartuko luke oraingo *Seronia* aldakia tradizio osoko *Serorenea*-ren partez (Ituren, Iñigo, 1996: 543)? Guk ez (ikus beharago oikonimoei eskainitako atalean gai honetaz dioguna).

Errestituzioak garbiak direnean bakarrik egin behar dira, hots, aukeratzen den aldaera dokumentatua dagoenean, ahal delarik ongi dokumentatua dagoenean. Nolanahi ere, euskara oraindik bizirik dagoen alderdian maiz agirieta azaltzen ez diren aldaerak kausitzen ditugu; honelakoetan burututako laburtzea anitzetan bistakoa da, partikulazki tartean atzizki baten laburtzea dagoenean, *Artia*, *Elorrixa* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 90) eta *lizarta* (*Altzanburuko lizartako txokoa*, Goizueta, *NTEM-XLVII*, 57) toponimoetan esaterako, zein *Arteaga*, *Elorriaga* eta *lizarreta* arautzeko ez baitugu herabe izan behar.

Beste askotan txistukarien tratamenduan egoten da koxka; honelako kasuetan atzizki ezaguna bada afrikaria emateko beldur handiegirik ez dugu izan behar, beti ere inguruan bestela jokatu dela dioen daturik ez badago. Esaterako, gaurko eta dokumentazioko *Bagaza* -> *Bagatza* (Arespalditza, Barakaldo), *Loizaga* -> *Loitzaga* (Berrikao, Galdames), eta *Idoibalza* -> *Idoibaltza* (Gordexola) arautzeko oztoporik ez dela irudi du, euskara galdu den alderdian. Era berean, Uxueko egungo *Andrebutxo* edo *Andremutxo* toponimoa *Andrebutzu* arautu daitekeela uste dugu, honelakoak Nafarroan behin baino gehiagotan azaltzeaz gainera etimologia garbia delako (*andre* + *butzu*). 1823ko *Andrebutchu* aldaera dokumentalak ere laguntza ematen digu erabakia hartzerakoan (Salaberri, 1994: 726-727).

Guztiarekin ere, ezin uka daiteke errestituzioak egiteak anitzetan nola baiteko arriskua dakarrela berekin, erabateko segurtasuna izatea beti irispidetan ez egonik. Adibidez, eta Uxueko toponimora itzuliaz, pentsa daiteke *butzu* gabe *butxu* txikigarria genuela, eta, beraz, *Andrebutxu* hobeki arautua legokeela. Alabaina, badakigu *Andrebutzu* izanik *Andrebutxu* bilakatu diren toki izenak bat baino gehiago direla, eta, bestalde, euskarazko /c/ fonema maiz /č/ bilakatu dela, euskara galtzarekin (Berangoko *Kurtze* euskal izena *Kurtxes* bilakatu da erdaldunen ahotan, konparaziorako).

Errestituzioak egiten direnean ez da aise historian atzera noraino joan behar dugun jakitea; toponimoaren bilakaera eta egungo ebakera aztertu behar dira eta ditugun datuak ikusirik erabaki. Ormaetxeak (1996: 96), adibidez, Arrasateko egungo *Mendibitzu* bere horretan eman du, formarik zaharrena

*Mendibeçua* izanagatik ere, *Mendibicua* (*Mendibitzua*, seguru asko) 1650era-ko ageri delako.

### 1.5. Artikuluaren inguruan

Zenbait aldiz toponimo bera artikularekin eta artikulurik gabe aurkitzen dugu orain. Honelakoetan, bat hautatu behar eta, uste dugu artikuludun aldakia hobetsi behar dela, bi aldakiak egoera berean daudenean, euskara galdu den alderdi zabalean behintzat horrelako joera nabari baita erdaraz euskal toponimoak mugatzailerik gabe emateko, joera hau inola ere orokorra eta guztizkoa ez izan arren.

Adib.: *Erbeltzgeina* / *Ezbezgein* -> *Erbeltzgaina* (Aria, *NTEM-XXXIV*, 101).

Inoiz gertatzen da egungo aldakiak ez duela, irudiz, mugatzailerik, aurreko tradizio guztia —a—duna den bitartean. Kasu honetan uste dugu mugatzailedun aldaera hobetsi behar dela.

Adib.: *Otexon* orain / *Oteyça oyana* dokumentazio guztian, 1935 arte (Doneztebe, Iñigo, 1996: 139) -> *Oteitzaoiana* (*Oteitzako harrobia*, *Oteitzako landa* ere bada, *ibid.*).

### 1.6. Tokian tokiko ezaugarrien aldeko errespetua vs. euskara estandarra

Zaila da lekuan lekuko euskararen ezaugarriak toponimia txikiaren arautzea burutzerakoan noraino begiratu behar diren zehaztea. Garbi dago, nolahi ere, ezaugarri horiek partikulazki espezifikotik dutela toki, ez hainbeste generikotik. Hauetan, ikusi dugun bezala, garrantzi handia duten aldaerak baizik ez ditugu onartuko.

Espezifikotik ere, alabaina, badira zalantzazko diren puntu batzuk, ondoren ikusiko dugunetik ihes egiten dutenak, nolabait esan. Adibidez, *Bazterra*-ren moduko bat onartu behar da espezifikoa denean edo *Bazterra* idatzi behar dugu? Eta ehundaka aldiz kausitzen ditugun *Itxondo*, *Itxape* eta hauen tankerakoekin zer egin?

Nafarroako toponimia bilketa egin zenean horrelakoak ontzat hartu ziren; orain, ordea, beste iragazki bat behar dutela uste dugu. Iragazki hori dokumentazioa izan behar du; alegia, ikusi behar dugu forma aldatu horiek noiz hasi ziren ibiltzen, eta zer maiztasunekin ibili diren. Tokian tokiko euskararen berri ere jakin behar genuke, arautzea funtsez egiteko. Dokumentazioa aztertutik aldakuntza azken mendean gertatu dela ikusten bada, ez dugu uste ontzat eman behar denik, baina bai XVIII. menderako azaltzen bada. Arazoa gure iritzi XIX. mendean dago: garai honetan hasi bazen erabiltzen, zer egin behar dugu?, zein aldaera hobetsi behar da? Ez dugu uste hor arau finko ezin

hautsizkorik ematerik baden. Konponbidea hau izan liteke: 1850eko eta 1850a aurreko aldaerak onetsi eta urte honetatik aurrerakoak ezetsi.

Puntu garrantzizkoa da hemen aintzat hartuak izateko zein gertakarik duten aski pisu erabakitzea. Oro har, esan daiteke euskara batua ezarri behar dela gidari eta bide-erakusle, eta horren arabera erabaki, nahiz, jakina, gauza bana diren hizkuntza estandarra eta toponimiaren arautzea. Ikus dezagun hau guztia polikiago.

### 1.6.1. Bokalismoa

#### 1.6.1.1. Goiko bokalek eragindako $a > e$ hersketa

Goiko bokalek eragindako  $a > e$  hersketa, esan bezala, ez da errespetatuko leku izena arautzerakoan. Hori bai, herri-ahoskeraren atalean egoki jasotxo da.

Hau zeharo argia da generikoen kasuan, zeren, izen arruntak izanik, euskara estandarren legepean baitaude, beste edozein hitz bezala, baina espezifikotetan ere ezartzekoa da.

Adib.: *Itolako zubia* idatziko dugu ez *Ittolako zubie* (Leitza, *NTEM-XLVIII*, 94), *Berezia* ez *Berezie*, *Ortua*, ez *Ortue* (Basauri), *Itza*, ez *Itze* (Berango)...

Hau da irizpide nagusia, baina toponimoak bakarka eta banaka aztertu behar dira, eta hersketa zaharra dela ikusten bada onartu beste biderik ez dago, gure ustean. Cf. *Ibaras* (1700, 1705, 1708, 1893), *Ybarasbide* (1915), *Iberas* (1708), *Iberasbidea* (1705), *Iberas*, *Iberats*, *Iberasbide*, *Iberasko erreka* egun, *Uharte-Arakilen* (*NTEM-XII*, 144). Kasu honetan badirudi egokiarena *Iberats* arautzea dela, baina Uitziko *Aldaia*-ren kasuan, berriz, eta nahiz eta 1723rako *Aldaie* dokumentatzen den, gogortxo egiten zaigu aldaera araututzat *Aldaie* proposatzea (*NTEM-XLV*, 186), beharbada *aldaia* toponimian ugaria eta gardena delako.

#### 1.6.1.2. Hitz bukaerako $-a > -e$ aldaketa

Era berean, uste dugu Euskal Herriko mendebaldean eta beste leku batzuetan ahoz arrunta den amaierako  $-a > -e$  aldaketa ez dela araututako izenetan onartu behar, eta jatorrizkoa hobetsi behar dela. Gogoan izan behar da aldaketa hau sarri berria dela, eta jatorrizko aldaerarekin aldirkatzen dela. Honen adibidea Bizkaiko *Autzagana* izan daiteke; hau *Auzagana* da dokumentazioan, eta Durangaldean oraindik ere  $-a$ -rekin esaten da, ingururuetan *Autzaganen* aldaera hedatu den arren. Gure irudiz ez dago dudarik kasu honetan *Autzagana* arautu behar dela.

Irizpide honi jarraikiz, Gorlizko *Urezaranze* oraingo forma *Urezarantz*a emango dugu, Leioako *Sabale Zabala* eta Algortako *Arene Arana*. Era bere-

an, Arrasateko dokumentazioko *Zabala*, *Zavala* aldakiak *Zabala* arautuko ditugu, nahiz 1857az geroztik *Zabale* dugun eta egun *Sabale* esaten den (Ormaetxea, 1996: 100).

Bestalde, Iparraldean frantsesaren eraginez gertatzen den *-a > -e* aldaketa ez da ontzat hartu behar, gure irudiz, euskararen barruko joera ez delako. Hau arrunt argia da *-a*-dun aldaera oraino bizirik dagoenean.

Adib.: *Bayonne* -> *Baiona* (Lapurdi), *Esquiule* -> *Eskiula*, (Biarno - Zuberoa); *Lasse* -> *Lasa* (Nafarroa Beherea).

Inoiz Bizkaian ere aurkitzen dugu, euskara galdu den alderdian, eta ez dakigu asimilazioz burutu den edo bestela.

Adib.: *Zariquete* (orain) / *Zariqueta* (dok.) (Zalla), *Zubiete* (orain) / *Zubieta* (dok.) (Gordexola).

Honelakoetan ere arautzea egitean *Zariketa*, *Zubieta* hobetsiko ditugu eskuarki, baina, edozein modutan, dokumentazioa ongi aztertu behar da.

### 1.6.1.3. Hitz bukaerako *-e* eta *-ea* direla-eta

Antzekoa da baina ez berdina euskal deklinabidearen eraginez garai batean *-a* artikuluekin bukatu arren egun *-ea*-z amaitzen diren toponimoen kasua. Honelakoetan aldaketa tradiziokoa baldin bada *-ea*-dun aldakia onartu behar dela uste dugu.

Adib.: *Bidezabalea* (Garraida, *NTEM-XXXIV*, 155), *Legarrea* (Ongotz, *NTEM-XXXI*, 169), *Txintzarrea* (Garaioa, *NTEM-XXXIV*, 142).

Zenbait aldiz *-ea*-ren ordeaz *-e* besterik ez dugu, *-a* erori baita. Kasu honetan joera nagusia *-ea* sartzea izan behar duela uste dugu, dokumentazioan ageri bada bederik.

Adib.: *Legarre* 1892an eta orain, baina *Legarrea* 1709an -> *Legarrea* (Akerreta, *NTEM-XXXVI*, 44), *Zubidenea* (1710), *Zubiéne* (orain) -> *Zubidenea* (Uitzi, *NTEM-XLV*, 202).

Honen paretsukoa da deklinatzean sortzen den *-e* paragokikoaren kasua: *Basañeze* (Leioa), *Landazabale* (Berango), *Mendibile* (Leioa), etab. Honelakoetan, *-e*-rik gabeko aldakia hobetsi behar dela dirudi.

### 1.6.1.4. Iparraldeko erdaren eraginez gertatzen den azken bokalaren erortzea

Gure irudiko beste hizkuntzen eraginez burutu den amaierako *-e* bokalaren erorketa baztertu eta izenak oso-osorik eman behar dira.

Adib.: *Bidarte*, ez *Bidart*; *Uharte*, ez *Uhart*...

Bestela, euskararen barrenean ere ohikoa izaten da, toponimian, azken bokalaren erortzea, *larre*, *luze*... eta bestetan (ikus *FHV*, 411).

Adibi.: *Larreluze* > *Larrelux* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 151).

Honelakoetan azken bokala errekuperatu behar dela uste dugu, baldin eta horren galtzea berria bada, berritza bereziki XX. mendean gertatutakoa hartzen dugularik. Hortaz, eta Uharte-Arakilgo toponimoaren kasuan, *Larreluxe* normalizatuko dugu, *Larreluxe*-ren ondoan *Larluxeko zuba* ere baitugu. Bigarren osagaiaren palatalizazioaz ikus beherago.

Bestela, erorketa aspaldikoa denean gure iritziz ontzat hartu behar da, euskararen barrenean burutu baldin bada bederen.

#### 1.6.1.5. Artikuluaren inguruan sortzen diren asimilazio eta disimilazio gertakariak

Artikuluaren inguruan sortzen diren asimilazio (*arrubia* -> *arrubii*), disimilazio (*errekea* -> *errekia*, *lepoa* -> *lepua*...) eta laburtze gertakariak (*arriak* -> *arrik*) gure ustez baztertu beharrekoak dira, euskara estandarrean egiten den bezala.

Adib.: Apezeneko goiko euntzii -> Apezeneko goiko euntzea, Bordetako bidii -> Bordetako bidea (Etxarri-Larraun, *NTEM-XLV*, 122, 123, 125), Aierdiko arrik -> Aierdiko harriak (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 53), Arbeleko arrue -> Arbeleko arroa (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 89).

#### 1.6.1.6. Hitz hasierako *ai-* > *e-* bilakaeraz

Honelakoetan egokiena jatorrizko aldaera dela irudi du, baldin eta pauso hori euskararen galtze prozesuaren ondorioa bada.

Adib.: *Aizketa*, ez *Ezketa*; *Aiztondopea*, ez *Estondopea*.

Errestituzio hori egiteko, diptongodun aldakiek –edo dagozkien baliakide erromantzeek (*Junto a la Peña*, *Las Peñas*... kasu honetan)– ongi dokumentatuak beharko dute izan.

Aldakuntza aspaldikoa bada bidezkoena aldatutako izena hobestea dateke. Orobat herria euskalduna bada edo aldaketa gauzatu baino geroago erdaldunda bada.

#### 1.6.1.7. Bokal protetikoaren galtzea dela-eta

Bokal protetikoa galdu denean errekuperatu egingo dugu.

Adib.: *Rotabidea* -> *Errotabidea*; *Rotasiar* -> *Errotaxar* (Lerga, Salaberrí, 1994: 607-608).

Bokala protetikoa den ala ez dakigun kasuetan ere bokaldun aldaera hobetsiko da, baldin ongi dokumentatzen bada edo bizirik badago.

Adib.: *Repelaga* -> *Errepelaga* (Portugalete), *Róntegui* -> *Arrontegi* (Barakaldo).

#### 1.6.1.8. Txistukari aurreko *e* > *i* hersketa

Goiago esan bezala, aldakuntza hau bakar-bakarrik espezifikoetan onartuko da, sekulan ez generikoetan. Espezifikoetan ere, ikusi den moduan, tradizio luzea izan beharko du gertakari honek onartua izan dadin.

Adib.: *Etxabere* > *Itxabere* (Iturenen 1549rako *Ichaberea* zegoen, Iñigo, 1996: 275), *Itxepe* (Erripa, *NTEM-L*, 135), *Itxondo* (Ziganda, *NTEM-L*, 62).

Lekuan lekuko euskararen ezaugarriak aintzat hartzea ere garrantzi handikoa da, puntu honetan.

#### 1.6.1.9. Dardarkari anizkunak eragindako *e* > *a* irekitzea

Dardarkari azkar baten eraginez *e* ireki eta *a* bihurtu den toponimoetan bokal irekia bakarrik espezifikoetan gordeko da, ez generikoetan. Nolanahi ere, eta gainerakoetan bezala, aldaketa honen bilakaera diakronikoa eta euskalkiaren ezaugarriak oso kontuan izan behar ditugu, berreraiketa egin behar den ala ez erabakitzerakoan.

Adib.: *Baztarrotza* (Altsasu, *NTEM-IX*, 38), baina *Antonen bordako bazterrak* (Etxarte, Baztan, *NTEM-LII-2*, 104).

#### 1.6.1.10. Azken bokalak irekitzeko joera, erdararen eraginez

Erdararen eraginez aldatutako amaierako bokalak jatorrizko erara bihurtu behar direla uste dugu. Bi kasu agertzen zaizkigu gailen historian zehar: *-u* > *-o* eta *-i* > *-e*.

Beraz, aldatutako bokala errekuiperatzeko *-o*-z amaitzen diren leku-izenak *-u*-z idatziko dira euskara galdu den tokietan, bokal hau ongi dokumentaturik badago, edo gaurko hizkuntzan oraindik erabiltzen den forma bada.

Adib.: *Arbulo* -> *Arbulu*, *Luco* -> *Luku* (Araba); *Basurto* -> *Basurtu*, *Deusto* -> *Deustu* (Bizkaia).

Zenbaitetan azentuaren ondoko *i* > *e* burutzen da, baita izenak atzean kontsonanteren bat duenean ere.

Adib.: *Berbikiz* > *Berbiquez* (Gordexola), *Muskiz* > *Musques* (Bizkaia).

Honelakoetan jatorrizko forma hobetsiko da, *-i*-duna alegia, hau ongi dokumentaturik edo bizirik dagoenean.

### 1.6.1.11. Bokal-elkarketa

Uste dugu elkarketan burutzen diren bokal-bategiteak ez direla desegin behar, eta idazkera etimologikoak saihestu behar direla, nahiz bi bokalak bereiz dituen aldaera inoiz dokumentaturik agertzen zaigun.

Adib.: *Patroiенаurrekoa* (Zeberio), ez *Patroiенаaurrekoa*; *Uribetxebarria* (Aretxabaleta), ez *Uribetxebarria*.

Hala ere, asimilazioa gauzatu ez denean bokal bi idatziko dira, tarteko marrarik erabili gabe.

Adib: *Aldapaaundi* (Eibar).

Bokalen elkarketa izen baten eta deklinabide morfema baten artean geratu denean, elkarketa desegin egingo dugu.

Adib.: *Putrenarkaitze* -> *Putreen harkaitza* (Areso, *NTEM-XLVIII*, 45).

### 1.6.2. Kontsonantismoa

#### 1.6.2.1. Aspirazioa

Askotan aspaldiko aspirazioaren galeraren ondorioz bokal-elkarketa geratu da. Honelakoetan, forma laburtua onartuko dugu, berreraiketa etimologikoetan sartu gabe; kasu askotan, gainera, ez dugu bestelakorik aurkituko.

Adib.: *Aranetandia* (Gartzain, 1727), ez (*H*)*araneta Handia*, *Larrezarra* (Done Bikendi Harana), ez *Larrezaharra*.

Hala eta guztiz ere, aspirazioa gorde denean, bokal artean zein kontsonante ostean izan, errespetatu egingen dugu.

Adib.: *Eiarazaharra*, *Harroitako malda* (Luzaide, *NTEM-XXXV*, 180, 189), *Mehatze* (Larraine), baina *Arritokieta* (Zumaia), *Errotazarra* (Birgara), eta *Meatzerreka* (Arrasate).

Iparraldean kontsonante atzean agertzen den hasperenketa ere gordeko dugu, Zuberoako herri izendegian egin den bezala. Gogoratu behar dugu ahoskatze hori euskararen ezaugarria dela eta galera maiz frantsesaren eragina izan ohi dela.

Adib.: *Arhantsüse* (Altzai-Altzabeheti-Zunharreta).

Esan bezala, generikoetan *h* erabiliko da, euskara batuan izen hori *h*-z idazten denean.

Adib.: *Arango eia* -> *Arango hegia* (Goizueta, *NTEM-XLII*, 61).

Guztiarekin ere, euskara batutik urruntzen diren aldaeretan ez dugu *h*-rik idatziko:

Adib.: *Urragiko atxa* -> *Urragiko atxa* (Dima).

### 1.6.2.2. Txistukarien tratamendua

Puntu honetan irizpide nagusia tokian tokiko ezaugarriak eta ebakera errespetatzea da.

#### 1.6.2.2.1. Ozen ondoko neutralizazioa

Euskaraz mintzatzen den alderdiko herriren batean *Arantsoro* esaten bada, Nafarroako Zubietan esaten den bezala (Iñigo, 1996: 347), edo *Arantzelai*, *Legartzelai*... Iturenen bezala (ibid., 218, 287), *Arantsoro*, *Arantzelai* eta *Legartzelai* emanen ditugu aldaera araututzat, baina beste batean *Aransolo* (Gamiz eta Munitibar), *Arzubia* (Mañaria), *Arzuri*, *Arzuriaga* edo *Asensiolearra* esaten bada (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 131), afrikaririk gabeko formak onartuko ditugu aldaera araututzat, eta *Aransolo*, *Arzubia*, *Arzuri*, *Arzuriaga* eta *Asensiolearra* emango.

Hortaz, lekuan lekuko ezaugarriak hobetsiko dira, oro har, salbuespenen bat ere izan daitekeen arren.

Euskara galdu den alderdian, berriz, gogorra dirudi egun hainbat tokitan indarrean dauden neutralizazio arau horiek ezartzea, bereziki gerta daitekeelako neutralizazioa burutzen den herri batean toponimo guztietan ez burutzea (cf. *Arzuriaga* / *Artzeleta*, *Galtzarmuno*, *Zamartze*, Uharte-Arakilen, *NTEM-XII*, 131, 142 eta 168). Zuhurrena, beraz, euskara galdu den alderdian, dokumentatutako aldaera hobestea da, baldin eta afrikaria zegoela adierazten duen ezaugarriak ez badago.

Afrikaria hobesteko beste arrazoi bat etimologikoa da, hots, eskuarki afrikaria izaten duen hitz edo atzizki bat azaltzea, beti tentuz eta kontuz ibili behar bada ere, lekuan lekuko ezaugarri dialektalak zainduz eta gordez, ezagutzen ditugun heinean. Adibidez, Lergako dokumentazioko *Arançeduia* *Arantzeduia* arautuko dugu (Salaberri, 1994: 585-586), Galipentzuko *Arrozendia*, *Arrezandia* desitxuratua *Ardantzeandia* emanen dugu, agirieta *Ar-danzeandia* aintzat hartuz (ibid., 349), eta Arrasateko *Galarza* historikoa *Galarza* (Ormaetxea, 96: 57).

#### 1.6.2.2.2. Herskari aurreko *z* > *s* pausoa eta beste

Euskara galdu den alderdian herskari ahoskabeen aurreko bizkarkaria hortz-hobietako bilakatu da maiz; honelakoetan, dokumentazioa argia bada, alderantzizko bilakaera abiaraziko dugu.

Adib.: *Aristegi* > *Ariztegi* (Irungo eta Oñatiko toponimoa).

Nolanahi ere, lekuan lekuko hizkeraren ezaugarriak –maiz hizkera galduarenak– oso kontuan edukitzekoak dira, anitz aldiz aipatu pauso hori euskararen barrenean gertatu ahal izan baita, Nafarroako alderdi zabal batean, konparaziorako<sup>3</sup>.  $Z > s$  aldaketa gertatzen den tokiko euskal hizkeraren ezaugarriengatik burutzen denean ontzat hartu behar dela uste dugu, dokumentazioa ongi aztertu ondano hala ere.

Mendebaldean arreta bereziz erreparatuko zaio  $t$ ,  $k$  kontsonanteen aurrean gertatzen den  $z > s$  pausoari. Hitz barruan agertzen denean duen antzinatasunagatik edo onargarria bada ere –*Askartza* edo *Eskibel*-en esate baterako–, ez da onartuko elkarketan eta eratorpenean, eta *Amestia* gabe *Ameztia* arautuko da, *ametza* esaten denez gero.

Inoiz, herskari aurreko lekunean sabaiaurreko igurzkaria dugu orain – $x$  idazten duguna, alegia–, nahiz eta dokumentazioan soinu hori islatzen duen grafema ez den behin ere azaltzen.

Adib.: *Asquin* (dokumentazioan) / *Axkin* (egun) (Doneztebe, 1996: 103).

Honelakoetan kontuan eduki behar da erdaraz euskarazko soinu hori emateko biderik ez zegoela, eta euskal txistukaria, testuinguru horretan, ez ohi dela asimilazioz gertatu. Beraz, eta Iñigok egin duen moduan, uste dugu aipatu toponimoaren kasuan *Axkin* arautu behar dela, ez *Askin*.

Beste batzuetan gerta daiteke gaur egunean *Ix-* + *heskaria* izatea, seguru aski asimilazioz, baina dokumentazioan aspaldian ageri bada badirudi ontzat hartu beste biderik ez dagoela.

Adib.: *Ixtoki* (orain) / *Istoqui* (normalean dokumentazioan), *Iztoqui* (behin edo beste), *Ixtoquia* (1631n) (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 186-187).

Honelakoetan *Ixtoki* arautu behar dela uste dugu.

### 1.6.2.2.3. Ahoskune aldaketa

Gerta daiteke dokumentazioan izen batek halako txistukaria izatea eta egun, berriz, bestelakoa aurkeztea. Honelakoetan toponimoaren etimologia edukiko dugu kontuan batetik, ahal denean, eta aldaketaren antzinatasuna bestetik. Bi faktore hauek aintzat hartuz erabaki beharko dugu aldaera arautuaren nolakoa.

Adib.: *Anbullotx* -> *Anbullotz* (Doneztebe, Iñigo, 1996: 92, dokumentazioan beti –*oz* baitugu).

Bestalde, Euskal Herriko mendebaldeko toponimoetan  $z > s$  eta  $ts > tz$  aldakuntzak gertatu dira, bertako hizkeran bezala. Honelakoetan  $z$  eta  $ts$  erreperatu egingo ditugu.

(3) Ez Nafarroa osoan, ez eta arruntean –sistematikoki– ere; cf. Abaurregaineko *Izozta*, *Izoztabarrena* (NTEM-XXXIV, 44-45). Nafarroatik kanpo ere gauzatu da aldakuntza hori; ikus Mitxelena, 1988 [1956]: 570.

Adib.: *Kontzesiñue* -> *Kontzeziñoa*, *Serkosteta* -> *Zerkosteta*, *Sorginkantoi* -> *Zurginkantoi* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 63, 85, 86), *Muntzaatz* -> *Muntsaratz* (Abadiño), *Sabale* -> *Zabala* (Leioa).

Zenbait aldiz, izen batek espero ez genuen soinu du orain, eta soinu hori bera izan du azken mendeotan, dokumentazioak erakusten digunez.

Adib.: *Sarachaga* (Getxo, Plentzia) dokumentazioan, *Saratxaga* gaur egun.

Honelakoetan bistan da *Saratxaga* arautu behar dela.

#### 1.6.2.2.4. Bikoiztasunak

Batzuetan bi ebakera desberdin izaten ditugu, bata bestea baino zaharragozat eman daitekeena, eta ez bakarrik agiri frogetan oinarriturik.

Adib.: *Iturrios* / *Iturriotz* -> *Iturriotz* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 61), *Latsagako zubia* / *Lasagako zubia* -> *Latsagako zubia*, *Latsagaldia* / *Lasagaldia* -> *Latsagaldea* (Ituren, Iñigo, 1996: 285).

Inoiz honelako bikoiztasunak espezifikoen eta generikoen arteko lotura -ko-ren bitartez egiteari zor zaiola dirudi, -tz + -ko normalean -zko bilakatzen baita.

Adib.: *Mugitz* / *Mugiz* eta *Mugizko azpia* / *Mugitzazpia*, *Mugizko borda*, *Mugizko erreka*, *Mugizkoa zokoa*-rekin batera (Doneztebe, Iñigo, 1996: 136).

Oraingoan ere bukaeran afrikaria duen aldaera hobetsi beharra dela uste dugu, *Mugitz* emandako adibidean.

#### 1.6.2.2.5. Elkartuaren bigarren osagaiko txistukarien bustitzea

Ohikoa da, elkarketan, hizkera arruntean z- (edo tx-) dena x- edo tx- bilakatzea. Honelakoetan uste dugu gisakoena palatalizatutako aldaerak onartzea dela, baldin eta nolabaiteko tradizioa badute, edo, alderantziz, inolako lekukotasun dokumentalik ez badute.

Adib.: *Alorxarra* (Goizueta, Etxeberria, 1988: 92), *Errotatxar* (Setoain, NTEM-XXXVI, 169), *Errotaxar*, *Errekinxabal* (Zilbeti, NTEM-XXXV, 151), *Bordatxar*, *Bordaxuri*, *Larrexabal*, *Larrexar* (Ituren, Iñigo, 1996: 243-244, 284-285)

#### 1.6.2.2.6. Atzizki zenbaitez

Txistukariz bukatzen diren edo beren baitan txistukaria duten atzizkiak direla-eta, esan daiteke denak ez direla berdin tratatu behar. Izan ere, eta lekuan lekuko ezaugarriak gordez betiere, zenbait atzizkik afrikaria aurkezten dute gehienetan (-tza, -tze...), beste batzuek bikoiztasuna ohi duten bitartean:

-oz / -otz (eta -oze, -otze), -iz / -itz... Kasu honetan uste dugu ia beti afrikaria duten atzizkiak afrikariz eman behar direla, euskara galdu den alderdietan (*Artaza, Artazea* -> *Artatza, Artatzea*, beraz), baina bikoiztasuna onartzen duten beste horietan igurzkaria eman behar dela, afrikariaren aztarnarik ez badago bederen: *Alboz* (Galipentzu), *Otrollas* (Uxue) (Salaberri, 1994: 143, 856). Hau are nabarmenagoa da Euskal Herriko mendebaldean.

### 1.6.2.3. Bustidura

Bustidura edo palatalizazioa biziki gertakari garrantzitsua dugu euskaraz. Mitxelenak dioenez (*FHV*, 179 eta hurr.) fonema palatalak euskalki guztietan azaltzeak bustidura gure hizkuntzan zaharra dela esan nahi du. Erreteriararren arabera, fonema adierazgarriena /t/ da euskaraz, hain zuzen ere horixe delako auzoko latin hizkuntzetan ezezagunena (ibid., 184-185).

Bustidura bi motatakoa izan daiteke euskaraz, asmilaziozkoa eta adierazgarria. Oñederrak dioenez (1990: 18) biak hots klase berari ezartzen zaizkio eta emaitza ere berbera da bi kasuetan, hots, bietan burutzen den aldakuntza berdina da, eta aldatzen dena bata edo bestea gertatzeko baldintzak dira, «asimilazioa katea fonikoko inguruneak sortutako bilakabide sintagmatikoa den bitartean, bustidura adierazgarria hizkuntzaren eremu semantikoari (*lato sensu*) baitagokio».

Toponimian ere bi bustidura motak aurkitzen ditugu:

#### A) Asimilazio bustidura

Adib.: *Ageriko itturrie* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123), *Artzango kixulabea* (Goizueta, Etcheberria, 1988: 96), *Añongo iturriko txabala* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 60), *Iturrandi, Iturrita* (Goizueta, ibid., 103), *Kontzesiñoko iturrix* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 63).

#### B) Bustidura adierazgarria

Adib.: *Agiriko gainito, Arregiko labetto, Larreintto* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 123, 130, 151), *iturkoa* (Osteritz, Espotz, *NTEM-XXXVI*, 151 eta *NTEM-XXXII*, 68); *Menddikoa* (Hiriberri-Aezkoa, *NTEM-XXXIV*, 188).

Toponimoak arautzean uste dugu asimilazio bustidura ez dela errespetatu behar, euskara batuan egiten ez den bezala, toponimoari inolako ekarpenik egiten ez diolako. Bustidura adierazgarria, berriz, ontzat hartu beharra dela uste dugu, ñabardura semantikoa ezartzen baitio toki izenari. Hortaz, eta aipatu ditugun toponimoak honela eman beharko ditugu: *Agiriko iturria, Añongo iturriko zabala, Artzango kisulabea, Iturrandi, Iturrieta, Kontzeziñoko iturria* batetik, eta *Agiriko gainito, Arregiko labetto, Iturkoa, Larreintto, Menddikoa* bestetik.

Nolanahi ere, soinu palatal edo palatalizatua asimilazio bustiduraren ondorio dela garbi ez badago, bere horretan utzi behar dela uste dugu, espezifikoetan azaltzen denean, generikoak esan bezala izen arruntzat hartu eta hiztegi batuaren arabera eman behar baitira.

Adib.: *Aurkaxea* -> *Aurkaxea* (Abaurregaina, *NTEM-XXXIV*, 36); *Labatteko arrate* -> *Labatteko harrate* (Uharte-Arakil, *NTEM-XII*, 151).

Toki batzuetan bereizketa egiten dute, sabaikaldutako formak toponimia-rako ibiliz eta jatorrizko formak gorputz atalak adierazteko gordez. Konparaziorako, Goizuetan *kaxkoa* beti mendiarena da, *kaskoa*, gizon nahiz emakumearena den bitartean, burua alegia. Honelakoetan generikoak hiztegi batuaren arabera arautu behar direla uste dugu.

Adib.: *Amonamozko kaxkoa* (Amonamotzeko ataka ere bada) -> *Amonamotzeko kaskoa* (Goizueta, *NTEM-XLVII*, 58)

#### 1.6.2.3.1. Palatalizazioa zaharra denean

Sabaikarikuntza hori zaharra denean, onartu egingen da. Honela bada, adibidez, toki batean *Arizbakotxa* erabiltzen bada (Urzainki, *NTEM-XIV*, 165) *Arizbakotxa* arautuko dugu, egungo ohitura ortografikoetatik hurbilago legokeen *Arizbakoitza* eman gabe.

#### 1.6.2.3.2. Txistukari txandakatzea

Txandaketak aurkitzen ditugunean (*zoko* / *txoko* / *xoko* eta *zabala* / *txabala* / *xabala*) aldaera bakoitzaren esanahia aztertu beharko da, oinarritzko hitza *zabala* den eta *txabala*, *xabala* ttikigarriak diren edo hirurek balio bera duten.

Baliteke mailaketa bat izatea, alegia, *txabala* forma neutroa izatea, *zabala* haundigarria eta *xabala* ttikigarria (cf. *goxo* / *gozo*, *txakurra* / *xakurra* / *zakurra*). Kasu honetan, eta antzekoetan, hiru generikoak gordeko ditugu. Normalean, hala ere, *txabal* eta *txoko* horiek ez diote inolako ñabardura semantikorik ekartzen toponimoari, eta, beraz, hiztegi batuko *zabal* eta *zoko* hobetsi beharko dira horrelakoetan.

#### 1.6.2.3.3. Hitz bukaerako kontsonantearen bustitzea

Zenbait aldiz toponimoaren egungo ebakeran hondarreko kontsonantearen palatalizatze berria kausitzen dugu, aldaera arautuan ezin onar daitekeena.

Hortaz, honela arautuko ditugu toponimoak: *Axkibill*, *Aixkebill* -> *Axkibel* (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 113-14); *Karraskañ* -> *Karraskain* (ibid., 138); *Uribarriñ*, *Uribarreñ* -> *Uribarren*; *Uriñ* -> *Urigoen* (ibid., 99).

#### 1.6.2.3.4. Despalatalizazioa

Zenbait tokitan aldaera despalatalizatuak edo palatalizatugabeak aurkitzen ditugu toponimian (gai honetaz ikus Salaberri, 1998), espezifikoetan eta generikoetan.

Adib.: *Araniako gaztinaldia*, *Galbayoko gaina* (Urdiain, *NTEM-X*, 84, 95), *Gaztulugainea* (Urzainki, *NTEM-XIV*, 172), *Kainueta*, *Kukuilo* (Larragoa, *NTEM-XXII*, 199), *Txurrumusteilua* (Abaurregaina, *NTEM-XXXIV*, 51), *Zakugaina* (Aribe, ibid., 120), *Zaldalarrina* (Narkue, *NTEM-XXIII*, 152)...

Honelakoetan uste dugu aldaki despalatalizatuak edo bustigabeak dauden daudenean atxiki behar direla, gertakari hau azken batean tokian tokiko hizkeraren ezaugarri inportantea delako. Espezifikoetan, beraz, dagoena ematen da, eta generikoetan ere bai, hizkuntza estandarrean ere beti *il*, *in* idazten delako. Hortaz, *Araneako gaztainaldia*, *Galbarioko gaina*, *Kainueta*, *Kukuilo*, *Txurrumusteilu*, *Zakugaina* eta *Zaldalarrina* arautuko ditugu.

#### 1.6.2.3.5. Zenbait hizkeratako tarteko soinuak direla-eta

Mendebaldeko hizkeretan ohikoa da zenbait lekunetan [š] bat tartekatzea; toponimia ez da erregela horretatik kanpo gelditzen.

Adib.: *Aixertza*, *Bostitturrixeta*, *Lamiñen zelaixe*...

Hauek gure irudiko *Aiertza*, *Bostiturrieta*, *Laminen zelaia*... arautu behar dira (Arrasate, Ormaetxea, 1996: 105, 142).

Beste batzuetan bestelako soinuak dira tartekatzen direnak, inoiz beste zerbaiten arradiza diratekeenak.

Adib.: *Arratatako iturriya*, *Arriyako soruak*, *Kamiyotxikiya*, *Kurutzatako arriya* (Urdiain, *NTEM-X*, 85, 99).

Honelakoak *Arratetako iturria*, *Arriagako soroak*, *Kamiotxikia* eta *Kurutzetako harria* –edo *Gurutzetako harria* dokumentazioaren arabera– arautu behar dira, gure iritzian.

#### 1.6.2.3.6. Toponimoaren lehen osagaia izen arrunta denean

Sail honetan sartzen dira aipatu dugun Arrasateko *Lamiñen zelaixe*-ren edo Uharte-Arakilgo *Jentillen lezie*-ren modukoak (*NTEM-XII*, 148), gure us-tez *Laminen zelaia* eta *Jentilen lezea* arautu beharrak direnak, esan bezala lehen elementu hori izen arruntzat har daitekeelako, ezpezifikoa ez izanik. No-lañahi ere, eta ikusten den moduan, bertakoa den *lamina* aldaera begiratzen dugu Arrasateko toponimoaren kasuan, *lamia* sartzeko partez.

#### 1.6.2.4. Herskariak

Uste dugu espezifikoetan tokian tokiko herskariak hobetsi behar direla, baina ez generikoetan; hauetan hizkuntza estandarreko aldaerak onartuko dira eskuarki, hauek bertako formatik sobera urruti gelditzen ez diren kasuetan behintzat.

Adib.: *Butzuandia* (Galar, Jimeno, 1987-b, 385); *Dorrezar* (Eriete, 1727, Inventarios del Reino de Navarra); *Gisutzea* (Galipentzu, Salaberri, 1994: 406); *Kisulabe* (Ilurdotz, *NTEM-XXXVI*, 103-104); *Mateopozu* (Barakaldo); *Pozueta* (Amurrio, Muxika); *Putzuetako gaina* (Goizueta, *NTEM- XLVII*, 128); *Torrezar* (Zeberio), *Zamudiotorre* (Zamudio).

Erronkari aldean, *n* eta *l*-ren ondoko herskari ahoskabeak ahoskabe atxikiko ditugu (cf. toponimia nagusiko *Bidankoze*, *Erronkari*, Zaraitzukoak diren eta hizkuntza batuaren arauekin adosago dauden *Bidangoze* edo *Errongari*-ren orde).

Adib.: *Ekialtea* (Uztarroze, *NTEM-XIV*, 197), *Zaltua* (Burgi, Garde..., ibid., 52, 78).

Zenbait aldiz gertatzen da toponimo bera hasieran *b*- nahiz *m*- duela azaltzen zaigula gaur egun.

Adib.: *Bonua* / *Munoa* (Elgorriaga, Iñigo, 1996: 175), *Bengolea* / *Mingolea* (Barakaldo).

Honelakoetan zaharrena *b*-dun aldakia izan ohi da, baina, zernahi ere den, dokumentazioa aztertu behar dela uste dugu, toponimoa egokiro arautu ahal izateko. Elgorriagako izenaren kasuan *b*-dun aldakia da jaun eta jabe 1563tik 1853ra, eta gaur egun oraino bizirik dago, ikusi bezala. Hortaz, kasu honetan *Bunoa* arautu behar dela uste dugu, Iñigok (ibid.) egiten duen bezala.

Barakaldon *Bengolea* XX. mendea arte erabili da, gaur egun *Mingolea* esaten bada ere; kasu honetan garbi dago *Bengolea* hobetsi behar dela, oraingo aldakia itxuragabetuxe baitago.

Beste batzuetan *b*- / *p*- aldizkatzea aurkitzen dugu; honelakoetan ere zaharrena lehena izaten da, baina, nolanahi ere, dokumentazioa ongi aztertu behar da.

Adib.: *Bagalde* / *Pagalda* -> *Bagalde* (Ituren, Iñigo, 234-235), *Bizarrenia* / *Pizarrenia* -> *Bizarronea* (Ituren, ibid., 514).

Anitzetan *k*- aurkitzen dugu gaur egun jatorrizko *g*-ren orde. Honelakoetan ikusi behar dugu ahoskabetzea euskaraz mintzatzen zen bitartean gauzatu zen, herrian euskara galdu bada, eta dokumentazioak zer dioskun, edozein kasutan. Gure iritzian ez da arazorik izan behar *k*-dun aldaera horiek onartze-ko, tradizio handia badute, baina, adibidez, Usetxiko egungo *Kaete*, *Kaeteos*-

*pel* eta *Kaetezelai* toponimoak *Garate*, *Garateospel* eta *Garatezelai* arautu behar direla uste dugu, *Garate*, *Garatekoa* behintzat 1892a arte dokumentatzen direlako (NTEM-XXXVI, 187).

Zalantza gehiago ditugu Iturengo oraingo *Kastinia* etxe izenarekin, *k*-dun aldaera 1773rako ageri baita, gero bakarra delarik. Lehen, halere, 1564tik 1773ra arte beti *g*-dugu, eta, bestalde, *Kastinia* bere horrela ezin dugu arautu (ikus beherago, etxe izenei eskaini atala), eta aukeraketa *Kastenea*-ren eta *Gaztenea*-ren artean egin behar dela dirudi. Iñigok (1996: 522) lehenaren alde egin zuen, eta *Gaztenea* arautu.

## 1.7. BESTELAKO KASUISTIKA

### 1.7.1. Jatorriz erlatibozko perpausak ziren toponimoak

Koldo Mitxelenak (1988: 615) euskaraz *Satznamen*-ak urriak direla dio, onomastika semitikoan azaltzen direnen tankerakoak behintzat, eta *verb phrases* deitzen dituenak aurkitzea biziki zaila dela gaineratzen du, ohikoa zuen ironiarekin. Irakasle errenteriarren arabera aditz sintagmatik hurbilen daudenak, euskaraz, erlatibo toponimoak dira.

J. Gorrotxategik ere maisuari jarraikiz perpaus toponimoak euskaraz gu-txi direla dio (1995: 755), baina guk uste dugu baieztapen biribil hau asko ñabartu behar dela, eta, jakina, ezin dela horrelakorik esan aipatu ditugun erlatibo toponimo horietaz, Nafarroan, esaterako, franko aurkitzen ditugulako. Mitxelenak berak ematen du Bizkaiko adibide bat (*Hila datzan zelaia*, egungo grafiarekin idatziaz; 1988: 616), eta Lopez de Gereñuren Arabako hainbat lekuko aztertzen edo aipatzen. Gipuzkoan seguru aski gutxiago izango dira, baina *Haurra galdu zan harria*-ren tankerakoak badira (Urnieta aldean; L. M. Zaldúa, lan argitaragabea). Honela dio J. Gorrotxategik:

“Lastly, there is also minor evidence of toponyms that are *Satznamen*; the oldest would appear to be *Onbaçendu*, name of a lair of animals, ‘if it so pleaseth you’, which has its origin in a feudal institution in Navarre called *onbaçendu auaria*, or ‘supper of complaisance’”.

Erlatibo toponimoak ugariak dira dokumentazioan, eta ugariak dira egungo toponimia bizioan ere(4). Historikoetan Zudairiko *Oihalak ikuzten dirana*, Etsaingo *Emazte hil zena*, Bakaikuko *Abade Altsasua erori zaneke zuloa* (Salaberri, 1996, 225-226. Ikus, baita ere, Segurola, 1987, García de Albizu, 1994 eta Salaberri, 1998) eta Asteraingo *Urdeak etziten direnekoan* (Jimeno Jurío,

(4) Gaztelaniaz *donde*-ren bidez egiten dira euskaraz *dena*, *dana*... duten erlatibo toponimo horiek, Mitxelenak zehaztu bezala (1988: 617), edo, bestela, *en el sitio de*-ren bidez (*Donde murió el mozo*, *En el sitio del pomal*...). Ikus, honetaz, Salaberri, 1992: 640. Toponimia frantsean Sporeren arabera (1980: 26) lau erlatibo toponimo besterik ez dira: *La Pierre-Qui-Vire*, *Le Pont-Qui-Penche*, *Sauve-Qui-Peut* et *La Truie-Qui-File*.

1987: 142 = *Donde duerme el ganado de cerda*, ibid., 191) aipa daitezke, eta bizietan Uharte-Arakilgo *Txaraka txikitzen dena* eta *Ura sortzen dena* (NTEM-XII, 165, 166), Dorraoko *Andres bota zaneko barga*, Lizarragako *Diegoren karroa bota zana*, Unanuko *Ahuntzak jeixten diraneko zelaia* eta *Gatza ematen dakion iturria* (NTEM-VII, 30, 51, 65, 77), Gaintzako *Arrizabaldenea*, *Illaradenea* (NTEM-XLVI, 73, 78)...e.a.

Hauetaz gainera, badira, Euskal Herriko sortaldean, *dena, dana* izan beharrez *bait-* menderagailuaren bidez osaturik daudenak: *Elorria baita* (Leotz), *Gurbea baita*, *Lizarra baita* (Lusarreta), *Gurutzea baita* (Ituren, Iñigo, 1996: 263)...

Erlatibo toponimo hauen kasuan hiru arazo aurkezten zaizkigu, gutxieneko kontuan: osagaiak batera (toponimoak baitira) ala bereiz (perpausak diren heinean) eman behar diren lehenik, eta tokian tokiko hizkeraren ezaugarriak zer neurritan begiratu behar diren gero. Bigarren honekin lotua dago hirugarrena: lekuan lekuko ezaugarri dialektalak errespetatu behar badira, noraino erabili behar ditugu hizkuntza estandarren ortografia arauak?

Lehenari dagokionez, Nafarroan egindako toponimia bilketan (Jimeno Jurío, 1990) izenak bi elementuz osaturik zeudenean loturik idatziko zirela esaten zen, baina hiru edo gehiago bazituen bereiz emanen zirela. Orain, eta datu gehiago aztertutik, uste dugu toponimoaren osagaiak eskuarki bereiz eman behar direla.

Adib.: *Azpila dana* (Galbarra) *Maiatza dana*, *Usoak edaten duena* (San Martin-Ameskoa) (Salaberri, 1996: 226); *Andrea galdu zan erreka* (Altsasu, NTEM-IX, 33); *Ezpela baita* (Meotz, Salaberri, 1996: 226)...

Alabaina, toponimoari beste elementuren bat eransten zaionean, izan dadin hau inesiboaren aztarna datekeena, izan dadin deklinabide hondarkiren bat, izenaren osagaiak batera idatzi behar direla uste dugu, generikoa salbu: *Erleabaitako alorra* (Xaberri), *Udareabaitakoa* (Idoate, Salaberri, 1996: 226); *Ganbeladaneko zuloa* (Unanu, NTEM-VIII, 76); *Aldapadanea* (Arbizu, NTEM-XII, 64(5) ).

Bigarren arazoa dela eta, orain arte aipatutako toki izenetan ikus daitekeen bezala, uste dugu tokian tokiko ezaugarri nagusiak errespetatu behar direla, baina ez guztiak, eta maiz errestituzioak egin behar direla. Esate baterako, Arbizuko *Aldapadanea* bertan *Aldapania*, *Aldapaania* ebakitzen da (NTEM-XII, 64), Unanuko *Ganbeladaneko zuloa* *Ganbelaneko txuloa*, eta herri bereko *Gatza ematen dakion iturria*, berriz, *Gatza ematen dakiyon iturriya* (NTEM- VIII, 77).

(5) Guk hemen proposatzen dugun arautzea eta aipatzen ditugun Nafarroako lan horietan egiten dena ez datoz beti bat.

Hirugarren arazoa dela-eta, berriz, egokia iruditzen zaigu Unanuko *Auntzek jeixten diraneko txelaya* perpaus toponimoa *Ahuntzak jeixten diraneko zelaia* arautzea, eta Urnieta aldeko *Aurra galdu zan arriya* leku izena *Haurra galdu zan harria* ematea.

Euskal toponimiako *Satznamen*-ak ez dira azaldutakora mugatzen, hurrengo atalean ikusten den bezala, eta, beraz, Mitxelenak eta Gorrotxategik egindako baieztapenak franko ñabartu eta murriztu behar direla uste dugu.

### 1.7.2. Bestelako perpaus toponimoak

Esanak esan, honelakoak ugariak izan dira gure artean lehen, eta ugariak dira oraindik ere, zenbait eskualdetan behintzat:

Adib: *Bustazurico erreca pasatu eta berala* (Asterain, Jimeno, 1987: 66), *Elordira atracen guirela* (ibid., 85), *Ezpelequeta atracendela eunce buruam* (ibid., 95), *Gares bidea larrea atracendella* (ibid., 102); *Guarda labeguia larrea pasatu eta berala* (ibid., 105), *Perdona bidea uncea dachiola* (ibid., 128); *Garidario* (Zirauki, 1576, PR-Zirauki, 3. k.)... Erdaraz ere bada horrelakoren bat; cf. Asartako 1689ko *Manacaracoles* (PR-Artabia, 5. k.).

Honelakoak, gure irudiz, egungo grafiarekin idatzi behar dira, baina eskuarki morfologia aldatu gabe, honela: *Bustazuriko erreka pasatu eta berala*, *Elordira atratzen girela*, *Ezpeleketa atratzen dela euntze buruan*, *Garesbide-alarrea atratzen dela*, *Guardalabegia larrea pasatu eta berala*, *Garidario*... baina *Perdonabidea euntzea datxiola*.

Oraiko perpaus toponimoen artean *Erreekekoa* (hau ere erlatibo perpausa da, nahiz ez ohikoa, toponimian), *Errezatzeko bargagaña* (Lizarraga-Ergoiena, *NTEM-VIII*, 52) eta *Txara botatzeko gaña* (ibid., 61) aipa daitezke. Honelakoak, bizirik baitaude, hizkuntza batuaren arabera arautuko ditugu, espezifikoei dagokien idazkera berezia atxikiz, beharra denean. Hortaz, honela emango ditugu: *Errerikakoa*, *Errezatzeko bargagaina* eta *Txara botatzeko gaina*.

### 1.7.3. Errepikapenak

Euskara galdu den herrietan maiz aski agertzen dira *Fuente de Iturrizarra*, *Monte de Mendiandia*... eta antzeko toponimoak. Horrelakoetan generikoa (*Fuente*, *Monte*...) ez idazten saiatuko gara, aipatu dermio horrek iturria edo mendia bakarra izendatzen duenean. Jokabide bera izan behar dela uste dugu errepikapena euskaraz gauzatzen denean.

Alabaina, *Iturrizarra*-k iturriaz gain ingurua ere izendatzen badu, *Fuente de Iturrizarra* / *Iturrizarreko iturria* idatziko dugu iturria bera aipatzeko, *Iturrizarra* aurkintzatik bereizteko.

#### 1.7.4. Leku-izen hibridoak

Euskara galdu den alderdian inoizka izen hibridoak agertzen dira, hau da, osagaietako bat euskarazkoa eta bestea, askotan itzulia, erdarazkoa dituzten toponimoak.

Adib.: *Mendigrande, Montebisker* (Saratsate, *NTEM-XIII*, 229).

Kasu honetan dokumentaziorik ez badago egungo aldakiak onartuko ditugu, inoiz ukituren bat egindakoan.

Adib.: *Mendigrande, Montebizkar*.

Agiriak aztertuta itzulpena duela gutxi egina dela ikusten badugu, berriz, jatorrizko aldaerara itzuliko da, hau da, *Mendiandi* eta *Mendibizkar*-en tanke-rakoetara.

Beste kasu batzuetan zaila da jakitea toponimo hibrido baten aurrean gauden ala ez, euskarak, ezaguna denez, hainbat mailegu hartu baititu inguruko hizkuntzetatik.

Adib.: *Sotoaldea* (dok., Elo, Larraintzar, Tabar...), *Saguesgo sotoaldea* (Gazolatz, 1549, PR-Lizarra, 2. k.).

Honelakoetan *Zaldualdea* edo *Saguesgo zaldualdea* aukeratuko ditugu, baldin eta maiztasun handikoak eta aski zaharrak izateak hibridazioa hizkuntz ordezkapen prozesuaren fruitu dela ziurtatzen badigute. Bestela, diren-direnean emango ditugu toponimo horiek, beharrezkoak diren aldaketa grafikoak eginda.

#### 1.7.5. Plural erromantzea eta artikularen eranstea

Hizkuntz ordezkapenaren ondorioz gertatu ohi da gaztelaniazko *-s* pluralgilearen eransketa; honelakoetan uste dugu toponimoak beren lehengo gardentasunera itzularazi behar direla, aldakuntza euskaraz kanpoko arrazoiei zor zaielako.

Adib.: *Arrartetas* -> *Arrarteta* (Hiriberri-Aezkoa, *NTEM-XXXIV*, 177), *Arriagas* -> *Arriaga* (Erandio); *Ataketas* -> *Ataketa* (Abaurregaina, ibid., 36).

Hauek, inoiz, euskara galdu gabe ere aurkitzen ditugu han-hemen, gaztelaniaren eragin handiagatik, antza duenez. Hau da, esaterako, Getariako *Meagas*-en kasua, zein *Meaga* arautu behar baita, bistan denez.

Honelakoak bereziki argiak dira jatorrizko aldakia oraindik bizirik dagoenean, edo bizirik dauden aldaketatik aise ondorioztatzen denean.

Adib.: *Etzangios* / *Etxangio* -> *Etzangio* (Abaurrepea, *NTEM-XXXIV*, 79), *Legarrea* / *Legarreas* -> *Legarrea* (Olaitz, *NTEM-L*, 155).

Batzuetan bakarrik erdarazko pluralgilea duen aldakia dugu orain, eta dokumentazioan forma osoa.

Adib.: *Legarra* (1892), *Los Legarres* (orain) (Saragueta, *NTEM-XXXII*, 119).

Kasu honetan uste dugu egungo aldakiaren etorkia den *Legarra*-ra itzul daitekeela.

Gerta daiteke, hala ere, erdaraz baizik mintzatzen ez den herri batean *Los Bustines*, *Los Zugarros* bezalako toponimoak berriak izatea, hots, *bustin*, *zugarro* euskaratikako maileguen gainean eraikiak izatea. Horrelakoetan toponimoa dagoen-dagoenean onartu behar dela uste dugu.

### 1.7.6. Hagiotoponimoak

Euskal grafiaz idatziko dira euskal erara ebakitzen badira, euskarazko izen jatorrak badira, edo posposizio edo izen euskaldun batez horniturik badaude.

Posposiziorik ez dutenean bereiz idatziko ditugu:

Adib. *San Roke*, *San Bizente*, *Jaun Done Petri*, *Done Salbatore*.

Salbuespen bakarrak *Santi*-dun izenak izango dira; honelakoetan bi osagaiak batean idatziko ditugu, usadio zahar eta hedatuenera segituz.

Adib.: *Santimami* (Erandio, Leioa).

Posposizio batez –toponimian arruntak diren *aldea*, *gibela*, *gaina* eta *gisakoak*, alegia– lagundurik daudenean, ordea, loturik idatziko ditugu.

Adib: *Sangregoriozelaia* (Zumarraga), *Sanpelaioaldea* (Ermua).

Hagiotoponimo hauek berriak baldin badira –sarri Franco jeneralaren garaian eraikitako etxadiak ohi dira– eta izen zaharra berreskuratzetik ez baldin bada, itzuli egingo dira, ahal delarik inguruko edo euskalki bereko hagiotoponimoak eredu hartuta. *San Juan*-en kasuan azken urteotan Hegoaldean zabaldu den *Donibane* ere erabil daiteke (Iruñea, Pasaia, Santurtzi).

### 1.7.7. Etxe izenak

Gure egunotan normalean aldaera itxuraldatua erabiltzen da, baina etxe jabeek (eta ingurukoek ere sarri) ongi jakin ohi dute etxearen jatorrizko izena zein den.

Arlo honetan uste dugu oinarritzko irizpidea oikonimoaren oinarrian dagoena begiratzea eta osorik ematea izan behar duela, ezinbestekoa baita etxe izen horietan dagoen gure kultur ondarea atxikitzea. Beraz, egungo *Elorga* (Leioa); *Gontxea* (Azpilkueta, *NTEM-LII-1*, 176), *Koyania* (Ituren, Iñigo,

1996: 523), *Paliorraa* (Munitibar), *Uxar* (Dima) oikonimoak *Elorriaga*, *Goienetxea*, *Goiaranea*, *Pagoleorragea*, *Urizar* arautu behar ditugula uste dugu, hots, dokumentazioko aldaeretara hurbildu behar ditugula.

Inoiz atzera samar joan beharko dugu denboran, izenaren itxuraldatzea zaharra izan daitekeelako; honetan bat gatz Iñigoren (1996: 523) jokabidearekin Iturengo *Kuxinxenia Gizonxurienea* normalizatzen duenean (*Gizonxurienea* ere arautu liteke, agian). Adibide honetan ikusten den bezala, oinarriaren gardentasuna atzera ekartzen da, baina ez atzizkia, hau hastean *-arena* izanagatik. Beste adibide bat: *Xixternia* -> *Sastrenea* (Ituren, Iñigo, 1996: 542-543), ez bukaera osorik duen dokumentazioko *Sastrearena*, baina ezta oraingo aldaki itxuraldatua ere.

Oikonimoetan ehundaka aldiz azaltzen den jabego genitiboaren hondarki hori dela-eta bi hitz esan nahi genituzke. Izan ere, eta aipatu den bezala, egun *-arena* aldaki osoa erabiltzen ez denean ez dugu uste etorkizko aldaki horretara itzuli behar denik, bilakaera euskararen barrenekoa izan bada behinik behin. Nolanahi ere, azken bi mendeotan joera handia ikusten da toki batzuetan amaierako *-a*, jatorriz artikulua dena, kentzeko. Goizuetan, adibidez, XVIII-XIX. mendeetan *-a* hori oikonimo gehienetan agertzen zen (ikus Herandorena, 1978), baina gaur egun izen gehienek galdu dute.

Adib.: *Zabaletarena* (XVII. mendean) > *Zabaletaenea* (XVIII, XIX. mendeetan) > *Zabàltené* egun; *Lubienea* (XVIII-XIX. mendeetan) > *Lùinè* (orain); *Franciscochonea* (XVIII, XIX. mendeetan) > *Frantxìskené* (orain); *Pasqual Luzeanea* (XVIII. mendean) > *Pascual-acenea* (XIX.ean) > *Paskòl-tzené* (orain). Artikulua, halere, ez da kasu guztietan galdu: *Barbàreneá*, *Goikòtxeá*...

Pasaian ere (Elortegi, 1992), Goizuetan bezala, bi soluzioak ditugu, hau da, azken bokala galdu duen *-ene* aldaera eta soinu hori gorde duen *-enea*, azken hau modu batera baino gehiagotara ebakitzen delarik: *Azkuene* ([áskwenè] Pasai San Pedron) / *Frantxesenea* ([fřančeséníá], [fřančesénéá], [fřančeséáenià], Pasai San Pedron eta Pasai Donibanen). Dokumentazioan ikusten den gisara, jatorrizkoa *-(a)rena* da (*Martiskorena*, 1759), XVII. mendearen azken laurdenerako *-enea* bilakatzen hasia zena (*Kalatrásenea*, 1680, *Maisuenea*, 1757, *Mariederrenea*, Pasai Donibane, 1796). *-Ene* aldaera XIX. mendearen bigarren erditik aurrera hasten da agertzen: *Mokorriene* (1863), *Goikoene* (1873), nahiz mende honetan eta hurrengoan *-enea* aise arruntagoa den: *Pelayo(e)nea* (1871), *Txartikuenea* (1940), *Kolejialenea* (1948).

Gure irudiz bukaeran *-a* duten aldakiak hobetsi behar dira, beti ere dokumentazioa kontuan hartuz eta lekuan lekuko ohiturak errespetatuz. Bestalde, azken urteotan somatzen den *-enea* orokortzeko joera ez zaigu egokia iruditzen, esan bezala, tokian tokiko usadioaren arabera jokatu behar dela uste dugulako.

Oikonimoetan agertzen den kasu marka ez da kontuan izango, oikonimoa historikoa baldin bada eta ondorioz gura hitz bakar batean heldu bada. Esan nahi dugu etxe izenaren bi osagai nagusiak ez ditugula bereiz emango. Hau biziki argia da etxe izen hori deitura bihurtu denean.

Adib.: *Errekakoetxea* (Arantzazu, Bilbo, Dima, Gorliz).

Beren baitan *-ko* + *etxea* duten oikonimoak beti loturik idatzi behar dira.

Adib.: *Aldakoetxea*, *Bengoetxea*, *Berekoetxea*, *Garaikoetxea*, *Goikoetxea*, *Indakoetxea*...

*Etxe izena* + *leku genitiboa* + *generikoa* segida agertzen denean, oikonimoaren bukaerako *-a* artikulutzat hartzen dugu, *-bereziki* etxe izenak jatorriz jabego genitiboaren bukaera zena daramanean- eta *-ko* ezartzean kentzen dugu.

Adib.: *Enekonea* / *Enekoneko ardiborda* (Irurita, *NTEM-LII-2*, 154); *Gartxitonea* / *Gartxitoneko borda* (Lekaroz, *ibid.*, 183); *Oztarenea* / *Oztareneko borda*, *Oztareneko iturria*, *Oztareneko ongarritegia* (Arizkun, *NTEM-LII-1*, 138).

*Etxe izena* + *posposizioa* segida dagoenean ere jatorrizko *-a* desagertu egiten da, *etxea* / *etxe azpian* sintagmetan bezala.

Adib.: *Apezenea* / *Apezeneberria* (Ituren, Iñigo, 1996: 507-508), *Juango-rriena* / *Juangorrineazpia* (Gaintza, *NTEM-XLVI*, 79).

Bestela ere maiz oikonimoaren amaiera kendu-utzizkoa izan ohi da.

Adib.: *Andalorrea* / *Andalorreko borda* (Gartzain, *NTEM-LII-2*, 124), *Gamiua* / *Gamioko borda* (Almandoz, *NTEM-LII-1*, 43), *Goienetxea* / *Goienetxe*ko borda (Azpilkueta, *NTEM-LII-1*, 176).

Nafarroako Malerrekan, Bortzerrietan eta Lapurdin etxe izen askok *-baita* «atzizkia» eramaten dute; honelakoetan *-baita* hori aurreko izenari lotua idatzi behar dela uste dugu.

Adib.: *Agerrabaita*, *Aldakosbaita*, *Amurusbaita*, *Apezabaita*, *Arbelaitzbaita*, *Arotxabaita*, *Arrosabaita*, *Barrenetxebaita*, *Bonbabaita*, *Doloresbaita*, *Donsimonbaita*... (Bera, OBIE, 1989).

Kasu honetan ere *oikonimoa* + *-ko* + *generikoa* segida ageri bada hon-darreko osagai hori bereiz eman behar dela uste dugu.

Adib.: *Sastrebaitako borda* (Bera, OBIE, 1989).

Etxe izen berriak idazterakoan gorago azaldu diren irizpideei jarraikiko gatzazkie: *Goizargi* (ez *Goiz-argi*), *Txokoberri* (ez *Txoko-berri*), baina *Gure nahia*, *Gure ametsa*.

### 1.7.8. Herri izenak mikrotoponimian

Toponimia txikian maiz herri izenak aurkitzen ditugu, normalean jendeak orain ebakitzen dituen moduan. Honelakoetan uste dugu Euskaltzaindiak proposatzen dituen aldaera arautuak erabili behar direla.

Adib.: *Arbazuko bidea* -> *Arruazuko bidea* (Lakuntza, *NTEM-XII*, 95), *Iyenteko barga*, *Irinteko barga* -> *Irañetako barga* (Irañeta, ibid., 180), *Leitzelarrea* -> *Leitzalarrea* (Leitza, *NTEM-XLVIII*, 105)...

### 1.7.9. Itzulpenak

Gure iritziz leku izenak normalean ez dira itzuli behar, nahiz eta, dokumentazioa ezagutzen duenak ongi dakien bezala, euskarazko izenak asko eta askotan erdarara irauli diren. Hau, eskuarki, eskribauaren ezagutza eta hizkuntz gaitasunaren mende egoten zen.

Zernahi gisaz, izena berria baldin bada ez dugu uste arazorik dagoenik euskaraz ere ezartzeko. Era berean, egoki ikusten dugu itzulpena gure egunetara heldu den izena antzinako euskal izen baten itzulpena denean. Hau bizi-ki ohikoa da hirietan, non euskal izenak nekez mantendu diren. Horrelakoetan, euskal onomastikari eta tokian tokiko ohiturari segituz egingo dira itzulpenak; Iruñearen kasuan, konparazione, bidezko dirudi dokumentazioko eta gaurko datuak aztertutik *dinda* sartzea, lanbide zaharren izenak daramatzaten karrika izenetan (*Dindatxikia*, *Urradinda*, *Zakudinda*...).

Izenak erdarara bihurtzea, alabaina, ez da bakarrik hiri barruan gertatzen, maiz itzultzeko joera hau toponimia txikian ere aurkitzen baitugu.

Adib.: *Arbaltzaga* / *Peñas Negras* (Galdames), *Urgozo* / *Las delicias* (Barakaldo).

Honelakoetan nola jokatu behar den jakiteko itzulpena noizdanikakoa den aztertu beharra dago, bai eta ere leku bakoitzeko egoera soziolinguistikoa nolakoa den. Zernahi gisaz, uste dugu euskaldunok jatorrizko gure toponimo horiek errekuiperatzeko eskubidea badugula, baina, hori bai, egun zabalduago dagoen erdarazko itzulpena gutxietsi gabe. Konponbidea honelakoetan biak ematean dagoke.

### 1.7.10. Letra larrien eta xeheen erabilera

Itxuraz axola handirik ez duen gaia da hau, baina gero praktikan egunero arazo bihurtu ohi da. Irizpidea txosten honetan aipatu diren toponimoak arautzeko erabili dena izan behar duela uste dugu, hots, izen espezifikoak letra larritz hasi behar da eta letra xehez jarraitu, eta generikoa letra xehez hasi eta letra xehez amaitu behar da

Adib.: *Lertxundiko erreka* (Ituren, Iñigo, 1996: 288).

## Bibliografia

- Baldinger, K. (1986): "Etimología popular y onomástica", *Lexis*, 10, 15-30.
- Elortegi, A. (1992): *Pasaiako Toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 8, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etxeberria, L. F. (1988): "Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik", *FLV*, 51, 77-118.
- Euskaltzaindia (1978): *Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak*, Euskera aldizkariaren separata, Bilbo.
- García de Albizu, B. (1994): "La sufijación «-dana» y «dirana» en la Toponimia de Ameskoa", *FLV*, 65, 136-166.
- Gorrotxategi, J. (1995): "Basque Names", in *Namenforschung / Name Studies / Les noms propres*, Walter de Gruyter, Berlin-New York.
- Hernandorena, V. (1978): "Goizueta'ko Etxe eta Baserri'en izenak: 1616 urtetik-1925'ño", *CEEN*, 10, 75-90.
- Iñigo, A. (1996): *Toponómica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup> (1987): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Onomasticon Vasconiae, 1, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup> (1987-b): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Onomasticon Vasconiae, 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup>. (1989): *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup>. (1989-b): "Arrizabalaga (Campanas) y Artederreta (Carrascal)", *FLV*, 53, 75-85.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup> (1989-c): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Onomasticon Vasconiae, 6, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup> (1990): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza (Bigarren Argitarapena. Zuzenduta eta Osatuta) / Navarra. Toponimia y Cartografía (Segunda Edición. Corregida y Aumentada)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea. Lanean zehar NTEM akronimoaz aipatzen dira bilduma honetako lanak, bakoitzari dagokion zenbakia ondoan ezarriz.
- Jimeno Jurío, J. M<sup>a</sup> & Salaberri, P. (1994): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae, 12, Bilbo.
- Mitxelena, K. (1988 [1956]): "Introducción fonética a la onomástica vasca", aurrena *Emerita*, XXIV, 167-186-n karrikaratua. Orain urte batzuk *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ikusi zuen berriz argia (J. Lakarra argi-

taratua, Maria Teresa Etxenikeren eta Blanka Urgellen laguntzarekin), «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak 10, Donostia, 555-580. Guk azken argitalpen honetatik egiten ditugu aipuak.

Mitxelena, K. (1988 [1985]): “Algunos nombres de Contrasta”, lehendabiziko aldiz *ASJU*, XIX, 595-602-n argitaratua; azken urteotan *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ikusi du berriz argia, 614-619. Guk azken argitalpen honetatik egiten ditugu aipuak.

Mitxelena, K. (1990): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak, IV, Donostia, laugarren berrargitalpena.

OBIE (1989): *Bera lurraldeko mapa*.

Oñederra, M. L. (1990): *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

Ormaetxea, J.L. (1996): *Arrasateko Toponimia*, *Onomasticon Vasconiae*, 15, Euskaltzaindia, Bilbo.

Salaberri Zaratiegi, P. (1992): “Toponimia, dialektologiaren ikerbide”, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker 7, 619-645.

Salaberri Zaratiegi, P. (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, *Onomasticon Vasconiae*, 11, Euskaltzaindia, Bilbo.

Salaberri Zaratiegi, P. (1996): “Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez”, *FLV*, 72, 223-234.

Salaberri Zaratiegi, P. (1998): “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.

Segurola, I. (1987): “Notas de toponimia amescoana”, *ASJU*, 20:1, 265-275.

Spore, Palle (1980): *Etudes toponymiques*, bi ale, Odenseko Unibertsitatea.

Terrado, J. (1999): *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza.

Trapero, M. (1995): *Para una teoría lingüística de la toponimia (Estudios de toponimia canaria)*, Universidad de las Palmas de Gran Canaria, Gran Canaria.

Ugarte, J. L. (1998): *Urretxu eta Zumarragako Toponimia*, *Onomasticon Vasconiae*, 18, Euskaltzaindia, Bilbo.

Zaldúa, L.M.: *Urumeako Zilegimendietako Toponimia*, lan argitaragabea.

Barakaldoko datuak Mikel Gorrotxategi eta Goio Bañales egiten ari diren *Toponimia de Barakaldo y Alonsotegi* lanetik hartu ditugu; Sopuerta eta Galdamesko datuak, berriz, laster kaleratuko den Mikel Gorrotxategiren “En-

kartazioetako toponimiaz: Artzentales, Galdames eta Sopuerta” lanetik atereak dira, in *Actas de las II Jornadas de Onomástica / II. Onomastika Jardunaldien Agiriak*, Onomasticon Vasconiae 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000, 531-605.

*Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri, Onomastika batzordeko kideek, Mañariko Udaletxean, 1999-X-22an aurkeztua eta, Iruñeko ordezkaritzan, 2000-II-18an Onomastika batzordeak onartua.*

## **GALDE-ERANTZUNAK**

**MIKEL GORROTXATEGI NIETO jauna,**

**ONOMASTIKA batzordekidea**

*Gasteizen, 2000ko martxoaren 1ean*

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

Agur, Gorrotxategi jauna:

Zure kontsulta bat jaso dugu Zaraitzu eta Erronkari biltzen dituen mankomunitatearen izena Gramatika batzordearen iritziz nola litzatekeen galdetuz. Honako bi aukera hauek ematen dizkiguzu:

*Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea*

*Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea*

Lehendabizikoaren gainean diozu Mitxelena horren aldekoa zela, tradiziozko hainbat lekukotasunek erakusten duten legez. Egia da; hona hemen aurkitu ditugun batzuk:

K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VIII* - 116: \*Erren-deri sortu zuten gero, ordea, \*XXgn mende honetan bertan, izenak, zaharra goa izan balitz, izan zukeen itxura aldaturik, \*Erronkari-Zuberoetan izan ezik, hango bihurtu den gisan, alegia.

KM MEIG VII - 97: Aurkientza horietan, beste hitz bakar batek jaten dio lurra, \*Araba-Gipuzkoetako eremuetan batipat: antzina antzinako den egubakotx'ek.

KM MEIG VI - 69: jauntxoentzat izan zen galgarri galera hura, eta \*Bilbo-Donostietako burgesak ez ziren jauntxoak, eta ez jende arruntarentzat.

KM MEIG V - 90: Hor ikus daitekeenez, \*Bizkai-Gipuzkoetako burdintza galduan gelditu zen 1650 ondoan, gutti gorabehera, bestetangoaren aldean \*Sueziakoarenean, batez ere.

KM MEIG I - 227: Almirante nabarmenegia iruditzen zitzaioelako edo, zertxobait itxuraldaturik hartu zuen \*Azkuek: albiente, \*Gipuzkoa-Nafarroetako zenbait herritan jaso, eta erskinetan \*Etxarri-Aranazko almente.

KM, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* - 339: \*Afrika-Asietako herri askatu berri edo askatasun bidean direnen marmar hotsa ez da gehienbat \*Europar ikasi dituzten hitzen, gogoeten eta hizkuntzen oihartzuna baizik.

KM MIH - 375: \*Zuberoako leherrak, \*Errongari-Zaraitzuetako ler eta llerko lerdanak, ederki.

KM MIH - 259: \*Gipuzkoa-Nafarroetako mugan artzain-ikazkin eta nekazarien artean hazia eta bizia zen basa-mutikoa \*Xabierri eraman zuten, \*Jesusen Konpainiaren ikastetxera.

KM MIH - 385: \*Gipuzkoa-Nafarroetako aditza, ez \*Nafarroa osokoa, ezta ere \*gipuzkoa osokoa, ordea, oraindik orain neurtua eta pisatua izan da, nola neurtua eta pisatua ere, eta huts aurkitu dute, behiala \*Baltaxar erregea huts aurkitu zuten bezalaxe.

Nolanahi ere ez da pluraleko formak erabiltzen dituen autore bakarra:

Orixe, *Euskaldunak* - 139: \*Bizkai-Gipuzkoetan Olentzaro.

Orixe, *Ibidem* - 141: Geroago, \*Bizkai-Gipuzkoetan, Santagedaz: \*Oiarzu'n eta \*Orio'n Samikolasetan; \*Naparroan, berriz, Donianetan.

Orixe, *Quiton Arrebarekin* - 83: Orregatik eskeñi zienan Cubatar ezpain-aundi arek, arek sortuazi baitzun guda \*Iruñako emakume aundi katolikuekin, yanaz eta yantzi az gañera zazpi pezta emango zitiela gudara atera nai bazuten; eta gero, \*Bizkai-Gipuzkoetako paurriketan ogibidea bazuketela, angoeri kendurik.

Echeita, *Josecho* - 135: \*Karlos-geizto ta \*Martin-zaldik, burrukaldiak egin ebezanean, entzute andikoak zirean eurak eta \*Mari \*Jesus, \*Mundaka-Bermeoetan; da gero, neskatiñla ori ta \*Martin ezkondu zireanean, kalietan kantaten ebezan errietako neska-mutillak, urrango doazan koplak.

Echeita, *Ibidem*- 208: Eldu zirean \*Jagoba eguneko jantzarazoak, \*Mundakatik urre samar egoan aritx-arte baten egitten zireanak, eta \*Mundaka-Busturietako gazteak, iru egunean, tanbolin soñuan, alkarregaz jolastuten zireanak.

Dena den, zure galderaren oinarri den egiturarako honako beste egitura hauetako bat erabiliko genuke:

*Zaraitzu-Erronkariko mankomunitatea*

*Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea*

Horrela erabiltzen ditugu honakook ere:

*Baionako hiria*

*Baiona hiria*

Pluralekoa (*Zaraitzu-Erronkarietako* mankomunitatea) zilegi litzateke plurala den kontzeptuak baliatzekotan. Horrelakoak dira goiko adibideak: *Afrika-Asietako herriak* dira Afrikako herriak eta Asiako herriak, ez bietakoak diren herriak; gauza *bera Araba-Gipuzkoetako eremuak* egituran: Arabako eremuak eta Gipuzkoako eremuak alegia, eta ez bienak diren eremuak edo bien artean (amankomun) dituzten eremuak.

Erakundeak (maiz bi edo gehiago batuz osatzen diren entitate banakoak diren neurrian) izen berezi gisa erabili beharko dira. Beraz,

*Busturia-Mundaka-Bermeoko partzuergoa*

*\*Busturia-Mundaka-Bermeoetako partzuergoa*

*Zaraitzu-Erronkariko mankomunitatea*

*Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea*

*\*Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea*

Baina bai

*Busturia-Mundaka-Bermeoetako itsasgizonak*

Eta

*Zaraitzu-Erronkarietako biztanleak*

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.



## **AZKUE BIBLIOTEKAREN KATALOGOA (ABK): EUSKAL DEITUREN SARRERA NAGUSIEZ (\*)**

1999-XII-30

*Pruden Gartzia,  
Azkue Bibliotekako zuzendaria*

Sarritan zalantza handiak sortzen dira euskal egileen deituren sarrera nagusia euskarazko biblioteca-katalogo batean idazteko orduan. Izan ere, era askotako grafiak erabiltzen dira, frankotan pertsona berak bat baino gehiago erabiltzen dituelarik. Kasu horietako bat Koldo Mitxelenarena da, zeinaren idazlan gehienetan *Michelena* grafia aurkitzen dugun. Horrelako kasuetan, zer egin?

### **I**

Ohikoa da pertsona beraren deitura grafia desberdinekin idatzita ikustea, dokumentu batean honela eta bestean hala. Hori neurri batean hizkuntza guztietan gertatzen bada ere, euskal deituretan inguruko hizkuntza erromaniko edo germanikoetan baino askoz ere sarriago ikusten dugu.

Aldaera aniztasun horien sustraian, gehienetan, hizkuntza baten normalizazioarekin lotutako arazoak daude. Izan ere edozein hizkuntza, funtsean, zeinu-sistema konbentzional bat baino ez da, alegia, giza komunitate jakin bateko partaideek elkarren artean komunikatzeko nolabait *hitzartutako* sistema bat (1). Sistema hori une zehatz batetik aurrera arau gramatikalki batzuen arabera kodifikatzen da, esan nahi baita, arautu egiten da, mugarri horren seinan-

---

(\*) Txosten honen zirriborro bat Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka batzordearen 99-10-4ko bileran aurkeztu eta eztabaidatu zen. Azpimarratu behar da eztabaidan adostasun zabala lortu bazen ere, egilea dela testuaren erantzule bakarra eta bere ondorioek ez dutela batzordea lotzen. Orobat, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet batzordekideei, txostenari egindako ohar eta zuzenketa ugariengatik.

(1) F. de Saussure, *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*, 1916 (euskarazko bertsioa, Bilbo: Klasikoak, 1991). Euskara batuaren baitan planteaketa horrek izan duen eragin erabakigarria ikusteko ezinbesteko erreferentzia L. Villasanteren *Euskararen auziaz* (1988) da, bereziki Igo kapitulua (*Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak*).

lerik behinena nolabaiteko gramatika normatibo baten agerpena izaten delarik. Hortik aurrera gutxieneko arau multzoa dugu erabakitzeke hizkuntza horretan zer dagoen ondo esanda eta zer gaizki. Denok dakigunez, horietako batzuk hizkuntza horren grafiari dagozkio, alde edo moldez pertsona-izenak eta deiturak nola idatzi behar diren ere zehazten delarik.

Arauok, jakina, ez dira bapatean sortzen, aita Zeusen burutik goitik behera armaturik Atena sortu zen gisan. Aitzitik, arautze-prozesua luzea, frankotan nahiko katramilatsua eta, sarri, atzera-aurrera xeblez josia izaten da. Hizkuntza bera ere etengabeko aldaketa-prozesuan dago berez, arauak ere neurri batean etengabeko egokitze-prozesuan daudelarik. Zeresanik ez, arau horien gizarte-hedapena ere ez da bapatean egiten. Gainera, aldaketak nahiko istilutsuak dira askotan. Ortografia aldaketek, bereziki, eztabaida latzak eragiten dituzte, azken urteotan frantsesaren edo alemanaren grafia-arauen aldaketarako egin diren proposamenek erakusten dituten bezala. Horrelako arazoak munduko hizkuntza guztietan gertatzen dira.

Euskal Herrira etorritik, azpimarratu behar dugu azken mendeotan nagusi-ki erabili izan diren hiru hizkuntzek (2) oso arautze-prozesu desberdinak izan dituztela. Frantsesak eta gaztelania oso normatibizazio goiztiarrak izan dituzte, Europako lehenetakoak hizkuntza modernoen artean. Euskararena, berriz, oso berantiarra da, azkenetakoa dela ez esatearren. Hain da berantiarra, ezen atal askotan (Onomastikan, adibidez) oraindik burutu gabe dagoen. Berezi deituri dagokienez berriki arte ez dugu izan euskal deituren grafia arautzeko irizpide zehatzik (*Nomenclátor de apellidos vascos*=*Euskal deituren izendegia*, Euskaltzaindia, 1998), beraien hedapena oraingoz nahiko mugatua delarik, euskaldun ikasien artean ere. Baina hiru hizkuntzonen arteko desoreka argi-ago ikusteko beste zenbait datu emango ditugu.

Aipatzen ari garen hiru kasuetan, hizkuntza-araugintza erakunde berezi batek gidatu du, espreski horretarako sortuak: Hizkuntza Akademiak. Desorekaz eta atzerapenaz jabetzeko bakoitzaren jaiotze-data ikusi besterik ez dago: *Académie Française* (1635), *Real Academia Española de la Lengua* (1714) eta *Euskaltzaindia* (1918). Horretaz gain, lehenengo biek hasiera-hasieratik izan dute estatu boteretsu banaren laguntza beren lana bermatu eta zabaltzeko. Euskararen kasuan, berriz, egoera oso bestelakoa izan da. Datu bakarra emango dugu: 1790-94 bitarteko nolabaiteko estatusa kenduta, eta 1936-37 bitarteko hilabete gutxi alde batera utzirik, euskara ez da inoiz hizkuntza ofiziala izan 1978ra arte. Gaur egun ere euskara ez da ofiziala Euskal Herriaren zati handi batean. Ofizialtasunik eza horrek uka ezinezko garrantzia izan du haren normalizazio-prozesuan, bereziki nabarmena deituri dagokienez, ezen horren ondorioz euskal deiturak beti gaztelaniazko edo frantsesezko grafian

(2) Euskara, gaztelania eta frantsesa. Gaskoiaren kasua alde batera utziko dugu, gaur egun Euskal Herrian duen munta oso txikia baita beste hiruen aldean.

eman baitira (3). Alegia, bi estatu horietako funtzionario edo letraduak (esbri-kau, notario, idazkari, erroldagile, eskola-maisu, etab.) izan dira euskal deiturren grafia finkatu dutenak, edozein administrazio-tramitetarako estatu horretako herritarren izen-deitura idatzi egin behar izan duten neurrian. Eta idatzi izan dute, jakina, estatu horretako unean-uneko grafia ofizialaren arabera, jatorrizko ahoskera hizkuntza desberdin baten arauetara makurtuz (4).

Edonola ere, gorago esan dugunari segituz, estatuaren grafia ofizial horiek ez dira bapatean sortzen. Arautze-prozesua bera hizkuntza guztietan luzea izan ohi da, eta aldatetaz eta egokitzapenez betea. Adibide batzuk jarriko ditugu horren lekuko. Gaia asko sinplifikatuz esan daiteke gaztelaniaz gaur egun darabilgun ortografia funtsean Espaniako Akademiak XVIII. mendearen hasieran finkatutakoa dela. Ordura arte erabiltzen ziren arau nagusiak Elio Antonio Nebrija filologo handiak 1517an ezarriak ziren. Baina 1726an eta 1741ean aldaketa gaitzak egin ziren: *ç* letra kendu zen eta beste zenbait eutsi bazitzaion ere, ordura arteko arauak bortizki aldatu ziren (Nebrijak *dezir*, *alçar*, Akademiak *decir*, *alzar*; Nebrijak *cauallo*, *biuir*, Akademiak *caballo*, *vi-vir*; Nebrijak *ombre*, *auer*, *hazer*, Akademiak *hombre*, *haber*, *hacer*). Aldaketa nagusiak aipatu datetan gertatu baziren ere, XIX. mende erdialdera arte ez zen gaztelaniaren gaurko ortografia finkatu eta ofizialdu, 1844an Akademiak Isabel II.a erreginaren aginduz *Prontuario de Ortografía* argitaratu zuelarik,

---

(3) Gaskoiaz ere badago zeresanik, baina ez dugu aipatuko arazoa larregi ez korapilatzearen.

(4) Deituren grafia ezezik, deiturak berak ere sarritan estatu-administrazioak ezarriak izan dira. Hori fenomeno unibertsala bada ere (k.a. 2852an Txinako enperadore batek familia-deiturak hartzea dekretatu zuen), muturreko adibide bat aipatzea argigarria izan daiteke: 1849an Filipinetako Gobernadore eta Kapitain Orokorra zen Narciso Clavería Zalduek dekretu bat eman zuen uhartedi horretako biztanle guztiei deitura patronimiko bat esleitzeko. Horretarako deitura-katalogo bat osatu zuen eta kopia bat bidali barruti bakoitzeko funtzionarioburuari honako agindu honekin: “2° *Estos funcionarios, con arreglo al número de familias que calculen en cada pueblo, asignarán [énfasis gurea] a cada cual de ellas el de apellidos que parezcan necesarios, cuidando de que se guarde al hacer repartimiento por listas la correspondiente proporción*”. Parroko eta irakasleei ere eginkizun zehatzak ezarri zitzaizkien, adibidez: “11° *Los maestros de escuela deberán tener un padrón de todos los niños que asistan a la enseñanza, con su nombre y apellido, y cuidar de que no se llamen y conozcan entre sí, sino por el apellido con que constan en el padrón, que deberá ser el de sus padres; y en caso de notarse tibieza en el cumplimiento del encargo, serán los maestros castigados en proporción de la falta y a juicio del Jefe de la provincia*”. Badirudi dekretu honen betetze-maila nahiko desberdina izan zela barrutiko deiturak, baina oraindik ere Filipinetako hiri osoetan pertsona ia guztiek letra beretik hasten diren deiturak dituzte, hemen A letratik, ondokoan Btik, hurrengoan Ctik, etab., 1849an barruti horretako funtzionarioburuak esleitu zien “*Catálogo*”-aren zatia ren arabera. Deitura gehienak espainiarrak badira ere, hortxe dituzu *Echeverría* edo *Echepare* bezalako batzuk ere. Jatorrizko deiturak, berriaz, kasu gehienetan guztiz galdu dira. Ikus *Catálogo alfabético de apellidos: Manila, 21 de Noviembre de 1849*, Manila, Government Printing Office, 1973. Horrelako kasuak ugariak dira; adibidez, Frantzian 1808ko dekretu batek judu guztiak hiru hilabeteko epean familia-deitura bat hartzera behartu zituen (ez baitzuten ordura arte); Turkian 1934an ezarri zen legez europar erako familia-deiturak hartu beharra, besteak beste etnia ez-turkiarren baitan berebiziko problemak sortuz, kurduen artean, kasu.

hain zuzen ere administrazio publikoan erabilia izateko xedez. Ehun bat urteko aldaketa-prozesu mantsoa, beraz. Baina gero ere zenbait aldaketa garrantzitsu egin zen, eta gaur egun ere egiten dira. Horrela, *ss* letra 1763an kendu zen (*altíssimo*), *ch* eta *th* grekolatindarrak 1803an (*chimera*, *philosophia*, *matematica*), zenbait kasutako *qu* (*qual*, *question*) eta *x*-a (*dixo*) 1815an, edota zenbait kasutako *rr*-a (*virrey*) 1884an ezarri zen. 1911ean erabaki zen *a* eta *o* preposizioei tileta kentzea, 1952an *sicología*, *nemotecnía*, *remplazar* edo *rembolso* bezalakoak ontzat ematea, eta abar (5).

Esan beharrik ez dago, ortografia aldaketa horiek guztiek eragin zuzena izan zuten deituren grafian. Adibide erraz bat gorago aipatu dugun Nebrijarena da: jaiotzez *Antonio Martínez de Cala* (beste batzuen arabera, *Antonio Martínez de Jarava* edo *Antonio Martínez de Cala y Jarava* zenak), bizi zelarik nagusiki bi modutara idatzi zuen bere izen-deitura: *Antonio de Lebrixa* (gaztelaniaz) edo *Elii Antonii Nebrissensis* (latinez) (6); izan ere, bere jaioterria zen Andaluziako Lebrija (orduko ortografian, *Lebrixa*) erromatarren sasoiko *Nebrissa*-rekin identifikatzen zuen. Bion gurutzaketatik sortu zen gerora ezarri zitzaion *Antonio de Nebrissa/Nebrixa/Nebrija*; XIX. mendetik aurrera azkenak baino ez da zilegi. Egun, *Elio Antonio de Nebrija* izen eta grafiarekin azaltzen da bazter guztietan, baita bere idazlanen birrargitalpenen atarietan ere.

Baina aldaketa eta atzera-auurrera horien adibide bereziki egokia gure arazorako azentuarena izan daiteke. Horrela, Nebrijak *-ez* bukaeradun deitura patronimikoei (*Martínez*, *Pérez*, *Gómez*, *Menéndez*) tileta jartzeko agintzen badu ere, 1763an Akademiak espreski agintzen du halako deiturei ez zaiela tiletik jarri behar, 1825ean salbuespen hori berresten delarik. Baina 1880an azentuari buruzko arauak sakonki aldatu ziren, besteak beste aipatu salbuespena ezabatuz. Gaur egun gaztelaniaz darabilzkigun azentu-arauak funtsean azken data horretan ezarriak dira. Horrek esan nahi du, adibidez, gaztelaniaz hain ugariak diren deitura patronimiko horiei 1763 eta 1880 artean ez zitzaizela tiletik jarren (lehenago eta geroago bai, ordea). Hala ere, gaur egun edozein gaztela-

(5) Adibide horiek eta hurrengoetarako, ikus Esteve Serrano, Abraham: *Estudios de teoría ortográfica del español*, Murcia, Universidad, 1982. Txosten hau idatzi ondoren argitaratu da gaiaren inguruan munta berezia duen lana: Real Academia Española: *Ortografía de la lengua española: Edición revisada por las Academias de la Lengua Española*; Madrid, Espasa, 1999 (iraila), hots, espainierazko ortografiaren bertsio berria eta batua ("una *Ortografía* verdaderamente panhispánica", XIII. or.). Hitzaurrea ("Prólogo", XIII-XIX. or.) bereziki garrantzitsua da, hor baieztatzen baita estatuen eginkizun erabakiorra espainierazko ortografiaren ezarpen eta hedapenean (XIII-XIV. or.), edozein ortografiaren funts hitzartua eta aldakorra ("¿Quiere esto decir que el código ortográfico recogido en esta obra debe ser invariable, definitivo, resistente a toda discrepancia y sin posibilidad de modificación posterior? De ningún modo." XVII. or.), ortografiaren batasunaren ezinbestekotasuna hizkuntzaren batasunari eusteko ("Predominó la idea y la voluntad de mantener la unidad idiomática por encima de particularismos gráficos no admitidos por todos: poco a poco, las naciones americanas de nuestra lengua se mostraron conformes con la ortografía académica y la hicieron oficial en diversas repúblicas." XIV. or.), eta abar.

(6) Biblioteca on bateko autoritate-fitxeroan begiratzuz gero aldaera askoz ere gehiago aurkitzen dugu. Adibidez, *Die Deutsche Bibliothek*-ek hogeita hamar aldaera zehazten ditu.

niadun ikasiri akats larria iruditzen zaio horrelako kasuetan (*González, Pérez, López*, etab.) tiletik ez jartzea, eta koherentziaren izenean data bi horien artean bizi izandako guztiei ere araua aplikatzen zaie, haiek ados ote leudekeen ala ez galdetzen ibili gabe.

Areago, *Feijoo* bezalako deitura baten grafia 1952an erabaki zuen Espainiako Akademiak, 1880ko arauak zuzenduz (data bion artean, *Feijóo*; os-terantzean, XVIII. eta XIX. mendean tiletik gabe idazten zen).

Azken adibide bat: 1880an Akademiak erabakitzen du atzerritar izen bereziak gaztelaniatzko arauetara segituz azentuatuko direla (*Amiéns, Lyon, Schlegel, Leicester, Schubert, Windsor*, etab.), baina 1952an araua aldatzen du, izen horiek jatorrian duten tileta baino ez dutela izango erabakiz (alegia, gaztelaniatzko tiletik ez zaiela ezarriko). Edonola ere, zazpi urte geroago (1959), eta munduko beste zenbait Espainieraren Akademiaren aholkuari men eginez, berriz ere araua aldatzen du, oraingoan azentua jartzea norberaren esku utziz, "hitzaren jatorrizko ahoskerak eta grafiak horretarako bidea ematen duen neurrian". Bide beretik doa 1999ko araua, zeinean atzerritar izen bereziak ez direla espainieraren arabera azentuatuko esaten baita, ondoren salbuespen bat egiteko espainierak aspaldidanik bereganatutako izenekin; zeintzuk diren horiek, jakina, banan-banan erabaki behar da, hots, arauak berak ezin ditu zehaztu (7). Ortografiaren hitzarmenezko izaera ezin gardenago ageri zaigu hor.

Honaino gaztelaniaren normalizazio-prozesuarekin lotutako zenbait gertaera. Frantsesaren kasuan, berriz, azpimarratu behar dugu ofizializazio erabat goiztarra izan zuela, Villers-Cotterets-eko dekretuaren bidez (1539) auzitegi-erako frantsesa ezarri latinaren ordean. Gaur egun ere horixe da Errepublikaren hizkuntza ofizial bakarra. Ortografiari dagokionez frantsesarena paradigmatikoki etimologikoa eta tradizionalista izan da: funtsean XVI. mendean erabiltzen zenak iraun du gaur arte, gaztelaniak izandako aldaketa handiak nozitu gabe. Hala ere, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar Akademiak hainbat arau aldatu zuen, gaur egun erabiltzen den ortografia arrunta gutxi gorabehera

(7) "Los nombres propios de otras lenguas no hispanizadas se escriben como en la lengua originaria—no es necesario distinguirlos gráficamente—, y tampoco están sujetos a las reglas de ortografía española. Ejemplos: *Washington, Perth, Botticelli*, etc.

Las palabras de origen extranjero adaptadas a la pronunciación y a la grafía española desde fecha más o menos antigua deben seguir todas las reglas ortográficas. Ejemplos: *Basilea, brandi, Burdeos, chalcé, Londres*." (Op. cit., 2.12 atala, 30. or.).

"En las palabras de otras lenguas que, por su falta de adaptación a la nuestra, escribimos con letra cursiva o entre comillas (véase 2.12), así como en los nombres propios originales de tales lenguas, no se utilizará ningún acento que no exista en el idioma a que pertenecen. Ejemplos: *catering, Aribau, Windsor*.

Si se trata de voces ya incorporadas a nuestra lengua o adaptadas completamente a su pronunciación y escritura, habrán de llevar tilde cuando lo exija la acentuación del español. Ejemplos: *búnker, París, Támesis*." (Op. cit., 4.9 atala, 53. or.).

XVII. mendearen bukaeran finkatu zelarik (8). Deituretan, berriz, finkatze-prozesua luzeagoa izan da eta XIX. mendera arte ez da erabat lortu (9). Izaera tradizionalista horren eraginez sortu diren erreforma-egitismo ugariak inoiz ez dute arrakastarik lortu, nahiz eta kasu guztietan eztabaida latzak eragin aldeko eta kontrakoan artean.

Beste hizkuntza batzuetara begiratzuz, esan dezagun ingelesak bere ortografia XVIII. mendearen erdialdera finkatu zuela (S. Johnson's-en *Hiztegia*, 1755) eta ordutik ez duela aldaketa handirik nozitu, nahiz eta ugariak izan diren ortografia aldatzeko egin diren proiektuak. Izan da zenbait aldaketa, hala ere; horrela, 1880tik aurrera *music* bezalakoak onartu ziren (lehen *musick*), eta 1920tik aurrera *fantasy* bezalakoak (lehen *phantasy*), eta abar.

Normalizazioa berantiarra izan ohi da hizkuntza txikiagoetan, edo estatu indartsu baten bermea izan ez dutenetan: Norvegiako hizkuntza (edo hizkuntzak: *Nynorsk* eta *Bokmal*) 1885-1938 artean arautu eta ofizializatu ziren; katalanak 1913an finkatu zuen egungo ortografia; errumanierak 1932an; portugesak aldaketa handiak egin ditu mende honetan bertan brasildarrekiko adostasunaren bila; danierak 1958an egin zuen ortografia-aldaketa handi bat; albanierak 1972an finkatu zuen bere ortografia; galizierak oraindik ez du bere ortografia sozialki onartua ikusi; japonierak erreforma sakona egin zuen 1945ean, etab.

Labur: ortografia hitzarmen baten ondorioa da, eta hitzarmen hori desberdina da kasu batetik bestera. Kasu batzuetan oso zurruna, bestetan oso aldakorra; batzuetan oso goiz finkatu zen, bestetan oraindik ez du finkatze-prozesua bukatu. Ez da sakratua, etengabe eztabaidatua baizik, emaitza oso desberdinekin. Baina hizkuntza bakoitzak du bere-berea.

## II

Nahita nahiez, euskararen normalizazio berantiarren ondorioz askotan tentsioa dago hizkuntzaren arau orokorren eta banakoen borondatearen artean. Arazo honi argitasuna emateko ezinbestekoa da Resurreccion Maria Azkue aipatzea, zeinak bere *Hiztegi* handiaren hitzaurrean atal osoa dedikatu zion gaiari (10). Bere deitura adibide gisa jarritz, argi eta garbi dio hizkuntza bakoitzak

(8) Horrek ez du esan nahi geroztik ez denik aldaketarik izan. Adibidez, *français* hitzaren gaur egungo grafia 1835ean erabaki zen (ordura arte *françois*, baina ahoskera bera); ortografia-arauen azken aldaketak 1990ean egin ziren. Horretarako, Frantziako Akademiak 1990-5-3an aho batez onartu ondoren Errepublikaren Albistari Ofizialean argitaratu ziren (*Journal officiel de la République française*, 1990-12-6). Ikus APARO (Association Pour l'Application des Recommandations Orthographiques) elkartearen web orria: <http://jupiter.fltr.ucl.ac.be/fltr/rom/ess.html>

(9) Ikus adibide ugari in Dauzat, Albert: *Les Noms de Personnes: origine et évolution*, Paris: Librairie Delagrave, 1925, 147-151 eta 156-157 or.

(10) Ikus XX. atala: *Cuestión ortográfica embarazosa/Embarrassante question orthographique*.

bere ortografia duela eta, zenbait zehaztapen gora-behera, horren arabera idatzi behar direla izen bereziak (bai leku izenak, bai deiturak). Biziki azpimarratzen du bere deituraren grafia bat eta bera dela hizkuntza guztietan (*Azkue*, alegia, eta ez *Azcue* espainieraz, *Ascouai* frantsesez edota *Ascooeh* ingelesez, ironia nabarmenez dioen bezala). Beraz, ez da dudarik Azkuerentzat euskal deiturak euskal grafian idatzi behar direla beti, edozein hizkuntza erabiltzen dugularik ere (11). Zer esanik ez euskaldunentzat eta euskaraz idatzita dauden dokumentuetan, kasu, Azkue Bibliotekaren Katalogoan. Horrek, jakina, arazoren bat edo beste sor dezake (euskaldun askorentzat euskal grafia oraindik ez da oso ezaguna, ohiturak aldatu beharra beti da neke, etab.), baina puntu honetan bere iritzia erabatekoa da:

Uno de los enemigos más temibles del hombre es la rutina; pero el vencerla es también uno de los mejores medios de mostrarse digno de serlo.

Somos pobres, muy pobres, hoy por hoy, en literatura; tenemos desgraciadamente poco que perder; por lo mismo debemos mostrar, no solo igual derecho que los ricos, pero también más ahinco, por reclamar lo nuestro.

L'un des ennemis les plus terribles de l'homme est la routine; mais la vaincre est aussi un des meilleurs de se montrer digne de l'être.

Nous sommes pauvres, très pauvres, á l'heure actuelle, en littérature. Nous avons malheureusement peu perdre; c'est pourquoi nous devons montrer en même temps, non seulement le même droit que les riches, mais aussi plus d'empressement á réclamer notre bien.

Argi dago, beraz, normalizazio berantiarrak sortutako tentsioak gainditzeko apostua egiten duela, alor honetan ere euskara beste edozein hizkuntzaren mailan jarri arte. Zenbait kasutan euskal deiturak euskal grafian ikusteak hasiera batean sor dezakeen harridura poliki-poliki gaindituz joango da.

### III

Biblioteka-katalogo bateko sarrera nagusiak zein grafiaren arabera idatzi behar diren erabakitzeke, deituren kasuan ororen buru garbi izan behar dugu honako hau: helburua ez da egilearen *benetako* deitura zein den zehaztea (alegia, zein zen berak maiteen zuen grafia edo forma), katalogo bibliografiko bat antolatzea baizik. Beraz, gaineretiko sarrera nagusiekin gertatzen den bezala, deituren grafia katalogo horren irizpide eta premia orokorren baitara bildu behar da, eta ez alderantziz.

Adibide batzuk jarriko ditugu goiko irizpidea oinarritzeko. Jakina denez, munduan alfabeto desberdin ugari erabiltzen da (latinoa, zirilikoa, arabiarra,

(11) Salbuespenak eta zehaztapenak ez ditut komentatuko, haria ez korapilatu alde. Hala-koetan interesatua dagoenak, jo beza aipatu testura.

txinarra, etab.). Hortaz gain, alfabeto bera erabiliarren, haren zeinuak sarritan ez dira berdin irakurtzen hizkuntza batean eta bestean (adibidez, *c* letra oso modu desberdinetan irakurtzen da alfabeto latinoa darabilten hizkuntzetan). Gainera, gorago ikusi dugun bezala, hizkuntza beraren baitan historian zehar arau-aldaketa ugari egon denez, deitura bera modu desberdinetan idatzi izan da, baita ahoskatu ere batzuetan (adibidez, gorago aipatu dugun *Nebrixa/Nebrija*). Bukatzeko, ugariak izan dira historian zehar izen-deiturak aldatu edo bat baino gehiago erabili dituzten pertsonak: banako kasu ugariak alde batera utzita, sail osoak ere aurkitzen ditugu, adibidez, kristauen artean fraide eta erlijioso asko; edota herri askotako emakume ezkonduak, jakina denez herri askotan erabat arrunta baita ezkontzean senarraren deitura hartzea norberarena baztertuz (12).

Ondorioz, gure katalogoan agertzen diren egile mordo baten izen-deiturak aldez edo moldez aldatuak dira haiek jatorrian erabiltzen zuten grafia edota formatik. Kasu batzuetan alfabeto latinoa erabiltzen ez duten hizkuntzetan idatzi dutelako (grekoak, errusiarak, arabiarak, txinarrak, japoniarrak, etab.) eta beste batzuetan beraiek erabiltzen zuten grafia gaur egun zaharkitutzat jotzen delako. Jakina, gehienetan ez gara aldaketaz ohartzen, argitaletxeak berak egiten baitu aparteko argibiderik eman gabe; baina sarritan guri iristen zai-guna forma aldatua eta delako hizkuntzan normalizatua baino ez da.

Horrek bestelako arazoak paratzen dizkigu. Izan ere, alfabetoen arteko transliterazioak egiteko sistema bat baino gehiago dago eta emaitzak nahiko desberdinak izan daitezke (adibidez, *Pushkin/Pouchkine/Puxkin*). Era berean, eta batez ere normalizazio berantiarra duten hizkuntzetan, eztabaidagarria izan daiteke grafia bat zaharkitutzat jotzea (alemanezko *Göthe* edo *Müller* zahar-

---

(12) Hortaz gain, kontuan izan behar dugu deiturak ipintzeko gizarte-ohiturak eta legeak oso aldakorrak izan direla historian zehar eta, gaur egun ere, oso desberdinak estatu batetik bestera. Horren ondorioz posible da pertsona berak deitura bat baino gehiago erabiltzea bere bizitzan zehar, edo hainbat deitura denbora berean, baina desberdinak egoeraren arabera. Adibidez, Espainian, 1870 arte ez da zehazten derrigorrezko sistema bat pertsona bakoitzari zegozkion deiturak ezartzeko: gizarte ohiturak aitaren deitura hartzea agintzen bazuen ere, posible zen gurasoek bestelakorik hautatzea edota deituradunak berak aldatzea. Data horretatik aurrera, berriz, bi deituren sistema legez ezartzen da, duela gutxi beste aldaketa bat nozitu duelarik: egun posible da amarena lehen deitura izatea, eta aitarena bigarrena. Gogora dezagun, bestalde, gaur egun sistema hori, legez, Espainian baino ez dagoela indarrean. Ikus Jaime de Salazar y Acha, *Génesis y evolución histórica del apellido en España*, Madrid, Real Academia Matritense de Heráldica y Genealogía, 1991. Deiturak erabiltzeko gizarte-ohitura bera oso aldakorra da Europan bertan ere. Adibide gisa ondoko aipua: "*El alemán Strackerjan, que ha estudiado los nombres propios de personas del país de Jever, pequeña ciudad del ducado de Oldemburgo, habla de lo tarde y lentamente que ha penetrado allí el uso del apellido. En 1826 mandó el Gran Duque que lo tuviese todo individuo; pero todavía hoy [1871], según asegura dicho escritor, apenas se usan otros nombres que los de bautismo y de oficios, y hay personas que tienen que esforzar la memoria para recordar su apellido* [énfasis gurea]", in José Godoy Alcántara, *Ensayo histórico etimológico filológico sobre los apellidos castellanos*, Madrid, Rivadeneyra, 1871, 60. or. Euskal Herrian bertan eta gaur egun ere, hainbat pertsona ezagunagoak dira beren etxe-izenaren bidez, familia-deituraz baino.

kituak ote?). Praktikan, liburuen atarietan deitura berberak grafia desberdinetan idatzita aurkitzen ditugu, batzutan honela, bestetan hala. Aniztasun hori sarrera nagusi bakar batera biltzen dugunean ez dugu inola ere esan nahi forma hautatua besteak baino *benetakoagoa* denik, ez eta deituradunak hura hobesten zuenik beste guztien gainetik. Esaten ari garena da hura bestea baino *ego-kiagoa* dela gure katalogoaren premietarako.

Beste adibide pare bat jarriko dugu. Gonzalo de Berceo modu bat baino gehiagotan idatzi zuen bere izen-deitura: *Gonzalo/Gonzalvo* eta *Berceo/Berzeo* (inoiz edo beste *Verceo* ere ikusten da, ez dakigu nondik hartua). Hala ere, gaztelaniaz gaur egun *Gonzalo de Berceo* baino ez da onartzen, eta inork ez du kontuan izaten grafia hori erabiltzean haren borondatea bortxatzen ari ote garen ala ez. Gainera, beronek ere forma bat baino gehiago erabili zuen: zein da *benetakoa*? Antzeko kasua François de Malherberena da: sinatzeko ere hiru forma desberdin erabili zituen *Malerbe*, *Malherbe* eta *Maleherbe*, baina gaur egun *Malherbe* baino ez da onartzen. Napoleon Bonaparteren kasua apur bat desberdina da. Korsikan jaioa, bere ama-hizkuntza italiarra izanik *Napoleone Buonaparte* gisa munduratu zen; mutiko zelararik eta frantsesa tutik jakin gabe Frantziara ikastera joanik, eskolan aldatu zioten izen-deitura, berari ados ote zegoen galdetu gabe, jakina. Ordutik aurrera Frantzian *Napoléon Bonaparte* izan zen; Alemanian forma berbera erabiltzen dute, tilet eta guzti. Espainian, berriz, *Napoleón Bonaparte* da, eta Ingalaterran, *Napoleon Bonaparte*. Italian, ordea, *Napoleone Buonaparte* izaten segitzen du gaur egun ere, nahiz eta italieraz maizago ikusten den *Napoleone Bonaparte* (alegia, gaur egun haren deitura bi modutara erabiltzen da). Zein ote da, ordea, berak bere-beretzat jotzen zuen forma? Ez dakit inor ausartuko ote den erantzuten, batez ere ikusirik batzutan *Bonaparte* eta bestetan *Buonaparte* sinatzen zuela (13). Beharbada biak joko zituen neurri berean bere. Errazago da pentsatzea ziur aski bere amarentzat beti izango zela *Napoleone* (inoiz ez omen zuen frantsesa ondo ikastea lortu). Baina, azken hori ote da biblioteca-katalogo batean erabili beharreko irizpidea? (14) Garbi dago ezetz.

Horregatik, Azkue Bibliotekaren Katalogoan sarrera nagusi gisa *Koldo Mitxelena* idaztea aukeratzen dugularik, horrek ez du batere zerikusirik filologo handi haren borondatearekin. Edo, hobeto esanda, haren borondatea oso bigarren mailako eragilea da.

(13) Ikus Espasa entziklopedia, *Napoleón* sarrera.

(14) Haria ez korapilatzerren adibide errazak jarri ditugu. Badira franko katramilatsuagok, adibidez, San Inazio Loiolakoaren izenaren argiketak sortarazi duen bibliografia eskerga (Gabriel María Verd-en hainbat artikulua ikusi besterik ez dago). Bestalde, egia da zenbat eta aurrerago jo historian era horretako kasuak bakantzen eta sinplifikatzen direla, baina normalizazio berantiarra izan duten hizkuntzetan edo estaturik gabeko nazioetan (gehienetan prozesu biak elkarren eskutik doaz) izen-deituren normalizazioa ere nabarmenki atzeratzen da. Adibidez, "*recientemente [1871] en Hungría y Bohemia centenares de familias han obtenido autorización para volver a tomar los nombres nacionales que habían dejado por otros alemanes bajo el régimen austriaco*" in Godoy Alcántara, op. cit. 11. or.

## IV

Bibliotekonomiako nazioarteko arauen arabera, banako egile baten sarre-  
ra nagusia idazteko haren izen-deituren formarik arruntena eta erabili-  
ena hau-  
tatu behar da (15). Jakina, grafia arauak eta ohiturak hizkuntzaren beraren bai-  
tan denboran zehar aldatzen direnez gero, gaur egungo katalogo bat egiteko  
gaur egun edota etorkizun hurbilean grafiarik edo formarik arruntena eta za-  
balduena hartuko da, zaharkituzat jotzen direnak egungo moldeetara aldatuz.  
Era berean, atzerriko izen-deitura duten egileen kasuan beste horrenbeste egin-  
go da, alegia, gaur egun arruntena eta erabili-  
ena den grafia eta forma hartuko da. Zalantzak egon daitezkeenez gero, egileen hizkuntzaren edota herriaren  
arabera sortu eta eguneratutako autoritate-zerrendak erabiltzea gomendatzen  
da: biblioteca nazional bereziki garrantzitsuek osatutakoak, erreferentziazko  
entziklopediak, edo antzekoak (16).

(15) Herrialde anglofonoen eta Espainiako katalogazio-erregelak oso esplizituak dira pun-  
tu honetan; horrela, “*Choice of name*, 22.1. General rule 22.1A. In general, choose, as the basis  
of the heading for a person, the name by which he or she is commonly known. This may be the  
person’s real name, pseudonym, title of nobility, nickname, initials, or other appellation. [...]” in  
*Anglo-American Cataloguing Rules, Second Edition, 1998 revision*. Baita “15.1.1 Eleccion del  
nombre 15.1.1A Regla general. Se tomará como base del encabezamiento el nombre por el que  
comúnmente se le conoce como autor de acuerdo con las obras publicadas en su propio idioma.  
Puede ser el verdadero nombre, un seudónimo, un título de nobleza, un apodo, etc.” in *Reglas de  
catalogación: Edición refundida y revisada* (1995). Frantziako katalogazio-erregelak egileak be-  
rak hautaturiko forma aipatzen dute, baina azken fincan erabilera arrunta hobetsiz: “1 Vedettes  
noms de personne: recommandations générales. En règle générale, le nom de l’auteur es mis en  
vedette sous la forme qu’il a lui-même adoptée ou que l’usage a consacrée, en respectant la grap-  
hie des formes (espaces, abréviations, etc...). Cette vedette peut être un nom d’état civil (nom de  
famille et éventuellement prénom), un pseudonyme, un nom de terre, un nom de religion, un pré-  
nom, des initiales ou toute autre locution [...]” in *Documentation: Catalogage: Forme et struc-  
ture des vedettes noms de personne, des vedettes titres, des rubriques de classement et des titres  
forgés*, NF Z 44-061 Juin 1986, Norme Française éditée et diffusée par l’Association Française  
de Normalisation (AFNOR), Paris, 1986.

(16) Adibide on bat Kataluniako unibertsitateak erabiltzen duten irizpidea da:

“Encapçalaments de persones: regla general

Tria del nom:

A l’hora d’establir el nom d’una persona seleccioneu la font catalográfica correspondent a  
partir dels criteris següents:

1er. El país de residència o d’activitat de la persona;

2n. Si no sabeu el país de residència o d’activitat dela persona, la seva llengua de creació;

3r. Si tampoc sabeu la seva llengua de creació i la persona treballa en un context verbal,  
la llengua predominant en els registres de les seves obres existents en el CCUC.

En cas que això no sigui possible determineu el nom i la forma del nom de la persona tal  
com s’estableix a les AACR2r.

Fonts catalográfiques:

1) Noms de persones catalans i altres que segons la normativa s’hagin de donar en la for-  
ma catalana:

1er. Autoritats de la Biblioteca de Catalunya validades:

Registres d’autoritat amb el codi ‘a’ com a Nivell de validesa de l’encapçalament (008,  
pos.33) i etiqueta 040.

Adibide batzuk jarriko ditugu izenak hautatzeko arau nagusia zuzen ulertu ahal izateko. Horrela, Antonio de Nebrijaren edo Gonzalo de Berceoaren izenik arruntenak eta erabilienak egungo gaztelaniadunen artean *Antonio de Nebrija* eta *Gonzalo de Berceo* dira. Beraz, katalogazio-hizkuntza gisa gaztelania hartzen badugu, horietatik hautatuko ditugu. Era berean, alemanezko, ingelesezko edo frantsesezko katalogoetan ere horietatik aukeratzen dituzte, hain zuzen ere horietatik direlako arruntenak eta erabilienak gaur egungo germanofonoen, anglofonoen edo frankofonoen artean (baina ez, inola ere, XVI. mendeko aleman, ingeles eta frantsesen artean). Kasu horietan gaztelaniaz normalizatu den grafia da beste hizkuntzetara pasa dena. Ez da beti horrela gertatzen. Adibidez, gorago ikusi dugun bezala, Napoleon Bonaparteren izen-deituren grafia ez da berdina espainieraz, frantsesez edo ingelesez (tiletaren kokapena aldatzen da); gainera, izena bera desberdina da italianoan (*Napoleone*) eta gaitetik hizkuntzetan (*Napoleon*); bukatzeko, italianoan ere forma *frantsestua* nagusitu bada ere (*Bonaparte* da biblioteketako sarrera nagusia) hainbat jendek jatorrizko forma erabiltzen du oraindik (*Buonaparte*). Kasuak eta kasuak daude, beraz (17).

---

2n. Quan no es troben establers a la BC i la normativa estableix que el nom s'ha d'obtenir d'una font de referència, empuja de forma preferent la Gran enciclopèdia catalana. 2ª ed. 1986: Comproveu si la forma, addicions, etc. del nom segueix la normativa establerta per les AACR2r.

2) Noms de persones de la resta de l'estat espanyol:

Autoritats de la Biblioteca Nacional d'Espanya:

Traduïu al català tots aquells element (addicions, etc.) que segons les AACR2r han d'anar en la llengua del catàleg.

3) Noms de persones de fora de l'estat espanyol:

Autoritats de la Library of Congress:

Traduïu al català tots aquells elements (addicions, etc.) que segons les AACR2r han d'anar en la llengua del catàleg.

En el cas dels noms escrits en una escriptura no llatina comproveu que les taules de transliteració emradres siguin les mateixes que les establertes a la pauta 22.3C."

In *Pautes per la catalogació en el CCUC* [Catàleg Collectiu de les Universitats de Catalunya], 1998-04-30, <http://www.cbuc.es/pautes/p22-1.htm> [Consorci de Biblioteques Universitàries de Catalunya-ren webgunea].

(17) Arau nagusia beti da hizkuntza-komunitate jakin batean gaur egungo formarik arruntena eta erabiliena hautatzea. Jakina denez, gaur egun forma hori egilearen jatorrizko hizkuntzan normalizatutakoa izan ohi da, baina badira salbuespenak. Adibidez, gaur egungo anglofonoen artean orohar egile bakoitzaren izena bere jatorrizko forma normalizatuan erabiltzen da, baina zenbait kasutan forma *ingelestua* jatorrizkoa baino ezagunagoa eta erabiliagoa da (santuak, erregeak, profetak, etab.) eta, ondorioz, katalogazio-arauetan hura lehenesten da jatorrizkoaren kaltetan. Horrela AACR2r-ek honako kasuak aipatzen ditu: "22.3. Choice among different forms of the same name [...] 22.3B3. Names written in the roman alphabet and established in an English form. Choose the English form of name for a person entered under given name, etc. [santuak, profetak, erregeak, aita santuak, kardinal edo apezpikuak, pertsonai historiko nabarmenak, etab.] or for a Roman of classical times [Erroma klasikoko pertsonai nabarmenak] whose name has become well established in an English form in English-language reference sources. [...] 22.3C. Names written in a nonroman script 22.3C1. Persons entered under given name, etc. Choose the form of name that has become well-established in English-language reference sources for a person entered un-

Euskarara etorritz, arauari segituz badirudi haxe litzatekeela galdera zuena: zein da delako pertsonaren izen-deituren grafia arruntena eta erabiliena gaur egungo euskaldun ikasien artean? Alegia, euskarazko katalogoak euskaraz egiten dira beren erabiltzaile naturalak euskaldun ikasiak direlako. Izan ere, Alemaniako katalogoak alemanez egiten dira haien erabiltzaile naturalak aleman ikasiak direlako, eta horrelaxe munduko gainetiko katalogo guztiak. Kasu bakoitzean hitzun ikasien ohitura eta erabilera da hautatu beharreko forma zehazten laguntzen diguna. Zein da euskaldun ikasien artean?

Galdera horren erantzuna askotan nahiko zaila da, espainieraz, frantsesez, ingelesez edo alemanez mintzo diren hitzun ikasien kasuan baino zailagoa bederen. Izan ere, bada funtsezko desberdintasun bat: euskararen normalizazio prozesua oso berantiarra da, espainiera edo frantsesaren aldean bederen. Hizkuntza horietan, salbuespenak salbu, deituren grafia gutxienez duela ehun bat urte finkatu zen, eta gaur egun nahiko uniforme eta koherentea izan ohi da. Euskararen kasuan egoera oso bestelakoa da: deituren grafiari dagokionez normalizazio-prozesua oraindik ez da burutu (lehenengo erabaki sendoak 1998an hartu ziren) eta beren hedapena oraingoz nahiko mugatua da. Hala eta guztiz

der given name, etc. whose name is in a language written in a nonroman script. If variant English-language forms are found, choose the form that occurs most frequently. As required, make references from other forms. [...] 22.3C2. Persons entered under surname. *Alternative rule.* This alternative rule may be applied selectively language by language. Choose the romanized form of name that has become well established in English-language reference sources for a person entered under surname [...] whose name is in a language written in a nonroman script. [...] If variant romanized forms are found in English-language reference sources, choose the form that occurs most frequently. As required, make references from other romanized forms. [...]". Espainiako Arauek (1995) irizpide berbera segitzen dute, nahiz eta modu sintetikoago batean formulatu: "15.1.1 B Elección entre varios nombres o varias formas del mismo nombre [...] 15.1.1 B f) Variaciones lingüísticas [...] 4. Se escogerá la forma española (1) para los santos, beatos, papas, emperadores, reyes, príncipes reinantes, así como en el caso de los clásicos griegos y latinos (2). (1) Las expresiones 'en español' o 'forma española' aplicadas a la lengua, se refieren a cualquiera de las lenguas oficiales habladas en España (2) Para los nombres más frecuentes de clásicos griegos y latinos, véanse Apéndices III y IV". Alegia, Espainiako Arauek (1995) berek ematen dute kasu berezi horietan erabili beharreko autoritate-zerrenda, zeinetan agertzen baita egungo gaztelaniadunen artean ohikoenak diren formak eta grafiak. Frantziako katalogazio-erregelak, aldis, apur bat desberdinak dira: kasu guztietan jatorrizko hizkuntzan normalizatutako forma hautatzea gomen datzen bada ere, zenbait kasu berezietan (izen klasiko latino eta grekoak, santuak, erregeak, etab.) forma frantsestua hautatzea aukera gisa baimentzen da: "1.2 Choix entre plusieurs formes d'un même nom. [...] 1.2.2 Formes en plusieurs langues. Selon le principe admis sur le plan international, on respecte dans la mesure du possible les usages nationaux; on transcrit la vedette dans la langue du pays dont l'auteur est citoyen s'il publie dans cette langue, sinon dans la langue habituellement employé par l'auteur. [...] Les cas particuliers se traitent de la façon suivante: 1.2.2.1 Noms de l'Antiquité. Noms latins (jusqu'en 476): on choisit la forme latine au nominatif. S'il existe une forme française consacrée par l'usage, elle peut être employée dans les catalogues où elle serait plus appropriée. Des renvois doivent être établis des formes non retenues à la forme mise en vedette." in NF Z 44-061 Juin 1986. Azken atalean agertzen den esatera ("S'il existe une forme française...") hitzez-hitz errepikatzen da ondorengo zazpi ataletan (Erdi Aroko izenak, Ernazimendukoak, bizantinoak, santu-izenak, aitasantuak, errege-erreginak eta alfabeto ez-latinoen idatzirikoak).

ere, garbi dago katalogazio-arau nagusiaren arabera ororen buru gaur egungo euskaldun ikasien praxia bera dela bidea erakutsi behar diguna. Eta ildo horri jarraituz esan dezakegu azken hogeita hamar urteetan euskara batuaren normalizazio-prozesu orokorraren bilakaerak eta deituetan euskal grafia erabiltzeko gizarte-ohitura gero eta zabalagoak, argi eta garbi norabide bat markatzen digutela. Zein da, beraz, gaur egungo euskaldun ikasien erabilera?

Orohar, bi motako kasuak ditugu: euskal deiturak eta gainetikoak (18). Euskal deituren kasuan gaur egungo euskaldun ikasien artean formarik arruntena eta erabiliena euskal grafia da. Zenbat eta gazteago, orduan eta arrunta: bereziki azpimarratu behar da euskarazko irakaskuntza jaso duten gazte-txo askorentzat *Azcue*, *Echeverría* edo *Michelena* bezalako grafiak oso arrotzak eta gutxi erabiliak direla. Era berean, euskal komunikabideen praxia, bereziki *Euskaldunon Egunkari*arena, erabat argigarria da (19). Itxura guztien arabera joera hori gero eta indartsuagoa izango da.

Orobat, erdal deituren artean bi maila bereizi ohi dira: alfabeto latinez idazten direnak jatorrizko grafian erabiltzen dira (gaztelaniazko deiturak gaztelaniazko egungo grafian, frantsesezkoak frantsesezkoan, ingelesezkoak ingelesezkoan, etab.), eta bestelako alfabetoak darabiltenen kasuan ohiturak oso finkatuta ez badaude ere, ziur aski *Euskaldunon Egunkari*an erabiltzen diren transliterazio-taulak dira hedatuenak (20).

Bada irizpide orokor horren salbuespen nabarmen bat: euskal herritar izan gabe euskal deituradunak diren estatubatuar, argentinar, mexikar, eta abarrek kategoria berezi bat osatzen dute, egungo euskaldun ikasien artean gaztelaniazko/frantsesezko grafia errespetatzeko ohitura dagoelarik, adibidez, *Julio Cortázar*, *Alfredo Bryce Echenique*, eta abar (21).

(18) Jakina, euskal eta erdal deiturak ez dira ura eta olio bezala bereizten, zenbait kasutan franko korapilatsua delarik alde batera edo bestera erabakitzea. Baina K. Mitxelenak esan zuen legez, "Todos tenemos una idea bastante clara de lo que queremos decir al hablar de apellidos vascos, y aquí no vamos a usar esa designación en un sentido muy apartado de su acepción corriente" (*Apellidos vascos*, 1953, Hitzaurrea, *Qué entendemos aquí por apellidos vascos* atala). Beraz, kasuan kasuko zehaztapenak eta irizpenak espezialistei utziz, kontzeptu horrek gaur egun duen adiera arruntari segituko diogu. Argitasun gehiagorako, ikus Mitxelenaren aipatu testua (argitaraldi ugari ditu).

(19) Ikus *Euskaldunon Egunkaria: Estilo liburua*, 1995, 188-192 arauak. Bereziki 188. araua: "Euskal herritarren euskarazko abizenak euskaraz idatziko dira beti [enfasia gurea]". Hori da ere euskal komunikabide gehienetan gutxi gorabehera segitzen den irizpidea. Gaztelaniazko komunikabideetan ere euskal deituetan euskal grafia erabiltzeko ohitura oso zabalduta da, eta oraingoz sistematikoa ez bada ere, erabat arrunta da bai Euskal Herriko bai Madrilgo prentsan.

(20) Ikus *Estilo liburua*, 1995, 1go eta 2. taulak, 104-106 or. Munduko beste edozein lekutan bezala, Euskal Herrian ere komunikabideek lan erabakiorra egiten dute atzerriko pertsonaiei izen eta grafia normalizatua zabaltzeko.

(21) Gizarte-ohitura zabala izateaz gain, kasu batzuetan ezinbestekoa dirudi. Adibidez, Aguirre izeneko estatubatuar batek ingelesaren arabera ahoskatuko du bere deitura (alegia, *A(g)uaia* moduko zerbait) eta, ondorioz, kasu horretan grafia euskararen arabera normalizatu nahi

Orobat, argi izan behar da beti ere grafia-aldaketei buruz ari garela, inola ere ez deitura-aldaketei buruz. Horrela, eta esan duguna errepikatuz, lehenak guztiz arruntak eta zabalduak badira ere (*Michelenaren* ordeztu *Mitxelena*, eta abar), gaur egun ez dago deiturak aldatzeko inolako ohiturarik. Adibide batzuk jarriko ditugu: *Bilbao* deitura ez da \**Bilbo* bihurtzen, ezta ere *Mon-dragón* deitura \**Arrasate* (*Mondragon* baizik); edo *San Sebastián* deitura \**Don-narruz*, edo *Arcangues* deitura \**Arrangoitze*; era berean *Cenarruzabeitia/Cenarruzabeitia* deitura *Zenarrutzabeitia* idatzi ohi da, baina inola ere ez \**Ziortza*. Bereizketa hori kontuan izatea oso garrantzitsua da gure arazoaren argitasunerako (22).

Beraz, katalogazio-arauek ororen buru gaur egungo euskaldun ikasien erabilera segitzeko agintzen digute. Horren arabera, badirudi irizpide orokorra hau litzatekeela: sarrera nagusi gisa, euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatziko dira eta gainetiko deiturak beren jatorrizko grafian, beharrezkoa denean transliterazio-etaulak erabiliz (23). Ez da grafia zaharkituen erabilerarik onartuko, ez kasu batean ez bestean (24). Orobat, kasu guz-

---

izateak deitura bera aldatzea lekarke ezinbestean. Beste arazo mota baten aurrean gundeke, beraz.

(22) Horrela, AACR2r-n argi eta garbi bereizten da bi kategoria desberdinak direla, bakoitzari atal desberdin bat esleitzuz: 22.2 Choice among different names eta 22.3 Choice among different forms of the same name. Frantziako erregeletan banaketa berbera dugu: 1.1 Choix entre plusieurs noms eta 1.2 Choix entre plusieurs formes d'un même nom. Espainiako Arauetan (1995) berriz, bi kategoriak bat eginda datoz (15.1.1 B Elección entre varios nombres o varias formas de un mismo nombre), nahiz eta gero kasuak banan-banan bereizten diren: 15.1.1 B a) Varios nombres 15.1.1 B e) Variaciones gráficas; 15.1.1 B f) Variaciones lingüísticas; etab.

(23) Orobat, kontuan hartzekoa da pertsonai historiko askoren izenak (santuak, erregeak, apezpikuak, etab.) zehaztapen bereziak beharko dituztela, irizpide orokorraz landara.

(24) Horrek esan nahi du normalizazio berantiarreko hizkuntzetan ezin dela AACR2r-ren 22.3 araua, edo Espainiako Arauen (1995) 15.1.1 B araua, edo Frantziako arauaren (NF Z 44-061) 1.2.2 atala, modu mekaniko batean aplikatu. Hasteko, garbi izan behar da aipatu hiru arauok izena hautatzeko arau nagusiaren segida eta aplikazio praktikoa baino ez direla, eta berori berdina edo franko antzekoa dela hiru kasuetan. Alde batera utzirik berorren aplikazio zehatza apur bat desberdina dela kasu bakoitzean (badirudi AACR2r-n zehazten den 22.3B1 atala batez ere ponte-izenari aplikatu behar zaiela, baina haren osagarria den 22.3B4 atala harrigarri desberdina da; Espainiako Arauetan, berriz, angloamerikanoen 22.3B1 atala itzultzen etaosatzen da, deiturretara ere zabalduz; Frantziakoan, bestalde, hiritartasuna azpimarratzen da, beste biotan ez bezala), hiru kasuetan alde ez moldez egilearen idazlanetan edo erreferentzia-izurrietan gehien agertzen den forma hartzea agintzen da. Garbi dago irtenbide hori hizkuntza normalizatuaren dagoela pentsatua, eta huts egiten duela bestelako kasuetan. Izan ere, normalizazio berantiarreko hizkuntzetan iraganeko produkzio bibliografikoa (mende honetakoa bada ere) askotan ez dator bat hitun-komunitate horretako gaur egungo gizarte-ohiturekin eta erreferentzia-izurriak, berriz, sarritan oso ahulak izaten dira, edo beste hizkuntza normalizatu batean egoten dira. Adibidez, Koldo Mitxelenaren kasuan aipatu hiru arauok mekanikoki aplikatuz gero *Luis Michelena* lehenetsi beharko genuke, hori baita bere jatorrizko lanetan eta erreferentzia-izurri nagusietan gehienetan agertzen den forma eta grafia. Baina nabarmena da gaur egungo euskaldun ikasientzat formarik arruntena eta erabiliena *Koldo Mitxelena* dela. Eta izena hautatzeko arau nagusia segitu nahi badugu, ezin dugu forma edota grafia zaharkitu bat onartu, euskarazko katalogo baten erabiltzaile

tietan ager daitezkeen aldaera guztiak bigarren sarrera gisa katalogatuko dira (25).

## V

Dudarik gabe, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* da eskuartean dugun kontua argitzeko autoritate nagusia (26). Baina azterketa sakon baten ondoren ateratzen dugu kasu askotan ezin dela egile baten izen-deituren grafia besterik gabe handik hartu. Darabilen irizpide nagusia, ordea, gorago aipaturiko berbera da eta, beraz, oso baliagarria suerta dakiguke zenbait zalanza argitzeko eta norabide nagusia markatzeko.

*Eusko Bibliographia* printzipioz ez dago hiztun-komunitate zehatz bati zuzendua, hots, ez dago hizkuntza-hatsapen jakin baten arabera antolatua. Horrela, hitzaurrea, erabiltzeko argitasunak, laburdurak eta gaien aurkibidea bost hizkuntzatan daude (hurrenez hurren, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez). Baina eleaniztasun hau guztiz azalekoa da: ardatza gaztelania da, gainetik hizkuntzen erabilera askoz ere txikiagoa delarik.

Adibide batzuk jarriko ditugu. Gaien sarrera-hitzak bost hizkuntzetan badaude ere, nagusia beti gaztelaniaz da, beste guztiek horretara igortzen dutelarik; gaien aurkibideak berak ere honako egitura du: sarrera-hitzen zerrenda alfabetikoki ordenatua eta termino bakoitzaren gaztelaniazko parekidea (alegia, soilik gaztelaniazkoa, hori baita nagusia); gaztelaniazko gai-zerrendak berak ez du parekiderik. Beste adibide bat. Leku-izenen kasuan sarrera nagusiak gaztelaniaz daude Hego Euskal Herrirako, eta frantsesez Ipar Euskal Herrirako; kasu batzuetan (ez beti) euskarazko terminoa ere agertzen da, baina beti ere gaztelaniazko parekidera igortzeko (27) edo frantsesezkora (28); beste ba-

---

naturalen ohituren kontrakoa baita. Beraz, normalizazio berantiarreko hizkuntzen kasuan arau nagusia aplikatzeko beste prozedura bat zehaztu beharko da. Berriz ere azpimarratu egingo dugu: arau nagusi berberari eutsi ahal izateko, haren aplikazio-prozedura desberdinak zehaztu behar dira, kasuan kasukoak.

(25) *Bigarren sarrera(k)* terminoa biblioteca-katalogo batean erabiltzen da *sarrera nagusi* ez diren sarrera multzo guztiak edo bakoitza izendatzeko. Ingelesezt, *secondary entry*, gaztelaniazt *encabezamiento secundario* eta frantsesezt *vedette secondaire* edo *renvoi*.

(26) Euskal bibliografoen artean erreferentzia nagusi bat hautatzekotan adostasun zabala egongo litzatekeela iruditzen zait. Besteen lana gutxietsi gabe, *Eusko Bibliographia* da egun eskura dugun lanik modernoena eta sendoena, zalanza barik. Hala ere, aipamen labur batzuk egin ditugu. J. Vinsonen lan klasiko eta ordezkaezinak arazo honetan ez digu laguntza handirik eskaintzen, jatorrizko dokumentuen grafia zehatz-mehatz jasotzeko ez bada. Allende Salazar eta Jose Ignacio Aranaren lanak informazio baliosa ematen dute, baina mugatuak dira Jon Bilbaorenaren asmoen eta neurrien aldean. Odon Apraizek eta Nicolas Altzola Gerediagak, berriz, ez dute lan sistematikorik argitaratu, baina oro har euskal formak erabiltzeko joera nabaria dute.

(27) ARABA ikus ALAVA, AMEZKETA (Guipuzkoa) ikus AMEZQUETA, etab.

(28) AMIKUZE (Benaparra) ikus MIXE

tzuetan gaztelaniazko terminoak frantsesezkora igortzen du (29) baina euskarazkorik ez dago (30); Euskal Herritik kanpoko terminoak ia beti gaztelaniaz agertzen dira (31); euskarazko leku-izenak soilik toponimia txikian agertzen dira (harpeak, mendiak, etab. (32). Alegia, gaztelania da erabat nagusi, ondoren frantsesa ere nahikotxo erabiltzen delarik; euskara modu marginal batean erabiltzen da, eta ingelesa eta alemana guztiz modu sinbolikoan. Horren adibide polita honako hau da: Azkarate (Benaparra) ikus Ascarat; Azkarate (Naparra) ikus Azcarate; garbi dago zein den praktikan hizkuntza bakoitzak duen estatua (33).

Deiturei dagokienez erabilera oso antzekoa da. Obraren egitura ohi baina korapilotsuagoa denez, azalpen osagarri batzuk eman beharrean gaude. Hiru maila (eta ez bi) bereiz ditzakegu: lehenean, dokumentuaren deskribaketa dago, bigarren, egilearen berberaren dokumentu multzoaren sarrera nagusi normalizatua (edo *erdi-normalizatua*), eta hirugarrenean sarrera nagusien ordenazio alfabetikoa egiteko erabiltzen duen sarrera nagusi *birnormalizatua*. Adibide batekin hobeto ulertuko da. *Alava* terminoa leku-izena izateaz gain, deitura ere izan da, eta bada. Bai kasu batean bai bestean, historian zehar gaztelaniaz bi modutara idatzi izan da: *Alava* eta *Alaba* (34). Deiturari dagokionez, lehen mailan Jon Bilbaok *Alava/Alaba* deituran egileen dokumentuen deskribapena eskaintzen digu: maila honetan ia inoiz ez da dokumentuak berak dakarren grafia jasotzen (35); bigarren, egile bakoitzaren sarrera nagusia dator, kasu batzuetan *Alava* eta bestetan *Alaba* (36). Baina hirugarren mailan, bi aldaera horiek beste bakar batera biltzen ditu: *Alava*, leku-izenaren sarrera nagusia bezala. Ondorioz, zerrendatze-modua apur bat ez-ohikoa da, ezen ordenatzeko sarrera nagusi gisa onartzen duen termino bakarra *Alava*

(29) Bayona (Laburdi) ikus Bayonne

(30) Alegia, ez dago Baiona

(31) Aquitania, Escocia, Estados Unidos de América, Francia, Génova, etab.

(32) Aitzbeltz (Cueva) (Mendaro) (Guipúzcoa), Aitz-Bitarte (Cueva) (Guipúzcoa), AITZGORRI (Guipúzcoa), etab.

(33) Ezaugarri horiek Eusko Bibliografiaren lehenengo bi atalei dagozkio, alegia, -1960 eta 1961-1975. Hurrengo bi ataletan gaztelaniaren nagusitasuna indartu egiten da: 1976-1980 bitartekoan gainetik hizkuntza guztiak desagertzen dira, eta 1981-1985ean euskara berragertzen da hitzaurre eta atarikoetan. Hala ere, azaleko aldaketa horiek gora-behera, irizpide nagusiak beti berberak dira obra osoan zehar.

(34) Leku-izenaren euskarazko parekidea, *Araba*, alde batera utziko dugu azalpen honetan.

(35) Jon Bilbaok berak aitortzen du hori dela bere obraren akats handienetako bat: "Una de las deficiencias de mi descripción bibliográfica fue el no haber puesto después del título el nombre del autor tal y como aparece en la portada. De haberlo hecho el usuario podría haber sabido en qué obras el autor usa el seudónimo y en cuáles no". Ikus Bilbao, J. eta Moreno, L.: "Eusko Bibliographia, pasado, presente y futuro", in *Bibliotecas públicas II-III jornadas=Liburutegi publikoak II.III. ihardunaldiak*, Donostia: Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkartea, 1991, 130. o..

(36) Adibidez, Alaba Esquivel, Andres de; Alaba Esquivel, Diego de; baina Alava Esquivel, Miguel Ricardo de.

bada ere (bai leku-izen gisa, bai deitura gisa), zerrendan ikusten dugun sarre-rak batzutan *Alava* eta bestetan *Alaba* dira. Beraz, bat barik bi normalizazio-maila ditugula esan dezakegu, nahiz eta guri axola digun maila hirugarrena izan, soilik horretan aurkitzen baititugu beste edozein katalogotan sarrera nagusien pareko diren sarrerak (37). Eta maila horretan, zein da normalizazio-irizpidea?

Obraren ardatza gaztelania denez, printzipioz, eta beherago egingo dugun zehaztapenak gora-behera, sarrera nagusi gisa kasu gehien-gehienetan gaur egungo gaztelaniadun ikasientzat arruntena eta erabiliena den grafia aukeratzen da (38). Bigarren mailan aniztasun haundiagoa dago eta, horrela, frantsesezko edo euskarazko grafiak, edota grafia zaharkituak ere agertzen dira (39), baina hirugarren mailan, alegia, benetan axola digun mailan, irizpide nagusia oso garbia da. Horrela, sarrera nagusiak Acha, Aguirre, Aramburu, Arcelus, Arostegui, Arozarena edo Arregui bezalakoak dira.

Digresio horretatik gure arazorako benetan baliozkoa dena ondoko hau da: irizpide horrek arazo franko sortzen du euskal deiturak normalizatu behar direnean, ezen grafia eta forma desberdin asko aurkitzen dugu deitura berberarentzat (40). Jon Bilbaok ez du erabateko erantzunik arazo horrentzat. Arestian esan dugun bezala, irizpide nagusiari segituz gehien-gehienetan gaur egungo gaztelaniadun ikasientzat formarik arruntena eta erabiliena hartzen du (41), baina zenbaitetan bestelako irtenbideak urratzen ditu. Horrela, batzuetan frantsesezko forma hautatzen du (42), beste batzuetan deitura bera bi grafia edo formarekin normalizatzen du, bata gaztelaniazkoa eta bestea frantsesezkoa (43), baina zer egin gaztelaniazko, frantsesezko eta euskarazko grafiak eta formak pilatzen eta estekatzen direnean, *Etxebarría/Etxeberria* deiturrekin gertatzen den bezala (44)? Edo euskarazko grafia dokumentatua

(37) Egitura korapilotsu hau 35. oharrean aipaturiko akatsaren ondorioa da. Izan ere, aski litzateke gaur egungo katalogoetan egiten den bezala dokumentu bakoitzean egilearen izen-deituraren forma bere horretan jasotzea, eta ondoren forma normalizatu bakarra erabiltzea, alegia, hirugarren mailan erabiltzen dena, bigarren mailan forma erdi-normalizatu bat tartekatu gabe.

(38) Horrela, *Alava* eta ez *Alaba*, *Abarzuza* eta ez *Avarzuza*, *Acedo* eta ez *Azedo*, *Aibar* eta ez *Aybar*, *Ibarra* eta ez *Ybarra*, *Irizar* eta ez *Yrizar*, etab.

(39) Aurreko oharrean aipatu ditugunaz gain, *Agirre*, *Harambourou*, *Arotçarena*, *Aroztegui*, *Arregi*, *Artzelus*, *Atxa*... bezalakoak ikus daitezke. Aipatzekoa da ere 'r' gangarduna onartzen dela (*Agí're*, *A' rizbalaga*, *A'ratibel*, etab.)

(40) *Adibidez*, *Aramburu*, *Harambourou*, *Haramburu*, *Haranboure*, *Arambourou*.

(41) Aurreko kasuan *Aramburu* da sarrera nagusia, alegia, hirugarren mailan kontuan hartzen den sarrera bakarra.

(42) *Adibidez*, *Arispe*, *Harispe* eta *Harizpe* artean azkena hautatzen du, eta ez lehena, gaztelaniadunentzat arruntagoa eta erabiliagoa.

(43) *Adibidez*, *Azurmendi* eta *Asurmendi*, *Arosamena* eta *Arozamena*, *Arriaga* eta *Harriague*, *Arizmendi* eta *Harizmendi*.

(44) Aldaera batzuk jasoko ditugu: *Etcheverry*, *Etcheberry*, *Etcheberri*, *Echeverri*, *Eseverri*, *Detcheverry*, *Echeberri*, *Etcheberri*, *Eseberri*, etab. Zer esanik ez, *Etxebarrí*, *Etxeberría*, *Etxebarría*, *Txabarri* edo *Txabarria* formen aldaerak kontuan hartzen badugu.

dagoen aldaera bakarra denean (45)? Edota gaztelaniadun ikasientzat ere euskarazko grafia gaztelaniazkoa baino askoz arruntagoa denean, Resurreccion Maria Azkuerekin gertatzen den bezala? Hiru kasu horietan, obraren ardatza gaztelania izan arren, Jon Bilbaok euskarazko grafia hautatzen du (46).

Bada beste irizpide garrantzitsu bat, hots, katalogoaren trinkotasunarena. Horren arabera, normalizatutako grafia edo forma batek berarekin lotutako guztiak normalizarazten ditu. Adibidez, leku-izenak gaztelaniazko formaren arabera normalizatzen badira, logikoa da termino bera deitura denean gaztelaniazko formaren arabera normalizatzea (47). Era berean, euskal deitura bat euskal grafian normalizatzen bada, harekin lotutako guztiak ere horrela normalizatuko dira, dokumentatuta ez badaude ere (48). Berdin gertatzen da gaztelaniaz edo frantsesez normalizatuekin. Horrek esan nahi du *Eusko Bibliographian* egileen deituren forma eta grafia katalogoaren beraren osotasunaren eta trinkotasunaren menpekoak direla. Edo, arestian ikusi dugun bezala, sarri askotan egileen borondatea edota erabilera bigarren mailako eragilea dela, irizpide orokor batek azpiratua.

Beraz, funtsean Jon Bilbaok bi irizpide nagusi darabiltza: gaztelaniadun ikasien erabilera arrunta eta katalogoaren trinkotasuna (49). Kasu bietan gaztelania da ardatza baina, kasu, euskal deituren zenbait korapilori irtenbidea emateko, derrigorrez euskarara jo beharrean aurkitzen da.

Halaber, kontuan izan behar ditugu beste bi datu: Jon Bilbaok bere lana diseinatu zuenean (1940-45 urte inguruan) (50) oraindik ez zegoen ordenagailurik eta euskara batua sortzeko beste bizpauru hamarkada beharko zen. Horrek lanaren ezaugarri nagusiak hobeto ulertzen laguntzen du: alde batetik, paperean argitaratzeko bideratua zegoen (hortik sarrera nagusien egitura korapilotsua lan modernoagoen aldean), eta bestetik, sasoi hartako euskaltzale ikasien hizkuntza-erreferentzia nagusia gaztelania edo frantsesa zen. Ez de-

(45) Adibidez, Akesolo, Akordagoitia, Arketa, etab.

(46) Badirudi ez diola kasu handirik egiten egilearen borondateari, ezen Koldo Mitxelena edo Salvatore Mitxelena bezalakoen sarrera nagusi normalizatua Michelena da.

(47) Hori da gertatzen dena Alava edo Abarzuza bezalako terminoekin, gorago ikusi dugun bezala.

(48) Hori da gertatzen dena Etxa- edo Etxe- hasiera duten deitura guztiekin. Etxebarria normalizatzea erabakiz gero, horren atzetik datoz Etxeberri, Etxeberria, Etxarri, Etxaide, Etxepare, Etxaleku, etab. Berdin gertatzen da Azkuerekin: horren atzetik datoz Azkuna, Azkuenaga, etab.

(49) Trinkotasuna munduko edozein katalogoren irizpide nagusienetakoa da eta, neurri handi batean, bere kalitatearen neurria. Adibidez, *Die Deutsche Bibliothek*-en egindako bilaketa batean Bacon deituradun 173 egile daude; horietako batzuek, Roger Bacon edo Francis Bacon, kasu, hurrenez hurren hamar eta hogeita lau aldaera dituzte dokumentatuak, baina katalogoaren trinkotasunari esker oso erraz bilatzen eta antolatzen dira.

(50) "Lan au Columbia University-ko dotor-solasaldiaren bearrezko oinarri bezala asi nuen [...] bibliographiako lanean 1940gn. urtetik eta 1945gn.tik ia bete-betean jardun dudala esan nai du" (Ikus *Eusko Bibliographiaren Itzaurrea*). Bestalde, lanaren lehenengo tomoa 1970ean argitaratu zen, alegia, euskara batua oraindik bere hastapenetan zegoenean.

zagun ahantz Campionek, Eleizalde, Urkixok, Azkuek, Aitzolek, Barandiaranek, Lekuonak edo Mitxelenak, euskaldunak izan arren gaztelaniaz argitaratu zituztela beren lan asko edo gehienak. Era berean, Broussain, Lacombe, Lafite, Narbaitz edo Lafonentzat frantsesa zen erreferentzia nagusia. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu Jon Bilbao eta bere lana. Erran nahi baita, erabili zuen benetako irizpidea honako hau zen: intelektual-komunitate horretan arruntenak eta erabilienak ziren grafiak eta formak. Horrek esplikatzan du gaztelaniaren nagusitasuna, frantsesaren presentzia nabarmena eta euskararen erabilera marginala, baina kasu batzuetan ezinbestekoa.

Laburbilduz: Jon Bilbaoren lana euskara batuaren aurreko egoeran sortua da, eta orduko baldintzek eta ohiturek bideratua. *Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK)* bezalako katalogo bat, ordea, bete-betean euskara batuaren prozesuaren barruan sortutakoa da eta, ondorioz, sortzen ari den intelektual-komunitate berri baten zerbitzura egon behar du. Bestalde, ordenagailuen agerpenak katalogoa beste modu batera diseinatzeraz behartzen du.

Ororen buru, bada beste datu erabakigarri bat: funtsean gaztelaniazkoa zen katalogo batean zenbait korapilo askatzeko euskara erabiltzea derrigorrezkoa suertatu bazen, nola ez pentsa hori dela soluziorik onena euskarazko batean?

Jon Bilbaorengandik jaso behar dena izpiritua da, ez letra.

## VI

Zenbait kasutan euskal grafia akademikoa ezartzea harrigarria suerta daiteke. Esana dugun legez, zaila da ohiturak aldatzea eta, kasu batzuetan, grafia horren logika eta oinarria ez da lehen kolpera atzematen. Har dezagun adibide bereziki bihurri bat: zein litzateke Antoine d'Abbadie-ren deituraren forma zuzena gure katalogoaren sarrera nagusi gisa paratzeko? Azter dezagun auzia hasiera-hasieratik, aurrez esana duguna une batez ahantziz. Bi irizpide ditugu, erabat kontrajarrita:

a) Usadio arrunta: Frantsesez ia beti D'Abbadie da. Horrela agertzen baita berak edo berari buruz idatzi diren argitalpen ia guztietan. Salbuespenak zenbait euskal testu dira, beheago zehaztuko direnak, eta XIX. mendeko zenbait testu (51).

---

(51) XIX. mendeko erabilera gaur egunekoa baino askoz ere anizkorragoa da. Horrela, Anton Abadiak berak gehienetan Antoine D'Abbadie sinatzen bazuen ere, gutxienez beste lau modu honetan sinatutako dokumentuak aurkitu ditugu haren gutunierian: Antoine D'Abbadie D'Arrast, Antoine Thompson D'Abbadie, Anton Abbadia (euskarazko eta frantsesezko zenbait gutunetan) eta Antonio de Abadia (gaztelaniazko gutun batean).

b) Euskal grafia: Egungo euskal grafia akademikoaren arabera Abadia izan behar luke. Izan ere, *Abadia Ürristoi* da haren oinetxearen izena, eta euskaraz horrela idazten da. Hala ere, berak Hendaian eraikitako gaztelu berria honela bataiatu zuen: Abbadia.

Ikus dezagun orain nola idazten duten haren izena gaur egun zenbait euskaltzale nabarmenek (batez ere euskarazko testuak aipatuko ditugu) (52):

Abadia: J.L.Davant (eu) (batzuetan), Xipri Arbelbide (eu) (behin bakarrik).

Anton Abbadia: Patri Urkizu (eu), Aurelia Arkotxa (eu), Txomin Peillen (eu), Jean Haritschelhar (eu).

Antonio Abbadia: P. Xarritton (eu).

Antoine Abbadia: K. Altonaga (eu).

Anton D'Abbadie: Iratzeder (eu).

Antoine D'Abbadie: J.L. Davant (eu), B. Oihartzabal (eu), Manex Goyhenetche (fr), J.B. Orpustan (fr), J.A. Arana Martija (eu), Jon Casenave (eu), Lola Valverde (eu), Ana Mari Toledo (eu), Patxi Altuna (eu), J.L. Lizundia (eu), X. Altzibar (eu), O. Alvarez Gila (eu), Amelia Hernández (eu).

Antonio D'Abadie: Xipri Arbelbide (eu) (behin bakarrik).

Antoin Abadi: Jon Kortazar (eu).

Orobat, erants dezagun nolako erabilera duen zenbait entziklopediatan:

Antoine Thompson D'Abbadie: Lur, Vox, Planeta.

Antoine Thompson Abbadia: Eusenor, Elhuyar.

Beraz, bitxikeriak alde batera utzita (Antonio, Abadie, Abadi), badirudi euskaraz idaztean nagusiki bi modutara idazten dela: euskal grafiazat joko duguna: Anton Abbadia eta frantses grafian: Antoine D'Abbadie (tarteko bidea, Antoine Abbadia, baita ere erabilia da). Biziki azpimarratzekoa da euskal testuetan ere gehiagotan agertzen dela frantses grafian euskal grafian baino.

Badugu ondorio harrigarri xamar bat: euskal grafia akademikoan (Abadia) ez du ia inork idazten (Davantek kasu gutxi batzuetan, gehienetan frantses grafia erabiltzen baitu euskarazko testuetan ere; Arbelbidek behin bakarrik). Euskal grafian idatzi nahi dutenek ere Abbadia aukeratzen dute. Zergatik? Ziur aski, haren gaztelu berriaren izena horrelaxe idazten delako.

---

(52) Aipu guztiak in *Antoine d'Abbadie 1897-1997; Congr s International; Eusko Ikaskuntza: Ezohiko Kongresua; Euskaltzaindia: XIV. Biltzarra; Hendaye, Sare, 1997.*- Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998. Irakur bedi eu=euskaraz, fr=frantsesez.

Beraz, hiru hauetako bat aukeratu behar dugu: euskal grafia akademikoa (ABADIA), euskal grafia arrunta (Abbadia) eta frantses grafia (D'Abbadie).

Abadia/Abbadia hautuari dagokionez, kontuan izan behar da Euskaltzaindiak behin eta berriro azpimarratu duela "leku-izenak zein bestelako izen bereziak, neurri batean, hizkuntza arruntaren sistematik kanpo daudela" (92. Araua, *Zuberoako Herri Izendegia*). Orobat, ez dezagun ahanztz frantses forma dela euskal testuetan ere gehien erabiltzen dena.

Baina argudio abstraktuetan baino, jar dezagun arreta irizpide bakoitza segitzearen ondorio zehatzetan. Antoine D'Abbadie da munduan zehar ia salbuespenik gabe erabiltzen den forma eta, beste euskaldun jakintsu asko ez bezala, kasu honetan pertsona nabarmena izan zen Euskal Herritik kanpo ere (batez ere Frantzia). Anton Abbadia, berriz, ongi dokumentatua dago, besteak beste egileak berak horrela deitu zuelako bere gaztelu berria (53). Bestalde, euskal testuetan sarri erabili izan da. Baina kontura gaitzen ezin dela erabaki isolatua izan. Adibidez, zer egin gainera Abadiatarrekin?

-Michel-Arnauld d'Abbadie (1772-1832): aita (beste batzuetan Michel).

-Antoine d'Abbadie (1810-1897).

-Mme. Antoine d'Abbadie (?-1901): emaztea (Virginie Vincent de Saint Bonnet ezkondu aurretik).

-Michel-Arnauld d'Abbadie d'Arrast (1815-1893): anaia (beste batzuetan Arnaud, Arnauld-Michel edo Arnauld).

-Charles-Jean d'Abbadie d'Arrast, Etxauzeko jauna (1821-1901): anaia (beste batzuetan Jean-Charles edo Charles).

-Mme. Charles d'Abbadie d'Arrast (Etxauzeko anderea) (1837-1913): anaiaren emaztea, Marie Coulomb ezkondu aurretik (beste batzuetan Coulon). Jon Bilbaoren arabera, Sophie-Caroline-Lisette izeneko neska bat da, (alaba?, iloba?), baina datu okerra da.

-Angele d'Abbadie du Saillant (1872-1955): Arnauld-en alaba (Marie-Angele d'Abbadie d'Arrast jaiotzez, Gui de Lasteyri du Saillant-ekin ezkondua), oroitzapen argitaragabe batzuen egilea.

-Bernard d'Abbadie d'Arrast (1906-1968): Arnauld-en iloba (Ferdinand bere semearen semea), *Épopée d'Arnauld d'Abbadie d'Arrast 'Ras Mikael' en Éthiopie* izeneko liburu baten egilea.

---

(53) J.B. Orpustanen arabera, *Abbadia*, grafia horrekin, erabat izen asmatua da: "...ce nom en apparence aussi latin que basque, mais qui n'est ni tout à fait (le -d-) l'un ni tout à fait (les deux -bb-) l'autre... [bi paragrafo beherago] ...dans l'invention du nom hybride *Abbadia*... [...] ...le château néo-gothique d'*Abbadia* avec son nom néo-latin (ou néo-basque?)...", Anton Abadiak berak asmatua alegia, helburu sinbolikoren batekin. Ikus J.B. Orpustan: "Les noms de maison issues du latin *abbatia* dans le Pays Basque médiéval", in *Antoine d'Abbadie 1897-1997; Congrès International; Eusko Ikaskuntza: Ezohiko Kongresua; Euskaltzaindia: XIV. Biltzarra; Hendaye, Sare, 1997.*- Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998, 481-492 or.

-Guilhem d'Abbadie d'Arrast (1934-): apaiza, Bernard d'Abbadie d'Arrasten semea, familiari buruzko liburu baten egilea (1982 eta 1992an argitaratua).

Aipaturiko guztiak libururen baten egileak dira, batzuetan argitaragabeak badira ere. Baina badira Abadiatar gehiago:

-Abbadie: Nafarroako Parlamentuko presidentea XVIII. mende bukaeran.

-Arnaud Abbadie (1843-1916): *Aphezac soldado*-ren egilea, (beste batzuetan Arnauld).

-François Abbadie: *Société Borda* izeneko elkartearen burua XIX. mendean, bizpahiru libururen egilea.

Eta abar.

Aurreko atalean erabili dugun tinkotasunaren irizpideari jarraiki, badirudi Antonentzat euskal forma bat aukeratzeak berez dakarrela bere senide eta deiturakide guztiei forma berbera ezartzea. Zein?

Bada argitu beharreko puntu bat: Arnauldek eta Charlesek (anaiek) 1883an lortu zuten beren deiturari "d'Arrast" gehitzeko lege-baimena. Baina Antonek espreski debekatu zion bere arreba Julia-ri beste horrenbeste egitea (legez debekatu, ez dakigu zer dela eta). Bestalde, seme-alabarik gabe hil zenez geroz (baita Julia ere), familiako guztiak (Arnauld eta Charlesen ondongoak denak) "d'Arrast" dira. (54)

Alegia, lau anai-arreba artean ere bi deitura desberdin ditugu, D'Abbadie eta D'Abbadie D'Arrast. Zer esanik ez, aita D'Abbadie baino ez da. Beraz, ez dirudi astakeria esatea Abbadia bakarra Anton zela, bere aita eta arreba D'Abbadie, eta anaiak eta ondorengoak, D'Abbadie D'Arrast.

Has gaitezen zuhaitza inausten: ez dirudi zentzuzkoa *Abbadia* gaztelua-ekin batere zerikusirik ez zeukatenei (aita, anai-arrebak, ilobak, etab.) Abbadia forma esleitzea. Zerbait denontzat balioko duena jartzekotan, jatorrizko etxea jarri beharko litzateke: Abadia. Baina, hartara, Ürrüstoi gehitzera behartuak gaude Arnauld, Charles eta bere ondorengoen kasuan (Abadia D'Arrast ez dirudi oso zentzuzkoa).

Beraz, badirudi Abbadia formak Antonentzako baino ez duela balio. Hortaz landara, bi aukera daude: D'Abbadie D'Arrast ala Abadia Ürrüstoi. Logika hutsez, euskarazko katalogo batean euskarazko formak lehenetsi beharko lirateke eta, bestalde, katalogoaren tinkotasunaren irizpideari segituz, aipatutako guztiei euskal grafia akademikoa ezarri beharko litzaeke: *Abadia Ürrüstoi* da familia horretako kide guztien oinetxearen izena eta horixe da, hain zu-

(54) Honez gero bi aldiz aipatu dugun Biltzarraren agirietan aurki daitezkeen datuak dira. Irakur bitez, bereziki, J.L. Davanten ("Antoine Abbadie-ren bizitzaz (1810-1897", 3-14 or.), Manex Goihenetxeren ("Antoine d'Abbadie intermédiaire social et culturel du Pays Basque du XIXe siècle?", 175-208 or.) eta J.A. Arana Martijaren ("Antoine d'Abbadieri buruzko oharrrak", 503-506 or.) artikulua aipatu liburuan.

zen ere, ABKren gainera irizpide eta erreferentzia guztiekin hobeto bateratzen den aukera. Familia horrekin zerikusirik ez duten Abadiatarrak ere, logikaz, grafia akademikora bildu beharko lukete.

Hala ere, aukera horrek oztopo handia du: salbuespenak salbuespen (Davant, Arbelbide), ia inork ez duela orain arte erabili. Hortaz gain, familiaren kide nabarmenenak (Antonek) Abbadiaren aldeko tirria erakutsi zuen eta, horri jarraiki, euskal testuetan ere grafia hori dextente hedatu da. Beraz, badirudi kasu honetan salbuespena egiteko aukera ez dela, inola ere, baztergarria. Beraz, zein forma hautatu?

Artikulu honen egilearen ustez kasu honetan ez da salbuespenik egin behar. Arrazoia begibistakoa da: salbuespenik egiten bada, frantsesezko grafia onartu behar da, ezen ez du zentzurik *Abbadia* gazteluarekin zerikusirik ez zutenei forma hori ezartzea. Esan nahi baita, ABKn frantses grafiaren eta euskal grafiaren artean bigarrena lehenetsi behar da, hori baita gaur egungo euskaldun ikasiek gero eta gehiago erabiltzen dutena.

Salbuespenak, berez, kasu bereziak argitzeko asmoz egiten dira; betetzen ote da baldintza hori? Ez, esku artean dugun honetan salbuespena egitea argigarria baino nahasgarria suertatzen da, pertsona baten grafia berezi-berezia (*Abbadia*) multzo zabal bati hedatzean. Hortik ateratzen da guztion argitasunerako praktikoagoa dela Abadiatar guztiei jatorrizko oinetxearen grafia errespetatzea, salbuespenak egitea baino. Beraz, gaur egungo euskaldun ikasi gehienek erabileraren kontra badoa ere, argitasunaren eta tinkotasunaren mesedetan, kasu honetan ez dut komenigarria ikusten frantsesezko grafiari eustea.

Orobat, esana dugu katalogo bat antolatzeako deituradunaren borondatea bigarren mailako irizpidea dela, baina kasu honetan ere uste sendoa dut Abadiatarretatik inor ez litzatekeela haserretuko euskarazko katalogo batean beren deituraren euskarazko grafia akademikoa erabiltzeagatik, azken finean, beren jatorrizko oinetxearen izena baita, ez besterik. Era berean, uste sendoa dut euskal grafia akademikoa gero eta gehiago zabalduko dela euskaldun ikasien artean, horrelako kasu berezi eta bihurrietan ere.

Labur: salbuespenak egitea posible bada ere, tentuz erabili beharreko baliabidea da, katalogoaren tinkotasuna eta koherentzia hankaz gora bota nahi ez badugu.

## VII

Ikerketa guztiek norabide bakarra erakusten dute: sarrera nagusi gisa euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatzi behar dira. Euskara baituaren bilakaerak horretara eramaten gaitu bete-betean. Bibliotekonomia

arauek gaur egungo euskaldun ikasien zerbitzura jartzeko agintzen digute. Gai honetan itzal nabarmena duten Resurreccion Maria Azkue edo Jon Bilbao bezalako jakintsuek lan horri ekiteko esaten digute. Gure hizkuntzaren normalizazio berantiarrak sor dezakeen unean uneko hutsuneak edo desorekak poliki-poliki gaindituko dira.

## **GRAMATIKA**



## **GALDE-ERANTZUNAK**

### **MAIZPIDE EUSKALTEGIA. LAZKAO. Gipuzkoa**

*Gasteizen, 2000ko martxoaren 27an*

Maizpide euskaltegiko irakasleak, agur.

Berriki jaso dugu zuen galdera bat adlatiboko sintagma baten gainean:

*Beasaindik hiru kilometrora dago Ataun*

ala

*Beasaindik hiru kilometrotara dago Ataun*

Euskaltzaindiak adlatiboaren erabilera horri buruz ez du orain arte araurik eman; *-ko* atzizkiarena da erabaki den bakarra zenbatzailedun sintagmetan (*hiru kilometroko bidea, bi urteko haurra*, eta abar). Inesiboarena, berriz, bidean da (*lau urtean bizi izan da Afrikan ...*).

Horrezaz gain, jakinarazi nahi dizuegu hegoaldeko literatur tradizioko erabileran *-ta-* gabeak izan duela ia erabateko nagusitasuna (*Beasaindik hiru kilometrora*).

Iparraldeko hizkeretan, berriz, ez dute adlatiboa erabiltzen era horretako egituretan (inesiboa gehiago). Hala ere, haietan mugagabea hegoaldean baino gehixeago erabiltzen dela dirudi leku-denborazko kasu-marka duten zenbatzailedun sintagmetan. Horregatik eta azken urteotan hedatua izan den erabilerak *-ta-* duena izan delako, ez zaigu iruditzen baztertzeko egitura denik hori ere.

Beraz, goiko bi egiturak, hegoaldean nagusi den *-ta-* gabea eta iparraldean eta azken urteetako euskararen erabili izan den *-ta-* duna, biak, ontzat ematen ditu Gramatika batzordeak. Hegoaldeko erabilerarako, ordea, *-ta-* gabeak dirudi arruntagoa.

Eranskin gisa literatur tradizioko lekukotasun batzuk bildu dizkizuegu.

Zuen galderari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

*Jesus Mari Makatzaga,*

*Gramatika batzordeko idazkaria*

Eranskina: *Orotariko Euskal Hiztegiako* adibideak

Beasaindik hiru kilometrora dago Ataun / hiru kilometrotara ...

*OHARRA: autoreen eta liburuen laburdurak OEH-koak dira*

|                         |                             |
|-------------------------|-----------------------------|
| 10 Metrotara: 2 adibide | 10 Metrora: 21 adibide      |
| 10 Kilometrotara: 0     | 10 Kilometrora: 6 adibide   |
| 10 Zentimetrotara: 0    | 10 Zentimetrora: 12 adibide |

Zenbatzailea + metrotara: 2 adibide

Or QA - 50: 500 metrotara zegon

Or QA - 52: Nork esan, itxasotik iru milla metrotara oinbeste ur

Zenbatzailea + metrora: 21

Fir - 145: Gure gizon biozdunak bi suen artean zauden, urbilena, ustez azpikoa 25 bat metrora, gañekoa ere eken ondotik gordeka baño urbiltzenago

Uzt Noiz - 25: Lurretik eun metrora zaigun aldamiyo bat ageri, bitatik batek saltatu bear, badira milla komeri, ta, \*Xalbador, zu eroritzeak pena ematen dit neri, bitatikan bat erortzekotan naiago det nik erori

JAIr az Bizia - 44: Gero, ibaitik amabost metrora, lenengo etxeak; erdin bat bi bizitzakoa, aldamenetan bat urdiña, bestea gorria eta beste amaika orizkak, denak bizitza bakarrekoak

Uzt Sas - 163: Autobusa an arkitutzen zan goiko arkaitzari lotua, sokak autsi ta ark jarri zuan bere biziko lutua; amasei lagun zitun barrenan da urak menderatua, \*Iraetatik berreun metrora txikituta billatua

NEtx LBB - 123: Bein, gazte lotsagabe batzuek bien artean zeramaten tarteak neurtu zuten, eta beti, gutxienez, bata besteagandik pare bat metrora alderaturik ibiltzen ziran bidean

Osk Kurl - 161: Ehun metrotik ehun metrora, zathi bat faltatzen zitzaion harresi huni

Ugalde Iltz - 66: Guardiazibillen ataditik eun bat metrora \*Xarobeneko taberna zegoan, plaza aurrean

Salav - 10: \*Elbitxuri, \*Erreteritik kanposantuko kamiyoan gora \*Asti-garragako benteta-aldera goazela, erritik iru bat kilometrora eta kamiyotik ezkerretara lareun bat metrora dago

Salav - 12: Etxetik irureun metrora bezela zegoan erreka arropak garbitzeko eta ganadua edateko, eta erreka onen inguruan Ama-Birjiñ iturri bat zegoan, oso ur ederra zuana, eta emendik artzen genduan etxerako bear zana

Salav - 13: (...) erreka baño goragotik mendi-egaletik ateratzen da ura; beste leku batzuetan berriz errekatik besteun metrora berdin egon leike iturri au

Salav - 18: \*Erreteriko erritik zortzireun bat metrora, \*Papelera \*Española'ren atze-aldetik, tren-bidearen ondoan, zegoan etxe bat bi bizitzakoa, toki mospel xamarrean, mendi baten beko sakonean, eguzkiak gutxi jotzen zuala

Salav - 18: Bizitza oietan bizi ziran bi famili, eta etxe onen ondoan amar bat metrora zegoan beste etxe zar aundi bat, aspaldian utsik zegoana, eta gure ama zanak etxe artara joateko modua egin zuan, gaxo zeukan bere senarra eta familiarekin

Salav - 36: Etxe ontatik berrogei bat metrora, \*Donosti aldera, kamiyoaren eskubitik dago beste baserri-etxe bat, \*Mantulene izena duana, gaur \*Juan-Marienea, eta ukullua eta ganaduak emen idukitzen zituzten

Salav - 97: Gure soldadu gallego bat eta ni antxen geunden ixil-ixilik trintxeran, eta gu geunden tokitik berrogei bat metrora, arkaitz baten atzean gordeta, an zeuden iru kontrario, bat fusil-ametralladorekin eta beste biak fusilakin ederki armatuta

Munita - 45: Ugari xamar badago, zuzena etortzen da, ta ogei ta amarretik berrogei metrora luzatzen

Munita - 59: Lur gizena bada ta aize-babesa, bi metrotik bi metrora neurri ona dezu

Munita - 69: Begira, esan zitzaion bere jabeari, azpigarria nai badezu edo, azpigarria galdu bildur bazera piñua sartuta, jarri errenkadak beti gora ogei metrotik ogei metrora; eta piñu landareak iru metrotik iru metrora

Munita - 69: Gañera goenean, erdi-erdian bat edo bi, eta barren aldean zearka errenkadak, guzietan landarea gutxienez beti iru metrotik iru metrora

Munita - 72: Zuretan, ondotik 19 metrora bitartean, amabi metro ta zortzireun da larogei ta zortzi zentimetro kubiko dauzka; ta gerriak buruko adar eta guzi, amalau metro ta eun da larogei ta bederatzi zentimetro kubiko

Munita - 89: Itxasgain milla ta seireunetik bi milla ta irureun metrora zuaitz auetatik sail aundiak argitzen omen dira

Or QA - 52: 200 metrora omen zegon, aski goian; baña goi artatik oso beian ageri zaigun, gau-argiz beterik, arratseko beratziak inguruan

Zaitegi, Platon: Oraingo Kaire uritik eta antxinako Menfis ziarretik lauz-pabost kilometrura zegoen.

### **Zenbatzailea + kilometrora: 5 adibide**

Anab Aprika - 61: Emendik bost kilometrora dagoan qq edo alda-toki bateraño eramango zaituztela; an, bederik, gau guztian etzanda egon zindezke

Gofi - 13: Zegoan erritik eun bat kilometrora \*Monserrat antzeko mendi-mordo agiri zan \*Chiujusthan izena omen zuan, alegia Bederatzi loreetako mendia ango izkeraz, ta toki santutzat omen zeukaten angotarrak

Salav - 10: \*Elbitxuri, \*Errenteritik kanposantuko kamiyoan gora \*Astigarragako benteta-aldera goazela, erritik iru bat kilometrora eta kamiyotik ezkerretara lareun bat metrora dago

Bilbao Ipuib - 221: Urrengo egunean, beste iru-lau baserritar lagun artuta, amabost kilometrora egoan erri bateko eriara joan bear ebala otu yakon gure \*Praiskuri

Or QA - 49: Illabete egin nenunan andik 72 kilometrora, \*Berraondon, adiskide batzuekin

### **Zenbatzailea + zentimetrora: 12 adibide**

Munita - 43: Berrogei metro artzen ditu eta ondotik metro ta ogei zentimetrora bost metro inguruz

Munita - 44: Beste aritzaren antzera, toki onean berrogei metro artzen ditu, eta ondoan, metro ta ogei zentimetrora, bost-sei metro inguruz

Munita - 59: Zulo bakoitzak 30 zentimetrotik 40 zentimetrora bear ditu zabal eta beste ainbeste sakon

Munita - 64: Orain berrogei urte-inguru da aldaketak asi zirala; ta badaude ondotik metro ta ogei zentimetrora, bi metro ta ogei ta lau zentimetro inguruz dauzkatena; eta luzean bai ogei ta amarren bat metro

Munita - 64: Antxe bertan dago beste bat ondotik metro ta ogei ta amar zentimetrora, metro ta larogei ta bost zentimetro inguruz dana; ta luzean berrogei ta sei metro

Munita - 71: Bere larogei ta emezortzi urterekin, gerria bada lodian iru metro ta irurogei ta emezortzi zentimetro, ondotik metro ta ogei zentimetrora;

Munita - 80: Lur onean berrogei a amar metro artzen ditu luzean, eta ondotik metro ta ogei zentimetrora, bost bat metro bai inguruz

Munita - 80: Izai ori berrogei ta lau metro luze bada; ondotik metro ta ogei zentimetrora, iru metro ta erdi bada inguruz; bere zura amabi metro kubiko ta erdi

Munita - 82: Luzean baditu emezortzi metro ta ondotik metro ta ogei zentimetrora, metro ta irurogei ta bederatzi zentimetro inguruz

Munita - 84: Bata, ondotik metro ta berrogei zentimetrora, lau metro ta erdi bada inguruz; ta lau metro ta ogei zentimetro bestea

Munita - 85: Emezortzi metro da luzean; eta ondotik metro ta ogei zentimetrora, metro ta ogei ta amar zentimetro inguruz

Munita - 100: Ogeita amazapi urte aldatu zala, 26 metro luze or nunbait da; ondotik metro ta ogeita amar zentimetrora, inguruz, 2,52 metro



## **PATXI MARTINEZ DE MARIGORTA jauna**

*Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua*

*Gasteizen, 2000ko urtarrilaren 25ean*

Agur, Martínez de Marigorta jauna:

Zure kontsulta bat jaso dugu Andre Maria Zuriko jaietako kartelean erabiltzen duzuen egitura bati buruz. Behin baino gehiagotan idatzi omen dizue hori dela eta Gontzal Fontaneda jaunak, desagokia zela iruditzen zitzaiolako.

Hauxe da auzian dagoen egitura:

**JAIK ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN**

Gramatika batzordeak ontzat ematen ditu era honetako egiturak; baita zuek erabiltzen dituzuen bi hauek ere:

**JAIK**

**ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN**

**JAIK, ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN**

Hain zuzen ere, izenburuetan eta perpausean txertatu gabeko egituretan dira ontzat ematekoak goiko moldeak, honako hau bezala:

**OMENALDIA BASARRIRI**

Baina ez perpaus barruan:

**\*OMENALDIA BASARRIRI IKUSGARRIA IZAN ZEN**

Beste auzi bat litzateke egitura hori baino arruntagoak erabil daitezkeen, gaztelaniazko ereduari hertsiegi jarraitu beharrean. Adibidez,

**ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK**

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

## URTATS EUSKALTEGIA Kirikiño 22, BILBO

*Gasteizen, 2000ko martxoaren 2an*

Urtats euskaltegiko irakasleak, agur:

Berriki egin dizkiguzuen galderei erantzuten ahaleginduko gara ondorengo lerrootan.

1. *Euskara menperatzen du* perpausa gramatikaltzat jotzen dugu.
2. *Bota* aditzaren ingurukoak hiztegi kontuak dira; beraz Gramatika batzordeari ez beste batzorde bati dagozkionak.
3. *Zehar* denborarekin erabili ahal da? Ez da erabilera usuena, baina badira egitura horien lekukotasunak (*Zaila da gure historian zehar antzekoa aurkitzea*). Egia da askotan behar ez dela erabiltzen dela *zehar* posposizioa, gehiegi alegia (*astean zehar* = *astean*; *urtean zehar* = *urtean*). Baina ezin eman ditzakegu txartzat *urtean zehar horrek sagar asko jaten du* gisakoak. Hona hemen literatur tradizioko testigantza batzuk:

K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VI* - 25: Lurraldearen mugak, bestalde, gero eta estuagoak izan dira historian zehar noiz edo behin bestela gertatu izan bada ere

Kmitxelena, *Ibidem* - 39: Hortaz, axaleko aipamen soil bati lotuko naitzaio, urte horiek, gehiegikeria gabe ene ustez, hondamendi bezala azaltzeko, zaila delarik gure historian zehar antzekoa aurkitzea, inoiz honelakorik izan bada

KM, *Ibidem* - 29: Diogun ere, gaztelu hurbilgaitzean baino areago pasabideko lurraldean mintzatua denez, beste edozeinek hainbat harreman izan duela gureak bi mila urteotan zehar bederen

Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak. Jainkoa* - 183: Munduaren ibilera mendeetan zear aurreraka dioja

Mirande, *Miranderen Idazlan Hautatuak* - 338: Urteak zehar jarraitu ohi dute maiz, cf, qq \*Borley'ko apeztegiarena

*Urten buruan horrek sagar asko jaten du eta Urteren buruan horrek sagar asko jaten ditu* ez dira zuzenak euskaraz. *Urteen buruan*, bai.

Bestalde,

*Urte bete buruan*: ez da zuzena

*Urtebeteren buruan*: bai, baina ez *Urte beteren buruan*

*Urteren buruan:* ez

*Urte buruan:* bai, *urtemugaren* erabilera berean.

4. *Gurasoak etorri direnean alde egin duzu.*

*Gurasoak etorri direlarik alde egin duzu.*

Biak ontzat ematen ditugu. Alegia, zuen galderari erantzunez, ez dago inongo eragozpenik –*elarik* ekintza burutueta erabili ahal izateko.

5. Denak dira gramatikalak:

*Zurekin maiteminduta nago*

*Zutaz maiteminduta nago*

*Berarekin maiteminduta nago*

*Beraz maiteminduta nago (?)*

Hala ere, azken hau baino egokiagoa litzateke *Hartaz maiteminduta nago*, testuinguru horietan ez baita *bera* erabiltzen instrumentala darabilten mintzotetan.

6. *Asteazkena arte*

*Asteazken arte*

*Asteazkenera arte*

Hirurak ondo dauden galdetu dute. Posposizio honen idazmoldeaz ez du Euskaltzaindiak ezer erabaki oraingoz. Euskara idatziaren azterketa bat egin beharko litzateke horien artean aukera egin aurretik.

7. *Besteez gogoratzeko esatera etorri zara*

Besteez gogora nadin esatera etorri zara

Bi hauek egokiak dira; ez ordea azkena:

*\*Besteez gogora nadila esatera etorri zara*

Nolanahi ere, adierazi nahi dizuegu oraindik orain Euskaltzaindiak argitaratu duen azken gramatikan –*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak 1)*–, perpaus osagarrien atalean, azaltzen direla era horretako kontuak, subjuntiboaren erabilerari buruzkoak.

8. Aditz horien aditzoin forma zein den jakiteko (*lotu, ohartu, ezagutu, ausartu, batu, oroitu, landu, handitu, erditu*) Euskaltzaindiaren 28. arauan irakur daiteke; Euskara Batuko Hiztegian ere kontsulta daiteke aditz bakoitza, han baitaotz guztiak.

9. *Lagunduko dizut etxera*

*Lagunduko zaitut etxera*

*Biok dira egokiak Euskaltzaindiaren 39. Arauan aditzera ematen den bezala.*

*Zuen galderei erantzun egokia eman diegulakoan, hurrengo batera arte.*

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

## GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENAK EDO KONTSULTA-ERANTZUNAK

*Gasteizen, 1999ko azaroaren 15ean.*

### **Bahá'í hitzaren deklinabidea dela eta Pedro Urkijo jaunari erantzuna**

Eman zaizkigun bi aukeren artean zein hobetsiko genukeen galdetu digu Pedro Urkijo jaunak:

1. *Bahá'íak, Bahá'íei, Bahá'íekin, Bahá'íentzat, ...*
2. *Bahá'ítarrak, Bahá'ítarrei, Bahá'ítarrekin, Bahá'ítarrentzat, ...*

Hona hemen arazo hau dela eta Gramatika batzordearen iritzia:

Gramatika batzordearen ustez eta hitzaren bukaerako *-í* atzizkia geniti-boari dagokiona denez, lehen aukera litzateke hobestekoa; hau da, *-tar* atzizkirik ez daramana. Horrekin batera, hitzaren eta kasu-markaren artean marra idaztea gomendatzen dugu, baldin eta *-í* atzizkia mantendu nahi bada. Era honetara deklinatzea gomendatzen dugu, beraz:

*Bahá'í-ak, Bahá'í-ei, Bahá'í-ekin, Bahá'í-entzat, eta abar.*

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

## ZENBATZAILEDUN EGITURA BATZUK DIRELA ETA JOSEBA GARAIALDE JAUNARI ERANTZUNA

*Gasteizen, 1999ko azaroaren 15ean.*

*Mila bostehun lagun hil dira, Bost laurogeiko jauzia egin du nahiz Errealak bi bat irabazi dio Athletic-i* adibideak zilegi diren galdetu digu Joseba Garaialde jaunak ala horietan guztietan *eta* juntagailua erabili behar ote den (bere iritzirako egokiago den aukera):

Gramatika batzordeak idazki honen bidez galdetzailearen iritzia edo irudipena berretsi egiten du, eta adierazi horietan hobesteko egiturak honako hauek direla:

*Mila eta bostehun lagun hil dira.*

*Bost eta laurogeiko jauzia egin du.*

*Errealak bi eta bat irabazi dio Athletic-i.*

Kasu horietan euskaraz juntagailua erabili izan du literatur tradizioak; gainera, lehen adibidearen kasuan, 1994an argitaratutako 7. arauak dioen bezala, *mila berrehun eta bat* da euskara batuan hobesteko egitura.

*Jesus Mari Makatzaga,*

*Gramatika batzordeko idazkaria*

**PELLO TELLERIA jna.**  
**EUSKALTZAINDIKO ERAGILE TEKNIKARIA**

*Gasteizen, 2000ko urtarrilaren 25ean.*

Zure kontsulta bat jaso dugu *Data nola adierazi* arauari buruzkoa. Aipatzen diguzu Euskaltzaindiaren 37. arau horretan data nola adieraz daitekeen azaldu ondoren, arauaren bukaeran bertan data ematerakoan, goian adierazitako egiturak erabili beharrean *-garren* atzizkiaren ordezkot den puntuaren bidez ematen duela Euskaltzaindiak. Galdera bat baino gehiago iritsi omen dira Euskaltzaindira bitasun horren inguruan, eta puntu hori, ahal dela, argitu dezagun eskatzen diguzu.

Inkoherentziak inkoherentzia, batzordeak erabaki du ezin dela *-garren*-en erabilera gaitzetsi, tradizioan erabili izan den egitura denez gero. Arauan ere ez da gaitzesten, nahiz eta han bestelako eredu eman:

*Durango, 1995eko martxoaren 7an*  
edo

*Durango, 1995eko martxoaren 7a*

Nolanahi ere, iruditzen zaigu arauan bertan jasotzen dena dela errespetatu beharrekoa (goiko bi egitura horiek, alegia); horretaz gain, Euskaltzaindia saiatu beharko litzateke aurrerantzean ez egiten 37. arauan egin den inkoherentzia bezalakorik.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

*Jesus Mari Makatzaga,*  
*Gramatika batzordeko idazkaria*

## JOSEBA A. GARAIALDE jna.

*Gasteizen, 2000ko urtarrilaren 25ean*

Agur:

Zure galdera bat jaso dugu *-na* atzizki distributiboaren erabilera bati buruz. Zuk diozunaren arabera, *bana, bina, hiruna* bezalakoen ondoan (*hiruna liburu oparitu dizkigute*), gaitzestekotzat ematen duzu *husna*-ren kasuan.

Gramatika batzordea zure iritzi berekoa da eta inongo tradizioz ez duen forma hori gaitzetsi egiten du.

Badira horren ondoan beste egitura batzuk, kirol-lehiaketetarako adibidez egokiagoak direnak. Adibidez,

*Hutsean gelditu zen partida.*

*Huts eta huts egin zuten Errealak eta Alavesek.*

Zure galderari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

*Jesus Mari Makatzaga,*

*Gramatika batzordeko idazkaria*

**BERRIAK**



**PALABRAS DE JEAN HARITSCHELHAR, PRESIDENTE DE  
LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA  
VASCA/EUSKALTZAINDIA, CON OCASIÓN DE LA  
AUDIENCIA CONCEDIDA POR EL EXCMO. SEÑOR  
D. MARIANO RAJOY, MINISTRO DE EDUCACIÓN Y  
CULTURA, A LA JUNTA DE GOBIERNO DE LA INSTITUCIÓN  
EL DÍA 16 DE NOVIEMBRE DE 1999**

*Madrid, 16-XI-1999*

*Jean Haritschelhar, presidente*

Excelentísimo Señor:

Es un alto honor el ser recibido por V.E., en compañía del resto de la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Deseo, antes de nada, mostrar, Señor Ministro, mi más profundo agradecimiento por esta audiencia.

Conoce V.E. la labor que nuestra Institución lleva a cabo desde 1918, año en que fue fundada por las cuatro Diputaciones hermanas. En épocas bien diferentes y en circunstancias con frecuencia desfavorables, la Academia ha permanecido fiel a aquellos objetivos de entonces, que son también los de ahora: trabajar por la lengua vasca, en su investigación y en su adaptación al mundo moderno, sin olvidar, desde luego, el ámbito de la tutela del euskara. Y ello considerando nuestro idioma como lo que es: patrimonio de todos, por encima de cualesquiera ideologías.

En efecto, hay en la Academia, y bien enraizado, este sentido de continuidad que deseamos fervientemente para un tesoro lingüístico que nos han legado las generaciones pasadas y que hemos de dejar a las venideras. Y existe igualmente el mismo sentido de continuidad en Euskaltzaindia, como institución oficial en su dominio, siguiendo una trayectoria de más de tres cuartos de siglo.

Como no podía ser de otra manera, este trabajo se expone en los informes que presentamos a las autoridades financiadoras, y principalmente en las Memorias anuales. Y, por lo que respecta al propio fruto científico de la Academia y sus afanes en varios campos (gramática, lexicografía, onomástica, literatura, biblioteca, etc.), debo decir, siempre con la obligada modestia, que

es patente, de un lado, que nunca ha sido tan grande el cúmulo del trabajo en Euskaltzaindia y, de otro, que contamos con mayor respaldo de la comunidad de hablantes.

Ambas cosas no han surgido de la casualidad. No olvidemos los avances en la organización de los estudios sobre la lengua vasca. Hace un cuarto de siglo no existía en España una cátedra de euskara que mereciera tal nombre; sí, por cierto, en Francia, gracias a la que ocupó mi maestro, el Profesor René Lafon en Burdeos. Hoy el panorama es completamente diferente. Por fortuna, ahora la lengua vasca dispone de cátedras en Universidades e Institutos, centros de investigación, proyectos perfectamente homologables a los de otras Filologías, y han cambiado también las propias instancias de nuestra Academia, como foco de investigación y de encuentro de investigadores.



Y, junto a ello, a la vista está el apoyo económico de las administraciones públicas. en un ambiente de respeto hacia las lenguas, lo que equivale a decir hacia las personas. A fuer de sincero, no podría decir que ese apoyo nos satisfaga por entero: las cantidades asignadas siguen siendo insuficientes para las necesidades de la Academia. Pero apreciamos lo que se nos concede.

Por eso, cúmpleme mostrar mi profundo agradecimiento, como Presidente de Euskaltzaindia, a V.E., Señor Ministro, y, al mismo tiempo, reiterar nuestro propósito de seguir trabajando con el mismo espíritu de servicio.

**PALABRAS DE JEAN HARITSCHELHAR, PRESIDENTE DE  
LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA  
VASCA/EUSKALTZAINDIA, CON OCASIÓN DE LA  
AUDIENCIA CONCEDIDA POR LA EXCMA. SEÑORA DA.  
ESPERANZA AGUIRRE, PRESIDENTA DEL SENADO, A LA  
JUNTA DE GOBIERNO DE LA INSTITUCIÓN EL DÍA 16 DE  
NOVIEMBRE DE 1999**

*Madrid, 16-XI-1999*

*Jean Haritschelhar, presidente*

Excelentísima Señora:

Sean mis primeras palabras de agradecimiento por el alto honor que se me hace al ser recibido por V.E., en compañía del resto de la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

Acudimos al Senado, cuya vocación como cámara territorial es conocida con el mismo espíritu que ha caracterizado a nuestra Academia en sus ochenta años de vida: voluntad de servicio a favor de la lengua vasca, de su investigación y de su adecuación a la vida moderna, sin olvidar la tutela de sus derechos, también reconocida por los textos oficiales. Y todo ello manteniéndonos siempre, y manteniendo al euskara, fuera de las lides políticas; por muy legítimas que éstas fueren, no incumben a nuestra Institución como tal.

Nuestra labor en ese campo propio no sería posible, desde luego, sin el respaldo de las autoridades y de los representantes elegidos por el pueblo. Autoridades y representantes son los principales destinatarios de la Memoria que todos los años presenta Euskaltzaindia en un grueso volumen, dando cuenta de su trabajo en plenos, comisiones y en todos los órganos académicos, en bien de un patrimonio que es de todos, incluso de los no vascófonos.

Sabe V.E. que nuestra Academia no es insensible a los esfuerzos encaminados a divulgar entre todos el conocimiento de la riqueza lingüística y cultural de nuestros pueblos, en un ambiente de tolerancia y de respeto. Permítame decir, Señora Presidenta, que abrigamos esta misma preocupación, sabiendo que hay un camino aún largo por recorrer, y en el que es posible y necesaria una colaboración. “Las lenguas no delinquen”, dijo alguien hace ya muchos años. En efecto, no delinquen, sino que son el reflejo más genuino de

la persona humana. Preciso es confesar, sin embargo, que muchas actitudes negativas no se darían si se fomentara más el conocimiento mutuo entre y sobre los pueblos de España y de Europa, y no se echara leña al fuego, leña de ignorancia, cerrazón y silencio.

En este contexto, es bien sabido que no pocos senadores han sido destacadas personalidades en el campo de una y otra lengua, y podría citar aquí a dos de ellos, por lo que toca a Vasconia: el alavés Ladislao de Velasco (1817-1891), autor de un interesante libro con el primer recuento de los hablantes vascos, y el navarro Arturo Campión (1854-1937), autor de tantas y tantas páginas de interés. Es asimismo sabido que desde siempre el Senado se ha provisto de unos fondos bibliográficos excelentes, de los que puede legítimamente enorgullecerse.

Reitero, Señora Presidenta, mi agradecimiento por esta audiencia, juntamente con la expresión de nuestra voluntad de servir a todos.

## **EUSKALTZAINDIAK *ETXABE* IDAZLEAREN ESKUIZKRIBU BATEN DOHAINTZA JASO DU**

*Bilbo, 2000-I-09*

Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegiak “Itziar’ko Ama: Etxabe ta Aldai’-tar Miren’ek euzkeratutako iru ataldun antzerkia” izeneko euskal testuaren eskuizkribua jaso berria du, Eloy Untzaluren eta lan horren egilea zen Maria Etxaberen ilobaren eskutik, Karmele Etxaberen eskutik, alegia. Akademiak ur-tarrilaren 19an jaso zuen dohaintza.

Maria Etxabe (Zarautz, 1905-1993) gutxi aipatutako euskal idazlea da. Euskaltzalea eta abertzalea, haren jarduna Tene Muxikaren edota Julene Azpeitiaren inguruan kokatu behar da.

Aipatu egilearen lan nagusia da Euskaltzaindiak jaso duena eta, berez, gaztelaniazko antzezlan baten itzulpena da. Ezezaguna da zehatz-mehatz noiz idatzia den, baina lehenengo aldiz Azpeitian antzeztu zen, 1929ko azaroaren 7an. Hortaz gain, lan hau saritua izan zen Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren *Juventud* aldizkariak antolatutako literatur-lehiaketan.

Euskaltzaindiak dohaintza hau goraipatu nahi du, eta bide batez euskal idazle ezezagun honen lana ikerle eta euskaltzaleen esku izango dela adierazi.



## DONOSTIAKO APEZPIKUARI BISITA

*J. L. Lizundia,  
idazkariorde-kudeatzailea*

Martxoaren 17an, arratsaldeko 5etan, Donostiako Gros auzoan Apezpikutegiak duen egoitzan, Juan Mari Uriarte, Donostiako apezpiku berriarekin bildu da Euskaltzaindiko Zuzendaritza. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Patxi Goenaga, idazkaria; Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Juan Mari Lekuona, Donostiako ordezkaria eta Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak egiten du bere sarrera, adieraziz nola Euskaltzaindiak ohitura duela, agintariekin, bai zibil eta bai elizakoekin, kargu berriztatzea egiten denean, bisitaldia egitea. Hala egin zitzaion bere garaian, Jose Maria Setien berari ere eta geroztik Sebastian Iruñeko artzapezpiku berriari, Bilboko Ricardo Blazquezi eta Karmelo Etxenagusia laguntzaileari eta oraingo honetan, berari. Euskaltzaindiak uste baitu hizkuntzaren akademia denetik, elizak duen hizkuntzarekiko garrantziagatik, zer esanik eta zer eskainirik ere. Euskaltzaindiak dituen batzorde nagusien eta lanen berri ematen dio. Juan Mari Uriarte apezpikua pozik agertu da bisita honekin eta Gipuzkoako elizaren izenean kolaboratzeko prest agertu da eta Euskaltzaindiarekiko, ekin-tza, xehetasun, harreman eta beste zenbait galdera egiten du. Itzulpen kontu eta beste ere aipatzen da, hala nolar, Vatikanoko II. Kontzilioaren dokumentuak oraindik ez daudela euskaratuta eta behar-beharrezkoak liratekeela.

Jarraian, Jose Antonio Arana Martijak, Patxi Goenagak, Juan Mari Lekuonak eta Jose Luis Lizundiak solasaldian parte hartzen dute euskaltzainburuarekin eta apezpikuarekin batera.

Azkenik, liburu hauek ematen zaizkio Juan Maria Uriarteari, *Testamendu Berria, Linguae Vasconum Primitiae, EHHako Antologia* eta *1998ko Oroitidazkia*.

Irakaskuntza mailan Euskaltzaindiak euskara batuarekiko duen atxikimendua ere adierazten dio Euskaltzainburuak, horrek ez duela esan nahi euskalkiak ez dituela babesten, alderantziz baizik, bakoitzari bere tokia utziz.

Euskaltzaindiak dituen harremanak direla eta unibertsitatekin, bai Euskal Herriko Unibertsitate Deustuko, Nafarroako biak eta Bordel eta Paukoen berri ere ematen dizkio. Zenbait erakunde aipatu dira, hala nola, Eusko Ikaskuntza, Labairu eta beste.



## TOPAGUNEA

2000.eko otsailaren 15ean

*Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan*

Topagunean bilduta dauden Bizkaiko euskara suspertzeko elkarteen bile-raren aurkezpena egiten da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Mahaipuruan esertzen dira: Fernando Muniozguren, Topaguneko ardura-duna, *Euskarabila* elkarteko Ainhoa Labeaga andrea, Gotzon Lobera, Bizkai-ko Diputazioko Kultura Saileko Euskara zuzendaria; Jose Luis Lizundia, idaz-kiorde-kudeatzailea eta Xabier Amuritza.

Fernando Muniozguren jaunak eta Labeaga andreak hitz egiten dute le-hendabizi, Topagunearen asmoak agertuz. Ondoren, Xabier Amuritzak biz-kaierari buruzko atxikimendua ona dela adieraziz, bere arriskuak ere azpima-rratzen, ditu, hots, herrietako txokokerien oihanetan, bizkaieraren batasuna galtzea. Gotzon Loberak, bere aldetik, Bizkaiko Foru Diputazioaren jarrera azaltzen du, besteak beste, bizkaierari buruz, elkarte desberdinek egiten di-tuzten ahaleginetan laguntzeko prest dagoela.

Azkenik, J.L. Lizundia mintzatzen da, adieraziz bera mahai honetan an-fitrioi gisa dagoela, alegia, etxe hau euskararekiko topagunea dela, gure guz-tion hizkuntzaren Akademiaren etxe nagusia baita. Gainera beste bi euskal-tzain urgazle ere badirela, hots, Xabier Amuritza, aspaldidanik euskaltzain urgazlea eta *Eusker*a agerkarian, lan bikainak aurkeztua, orobat, Iberdueroren laguntzaz argitaratu zen *Oinarrizko Euskar*an. Bestea, Gotzon Lobera, Jagon Saileko Sustapen batzorde idazkaria eta une honetan, Bizkaiko Foru Admi-nistrazioan, euskararen arta duena. Fernando Muniozguren ere aipatzen du, Ei-barko Toponimia lan, euskararekiko eta bestetan, Akademiarekin harreman ugari izandakoa.

1976an, Zaldibarko Udaletxean, orduko euskaltzainburu zen Luis Villa-santek Euskara Batua, euskalki literarioak eta herri hizkeran deritzan txosten oparoan, aipatzen zuen nola euskalki literarioak, Bizkaikoak barne, zaindu be-har zirela, txokokerietan erortzeke. Azkenik, zenbait elkarte aipatzen ditu, bera bazkide den *Berbar*o, *Eraz* aldizkariaren kolaboratzaile delarik, *Berbots*, *Ber-haizu*, *Barriketan*, *Bizarra Lepoan* eta abar, une honetan, hemen bertan or-dezkatuta daudenak gehienak, hain zuzen.



## JUAN MARIA OTEGI JAUNA EUSKADIKO KUTXAKO BURUA

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Agur Otegi jauna:

Euskaltzaindiak 1918. urtean sortu zenetik, izugarrizko lana egin du euskararen alde. Garai batean bere esku zeuden ez bakarrik normatibizazioa, baizik eta euskararen zabalkundea ere. Hegoaldean autonomia lortu zenetik, Akademiaren lana normatibizazio lana da, eta badu zereginik arlo honetan. Eskuartearen ditugun proiektuen artean honako hauek aipatuko nituzke:

- *Orotariko Euskal Hiztegia.*
- *Hiztegi Batua.*
- Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika.*
- *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa.*
- Onomastikako lanak.

Bestalde, Euskaltzaindiaren lanak sekula ez dira bukatuko, hizkuntza guztiak biziak dira, eta euskaraz ez da salbuespen.

Baina lan erraldoi hau oso motel doa, Euskaltzaindiak ez du egiturarik ezta finantza-baliabiderik euskararen beharrei garaiz erantzuteko. Egoera hau gainditzeko, Euskaltzaindiak berak eta gero aipatuko dizudan taldeak Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa sortzea erabaki dute. Fundazioaren eginkizunen artean hauek lirateke aipagarrienak:

- Euskal gizarte osoa, Hegoaldea eta Iparraldea, baita diaspora ere, Euskaltzaindiarekin konprometitzea.
- Euskaltzaindiari gestioan eta proiektuetan laguntzea.
- Fundazioarako kapitala lortzea enpresa, profesional eta gizartearengandik.
- Fundazioaren finantza-kapitala kudeatzea.
- Fundazioaren urteroko etekinak Euskaltzaindira bideratzea.
- Euskaltzaindiaren aginduz proiektu berriak burutzea.

Hau guztiau lortzeko, eta Fundazioaren sorrera laguntzeko batzorde laguntzailea antolatu dugu partaide hauekin:

- Jose Antonio Ardanza. lehendakari ohia.
- Roger Etchegaray Kardinalea.
- Pedro Miguel Etxenike.
- Eduardo Chillida.
- Federico Mayor Zaragoza.
- Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Fundazioaren patronatua Euskaltzaindiak, Fundazioaren batzorde laguntzaileak eta enpresa haundien ordezkariak osatuko dute.

Hau guztiau Euskaltzaindiaren Alde txostenean dator.

Gure ustez ezinbestekoa da Euskadiko Kutxa proiektu honetan sartzea, eta Fundazioan fundatzaile eta patronatukide gisa azaltzea.

*Bilbon, egoitzan, 2000-II-24*

## PIONEER THEATER, RENO (NEVADA)

*1999ko uztailaren 23an*

*Henrike Knörr,  
Onomastika batzordeburua*

Atsegin handi-handiz mintzatzen naiz batzar honetan Euskaltzaindiaren izenean, Euskal Akademiaren ordezkari. Eta hasteko gogoratu nahi nuke Euskaltzaindia 1918an sortu zela, bi helburu nagusi zituela: alde batetik, hizkuntza ikertu eta arauak ematea, eta, bestetik, euskara bera defendatzea eta erabileraz piztea eta zabaltzea.

Gure kezka, beraz, ez da soilik euskararen izkutuak argitzea eta gramatika eta hiztegiak plazaratzea. Hori garrantzi handikoa izanik ere, euskararen beraren bizia eta biziraupena zaigu axola, gure hizkuntzaren geroagatik lehiatzen eta arduratzen gara.

Bi ikuspegi hauetatik, Renoko aste osoko ekitaldiak eta, bereziki, arrats honetakoa, guztiz aukera ona dira Euskaltzaindiaren poza agertzeko, duela 40 urte, Euskaltzaindi pobre (edo pobreago) hark egin zuen bezala.



Izan ere, gaur Basque Studies Programeko buru den Bill Douglass jaunari egiten zaio omenaldia, merezimendu osoz, urte luzeetako lanagatik. Nola ez aipatu eta goraipatu lan hori, Ameriketara, oroz gain, baina mundu guztian ere euskal kultura hain egoki ezagutarazi duena? Nola ez txalotu hango eta hemengo ikasle eta irakasleak biltzeko indarra? Eta –hau ere ez da bigarren mailakoa– nola ez estimatu eta aintzat hartu liburu zientifiko horiek? Ez dezagun ahanztz euskara eta Euskal Herria gai gogokoena zirela –eta oraindik ere, nahiz askoz neurri txikiagoan, direla– inon diren bitxikeriarik eta ergelkeriarik handienak botatzeko. Bai, zinez, lan ederra egin da hemen, lan oinarritzakoa eta puntakoa egin da, nonahi eta noiznahi burua gora aurkeztu daitekeena, eta Euskal Herriarekiko interesa duten orok irakurri beharrekoa.

Lan horretan Eusko Bibliographia nahi nuke orobat aipatu. Gure Herriari buruz argibide bila dabilenak badu tresna balios-baliosa, Jon Bilbaok Renon bukatu zuena. Espero dezagun oraingo eten hitsa ez dela izango betiko; aitzitik, indarberriturik jarraituko duela Eusko Bibliographiak, garai honetako tresneria miragarria lagun duela.

Basque Studies Programarekiko aitortza 1992an egin zuen Euskaltzaindiak, Renoko Onomastika Jardunaldietan, Programaren 25. urtemugakari. Eta Douglass jauna duela bi urte izendatu zuen gure Akademiak ohorezko kide, “euskarari egindako zerbitzu bikainengatik”. Gainera, Douglass jauna ikerle eta irakasle moduan dituen merezimenduez landa, gizatasuna erakutsi du burrustan betidanik. Don Guillermo, Nafarroan lehenbiziko egonaldian deitzen zuten bezala, gizona baita, eta zintzotasunez jokatu du beti.

Bestalde, Ameriketara lan egin duten eta egiten ari diren hainbeste apaizi gure esker ona agertzen diegu gaur. Artzain izan dira, artzainen artean lehenik, eta gero zernahi lanbidetako euskaldunentzat. Bizi direnek bil ditzatela gure goresmenak, eta hildakoak gelditu daitezela betiko gure gogoan. Besteak beste direla, euskarak anitz zor die, nabari denez.

Eta azkenik, nola ez, eskerrak North Amerikan Basque Organisationeko lagunei, euskaldunen artean loturak sendotu eta sendotzen dituztelako. Eta eskerrak orobat aste eder hau hain trebeki eta suharki antolatu dutenei. Zerrendak ez ohi dira osoak, eta ez dut izenik aipatuko, baina guztiok dakizue nor diren.

Hizkuntza bat eman zitzaigun eta, Goethe poeta handiak esan zuen bezala, saiatu behar dugu, hartaz jabe izango bagara. Euskara hori egunero behar da landu, zaindu eta aberastu, zuhaixka zuhaitz bihurtu, eta lanabes hori bizitzaren eremu guztietarako egokitu. Euskaraz idatziz eta irakurritz euskaldun beteak bilakatzen gara, izan ere, eta segurtasuna eskuratzen dugu, gure seme-alaben euskalduntasuna segurtatzeaz gain. Jakina, euskararekin soilik ezin gaitetzke bizi, beste hizkuntzen premia dugu, baina euskararik gabe hilak gara, eta hala-holako euskara txiroarekin erdi-hilak.

Aurrera, bada, guztiok, han eta hemen, gure Herriaren alde.

## RENOKO ASTE NAGUSIA

*1999ko uztailaren 19tik 25era*

*Henrike Knörr,  
euskaltzainburuorde eta Onomastika batzordeburua*

Renon, uztailaren 19tik 25era, ospatu zen Aste Nagusia izenekoa. Lau helburu zituen ospakizun horrek: 1. Duela 40 urte egin zen batzar handia gogoratzea; 2. Hango Estatuetan jardun duten apaiz batzuei esker ona agertzea; 3. William Douglass irakaslea, Basque Studies Program-eko zuzendaria, laster zaharsarituko dena omentzea, eta 4. North American Basque organisation delako\* bere urteko batzarra egitea.

Ekitaldi gehienak Renoko Flamingo hotelean izan ziren. Hona egitaraua labur:

- “Euskaldunak Ameriketan” erakusketa ederra, Joseba Etxarrik prestatua.

- Hitzaldi batzuk

- Anabel Martin (Emory University), Montxo Armendarizen *Secretos del corazón* filmaz

- Film horren emanaldia.

- Ameriketako euskal emigrazioaren zenbait alderdiri buruzko hitzaldiak, Fresno Unibertsitateko Jeronima Etxeberria eta Euskal Herriko Unibertsitateko Begoña Petxorromanen ardurapean.

- Martzelino Ugalde (Basque Studies Program) euskal deituren gainean mintzatu zen.

- Jill Dyches andrearen (Family History Center) hitzaldia genealogiazko ikerkuntzaz.

- Bertsolaritzari buruzko azalpena, Linda Whiteren eskutik, eta bertsolarien saioa.

- *Euskaldunen Egunkaria*, *Argia* eta *Gara*-ren azalpena.

Beste ekitaldi bat, sari eta domina banaketarena, gehi dantzak eta kantak, Pioneer Theater deituan izan zen. Euskaltzaindiaren izenean hamabi minutu

mintzatu nintzen, euskaraz eta ingelesez, omenduak goraipatuaz, eta bereziki Basque Studies Program bera. Azken aldean gogorarazi nuen Euskaltzaindiak duela 40 urte ordezkari bat igorri zuela, hots, Kastor Uriarte jauna.

Azkenik, bi jaialdi egin ziren Wingfield Park-en, larunbatean eta igandean. Dantzariak, kantariak, bertsolariak, euskal salgaien azoka eta janedariak izan ziren, giro atseginean. Igande goizean, gainera, meza, Renoko apezpikua han zelarik, eta meza-emaile Marcel Tilloux Eskiulakoa ikusgarria gertatu zen orobat larunbat goizeko euskaldun kabalkada Renoko kale nagusian, parkerako bidean.

Duela 40 urteko ospakizuna antolatzen aritu izan zen Peter Etxeberria, harrezkero urgazle bihurtua, agurtu nahi izan nuen, baina guztiz ezindua aurkitzen da zahar-etxe batean, oroimena galdua, alabak esan zidanez.



## **AURKEZPENAK**



## AITA ARANAREN EGUNARIA AURKEZTEAN

*Donostiako Foru-Aldundian. 2000-II-24*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Euskaltzainkideak,

Jaun-Andereak agur.

Gertakari latz baten ondotik eta hala erabakia izan delakotz ez dago gure artean Roman Sudupe jauna, Gipuzkoako diputatu nagusia. Nahi dizkiot, Aita Aranaren egunaria aurkeztean, eskerrak bihurtu, alde batetik areto nagusi hau utzi digulakotz eta bertzetik Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza eman duelakotz Kutxa Fundazioa eta Deustuko Unibertsitatearekin batera liburuaren agertzeko.

*Iker* bilduman sartzen da Aita Aranaren *Egunaria*, hamabigarren liburukia delarik.

Paratzailea Aita Patxi Altuna euskaltzaina eta Euskaltzaindiko Gramatika batzordeburua.

Aranaren esku-izkribuak 1300 orrialde ditu, xeheki idatziak orrialde batzuen argazkiek erakusten duten bezala. Ez zen ez herabe eta ez beldurti izan behar holako esku-izkribu batean sartzeko.

Bainan beharrezkoa zen holako batean murgiltzea, jakinik nor izan zen Aita Arana, nolako bizia eraman zuen, kurutzatu eta harremanak ukan euskaldun eta euskaltzale ospetsuekin hala nola Antoine d'Abbadie, Resurrección María de Azkue, Sabino Arana Goiri. Aita Aranarekin daukagu XIX. mendeko lekuko bat, zinez interesgarria hobeki ezagutzeko Euskal Herriaren orduko historia.

Lotu zaio lanari Patxi Altuna eta erakutsi baitu jadanik zein zehazki eta zorrozki jokatzen zen argitaratu duelarik -etsenplu baten hartzeko- Detxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ren edizio kritikoa Euskararen lekukoak deritzan bilduman, ez da dudarik Aita Aranaren *Egunariak* eskainiko dizkigula segetetu guziak Patxi Altunaren lanari esker.

Hala nola eskertu dudan Gipuzkoako Foru-Aldundia, eskertuko ditut ere Kutxa Fundazioa eta Rosa Miren Pagola anderea, euskararen errektore ordea, Deustuko Unibertsitatearen izenean gero mintzatuko dena, liburu honen argitaratzeko eman duten diru-laguntzaren gatik.

Ene azken hitzak izanen dira zorionik bizienen eskaintzeko Patxi Altuna euskaltzainkideari, liburu gotor horrekin egin baitigu opari ederra. Mila esker.

## EGUNARIA LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Donostia, 2000-II-24

Patxi Altuna

Ene aurretik, hitza hartu dutenek, esan dute jadanik Aita Jose Inazio Arana (1838-1896) esan behar zen gehiena eta hoberena: apaiz langilea, euskaltzale porrokatua, olerkigile txairoa eta lagun askoren lagun zintzoa izan zela. Hori batez ere. Ehunka izan zituela esango banu, ehunka karta idatzi eta hartu zituela esango banu, ez dut uste huts luzea izango litzatekeenik. Bego exenplu bakarra: D'abbadien eta biek elkarri laurogei eskutitz baino gehiago egin zizkieten, eta hark Arana behin lehendabizi Loiolan eta Aranak hura gero hiru bider Iparraldeko Jauregi zoragarrian elkar bisitatu zuten eta pianoa jotzen aritu Aita Arana D'Abbadieren emaztearekin. Horri kanpotarren artean, etxe-koak isiltzeko, Bonaparte, Van Eys, Georges Phillips, Duvoisin, Dodgson, In-txauspe, Vinson etab. erantsi beharko litzazkioke.

Ez dugu euskal literaturan, nik dakidala, *Egunkaria* deritzan saileko liburu asko. Batere bai? Nik dakarkizuedana halako bat da, idazteko gai izan zenetik hasi (lehenagoko etxeko kontuak ere barne) eta ia hil zen arte Aita Aranak zehazki oratua. Orain dela ehuneta berrogeitamar urte, alegia. Eskuz idatzia, zer esanik ez, eskuizkribu lodikotea, Loiolako artxiboan urte guztio-tan gordea egon dena, inor ausartu ez delarik paper sorta handi hari eskua eransten.

Nik zer lan egin behar izan dudan? Eskuizkribuak dituen mila eta hirurehun horialdeetatik lehenengo erdiak hortxe-hortxe gazteleraz idatzia daude. Artean, euskal kontzientzia garbirik ez zuen seinale. Horiek guztiak euskaraz-zea izan da ene lehen lana. Horretarako orijinalaz baliatu behar izan dut, noski. Hura irakurtzeak berak lanak zituen. Har zazue gogoan nolakoa zen orduko papera: mehea, Biblia-paperearen antzekoa, letra alde batetik bestera aise igarotzen zaiona. Horri erantzen badiozue Aita Aranak letra txiki-txikia zuela, 94.-95. orrialdeetan orijinalaren bi fotokopiatuak ikus ditzakezen bezala, sinetsiko duzue hainbeste orrialde irakurtzen asmatzeak bakarrik egun, aste eta are urte zenbaitetako lana ezarri didala. Bigarren erdia -730 orrialde- euskaraz idatzia dago, baina ez euskara batuan, baizik joan zen mendearen azken urteetako euskara jasoan, eta nik, zer esanik ez, euskara batuan eman dut osoa.

**AITA ARANAREN EGUNARIA**  
**DIARIO DEL PADRE ARANA**  
**JOURNAL DU PÈRE ARANA**

**AITA ARANAREN EGUNARIA**  
**DIARIO DEL PADRE ARANA**  
**JOURNAL DU PÈRE ARANA**



**AITA ARANAREN EGUNARIA**  
**DIARIO DEL PADRE ARANA**  
**JOURNAL DU PÈRE ARANA**

**AITA ARANAREN EGUNARIA**  
**DIARIO DEL PADRE ARANA**  
**JOURNAL DU PÈRE ARANA**

**iker - 12**

Itzulpena da, hortaz, zuk dakarkiguzun lana? Bai eta ez. Baia argitu beharrik ez dizuet. Eza, bai. Izan ere, Aita Aranaren asmoa ez zen izan testu-*egunkari*— Literario, dotore, apain bat egitea, baizik goizean ohetik jaikitzen zenetik arratsean oheratu arte bere inguruan gertatzen ziren, eta urrutian gertatzen zirela jakiten zuen gauza guztien berri ematea. Baina punturik txikiak ere barne zirela: “halako orduan jaiki naiz, gero otoitz egin dut, gereo meza eman, gero gosaldut” etab., etab. eta, jakina, hogeigarren eta hogeitabargarren mendeko gizon-emakumeei xehetasun horiek bost axola zaizkie. Hori guztia galbahe batetik pasarazi behar zen eta gertari interesgarrienak kontatera moduan idatziak eskaini gaurko idazleari.

Gehiegi luzatzen ari naiz. Diodan bukatzeko horretaz gainera astia izan zuela San Inazioaren eta Antxieta Brasilgo misiolari handiaren bizitzak idazteko, bai eta *Loiolako oroimenak* izeneko liburuxka egiteko ere. Horrez gain, ehundik gora olerki egin zituen, gehienak ezinbestean erlijio gaikoak, batzuk haatik pertsonaia ospetsuen, euskaldunen batez ere, gorespenez. Ez dira balio gutxienekoak, nahiz ez euskarazkoak izan, euskal Metrikari buruz idatzi zituenak: *Arte métrica bascongada*, *Fontes*-en 1992 an argitaratu nuena, eta *Ensayo de una Bibliografía Bascongada*, 1363 fitxa dituen eta R. M. Azkue bibliotekan Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan dagoena.

Ez zuen arrazoi falta Aita Villasantek bere Euskal Literaturaren Historian idatzi zuenean: “Fue sin duda de los más profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas... Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron” (p. 284).



## AITA ARANAREN *EGUNARIA* LIBURUAREN EPILOGOAZ

*Donostia, 2000-II-24*

*Jose Antonio Arana Martija*

Gaur aurkezten den liburu honentzat azken hitzak eskatu zizkidan Patxi Altuna egileak, eta pozik eta ohorez hartu nuen eskaria, liburuaren edukia ikusi eta eskatutako lana burutzeko egin nituen ikerketak zirela eta, gizon hau maitatzen eta miresten hasi bainintzen duela bospasei urte. Aspaldidanik eza-gutzen nituen idazlan baliotsu batzuk, Euskaltzaindiaren artxiboan daudenak, Azkuerekin gurutzatu zituen gutunak, esate baterako; baina bereziki han gordetzen den Euskal Bibliografiaren eskuizkribua, datu zehatzez betea. Azkoitiko udalak eta Euskaltzaindiak Jose Inazio Aranaren heriotzaren mendeurrena zela –eta, bere jaioterrian 1996.eko abenduaren 20an ospatu zuten omenaldian Arana jesuita bibliografo ikuspegitik aztertu nuen (*Euskera*, 1997) eta aurkezten den liburu honen originala irakurri ondoren, bizitza aberatsaren beste arlo batzuk ere hor zeudela eta, ikerketarako gaia zabalik zegoela ikusi nuen.

Idazle, olerkari, historialari, bibliografo, fisikan eta astronomian aditua zela ikusten da liburu honetan. Patxi Altunak paratu duen testuan mamitu ditu Aranak bere *Egunarian* ematen dizkigu datuak, biografia osotzen dutenak. Badirudi aita Aranak bere kolkorako idatzi zuela biografia, memoria idatzi gordetzeko asmoz; eta Altunak burutu duena hau da: ikerketa eta idazlan xehe, sakon eta eskergarrian haiekin ehule lana burutu, eta oihal gozoa eman. Bi jesuiten-lanak XIX. mendeko euskal literaturaren ikuspegi zabal bat ematen digute baina ez literaturarena bakarrik, baita beste euskal kulturako lekukotasunak ere.

Iker sailean kaleratu du Euskaltzaindiak liburu hau, aita Arana pertsonaiaren inguruan gure historiako hainbat datu elkar-josten direlako. Lehen-dik ere izan dira liburu sail honetan antzekoak: gogora dezagun Charrittonek prestatu zuena, Azkue-Broussain euskaltzainen gutundegiarekin. Sarri askotan, argitaratzeko idazten ez direnak, balio handia dute puzzle bat osatzeko eta ekin-tza asko gauzatzeko gogoeta eragingarriak ezagutzeko. Argitara gabeko barne historia pertsonalak iluntasunean argia egiten du. Eta ikerketarako ildo nagusiak markatzen ditu. Beraz, hortik datorkigu halako lanen garrantzia.

Gehitu behar dudan bakarra da aita Aranaren olerkik eman didatela aukera zeintzuk diren herri kanten euskarriak aztertzeko. Hamalau dira gutxienez herri kantak direlakoak, aita Aranaren testua daramatenak. Eta hauen azterketa izan da nire epilogoaren gaia. Esta han diodanez, ez dira hauek Jose Inazio Aranari eskainiko dizkiogun azken hitzak. Hala biz.

## AITA ARANAREN EGUNARIA LIBURUAREN AURKEZPENEAN

*Donostia, 2000-II-24*

*Rosa Miren Pagola,  
Deustuko Unibertsitateko ordezkaria*

Aurrekoen oroitzapena gelditu zaizkigun haien egintzetan oinarritzen dugu. Halere, bizitzan ez dira horiek izaten, nahi ala nahi ez, garrantzitsuenak, eguneroko lana askoz ere eraginkorragoa gerta baitaiteke egiten den unean eta gero, beti ere neurtzeko zaila gertatzen bada ere.

Aita Aranaren kasua horietakoa da: euskaraz idatzi eta euskarara itzuli zituena lanengatik aipatzen badugu ere gure artean, haren lanik haundiena egunerokoa izan zen eta lan haren ondorioak euskararen eta, agian, Euskal Herrian zenbaterainokoak eta noiz artekoak diren jakitea gure esku ez dagoen arren, begirada zoliz aztertuz gero, egiaz luzeak eta zabalak izan direla antzemango genioke.

Gaurko ekintza honetan, zorionez eta Aita Altunari esker, nolarebait alderdi horiek biak batzen dira, Aita Aranaren idazki baten argitalpenaren aurkezpena delako eta, bide batez, idazki hori haren egunkariarena delako, haren eguneroko lan eta harremanen kontakizunarena, alegia.

*Egunaria* deitu zion Aita Aranak berak bere egunkariari eta horrela argitaratu du Aita Altunak. Atseginez irakurtzen den liburua paratu du, baina kontuz irakurtzekoa ere bada, pertsona bakar baten eguneroko zertzeladez gain, Euskal Herriaren etorkizunerako garai garrantzitsu gertatuko zen historia bizi baita lerro horietan. Aita Aranak lan haundia egin zuen bere garaian euskara bultzatzen Jesusen Lagundian eta handik kanpo ere. Ezin izango du inork ukatu haren eragina luzea eta zabala izan zela eta, beraz, haren *Egunariak* gauza asko argituko dituela garaiko eta, batipat, Jesusen Lagundiko egoerari eta pertsonen buruz.

Horrenbestez, Deustuko Unibertsitateak ez zuen zalantza apurrik izan lan hau argitaratzeko partaidetza eskatu eta eskaini zitzaionean; eta nire kasuan ere berdin, atseginik haundiena baitut ekitaldi honetan parte hartzeko aukera dudalako.

*Egunaria*, bestalde, idazmolde irakurgarria da berez. Beste balioez gain, eguneroko gertakizunen kontaketak ezartzen dion bizitasuna eta xarma izan ohi du. Gainera, nik dakidala behinik-behir, euskal letretan ez dago egunkari askorik idatzirik eta, agian, batere ez argitaraturik. Hutsune hori Aita Aranaren *Egunariaren* argitalpen honek bete du.

Aita Altunak prestatua, ordea. Horrek bermetasunik tinkoena eskaintzen dio argitalpenari. Aita Altunaren lanak ezagutzen dituenak badaki ongi zein zehatza eta zorrotza den bere lan guztietan, eta zein zoru sendoa zapaltzen duen edukiaren, hizkuntzaren eta zintzotasun zientifikoaren aldetik. Bestalde, Aita Altunak, besteenak beste, jesuita askoren lanak argitaratu eta aztertu ditu, denak ongi, txairo, atsegin eta aberats. Kasu honetan ere ezaugarri horiek hor-txe dira, eta gustua izanen dugu irakurriz, bide batez Loiola inguruko garai desberdineko bi seme eta josulagunen idazkerak ere erkatu ahal izanen ditugularik.

“Prestatzilea” dio liburuan, baina hitzak eskuizkribuaren argitalpen hutsa baino zertxobait gehiago esan nahi du kasu honetan. Aita Aranak lehen parte luze bat gaztelaniaz idatzi zuenez, Aita Altunak testu hura euskaratu ezezik, kontaera gisa moldatu du, eta, esan bezala, liburuan bion estiloak eta hizkuntza erabilerak aurki ditzakegu, eta, gainera, kontaera eta *Egunaria* liburu be-rean. Alderdi askotatik da, beraz, interesgarria lan hau.

Zorionak eta eskerrik zintzoenak, Aita Altuna, lagunentzat Patxi, egin duzun lanagatik argitalpen hau prestatzen, eta eskerrak argitaratzeko lagundu dutenei ere, batez ere Euskaltzaindiari Iker sailean sartu duelako; izan ere, ekarri bikaina da eta aztertu beharrekoa euskararen eta euskaldunon joan zen mende bukaerako historia hobeki ezagutu nahi bada. Besterik gabe, agur hona azaldu zareten denoi.

**EUSKALTZAINDIAREN ETA BILBAO BIZKAIA KUTXA-REN  
LITERATURA SARIAK**



## BBK - EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARI-BANAKETA

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Lau sari banatuko dituzte egun BBK eta Euskaltzaindiak: elaberriarena Txomin Agirre saria, antzerkiarena Toribio Alzaga saria, olerkiarena Felipe Arrese Beitia saria, saioarena Mikel Zarate saria. Ene ondoan daukadan eta BBKren izenean etorri den Gorka Martinez jaunari nahi diot erran lan ona egi-ten dugula elgarrekin BBKk eta Euskaltzaindiak, bakoitzak berea eginez, BBK bankuak sariak ordainduz eta liburuak agertuz, Euskaltzaindiak mahaikideak izendatuz.

Hain zuzen, paradaz baliaturik eskertzen ditut mahaikide guztiak, Euskaltzaindiaren izenean beren iritzia eman dutenak. Horiek dira: elaberrian Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo; antzerkian Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu; olerkian Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan Mari Lekunna; saioan Xabier Altzibar, Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza.

Euskal Herri osoa bildua da epaimahai horietan, Hegoaldea eta Iparraldea, Zuberoatik Bizkaira erabakiak behar den bezala hartuak izan ditezten. Ukan dute lan bederatzi eleberri aurkeztu baitira, bederatzi olerki multzo ere, bortz saio eta bi antzerki. Aurten lau literatur generoak sariztatuak dira eta berehala zorionak emaiten dizkiet, hemen, gure aitzinean dauden lau irabazleei, haien izenak jakinen dituzuela geroxago.

Orain, emaiten diot hitza Txomin Peilleni mintza dadin *Txomin Agirre* ela berriaren sariduna aurkezteko epaimahaiaren izenean.

\* \* \*

*Txomin Peillen*

Irabazlea: Aitor Arana Lauzuriaga, eta 9 eleberri aurkeztu direla eta aurren baziren oso onak, eta beste birekin eztabaidan ibili, eta bat, beste sari batek eraman digu, eta ordea, zorionak Aitor Arana Lauzuriaga. Ez da oso zaharra, baina baditu jadanik 13 liburu idatziak eta bere eleberriak zer kontatzen du: gizon irakurzale bat munduko ipuinik onenaren bila dabil eta horretarako emakume idazle ezagun bat bahitzen du, bertatik ihes egiterik ez dagoen bere

etxe zaharrean sartu eta handik ihes egiterik ez duela erakutsiko dio, ahalik eta ipuinik onena berari kontatu arte. Idazleak, direnak eta ez direnak egingo ditu, askatasuna berreskuratzeko, ihesaldiak prestatuz eta aldi berean, zorioneko ipuin on hori asmatu nahian. Hau da guri gustatzen zaiguna, alde bate-tik, ongi idatzia delako eta beste aldetik, gauza bat, gutxitan aurkitzen baita eleberrietan, eta euskal literaturak uste baita serioa eta tristea izan behar duela, umore fin-fin bat daukalako eta hori gustatu zaigu taldean. Orduan zorionak, Aitor Arana Lauzuriaga.

\* \* \*

*Jose Luis Lizundia*

Orain, bigarrenera pasatuko gara. Sari hau 1.300.000 ptakoa da Euskal Herrian gerra osteko sarietatik zaharrena; hori idazle askok irabazi dute alegia, Txomin Peillenek, Txillardegik eta beste asko.

Bigarrena, *Toribio Alzaga* da, 800.000 ptako antzerkikoa.

Ez baitago epaimahaiko inor, akta irakurriko dut.

Hala dio: Uztaritzen, 1999ko abenduaren 9an, bildurik Euskal Kultur Erakundean, Toribio Alzaga BBK 99 antzerki sariko epaimahaia. Daniel Landart, Eugenio Arozena eta Patri Urkizuk luze eztabaidaturik aurkeztu diren lanen balioez, aho batez, Alex delako batek idatzi *Bake biltzarraren ildotik* antzerki sariari ematea erabakitzen da”.

Saritua Mikel Ugalde Ugarte da.

\* \* \*

Epaimahaikoen azalpena

*Toribio Alzaga* antzerki saria. *Bake biltzarraren ildotik* bakearen gaiaren inguruan egituratutako antzerki lana da. Gure herrian gerta daitezkeen hainbat gatazka gune haintzat hartu eta horren inguruan halako ausnarketa baten bide-tik jarraitzera deitzen gaitu Mikel Ugaldek. Langabezia, euskararen inguruan hainbatek sortu nahi duen auzia, etorkinen inguruko hainbat jarrera, familia barruan gerta daitezkeen gora-beherak eta azkenik, bake-bide politikoa eta berau sendotzeko zenbait politikarik erakusten duen ezintasuna ditu egileak lan honetan mintzagai. Bakearen gaia bada, era orokortuan hartzen duela esan daiteke. Beste era batera esanda, arlo bakoitzean bake bide zabalduz, planteatzen du gure gizarteak aldarrikatzen duen bakera eraman gaitzakeen irtenbidea.

Eta beraz Mikel Ugalde Ugartek ukanen du sari hori eta Txomin Peillenek eman.

\* \* \*

Jose Luis Lizundia

Juan Mari Lekuonaren ezin etorria kontutan izanik, erabakiaren agiria irakurriko dut osoirik, eta gero, Txomin Peillen Literatura batzordekideak irakurriko du laburpena. “BBKk eta Euskaltzaindiak antolatutako Felipe Arrese Beitia olerki sarira aurkeztutako lanak epaitzeko, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona bildu dira. Behar diren araketak egin ondoren, honako erabaki hau hartu dute: 1999ko Felipe Arrese Beitia saria *Hautsia natza* izenburua daraman poemategiari ematea. Agiri honek bere ondorioak izan ditzan, behar den une eta lekuetan, epaimahaikoek Donostian izenpetzen dute mila bedederatzirehun eta laurogeita hemeretziko abenduaren hamarrean. Saritua: Juan Luis Zabala Artetxe.”

\* \* \*

Txomin Peillen

Juan Luis Zabala ezaguna dut, zeren eta ez da lehen aldikotz agertzen; baditu 7 liburu idatziak eta artikuluak leku askotan eta zer esan nezake gehiago? Bere obra dela *Hautsia natza*, inongo jainkorik eta inolako federen babesik gabe eta hil egin behar duela jakinik, bizi den gizakiaren haustura. Hau da poemario horren gai nagusia Zabalak dioenez, eta gai nagusi horri dagokio poema gehienen tonua ere. *Hautsia natza* liburuko poemagintza surrealismoaren eta bangoardiaren zordun da, Zabalaren aburuz, baina badu “artepain” deitu izan den joera musikalaren arrastorik ere. Pertsona baten barne hausturaren azalpenaren bidez egungo eta hemengo gizakia islatzen saiatu da bertso librean, gordin, lakar eta lakatz, baina zuzentasunez eta neurritz hala ere adierazpide poetikoari dagokionean. Kaosa kaiolatzeko ahalegin ordenatu bat da, bere ahaleginaren antzutasunean kontzientzia osoz jarraitua.

Zorionak Juan Luis Zabalari; Azkoitikoa da eta gaztea. Euskal Filologian eta ez dakit zenbait gauzatan lizentziatua, eta gero liburuak eta sariak irabaziak ere: *Tene Mujika*, *R.M. Azkue*, *Donostia hiria* eta *Rikardo Arregi* sariak. Aspaldian ezagutzen dugu Juan Luis Zabala Artetxe. Zorionak.

\* \* \*

Jose Luis Lizundia

Ahaztu zait esatea sari hau, *Arrese Beitia* saria, 800.000 ptakoa dela eta azkena, 1.000.000 ptakoa, *Mikel Zarate* saio saria. Hara hor zer dioen agiriak: “Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak antolaturiko 1999ko Mikel Zarate saia-kera erabakitzeko epaimahaia Euskaltzaindiaren egoitzan bildurik, honako hau erabaki du: saria *Nazio identitatea eta eskola* izenekoari ematea. Eta erabaki hau on egiteko dugin epaimahaikideok sinatuz”

Andolin Eguzkitzak egingo du horren laburpena, irabazlea, zuon jakinerako, Jose Manuel Odriozola Lizarribar da. Sari hau irabazten duena hirugarren aldiz, gainera.

\* \* \*

*Andolin Eguzkitza*

Jose Luis Lizundiak esan duen moduan, aurton, hirugarrenez, irabazi du Jose Manuel Odriozolak Euskaltzaindiak eta BBKk antolaturiko *Mikel Zarate saio* saria, aurton ere berak eman digulako saio-prosaren erakusgarririk onenetariko bat. Saio-prosa, baina era berean, giza zientzien eta zientzi sozialen arteko bilgunean murgiltzen den prosa bat delarik, baita prosa zientifikoaren eredua ere: zehatza, argia eta aukera ematen duena emandako argudioak erantzuteko. Hain zuzen, horregatik eman zaio *Nazio entitate eta eskola* izeneko saioari, aurton Mikel Zarate saria.

\* \* \*

*Jean Haritschelhar*

Lau sariak banatuak izan dira. Aspaldi honetan BBKk eta Euskaltzaindiak sortu dituzten sariak badute arrakasta eta, dudarik gabe, eskuz esku jarraikiz bi erakundeek segituko dute helburu berbera oraindik aintz urtez. Berriz ere eskerrak BBKri, epaimahaikideei eta zorionak saridunei. Bukatutzat ematen du gure goiz honetako ekitaldia.

## **BBK-EUSKALTZAINDIA: literatura sariak**

*Bilbo, 1999, abenduak 16*

Euskaltzaindiak eta BBK-k aurtan deitutako Literatura Sarien lehiaketara aurkeztu direnen kopurua honako hauxe da:

- Txomin Agirre eleberria, bederatzi (9) lan aurkeztu dira.
- Toribio Alzaga, antzerkia, bi (2) lan.
- Felipe Arrese Beitia, olerkia, bederatzi (9) lan.
- Mikel Zarate saioa, bost (5) lan,.

Bestaldetik, kasu bakoitzean irabazle nor izan den erabaki duten epaimahaikideak ondoko hauek izan dira:

- Txomin Agirre, eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Alzaga, antzerkia: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia, olerkia: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona.
- Mikel Zarate, saioa: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Andolin Eguzkitza.

Sariei dagokienez, Txomin Agirre eleberri-sariaren irabazleak 1.300.000 pezetako saria jasoko du. Toribio Alzaga antzerki-sariaren irabazleak, berriz, 800.000 pezeta. Felipe Arrese Beitia olerki-sariaren irabazleak 800.000 pezeta. Eta Mikel Zarate saio-sariaren irabazleak 1.000.000 pezeta. Diru-kopuru guztiek indarrean dagoen atxekipen fiskala izango dute.

Irabazle bakoitzari ohorezko diploma bana eskainiko zaio, Literatura Sariak antolatzen dituzten erakunde bien izenean.



## **PREMIOS LITERARIOS DE EUSKALTZAINDIA Y LA BBK**

*Bilbao, 1999-ko abenduak 16*

El número de trabajos presentados en cada una de las modalidades que comprenden los Premios de Literatura de Euskaltzaindia y la BBK son los siguientes:

- Txomin Agirre novela: nueve (9) trabajos presentados.
- Toribio Altzaga teatro: dos (2) trabajos.
- Felipe Arrese Beitia, poesía: nueve (9) trabajos.
- Mikel Zarate, ensayo: cinco (5) trabajos.

Por otra parte, ésta es la composición de los Jurados que han decidido los premios en cada modalidad:

- Txomin Agirre, novela: Gorka Aulestia, Txomin Peille y Ana Toledo.
- Toribio Altzaga, teatro: Eugenio Arozena, Daniel Landart y Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia, poesía: Jon Kortazar, Mikel Lasa y Juan Mari Leikuona.
- Mikel Zarate, ensayo: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita y Andolin Eguzkitza.

La dotación de los premios es la siguiente: el ganador del premio Txomin Agirre de novela recibirá 1.300.000 pesetas. El del Toribio Altzaga de teatro 800.000 pesetas. El del Felipe Arrese Beitia de poesía 800.000 pesetas. Y el del Mikel Zarate de ensayo 1.000.000 pesetas. Todas las cantidades estarán sometidas a la retención fiscal correspondiente. Asimismo, cada ganador recibirá un diploma de honor, en nombre de las dos instituciones que organizan los premios de Literatura.



## MIKEL UGALDE UGARTE

TORIBIO ALTZAGA ANTZERKI-SARIA 1999

### “BAKE BILTZARRAREN ILDOTIK”

Bakearen gaiaren inguruan egituratutako antzerki lana da. Gure herrian gerta daitezkeen hainbat gatazka gune haintzat hartu eta horren inguruan halako hausnarketa baten bidetik jarraitzera deitzen gaitu Mikel Ugaldek. Langabezia, euskararen inguruan hainbatek sortu nahi duen auzia, etorkinen inguruko hainbat jarrera, familia barruan gerta daitezkeen gorabeherak eta azkenik, bakebide politikoa, eta berau sendotzeko zenbait politikarik erakusten duen ezintasuna ditu egileak lan honetan mintzagai. Bakearen gaia, bada, era orokortuan hartzen duela esan daiteke. Beste era batera esanda, arlo bakoitzean bakebidea zabalduz planteatzen du gure gizarteak aldarrikatzen duen bakera eraman gaitzakeen irtenbidea.

### Mikel Ugalde Ugarte

Errenterian 1940an jaioa. Lanbide heziketan elektrizista ikasi ondoren, Donostiako Apaizgaitegian filosofia ikasketak egin. Erroman filosofia ikasi eta Valentzian lizentziatua. Helbideen munduan aritua: Zeruko Argian, Eginen lehen aldian, irratian herriko berri emaile bezala. Sindikalgintzan ELAn bost urte egin eta gero, bere urterik gehienak irakaskuntzan eman ditu Santo Tomas Lizeoan, Txingudi ikastolan, Bidebietan, Azpeitian. Gaur egun Donostiako pedagogia aholkularitzategian dihardu. Euskararen Aholku Batzordean lau urte egin zituen bertako lan batzordeen koordinazio lanetan.

Aspaldi honetan isildu samartua den arren, artikulu ugari idatzi izan du *Zeruko Argian* eta *Deian*. Inoiz *Egunkarian* ere iritzi artikuluak kaleratzen ditu. *Langileria historian zehar* izeneko bi liburu idatzi zituen. Horretaz gain, itzulpen lanetan ere aritu izan da. Andoni Kortaren omenez idatzitako *Añar-bereñ* bila antzerki lana Egan aldizkarian argitaratu zuen.

Gaztetan Ereintza antzerki taldea martxan jarri zuenetako bat izan zen baina urte asko egin ditu antzerki mundutik at. Duela hiru urte Andoni Kortaren omenaldia zela eta, Ereintza taldea berriro bildu eta geroztik talde lanean dihardu. Joan zen urtean Ugalderen *Jaioko dira berriak* taularatu zuen Ereintza taldeak.

Gaur egun, Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkarteko (EATAE) zuzendaritzako kide da.



## MIKEL UGALDE UGARTE

PREMIO DE TEATRO TORIBIO ALTZAGA 1999

### UNA OBRA EN TORNO A LA BUSQUEDA DE LA PAZ

La obra “Bake biltzarraen ildotik” plantea el momento que actualmente está viviendo la sociedad vasca en la búsqueda de la paz.

El tema de la paz se sitúa en un contexto más amplio. Para ello, a lo largo de la obra se recorren momentos y situaciones que, de alguna manera, pueden ser motivo de conflictos que dificultan la paz. La repercusión que el paro tiene en el ámbito juvenil, la actitud que en ocasiones se muestra en torno al tema de la inmigración de ciudadanos africanos, el interés que determinados grupos tienen por convertir el euskera en fuente de problemas y conflictos, la propia convivencia familiar con las consiguientes dificultades sobre decisiones que han de adoptar los hijos y la incapacidad que algunos políticos demuestran por encarar el tema de la paz constituyen el conjunto de temas sobre los que el autor ha construido su obra.

### Mikel Ugalde Ugarte

Nació hace 59 años en Erretereria. Después de estudiar para electricista acude al seminario de Donostia donde estudia Filosofía. En Roma cursa estudios de Filosofía obteniendo posteriormente la Licenciatura de Filosofía y Letras por la Universidad de Valencia. Interesado por el mundo de la comunicación en euskera, trabaja en el semanario vasco *Zeruko Argia*, así como en los comienzos de la vida de *Egin*. Posteriormente, después de un período de cinco años en la Federación de Empleados y Técnicos de ELA, se dedica a la enseñanza de Lengua y Literatura Vasca en Enseñanzas Medias.

Actualmente participa como miembro del Centro de Orientación Pedagógica de Donostia, en el programa de normalización que llevan a cabo centros escolares de la capital guipuzcoana. Ha tomado parte en el Consejo Asesor del euskera, como coordinador de las comisiones especiales intervinientes en dicho consejo.

Ha publicado una historia del movimiento obrero y tiene traducidos dos libros dedicados a la pintura vasca y la historia de Gipuzkoa, respectivamente. La revista *Egan* publicó la obra teatral *Añarberen bila* (En busca de Añarbe) dedicada a la memoria de Andoni Korta, creador y director del grupo de

teatro Ereintza. A lo largo del pasado año, el citado grupo interpretó la obra de Ugalde *Jaioko dira berriak*, de corte costumbrista.

En la actualidad forma parte de la junta directiva de EATAE, agrupación de grupos de teatro amateur en euskera.

## AITOR ARANA LAUZURIAGA

TXOMIN AGIRRE ELEBERRI SARIA 1999

### “TPUIN-ENTZULEA”

Gizon irakurzale bat munduko ipuinik onenaren bila dabil eta horretarako emakume idazle ezagun bat bahitu du. Bertatik ihes egiterik ez dagoen bere etxetzarrean sartu eta handik ihes egiterik ez duela erakutsiko dio, harik eta ipuinik onena berari kontatu arte. Idazleak, direnak eta ez direnak egingo ditu askatasuna berreskuratzearren, ihesaldiak prestatuz eta, aldi berean, zorioneko ipuin on hori asmatu nahian.

### Aitor Arana Lauzuriaga

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Hamazazpi urterekin idazten hasia. Lau urtez (1983-1987) euskara irakaslea izana Legazpiko AEK eta Udal Euskaltegian. *XUT* literatur aldizkariko lankide eta arduraduna. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna.

Liburu sortuak:

*Azkonarren laguna* (Elkar, 1987)

*Loaren bidez* (SM, 1990)

*Afrikako semea* (Elkar, 1991)

*Jainko Txikia* (Elkar, 1994)

*Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994)

*Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994)

*Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995)

*Buztantxoren larrialdiak* (Elkar, 1996)

*Haize gorria* (Kriselu, 1996)

*Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997)

*Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997)

*Nijtenda eta Koomon saguzarrak* (Ibaizabal, 1998)

*Herauskorritse* (Mensajero, 1998)

Itzulpen lanak ere eginak ditu, eta esperantoaren inguruan iharduteaz gain (*Esperantoa ikasgai*: Hots, 1990), euskara-hungariera oinarritzko hiztegia (*Gura* 1998), eta ingelesezkoa (Hippocrene Books, 1998) landu ditu.

Sarien artean, azpimarratzekoak dira *Bilintx* (1987), *Baporea* (1989), *Azkue* (1990), eta *Txomin Agirre* (1999).

## AITOR ARANA LAUZURIAGA

PREMIO DE NOVELA TXOMIN AGIRRE 1999

### *IPUIN-ENTZULEA*

Un lector se lanza a la búsqueda del mejor cuento del mundo, y con ese propósito secuestra a una conocida escritora. La encierra en su casa, de la que será imposible escapar hasta que no le narre el mejor de los cuentos. La escritora hará lo imposible por recuperar la libertad; preparará una fuga, y al mismo tiempo, intentará crear ese cuento tan ansiado por su secuestrador.

### **Aitor Arana Lauzuriaga**

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Comienza a escribir a los diecisiete años, ejerce como profesor de euskara entre los años 1983 y 1987 en AEK y en el euskaltegi municipal de Legazpi. Participa en calidad de responsable en la revista literaria *XUT*. A lo largo de seis años ha sido redactor, y también director, de la revista cultural de Legazpi *HOTS*.

Obra literaria:

*Azkonarren laguna* (Elkar, 1987)

*Loaren bidez* (SM, 1990)

*Afrikako semea* (Elkar, 1991)

*Jainko Txikia* (Elkar, 1994)

*Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994)

*Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994)

*Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995)

*Buztantxoren larrialdia* (Elkar, 1996)

*Haize gorria* (Kriselu, 1996)

*Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997)

*Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997)

*Nijterida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998)

*Herauskorritse* (Mensajero, 1998)

También se ha prodigado en el campo de la traducción y es autor de varias obras sobre el esperanto (*Esperantoa ikasgai*: Hots, 1990). Asimismo ha

elaborado un diccionario euskara-húngaro (Gura, 1998), y otro euskara-inglés (Hippocrema Books, 1998).

Entre los premios recibidos, cabe destacar los siguientes: Bilintx (1987), Baporea (1989), Azkue (1990), y Txomin Agirre (1999).

## JUAN LUIS ZABALA ARTETXE

FELIPE ARRESE BEITIA OLERKI-SARIA 1999

### HAUTSIA NATZA

“Inongo jainkorik eta inolako federen babesik gabe eta hil egin behar duela jakinik bizi den gizakiaren haustura” da poemarioaren gai nagusia, Zabalak dioenez, “eta gai nagusi horri dagokio poema gehienen tonua ere”.

“*Hautsia natza* liburuko poemagintza surrealismoaren eta abangoardiaren zordun da”, Zabalaren aburuz, “baina badu *affer-punk* deitu izan den joera musikaren arrastorik ere”. Nitasun guztiz pertsonal baten barne-hausturaren azalpenaren bidez, egungo eta hemengo gizakia islatzen saiatu naiz, bertso librean, gordin, lakar eta lakatz, baina zuzentasunez eta neurritz hala ere adierazpide poetikoari dagokionez. Kaosa kaiolatzeko ahalegin ordenatu bat da, bere ahaleginaren antzutasunaz kontzientzia osoz jabetua”.

### Juan Luis Zabala Artebce

Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963) Euskal Filologian lizentziatua da, eta 1990z geroztik *Euskaldunon Egunkaria*-n egiten du lan, Kultura saileko erredaktore. Egun, hala ere, lanuztean edo eszedentzian dago, irakurtzeko eta idazteko denbora gehiago izateko.

Narratibiko zazpi libururen egilea. Eta argia ikusten duenean bere lehen poema liburua izango du *Hautsia natza*. Honako hauek dira Zabalak orain artean argitaratutako zazpi liburuak:

*Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (Eikar, 1985; nobela)

*Ahantzuraren artxipielagoa* (Elar, 1987; ipuinak)

*Gertaerei begira* (Elar, 1988; ipuinak)

*Kaka esplikatzen* (Elkar, 1989; nobela)

*Sakoneta* (Susa, 1994; ipuinak)

*Galdu arte* (Susa, 1996; nobela)

*Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkarlanean, 1999; gazte-literaturako ipuin bilduma)

Liburuez landa, ipuin eta artikulu ugari argitaratu du hainbat aldizkari eta egunkaritan: *Susa, Literatur Gazeta, Plazara, Hemen, Euskaldunon Egunkaria, Egin, Gara, Egan, Ostiela!, Buztinikaria, Putz...*

Hainbat sari ere irabazi du: Tene Mujika ipuin lehiaketaren lehen edizioa 1984an; Resurreccion Maria de Azkue saria urte berean, *Zigarrokin baten azken keak* nobelarekin; Donostia Hiria ipuin lehiaketako 2. Saria eta kazetari-tzako Rikardo Arregi saria 1994an; euskarazko narratibako Kritikaren Saria 1997an. *Galdu alde* nobelarekin.

## JUAN LUIS ZABALA ARTETXE

### PREMIO DE POESIA FELIPE ARRESE BEITIA

#### HAUTSIA NATZA

“La ruptura que sufre en su seno un ser que vive sin creencia en ningún dios ni fe alguna, que además subsiste a sabiendas de que su muerte se encuentra cercana”. Este es, según el autor de la obra, el tema central de la misma.

“El bagaje poético de *Hautsia natza* se apoya en buena parte en el surrealismo y la vanguardia”, si bien, explica Zabala, “también muestra cierto tono de *after-punk*. He tratado de dar fiel reflejo de un ser humano contextualizado en la época actual y en un espacio concreto, mediante la ruptura interior de la mismidad más personal, de forma cruda, valiéndome del verso libre, pero manteniéndome formalmente dentro de las reglas de la expresividad poética. Se trata de una forma ordenada de enjaular el caos, pero siempre consciente de que éste es un esfuerzo baldío”.

#### Juan Luis Zabala Artetxe

Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963), licenciado en Filología Vasca, es desde 1990 redactor de Cultura en *Euskaldunon Egunkaria*, si bien en la actualidad se encuentra en excedencia y dedica su tiempo a la lectura y la escritura.

Su trabajo narrativo se resume en un total de siete libros y *Hautsi natza* será su primera obra poética publicada. Estos son los libros que han visto la luz hasta el momento:

*Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (Elkar, 1985; novela)

*Ahantzuraren artxipielagoa* (Elar, 1987; cuentos)

*Gertaerei begira* (Elar, 1988; cuentos)

*Kaka esplikatzen* (Elkar, 1989; novela)

*Sakoneta* (Susa, 1994; cuentos)

*Galdu arte* (Susa, 1996; novela)

*Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkarlanean, 1999; colección de cuentos de literatura juvenil).

Asimismo es autor de infinidad de artículos de prensa en diversos medios de difusión escrita: *Susa, Literatur Gazeta, Plazara, Hemen, Euskaldunon Egunkaria, Egin, Gara, Egan, Ostiela!, Buztinikaria, Putz...*

También es acreedor de un buen número de premios: la primera edición del concurso de cuentos Tene Mujika, en 1984; el premio Azkue ese mismo año, con la novela *Zigarrokin baten azken keak*; segundo premio del concurso de cuentos Ciudad de Donostia, y premio de trabajos periodísticos Ricardo Arregi en 1994; Premio de la Crítica de Euskadi 1997 por su novela *Galdu arte*.

# **JOXE MANUEL ODRIOSOLA LIZARRIBAR**

MIKEL ZARATE SAIO-SARIA 1999

## ***NAZIO-IDENTITATE ETA ESKOLA***

### **1. Estatu-nazioaren aroa**

– Estatu-nazioaren nazionalismoan eskola izan da nazio-identitatearen sentimendua eta kultura gehien transmititu duena.

– Kontzientzia nazionalaren ideologia eskola-umearen baitan txertatzeko asmoa zehatza eta planifikatua izan da Estatu-nazioaren aldetik.

– Nazio-identitatea ez da nork bere eskura aukeran daukan nortasun-bidea. Ez da aukerakoa, nahitaezkoa baizik, hots, sozializazioaren prozesuan geure izatearen oinarrian dagoen errealitate soziokulturala da.

### **2. Globalizazioaren aroa**

– Pentsamendu bakarraren aro berri honek lehendik hegemonikoa den Estatu-nazioaren identitate nazionala ez du arriskuan jartzen, baina bai estatuarik gabeko nazio menderatuen nortasuna.

– Erlatibismo kulturala eta unibertsalismoa uztartuz sortuko diren balio nazionalak sustatu behar genituzke euskal nazio-identitatearen garapena lortzeko.

### **3. Euskal eskola eta nazio-identitatea**

– Euskal nazionalismoak oraindik ez du euskal eskolaren bidez euskal nortasuna garatzeko biderik eta modurik aurkitu. Ez asmoetan ez eguneroko jardunetan.

– Euskara umezurtz dabil erabat eskola-umeen artean, ez dauka behar hainbateko hartu-emanik gainerako identitate-elementuekin (kultura, histo-

ria...). Euskal balio propioak garatu behar lituzkeen euskal eskolaren oinarriak finkatu gabe dauzkagu oraindik.

### **Joxe Manuel Odriozola Lizarribar**

Jaioterria: Altzo (1948-2-9)

Lanbidea: Euskara irakaslea Pasaiaiko Udal euskaltegian

Argitaratutako liburuak: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* (UEU, 1992). *Soziolinguistikaren atarian* (Euskaltzaindia-BBK Mikel Zarate saria, 1992). *Hizkuntza, kultura eta gizartea* (Euskaltzaindia-BBK, Mikel Zarate saria. 1997).

# **JOXE MANUEL ODRIEZOLA LIZARRIBAR**

PREMIO DE ENSAYO MIKEL ZARATE 1999

## *LA IDENTIDAD NACIONAL Y LA ESCUELA*

### **1. En la época del Estado nación**

– En el nacionalismo del Estado-nación la escuela ha sido el principal instrumento transmisor del sentimiento de la identidad nacional.

– El estado-nación ha mostrado una voluntad clara y planificada de transmitir, desde la propia escuela, la ideología de la conciencia nacional.

– La identidad nacional no es algo que las personas tengan a su disposición de una forma optativa. No es una elección, es algo evidente e inevitable, una realidad sociocultural que está presente en nuestro proceso de socialización.

### **2. En la época de la globalización**

– Esta nueva era del pensamiento único no pone en peligro la identidad nacional del estado-nación hegemónico, pero sí la personalidad de las naciones sin estado.

### **3. Escuela vasca e identidad nacional**

– El nacionalismo vasco no ha encontrado aún el camino para definir la personalidad vasca a través de la escuela vasca.

– El euskera está totalmente huérfano entre los niños de edad escolar, no tiene las suficientes relaciones con el resto de los elementos que conforman la identidad (cultura, historia...). Todavía están sin perfilar las bases de una escuela vasca que garanticen la consecución de unos valores vascos propios.

**Joxe Manuel Odriozola Lizarribar**

Lugar de nacimiento: Altzo (9-2-1948)

Profesión: profesor de euskera en el Euskaltegi Municipal de Pasaia.

Obra publicada: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* (UEU, 1992). *Soziolinguistikaren atarian* (Euskaltzaindia-BBk Premio Mikel Zarate, 1992). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*, (Euskaltzaindia-BBk, Premio Mikel Zarate, 1997).

## R. M. AZKUE sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea

1999-XI-12

Jose Antonio Arana Martija

Eguerdi on. Azkue literatur bultzatzailea zela aipatu du Henrikek, baina zertxobait gehiago esan nahi nuke horretaz, zeren eta gauza bat da literatura orokorra, esan nahi dut nagusiek edo denek egiten duten literatura, edozein motatako literatura, baina sari honi dagokionetik, gazte eta gaztetxoek literatura saritzen dugu hemen Euskaltzaindiak eta BBKk, eta zertxobait esan nahi nuke gazteen eta gaztetxoek literaturari buruz, gehienbat argitzeko zergaitik sari honek daukan **Azkue**, gure R.M. Azkueren izena. Dakizuenez, Azkue euskararen inguruan arlo askotan ibili zen lanean: morfologian, sintaxian, e.a. Beraz, euskara goitik behera eta bazter batetik bestera arakatu eta ikertu zuen. Pixka bat arraro egiten da nola aipatu duen Txomin Agirreraren *Auñemendiko lorea* Henrikek, Txomin Agirre nagusia baitzen, abadea eta nagusia; baina zergatik gaztetxoek edo gazteen sariei Azkue saria jarri? Badirudi Azkue bere gizatasunean, gizon ederra, abade ederra, handia, bere kontu eta bere jakituriaz nagusia, gazteekin izan zuela euskararekiko ardura ere. Eta hastearren Azkueren linea, gazteen literaturan, aipatu behar genuke, Bilboko institutuko euskal katedra sortu zenean 1888an bere merituen artean aurkeztu zuela ipuin bat: *Grankanton arrantzaleak*; berez, ez zen izatez ipuin bat, baina bai kontakizun bat Lekeition gertatutako batekin, eta hori haurren antzeko idazkeraz edo egina zen.

Hiru zarzuelatxo egin zituen gazteentzat: 1898an *Sasi eskola*, beste bat *Aitaren bildur* 1917an eta *Colonia inglesa*, hirurak haurrentzat egindakoak. Esan nahi dut berak bere kabuz, bere buruz edo bere sortzez gazteentzat egindako lanak direla. *Euskalzale* aipatu du Henrikek, baina ez bakarrik literatura, baizik eta hezkuntza edo euskarazko hezkuntza bultzatu zuen Azkuek, batetik, ikastetxea Bilboko Jardines kalean sortuz eta bestea, Ploermel fraideekin sortutako ikastola, eskola bat, haurrei euskarazko hezkuntza emateko, Berriotxoaren izenaz Bilbon sortua. *Peru Matrak* eta *Pearanton* da beste ipuin bat Azkuek idatzitakoa eta hauek eta beste ipuin batzuk bildu ziren La Gran Enciclopedia Vascak argitaratu zuen liburuxkatxo baten: *Azkueren ipuinak*. Beraz, badugu sari hau Azkuerengan oinarritzeko arrazoia, Azkue asko arduratzen zelako hasiera hasieratik edo gazte gaztetandik, haurra, txikia zela eta gaztea euskaraz

idazten eta euskaraz irakurtzen animatzeko eta, nola ez, euskal literatura bultzatzen. Aurtengo sariak direla eta, gaur eskuetara heldu zaigun liburua begiratu dut eta holako sailkapentxo bat egin dut: gertatzen da lau bizkaitar direla irabazle, lau Bizkaiko herriko idazleak, Busturia, Ondarroa, Bedia eta Zornotza. Gipuzkoak dituela pilatxo bat, gehien idatzi dutenak, eta sari gehien irabazi dutenak ere Gipuzkoakoak dira: Azpeitian hiru, Pasaia San Pedron hiru eta Orion hiru; beraz, sari gehien irabazi duten herriak hiru horiek dira. Gero daude banan banakoak, biko bat ere badago, Beasain, eta banan banakoak, Urretxu, Zestoa, Irun, Segura, Zarautz, Andoain eta Oiartzun. Eta pozgarria dena, bi arabar, bata, Lantziegokoa eta beste bat Mainuetakoa. Beraz, gure hermengo Euskal Komunitatearen esparruan edo hiru probintzietan edo hiru herrialde historikoetan, hirurak daude sarituak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, nahiz eta Gipuzkoa nagusi izan. Beraz, nik esan nahi nuke Euskaltzaindiak zor diola halako zorion berezi bat Gipuzkoari, gazteen artean gehien bultzatzen duelako euskararen erabilera narrazio eta olerki saioetan behintzat. Ez ditut oraindik irakurri, zeren eta gaur bertan jaso dugu liburua; pozik irakurriko dut eta poztu ere egingo naiz, zeren eta begiradatxo bat eman diot eta gauza oso politak daude hemen. Beraz, pozgarria izan dadila sari hau eskuetan izatea eta hurrengo urteetan ere jarraitzea, gazteen artean gure literatura bultzatzeko.

Eta besterik ez.

## R.M. AZKUE sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea

Bilbo, 1999-XI-12

Henrike Knörr

Egun on, Euskaltzainburuaren izenean egokitzen zait hemen zenbait hitz esatea, oso-oso labur.

Dakizuen bezala, Euskaltzaindiaren zereginen artean dago literatura lantzea, sustatzea; hori dago hasierako Arautegian eta oraingoan ere. Beraz, zer esanik ez, eremu hori gure-gurea da eta horrela sentitzen dugu. BBKri esker egiten da lehiaketa hau eta biziro eskertu nahi dugu haren laguntza. Hemen dago, Jose Ramon Bilbao. Laguntza ematen du BBKk eta laguntza fisikoa eta morala noski eta, nola ez, lanak epaitzen eta jarduten dutenak. Laguntzaile horien artean aipatu behar da, urtero bezala, Juan Luis Goikoetxea, hemen nire eskuinean dagoen urgazlearen lan bikaina. Nik bakar-bakarrik aipatu nahi nuen zer garrantzi handia duen lehiaketa honek, eta gehituko nuke **Azkuere**n izena daramala eta duela ehun urte eta gehiago Bilbon bertan ateratzen zuen gure lehenbiziko euskaltzainburuak, hau da, Azkuek, aldizkari bat *Euskalzale* izenekoa, eta *Euskalzale* aldizkariaren orrialdeak ikustatzen badituzue, berehalaxe konturatuko zarete Azkuek ere zer garrantzi handia ematen zion literaturari. Eta hark sortu zuen beste lehiaketa bat, zeinetan, besteak beste, irabazi zuen Txomin Agirrek saria, hain zuzen ere *Auñemendiko lorea* eleberriarekin. Horrekin guztiorrekin esan nahi dudana da badela hari bat, inoiz, zorionez, kanpoko gertaera tristeengatik izan ezik eten ez dena. Baina hari bat izan da eta beti etxe honetan saiatu gara literatura lantzen eta baita ere, nola ez, gazte-txoek eta gazteek egiten duten literatura lantzen.

Beraz, Euskaltzaindiaren izenean berriro ere agertu nahi nuke gure poza eta, nola ez, gure zoriona. Eta orain Jose Antonio Arana Martijak xehekiago emango du lehiaketa honen berri eta azalduko aurtengo aldiaren fruituak ere.



## R. M. AZKUE SARIAK

*Bilbo, egoitza, 1999-XI-12*

*Jose Antonio Arana Martija*

Eguerdi on. Azkue literatura bultzatzailea zela aipatu du Henrike Knorrek, baina zertxobait gehiago esan nahi nuke horretaz, gauza bat baita literatura orokorra, nagusiek edo denek egiten duten literatura, edozein motatako literatura esan nahi dut, eta bereziki, sari honi dagokionetik, gazte eta gaztetxoek literatura, gaur eta hemen Euskaltzaindiak eta BBK saritzen duguna. Idazle gazteen adinak nolabaiteko muga jartzen dio sorkuntza eta idazkerari, oraindik helduak ez direlako, teoriarik behintzat, nagusien mailara.

Sari honek Azkueren izena zergaitik daraman azaldu nahi nuke. Badirudi, lehen begirada baten, eta gehiago sakondu gabe, gure Resurreccion Maria Azkue goi mailako ikerle eta idazle zela. Euskararen inguruan arlo askotan ibili zen lanean: lexikoan, morfologian, syntaxian, fonologian eta beste abar luze baten, hizkuntzaren normatibizazioan eta batasunaren bidean. Literatura ere jorratu zuen, berak sortutako antzerki, eleberririk eta ipuinetan. Etnologia eta musika ere, herri musika eta bere sormenekoa izan zituen ikerketa eta emaitzako gogoko lanak. Halako euskaltzale handia, gure hizkuntzan eta kulturaren erraldoia, nola gazteen literaturari atxeki? Zelan sari hauei izena emateko Azkue handiaren izena ez erabili?

Hasteko, esan dezadan argi zeukala Azkuek txiki-txikitatik ama hizkuntza ikasi eta erabili behar zela, eta etxeko eskola paregabe hori ez zeukanak, hainbat arinen bigarren eskolan egin behar zituela ahaleginak euskara ikasteko. Hori izan zen bere jardun-bidea 1888an Bizkaiko Institutuko Euskal Katedra irabazi zuenetik. Katedra hori irabazteko lehiaketara ipuin bat aurkeztu zuen eskariarekin batera: Grankanton arrantzaleak. Ipuin gehiago argitaratu zituen gero, tartean Peru Matraketa ta Pedranton, Sabino Aranarekin batera sortu zuen Abeja aldizkarian (1889). Euskaltzale aldizkaria sortu zuenean (1897) hainbat ipuin idatzi zituen, gehienak gero bilduta liburu batean La Gran Enciclopedia Vascak argitaratu zituenak (1968). Bilboko jardines kalean sortu zuen Euskal Ikastetxea (oraingo ikastolen antzekoa) non euskal heziketa ematen zitzaien gaztetxoei. Hemen antzeztu ziren Azkuek idatzitako bi zarzuela-txo: *Sasi eskola* eta *Aitaren bildur*, haur eta gazteentzat asmatuak. Bere gidaritzatik kanpo ere bultzatu zuen Ploermeleko fraideek haurrentzat Bilbon sortu

zuten Berrio-Otxoa izeneko eskola. Haurren heziketa dela eta 1897an argitaratu zuen Eskolak eta ikastetxeak lana eta urte berean Kristinauaren ikasbide laburtua. Alemanian musika ikasketak bukatuta itzuli zenean, hango hezkuntza sistema eredu moduan hartuz idatzi zuen *La escuela elemental alemana* (1916). Badira arrazoiak gazteen literatura sariei Azkueren izena emateko.

Aurtengo sariak direla eta, gaur eskuetara heldu zaigun liburua ikusita, holako sailkapentxo bat egin dezakegu: lau bizkaitar agertzen dira sarituak, herri hauetakoak: Busturia, Ondarroa, Bedia eta Zornotza. Gipuzkoarrak dira gehien sarituak: Azpeitian, Pasaia San Pedron eta Orion hiru, Beasainen bi eta Urretxun, Zestoan, Irunen, Seguran, Zarautzen, Andoainen eta Oiartzunen bana. Eta benetan pozgarria dena, bi arabar ere sarituak izan direla, Lantziego eta Mainuetakoak. Beraz, gure Komunitateko hiru herrialde historikoetako gazteek irabazi ditute sariak. Aipamen berezi bat zor dio Euskaltzaindiak Gipuzkoari, gazteen artean gehien bultzatzen duelako euskararen erabilera narrazio eta olerki saioetan. Eta zorionak, nola ez, saridunei.

## **AZKUE LITERATURA SARIAK: 1998ko liburua eta 1999ko oinarriak**

*Bilbo, 1999-XI-12*

*Jose Ramon Bilbao,  
Bilbao Bizkaia Kutzaren elebitasun Zerbitzuko burua*

Eguerdi on, mahaikideok eta hona etorri zareten kazetari, idazle gazte, euskaltzain eta lagunok.

Ikusi eta entzun duzuen moduan, ekintza xume honetan, euskal literaturaz gazteari buruzko berriak eman ditugu.

Batetik, aurtengo Azkue Literatur Sarien oinarrien berri eman dugu, eta bestetik, igaz irabazle izan ziren lanekin moldatutako liburua aurkeztu.

“Azkue” sariak, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren ekimenez antolatzen dira urtero, olerki eta narrazio arloetan, gaztetxo (10 eta 13 urte bitarteko) eta gazteentzat (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Sari hauek, erakunde biok lankidetzan urtero antolatzen ditugun literatur sariaketa multzoan sartuta daude: gazteentzat den honetaz gain, idazle helduentzat, Txomin Agirre eleberrari arloan, Toribio Alzaga antzerkian, Felipe Arrese Beitia olerkian eta Mikel Zarate saioan ere urtero egiten baitira.

Gainera, horietariko batzuk, 1958tik hona egiten dira. Ez da makala 41 urtez irautea elkarlanean!

Oraingo honetan mintzagai dugun “Azkue” izenekoan, hiru sari ematen dira arlo (olerkia edo narrazioa) eta adin bakoitzeko. Lehenengo sariari 50.000 pta. egokitzen zaizkio, bigarrenari 40.000 eta hirugarrenari 30.000 Dena den, badakigu honelakoetan diru kopurua inportantziarik gutxienekoa dela.

Honez gain, 10.000 pezetako laguntza dago irabazleen laguntzaileentzat. Oro har, laguntzaileok, lehiakide gaztea parte hartzera animatu eta sormen lanean laguntzen dieten irakasle edo senitartekoak izaten dira. Ezin dira aipatu barik utzi, euren iradokizun eta zuzenketekin, gazteen literaturarekiko atxikimendua, sormenezko jardura bilakatzea lortzen dutelako.

Aurtengo sariketak aldaketa txikitxo bat dakar, lanak aurkezteari dagokion atalean. Aurten honela dio: “Lanak, idazmakina edo ordenagailuz egi-

nak egon behar dute. Hau da, ez da eskuz idatzitako lanik onartuko". Aldaketa hau, epaimahaikoei kasu eginez sartu dugu, batzuetan eskuz egindako lanak irakurtzea zail gertatzen zaiela eta. Dena den, gaur egun, gazteentzat ez dugu uste inolako oztopoa denik, sarritan eurek direlako gurasooi informatika arloan eskolak ematen dizkigutenak eta ez alderantziz.

Ekitaldiaren bigarren atalean lan sarituak biltzen dituen liburua aurkeztuko dugu. Hau sari gehigarri moduan egiten da, idazleak, idazterakoan, bereztzat egiten duelako, baina baita beste norbaitek irakurtzeko ere, eta hori, lana argitaratuta baino ez da lortzen. Eta horixe egiten dugu, idazle kume eta kimu hauei, aukera hau eskaintzeko.

Eta liburuari dagokionez, aurtengoan, iazko irabazleez gain, epaimahaia-  
ren ustez argitaratzea merezi zuten beste lan batzuk ere badakartzala esan be-  
har. Guzti honen antolaketa eta prestaketa, Juan Luis Goikoetxea irakaslearen  
eskuetan egon da, aurreko urteetan legez. Beraz, eskerrik asko berari ere hain  
fidel jokatzegatik.

Guri orain, BBK eta Euskaltzaindiari, liburu honi ahalik eta hedapen han-  
diena eta txukunena ematea dagokigu.

Beste barik, eskerrik asko.

## **R. M. AZKUE SARIAK, 1999**

*Bilbao, 2000-I-28*

Gaur, ostirala, urtarrilaren 28an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 1999ko Resurreccion Maria Azkue izeneko literatura sariak banatu dira. Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak eta gaztetxoak literaturara hurbiltzen laguntzeko sortu ziren.

Jakina denez, bi maila daude Azkue sarietan, hots, A maila -10 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat- eta B maila -14 eta 17 urte bitartekoentzako eta maila bakoitzean narrazioa eta olerki-lanak onartzen dira. Bai mailari begira, bai eta saila kontutan hartuz ere, hauxe da partaidetza kopurua:

A mailan eta olerkian, 34 lan aurkeztu dira.

A mailan eta narrazioan, 49.

B mailan eta olerkian, 70.

B mailan eta narrazioan, 113.

Orotara, beraz, 266 lan aurkeztu dira edizio honetara, iaz baino gutxiago, orduan 491 lan bidali baitziren.

### **EPAIMAHAIKIDEAK**

Azkue Literatura sarietan, aurtengo edizio honetan, epaimahaikoak ondokoak izan dira:

— A mailan: Amagoia Lopez de Larruzea, Manu Lopez Gaseni eta Gerardo Markuleta.

— B mailan: Joseba Butron, Joan Otaegi eta Xabier Kaltzakorta.

### **IRABAZLEAK**

Bi mailetan, narrazioan zein olerkian, lehenengoari 50.000 pezetako diru-saria eman diote, bigarrenari 40.000 eta hirugarrenari 30.000 pezetakoa. Bestalde, gazteak lana egiten lagundu dituzten irakasle edota senitartekoari 10.000 pezetako saria eman diote.

**A MAILAKO** epaimahaikideek honako sari hauek emateko erabakia hartu dute:

### **Narrazio alorrean**

**Lehen Saria:** “Malkoen gainetik aurrera”, Antton Alberdi Estibaritz-ena. Anton Alberdi Elgoibarko ikastolako ikaslea da eta laguntzaile Andres Alberdi Gorostiaga izan du.

**Bigarren Saria:** “Kondaira”, Jon Fernandez San Martin-ena. Ondarroako Txomin Agirre ikastolakoa da eta Maria Luisa Larreina Ibarlucea izan du laguntzaile.

**Hirugarren Saria:** “Igor-en egunerokoa”, Eneko Perez Iturberena. Lasarte-Oriako Landaberri B.H.I.-ko ikaslea da eta Elena Anso Galartza izan da laguntzailea.

### **Olerki alorrean**

**Lehen Saria:** “Bakea”, Jon Jimenez Martinez-ena. Tafallako ikastolan, Garces de los Fallos izenekoa, ikasten du eta berorren laguntzailea Zaki Iri-so Santos izan da.

**Bigarren Saria:** “Udazkena”, Naiara Izagirre Urangarena. Karmelo Etxegarai Azpeitiko Ikastolan ikasten du eta Axun Uranga Urdanpilleta izan da laguntzailea.

**Hirugarren Saria:** “Bizitza”, Ane Egidazu Arruberena. Durangokoa da eta Iurretako Juan Orobiogoitia B.H.I.-ko ikaslea da. Amaia Egidazu Arrube izan da laguntzailea.

**B MAILAKO** epaimahaikideek, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

### **Narrazio alorrean**

**Lehen Saria:** “Ostadarraren koloreetan zehar”, Ander Audikana Arriolarena. Gasteizko Durana Ikastolakoa da eta Aritz Audikana Arriola izan da laguntzailea.

**Bigarren Saria:** “Ilunbea”, Jon Lecuona Sarasolarena. Zeraingoa da eta Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutukoa da eta Joxean Leunda Loinaz izan da laguntzailea.

**Hirugarren Saria:** “Itzalean”, Miren Imaz Murgiondorena. Besaingoa da eta Txindoki-Alkartasuna Institutuan ikasten du. Gabino Murua Zumalakarregi izan da laguntzailea.

Honez gain, epaimahikideek ondoko lanentzat *akzesita* eta argitaratuak izatea eskatzen dute:

“Postarian”, Maide Alcalde Rastrillarena. Txindoki Alkartasuna Instituta.

“Maitasunak ez du mugarik, Oroitz Maz Morearena. Txindoki Alkartasuna Institutua.

“Herioak ere maite dezake”, Unai Baztarrika Otegirena. Txindoki Alkartasuna.

“Ilargi jainkosa”, Silvia Jimenez-ena.

### Olerki alorrean:

**Lehen Saria:** “Gaur ere ez nak jaioko”, Unai Baztarrika Otegirena. Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuan ikasten du eta Josu Agirre Bikuña izan da laguntzailea.

**Bigarren Saria:** “Zuri” Uxue Alberdi Estibaritz, Elgoibarko Institutukoa eta Andres Alberdi Gorostiaga izan da laguntzailea.

**Hirugarren Saria:** “Errealitatea ote da?”, Munia Iriondo Arriolarena. Donostiako La Salle Ikastetxean ikasten du eta Patxi Ezkiaga Lasa izan da laguntzailea.

Kasu honetan epaimahaikoak ere *akzesita* eta argitaratua izatea eskatzen du hurrengo lan honentzat:

“Iparragirre, Urretxuko koblakaria”, Irati Goikoetxea Asurabarrenarena.

## IKASTETXEEN PARTAIDETZA

Idazle gazteek ikastetxeen bidez bidali dituzte lanik gehienak. 1999ko edizio honetan 49 zentrok hartu dute parte, herri eskola, institutu, ikastola eta ikastetxe pribatuak barne direla. Herrialdeei begira, Nafarroako 9 ikastetxek bidali dituzte euren ikasleen lanak; Gipuzkoan, 19-k gauza bera egin dute; Araban 4 ikastetxek hartu dute parte; eta Bizkaian 17 zentrok bidali dituzte idazlanak. Iparraldetik, berriz, lan bat ere ez da jaso aurtengoan.

Bestaldetik, ikastetxe batzuen partaidetza azpimarratu behar dugu, alegia, Nafarroan: Arantzako Herri Eskolak 24 lan bidali ditu. Gipuzkoan, Donostiako La Sallek 18 bidali ditu eta Beasaingo Txindoki Alkartasuna Institutuak 31 lan aurkeztu ditu eta hiru sari eskuratu: B mailan eta narrazioan, bigarren eta hirugarren sariak eta olerkian lehen saria. Araban, Gasteizko Nuestra Señora de las Mercedes ikastetxeak 26 lan aurkeztu ditu; eta, Bizkaian Iurretako Juan Orobigoitia zentroak 23 lan bidali ditu, Zornotzako Andra Mari Ikastolak 14 lan aurkeztu ditu eta Santurtziko Axular Institutuak 11 lan.

Beraz, eta aurreko urteetako tendentzia berari jarraituz, idazle gehienak Bizkaikoak eta Gipuzkoak direla ikusten dugu eta Nafarroan zein Araban gztetxo gutxiagok hartzen dutela parte. Iparraldean, esan bezala, aurren ez da partaiderik izan.

Irabazleei begira, **A** mailako narrazioan gipuzkoar bi eta bizkaitar bat ditugu. Eta olerkian nafar bat –Tafallakoa– gipuzkoar bat eta bizkaitar bat.

**B** mailako narrazioan, aldiz, arabar bat dago eta gipuzkoar bi. Eta olerkian hiru irabazleak dira Gipuzkoakoak.

Aipatzekoa da ere neba-arreba bi daudela irabazleen artean, **A** mailan narrazioan lehen saria eskuratu duena eta **B** mailan, olerkian, bigarren saria jaso duena. Biok aita izan dute laguntzaile.

Saritutako lanak aurren argitaratuko den liburu batean bilduko dira.

## **R. M. AZKUE LITERATURA SARIAK 1999**

### **A MAILA**

#### **AKTA**

R. M.<sup>a</sup> Azkue 1999 sariketako A mailako epaimahaikideok, Amagoia Lopez de Larruzea, Gerardo Markuleta eta Manu Lopez Gaseni, 2000ko urtarri-laren 20an Gasteizen bilduta, honako sari hauek emateko erabakia hartu dugu:

#### **Narrazio alorrean**

Lehen Saria: “Malkoen gainetik aurrera” (45. zenbakia)

Bigarren Saria: “Kondaira” (33. zenbakia)

Hirugarren Saria: “Igor-en egunerokoa” (27. zenbakia)

#### **Olerki alorrean**

Lehen Saria: “Bakea” (29. zenbakia)

Bigarren Saria: “Udazkena” (16. zenbakia)

Hirugarren Saria: “Bizitza” (5. zenbakia)

Eta arratsaldeko 5:30etan amaiturik, Akta hau sinatzen dugu.

Amagoia Lopez de Larruzea

Gerardo Markuleta

Manu Lopez Gaseni



*Bilbon, 2000ko urtarrilaren 24an*

BBK-k eta Euskaltzaindiak antolaturiko “R. M. Azkue” Literatura Sariak-Idazle gazteak lehiaketako epaimahaia bildurik, honako erabakiak hartu ditugu:

1) B mailako narrazioak sailean, sarituak:

1. saria: Ostadarraren koloreetan zehar, 110. zenb.
2. saria: Ilunbea, 79. zenb.
3. saria: Itzalean, 83. zenb.

Honez gain, hurrengo lanentzat akzesita eta argitatuak izatea eskatzen dugu:

*Postaria*, 80 zenb.

*Maitasunak ez du mugarik*, 87. zenb.

*Herioak ere maita dezake*, 90. zenb.

*Ilargi jainkosa*, 47. zenb.

2) B mailako olerkia sailean, sarituak:

1. saria: *Gaur ere ez naiz jaioko*, 12. zenb.
2. saria: *Zuri*, 23. zenb.
3. saria: *Errealitatea ote da?*, 5. zenb.

Eta hurrengo lan honentzat akzesita eta argitaratua izatea eskatzen dugu:

*Iparragirre, Urretxuko koblakaria*, 32. zenb.

3) Azken urteotan Juan Luis Goikoetxea jnak. egin duen onazketa lana behar-beharrezkotzat jotzen dugu eta edizio honetan saritutakoetan ere lan hori egiteari ezinbestekotzat deritzogu, argitalpenaren kalitatea ziurtatzarren.

4) Eta, azkenik, epaimahaia osatu dugunok sinatzen dugu:

Joan Otaegi

Xabier Kaltzakorta

Joseba Butron

Bilbon, 2000ko urtarrila, Euskaltzindiaren egoitzon.

P.D. Lan sarituen ale bana hartu dugu, sariak banatzeko ekitaldian erreferentziak izateko.

**Narración y Poesía. Niveles A y B****NARRAZIOA "A"**

|                   |                                                                                                                        |
|-------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>1.º premio</i> | ANTTON ALBERDI ESTIBARITZ (5-5-87)<br>Arregitorre 14-2 C 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)<br>943741957<br>Elgoibarko Ikastola |
| <i>Ayudante</i>   | ANDRES ALBERDI GOROSTIAGA                                                                                              |
| <i>2.º premio</i> | JON FERNANDEZ SAN MARTIN (5-4-86)<br>Kamiñalde 33-2 B, 48700 Ondarroa (Bizkaia)<br>946134136<br>Txomin Agirre Ikastola |
| <i>Ayudante</i>   | MARIA LUISA LARREINA IBARLUCEA                                                                                         |
| <i>3.º premio</i> | ENEKO PEREZ ITURBE (16-5-86)<br>Loidi 31, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)<br>943361868<br>Landaberri B.H.I.              |
| <i>Ayudante</i>   | ELENA ANSO GALARZA                                                                                                     |

**OLERKIA "A"**

|                   |                                                                                                                                                |
|-------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>1.º premio</i> | JON JIMENEZ MARTINEZ (1986)<br>Nagusia 62, 31300 Tafalla (Nafarroa)<br>948701475<br>Garces de los Fallos (Tafallako Ikastola)                  |
| <i>Ayudante</i>   | ZAKI IRISO SANTOS                                                                                                                              |
| <i>2.º premio</i> | NAIARA IZAGIRRE URANGA (3-1-88)<br>Garate Anaia 2-3 B, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)<br>943813159<br>Karmelo Etxegarai Azpeitiko Ikastola          |
| <i>Ayudante</i>   | AXUN URANGA URDANPILLETA                                                                                                                       |
| <i>3.º premio</i> | ANE EGIDAZU ARRUBE (7-6-87)<br>Muruet-torre; Blokea 4; porta 2-3 D, 48200 Durango (Bizkaia)<br>946818363<br>Juan Orobiogoitia B.H.I. (Iurreta) |
| <i>Ayudante</i>   | KARMELO GOROSTIZA ZARRAOA                                                                                                                      |

## NARRAZIOA "B"

|                   |                                                                                                                                       |
|-------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>1.º premio</i> | ANDER AUDIKANA ARRIOLA (15-4-83)<br>Legutioko Atea 41-8 ezk. 01013 Gasteiz (Araba)<br>945255402<br>Ikas Bidea Ikastola-Durana (Araba) |
| <i>Ayudante</i>   | ARITZ AUDIKANA ARRIOLA                                                                                                                |
| <i>2.º premio</i> | JON LECUONA SARASOLA (27-11-82)<br>Arrola baserria 20214 Zeraín (Gipuzkoa)<br>943800439<br>Txindoki-Alkartasuna Institutua            |
| <i>Ayudante</i>   | JOXEAN LEUNDA LOINAZ                                                                                                                  |
| <i>3.º premio</i> | MIREN IMAZ MURGIONDO (13-8-82)<br>Urbialde 6-2 D, 20200 Beasain (Gipuzkoa)<br>943881201<br>Txindoki-Alkartasuna Institutua            |
| <i>Ayudante</i>   | GABINO MURUA ZUMALACARREGUI                                                                                                           |

## OLERKIA "B"

|                   |                                                                                                                                      |
|-------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>1.º premio</i> | UNAI BAZTARRIKA OTEGI (16-2-82)<br>Foru Kalea 13-3 D, 20200 Beasain (Gipuzkoa)<br>943886776<br>Txindoki-Alkartasuna Institutua       |
| <i>Ayudante</i>   | JOSU AGIRRE BIKUÑA                                                                                                                   |
| <i>2.º premio</i> | UXUE ALBERDI ESTIBARITZ (18-3-84)<br>Agirretorre 14-2 C, 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)<br>943741957<br>Elgoibarko Institutua             |
| <i>Ayudante</i>   | ANDRES ALBERDI GOROSTIAGA                                                                                                            |
| <i>3.º premio</i> | MUNIA IRIONDO ARRIOLA (24-9-83)<br>J. M.ª Salaberria 33-5 D esk., 20010 Donostia (Gipuz-<br>koa)<br>943467877<br>La Salle Ikastetxea |
| <i>Ayudante</i>   | PATXI EZKIAGA LASA                                                                                                                   |



## **AZKUE LITERATURA SARIAK: 1999ko EPAIA**

2000-I-28

*Jose Ramon Bilbao,  
BBK - elebitasun Zerbitzuko burua*

Lagun agurgarriok, eguerdi on:

Mahaikideok, Haristchelhar jaun Euskaltzainburua, Lekuona jaun Idazkaria, barria hartzera etorri zareen kazetariak! eta zelan ez, idazle gazte irabazleak eta euren laguntzaile/bultzatzaile jaun andreak. Eguerdi on guztioi.

Gaurko hau, sari honen 15. edizinoa da. Hau da, aurretik, sortu zanetik, bost urtez egon zan Bilbo Aurrezki Kutxaren eskuetan. Gero, Bilboko eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak bat eginez BBK sortu zanean, Euskaltzaindiagaz batera geunkazan sariei gehitu geuntsen hau ere. Beraz, hamar urte daukaz ibilbide barri honetan.

Eta hamabost urteotan, sariketa hau, zeozelako erreferentzia bihurtu da eta idazle gazte ugari ikusi doguz berton, euretariko asko gaur egun han-hemen lanak argitaratuz dabilzanak, zorionez. Gaur gure aurrean zaitugunokaz bere, itxaropen berbera daukagu.

Gure asmoa beti izan da sariketa hau Euskal Herri osora zabaltzea. Hala eta guzti bere, oraingoan, parte hartzea handia izan arren, apur bat hankamotz geratu gara, Iparraldeko haurrideen idazkirik ez dogulako hartu. Aldiz, Hegoaldeko ordezkaritza oparoa dogu. Irabazleen artean, gehienak giputzak dira (eta mesedez, berba hau ez daiala inork txartzat hartu, hau dalako men-debalde hiztunok, probintziako erkideak izendatzeko betidanik erabili izan dogun berezko berbea, azken orduko konnotazino futbolero negargarriak albora itzita), baina arabar, nafar eta bizkaitarrak bere badira. Ea datorren urterako hutsune hau konpontzen dogun.

Eta nire berbalditxu hau ez neuke amaitu gura, idazle gazteak literatur zaletasunera bultzaten dabezanak aitatu barik. Hemetik, sari bat eskuan dala joango zaree etxera, baina argi geratu bedi, hori ez dala ezer, egiten dozuen aha-leginagaz parekatuz. Danok dakigulako ze gatxa dan adin honetako gazteengan, gaur egun, literatura lako zaletasun bat sortu eta mantentzea. Guk

geure aldetik, Euskal Herri osoko ikastetxe gehienetara informazioa bidaltzen segituko dogu, baina zuoi dagotzue idazle gazteengan harra biztutea.

Uste dot, hemetik hilabete gitxira egongo garala barriro, lan sarituak bilduko dauan liburua aurkezteko eta datorren urteko sariketako oinarrien barri emoteko. Beste barik, bada, eskerrak emoten deusuedaz Bilbao Bizkaia Kuxaren izenean, parte hartzeagaitik, eta zorionak, egin dozuen lan ederragaitik. Agur eta hurrengorarte.

**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA:**  
*ANTOLOGIA*



## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA. ANTOLOGIA

*Bilbo, 2000-III-02*

*Juan Jose Arrieta,  
Euskadiko Kutxa-ren zuzendari nagusia*

Euskadiko Kutxan oso pozik gaude Euskaltzaindiarekin batera mahai eta proiektu honetan elkarren ondoan gaudelako.

Proiektu honen inguruan Jose Luis Lizundiarekin izandako lehenengo solasalditik gaur arte, hau da, lanaren emaitzak euskal gizarteari aurkeztu eta eskaini zaizkion unera arte, gure kulturari eta, bereziki, gure hizkuntzari ekarpen handia dakarkiolako Euskadiko Kutxan adi-adi baina, era berean, oso sinetsita egon gara proiektuarekin. Hain zuzen, igarotako denborak arrazoia eman digu, Euskaltzaindia eskaintzen ari zaigun hau ederra bezain mardula baita.

Ederra dela diogu, alde batetik Entitate egileak bereganatua dauzkan kalitate –eta seriotasun– berméengatik eta, baita, lana garatzeko burutu duen ikerlan zehatz eta zorrotzarengatik ere: ehun eta berrogeita bost (145) udalerrikan eginiko inkestak, sei urteko ikerlanak (laurogeita seitik laurogeita hamabira (36tik 92ra)), Euskal Heri zabalean 4.000 grabaketa-orduko lana eginenez. Eta ederra, bestetik, euskararen ohiko formen antologia honi esker, ahozko euskarak balio erantsi gisa berea duen balio handiko ondarea jaso eta zabaltzen delako. Izan ere, hau guztia beharrezkoa da bihar-etziko iraunkortasun eta garapena ziurtatzen duen nahitaezko berdintasuna lortzeko, behin betiko lausotu eta galdu ez dadin.

Bitxia da oso, duela 23 urte, Euskaltzaindiarekin betidanik izan ditugun harreman sendoen esparruan, elkarlanean argitaratutako *Euskararen liburu zuria* izeneko aspaldiko lan hartan euskararen erabilera gizarteratzeko beharra azpimarratzen zen, bertan hizkuntzaren normalizazioaren alde mintzatuz.

Gaur, ia 25 urte beraduago, gure hizkuntzaren ahozko transmisioak dituen kolore, forma eta musika desberdinak zabaltzen eta hedatzen lagundu nahi izan dugu.

Gaur egun, ez dago horren daudarik, gizarte-normalizazioan bizi izan dugun prozesu honetan euskalki, azpieuskalki eta ahozko formek elkarrekin bizi behar izan dute idatzizko hizkuntzaren beharrezko batasunarekin.

Euskadiko Kutxatik, gure Entitatearen sorrerako printzipioekin bat etorri, saiatu gara normalizazio-ibilbide horri ekiten ere.

Horrela, lehenxeago aipatu dudan hirurogeita hamarrek hamarkadan (70eko), Lan Kide Aurrezkiak bazuen euskara sustatzeko sortutako sail edo departamentua, ikastolen eraikuntza lagunduz, euskararen aldeko proiektuak bultzatuz ... (hala nola, hirurogeita hamazapiko (77) euskalduntze-kanpaina, edo ta duela gutxi *Euskal Kultura Gaur* izenarekin kaleratu den orduko *Euskal Idazleak Gaur* gisako argitalpenak, edo euskarazko udako ikastaroak gogora elkartzeagatik).

Egun hauetan ere, hamaika proiektu eta ekimen ditugu esku artean, batean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarekin, bestean jaio berri samarra izan arren euskal udalerrien lan-antolamendurako garrantzitsua den UEMArekin, Kontseilua, UZEI, Elhuyar edo beste erakunde eta proiektu batzuk ahaztu gabe.

Ekitaldi honen bitartez bultzatzen ari garen gisako ekimenekin, gure euskararen aldeko konpromisoari eutsi nahi diogu. Aipatutako *Liburu Zuria* argitaratu zen unean Erakunde, Administrazio eta Politikan zuen babesik gabeko baldintzetan ez egon arren, orain ere euskarak, bere etorkizuneko horiek bezain garrantzitsuak diren erronka teknologiko eta globalizatzaileei aurre egin behar die.

Oraintsu Jesus Altuna antropologoak adierazten zuen bezala, gure arbasoengandik aberastasun ugari eta oso desberdinak jaso ditugu, baina horiek guztietatik, euskara baino ez dugu bizirik gaur egun. Bere sustraiak Harri Aroan dituen hizkuntza izanik, Internet Aroak dakartzan komunikabide eta harremanen iraultzaren baitan biziki txertatu behar dugu gure hizkuntza.

Baina hori lortu ahal izateko, daukaguna zabaldu egin behar dugu, era askotakoak diren bere forma eta ñabardurekin, hedatuz eta zabalduz hizkuntza garatu eta berregingo dugulako. Izan ere, askotan entzun dugun bezala: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egin ez dutelako baizik". Horregatik, parekorik ez duen altxor hau estalgabetuz, ekin diezaiogun denon artean garatu eta bultzatzera.

Eskerrik asko lan hau bideratu duzuen guztioi eta eskerrak ere zuei zuen arretagatik.

## OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN ANTOLOGIAREN AURKEZPENA

*Bilbo, 2000-III-02*

*Beñat Oihartzabal,  
Dialektologia batzordeburua*

Plazer handia da enetzat egun euskal mintzamoldeen antologia honen aurkenpenaren egite eta bihotz-bihotzez eskerrak bihurtu nahi dizkiot lan honen argitaratzea bere gain hartu duen Euskadiko Kutzari.

Aspaldi du orain, hamahiru edo hamalau urte, hasia dela talde bat Euskaltzaindiaren gerizapean euskal hizkuntza atlasaren egiten. Euskalari askoren aspaldiko asmo eta amets bat izan da euskararen atlasa, Frantzian eta Alamanian horrelako lanak mendearen hastapenean agertzen hasi zirenez geroztik. Urkixok aipatu zuen 1918ko Oñatiko euskal batzarrean, bai eta Menendez Pidalen ere, Bilbon 1921ean egin zuen hiztaldi batean. Hala egin dute geroztik euskalari guztiek, bai R. Lafonek, bai berrikitanago, K. Mitxelenak ere.

Zorigaitzez mende nahasia eta gogorra izan da hogeigarrena euskaldunentzat eta mota horretako asmorik ezin obratu ahal izan da luzaz, 1980ko hamarkadan aro berri bat irekitzearekin bakarrik bihurtu baita berriz solasgai eta egingai aspaldiko asmo zaharra, Euskaltzaindiak ondoko urteetan, Hegoaldeko erakunde publikoen laguntzari esker bere gain hartuko zuena.

Hats luzeko eta hedadura handiko lana da euskararen hizkuntza atlasa, hoko euskara bizik egon den eremua estalirik 145 herritako hizkeretan oinarritua, inkesta leku bakoitzean 2800 galdera baino gehiago eginez eta orotara lau bat mila ordu grabaketa bildurik.

Esperantza dut laster plaza betean izanen dugula, orduan ere Euskadiko Kutxa laguntzarekin, hizkuntza atlasaren lehen mapa liburua eta CD-ROMa, hartan aurkituko baitituzte ikertzaileek aztergai balios paregabea.

Baina arte horretan egoki iduritu zaio Euskaltzaindiari ikerketarientzat eginikako lan haren ondoan, beste bat, publiko zabalago bati buruz egina, eskaitzea, euskaldunei erakusteko, gure hizkuntzaren eguneratzea, batzea, jantzea eta jauntzea ezin baztertuzko egitekoa badugu, ez ditugula horregatik ahan-tzi behar ohiko mintzamoldeak, euskara mendez mende haietan bizi izana baita gaur egun arte.

Bat-bederak badaki zein urrun diren elkarretarik euskaldunek darabiltzaten mintzamoldeak. Hala erran zuen Leizarragak berak ere, duela lau ehun urte baino gehiago, zioelarik *etxe batetik bertzera* aldatzen zirela euskaldunen hizkerak. Hala zen 16. mendena, hala-hala da oraino, antologia honek erakusten digun bezala.

Ez naiz ni, eta ez da Euskaltzaindia, hizkuntza desberdintasunak deitoratzen dituztenetarik, nahiz, bestalde, inor gutik uka lezakeenegungo egunean behar orduan eta behar direnetarako beharrezkoa del ahizkuntza desberdintasunen gaintitzea. Bietarik behar dute hizkuntzek, behar du euskarak ere: bai hiztun guztientzat eta erabilpen jasoenenentzat ere balio duten ororen mintzamoldeak, estandarrak edo deitzen direnak, bai eta halaber etxe barnean, lagunen artean, auzoan, karriketan, baliatzeko, tokiko harrien eta jendeen soina eta kolorea atxikitzen duten hizkerak, bere berezko itxura aniztasunarekin.

Antologia honek hiru osagai ditu: lehenik, entzutekoa denaz gero, baditu disko trinkoak, soinu irakurgailu arrunt batekin nohai orain entzuteko modukoak, musika eta kantua entzuten den bezalaxe. Diskoekin batean banatzen den liburuan, aurkitzen dira, minutu eta erdiko entzungaien traskripzioak, irakurlearen laguntzeko eginak.

Hori zen hastapeneko proiektua. Haatik, lana azken urratsetan zegoe-larik, diskoen prestaketa bere gain zuen A. Unzalu, aurtan bai Fundazioko buruak proposatu zigun, antologia honen aberasgarri, hirugarren atal bat gaineratzea, aurreko biak bateratzen zituena euskarri bakarrean. Horrela egin da bosgarren disko bat, ez soilik entzutekoa hau, baina CR-ROM gisakoa, hartuan konputagailu bat erabilirik, testuak ikusi eta denbora berean entzun baitaitezke. Ez da dudarik arras ideia ona izan dela hori, ezen gero eta gehiago dira konputagailuak etxeetan eta ikastetxeetan, eta erabilera eroso da.

Bukatzeko, eskerren emateko, aipatu nahi nituzke lan honen egile, zerbait gisaz, izan diren guztiak:

- Lehen-lehenik herrietako informazio emaileei, beren denbora eta pazientzia, askotan jakituria ere, euskararen Ikerkuntzaren onetan eskaini baitute, baina hemen sobera izanik izen-deiturekin bederazka ezin izenda ditzakegunak;

- Inkesta-egileak gero, azkenean haien lanean oinarritzen baita gaineratitakoa, horiek izan baitira: Isaak Atutxa, Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Bidegain, Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola.

- *Antologiako* testuen aukeratzaillei eta transkribatzailei: Pello Agirre eta Xarlex Bidegain.

- Argitalpena bera kudeatu duena: Rikardo Badiola Uriarte.

– Eta hondarrean aipatzen dudana, baina ez merezimendi gutiena izan duelakoan, zeren asko zor izanen baitio Euskararen Atlasak haren informatika lanari, CD-ROMaren eta disko trinkoa teknikoki egin dituen, Andoni Unzu, Aurten Bai Fundazioko burua.

Azken esker oneko hitza izan bedi Euskadiko Kutxako buruzagientzat, egitasmo horren garrantzia ulerturik, jantzi ezinago dotoretan beztiturik plazara ekartzera lagundu baikaituzte.



# **EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA. ANTOLOGIA**

*Bilbo, 2000-III-02*

*Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea.*

*Encargado del Servicio de Publicaciones*

**(ANTOLOGIAreko prentsaurreko eta aurkezpenarekiko eranskina)**

Caja Laboral/Euskadiko Kutxa  
Gran Via, 2, 2<sup>a</sup>. BILBO

## **PARTAIDEAK**

A) Caja Laboral / Euskadiko Kutxa:

1. Juan Jose Arrieta, zuzendari nagusia / Director General.

B) Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca:

1. Jean Haristchelhar, euskaltzainburua / Presidente.

2. Beñat Oihartzabal, euskaltzain osoa eta Dialektologia batzordeburua  
/ Académico de número y Presidente de la comisión de Dialectología.

\* \* \*

Isaak Atutxa, Atlasgintza batzordekidea / Comisionado del Atlas lingüístico.

\* \* \*

Andoni Unzu Aurtan Bai Fundazioburua / Presidente de la Fundación Aurtan Bai.

### **Aurkezpenera etorritakoak:**

Goizean Euskal Herrian zehar prentsa idatzia, telebistak, irratiak zenbait aldizkari eta abarrek parte hartu dute. Arratsaldean, berriz, Euskaltzaindiko egoitzan, zenbait kazetari izan diren arren, beste zenbait Erakunde, Unibertsitate, Kultura elkarte, Aldizkari-arduradun eta abar izan dira, hots:

#### **A) Euskaltzain osoak:**

Henrike Knörr, euskaltzainburu ordea, Patxi Goenaga, idazkaria, Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

#### **B) Euskaltzain ohorezkoak: Xabier Gereño**

#### **C) Euskaltzain urgazleak:**

Federiko Barrenengoa, Iñaki Gaminde, Jose Luis Lizundia, Juan Luis Goikoetxea, Juan Jose Zearreta, J. Manuel Etxebarria, Patxi Uribarren, Ricardo Badiola, Sebastián García Trujillo, Serafin Basauri.

D) Euskaltzaindiko Atlasgintza azpibatzerdekoak: Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola.

#### **E) Erakundeak-Instituzioak- Elkartek:**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza Sailak, Bizkaiko Ikuskaritza Inspektzioa, Basauriko Ikuskaritza, Begoñako Andra Maria Irakasle Eskola, PAT 10, 11 eta 12, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Caja Laboral / Euskadiko Kutxa, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Foru Diputa-



zioko Kultura Saila, Mendebalde Kultur Alkartea, Giltza argitaletxea, Zabal-  
tzen- Elkar: argitaletxe-batzaileak, Euskal Idazleen Elkartea, Bilboko Hizkun-  
tza Eskola Ofiziala, Bitarte banatzailea, Lauro Ikastola, Euskal Museoa, Ei-  
barko Udaleko Euskera batzordekoa, EBBko Hezkuntza eta Kultura eremua,  
*Pirineos* aldizkaria, *Aizu* aldizkaria, *IRALE*; Bostak Bat lantaldekideak, Ku-  
kuma liburudenda, Verdes, Lauaxeta liburudenda, IKA itzulpengintza, Hori-  
Hori itzulpengintza, Bizkaiko AEK, Bizkaiko Diputazioko itzulpengintza, Ma-  
kua aholkularitza, Gabriel Aresti Euskaltegia, Ulibarri Euskaltegia, Bilbo  
Zaharra Euskaltegia, Bilboko zenbait ikastetxe: Botica Vieja, Emilio Campu-  
zano, IVAD, San Adrian, Errekaldeberri, Txurdinaga, Miguel de Unamuno,  
San Inazio, Ibarrekolanda, Txurdinaga-Artabe, Zurbaran, Zorrotza, Ibaizabal,  
Ignacio Ellacuria, Martin de Bertendona, Felix Serrano, Elorrieta-Errekamari,  
Karmelo Ikastola-Solokoetxe, Luis Briñas-Santutxu, Ikastolak: Karmelo,  
Deustu, Intxixu, Urretxindorra, Kirikiño, Karmen, Begoñazpi, Artxandape,  
Abusu...

F) Partikularrak: Lutxi Alberdi, Pello Telleria, Jon Artza, Pruden Gartzia,  
Emilio Porras, Amaia Okariz, Ikur-Rontegi fotokonposizio-inprimategiko or-  
dezkariek, Jon Aurre, Jon Otaegi, Juan Cid, Isidro Elezgarai, Andoni Unzalu,  
Belen Itza, Amaia Basterretxea, Serafin Basauri, Imanol Agirre, Iñigo Gago,  
Jon Artatxo, Patxi Galé.



## **OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN ANTOLOGIA**

*Bilbo, 2000-III-02*

*Isaak Atutxa, Atlasgintza lantaldekoa  
eta liburuki honen paratzailea*

Gaur aurkezten dugun Ohiko Euskal Mintzamoldeen ANTOLOGIA hau 1986 eta 1992 urte bitartean Euskaltzaindiak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) egitasmorako bildu dituen dokumentuetan oinarritua da. Dokumentuon artean, aipatu urteotan zehar euskararen eremuko 145 herritan egindako grabaketak ditugu. Grabaketa horiek milaka orduko hizketaldiak eskaintzen dituzte eta denak dira CD-ROMetan bilduta eta Euskaltzaindian gordeak.

Ildo honetatik, euskal mintzairak dituen itxura desberdinak entzun nahi lituzketenak gogoan, egoki iruditu zitzaion Euskaltzaindiari euskaldunei ohilko euskal mintzamoldeen antologia modukoa moldatzea.

EHHA egitasmoaren beraren helburua guztiz bestelakoa izaki, antologia hau euskaldun guztientzat egina dela esan behar da. Ez da ikerketak edo euskalkien azterketak egiteko, euskararen berezko musika guztiak entzun eta eza-gutzeko baizik. Helburuak aipatu ditugula eta, derragun antologia honek ahalik eta eremu zabalenera heldu nahi duela: ikastetxe-ikastoletara, irratietara, etxeetara, e.a.


Argi utzi nahi dugu, bestalde, antologia hau entzutekoa dela. Horrela, lau disko konpakto, CD-ROM bat eta hauen lagungarri izan nahi duen testu liburu bat aurkezten dira. Hiru baliabideok daude berdintsu egitarauak. Mendebaldetik hasi eta Hegoalderantz zazpi herrialdeetako pasarteak bildu dira: Bizkaian, 36 tokitakoak; Araban, batekoak; Gipuzkoan, beste 36koak; Nafarroa Garaian, 27takoak, Lapurdin, 15ekoak, Nafarroa Beherean, 18takoak; eta Zuberoan, 12takoak, herri bakoitza kokatzeko EHHAren egitasmoaren ordena jarraitu dugularik.

Lehen lau diskoak entzuteko disko konpaktoak ditugu, edozein musika tresnatan entzuteko modukoak, beraz. Lehen konpaktoan, Bizkaiko eta Arabako pasarteak entzun ahal dira; bigarrenean, Gipuzkoakoak; hirugarrenean, Nafarroa Garaia eta Lapurdikoak; eta laugarrenean, Nafarroa Beherera eta Zuberoakoak. Entzuleak gogoko duen diskoa musika tresnan sartu eta berehala izango du herri honetako edo hartako soinuak dastatzeko aukera. Herri bako-


tzaren izena eta entzungaiaren aurkezpena dira entzuleari helduko zaizkion lehenak; jarraian, dagokion pasartea.

Bosgarren diskoari, CD-ROMari dagokionez, hasiera batean audio diskoak aurkezteko asmoa baizik ez bazen ere, bizi dugun teknologia berrien aro honek beronek bultzatu duela esan behar. CD-ROMa erabili ahal izateko ordernagailuan Internet Explorer edo Netscape behar dira. Grabaketak entzun ahal izateko, bestalde, MP3 fitxategiak irakurtzeko programa behar da, CDan bertan aurkitu ahal dena.

CD-ROMeko programan martxan jarri eta agertuko zaigun lehena aurkezpen pantaila izango da. Jarraian, eta bigarren batean, menu orokorra aurkituko dugu. Bertan herrialde bakoitzean sartzeko aukera ematen zaigu Behin sartuz gero, inkesta leku bakoitzeko testu orrialde bat agertzen zaigu. Orrialde bakoitzak zati hauek ditu: grabaketa egin den udalaren izena, entzungaiaren aurkezpena, testu transkribitua eta hitz azalpenak. Testu transkribatua dugu bitartean, entzun ere ahalko dugu.



Testu liburua, bestalde, entzulea laguntzeko prestatua da. Gure mintzaira aurpegi askokoa da eta batzuetan zail egiten zaigu horiek ulertzea, beren testuinguru orokorretik atereak diren urruneko solasak direnean bereziki. Liburuaren mamiari, edukiari eskaini nahi dizkiot azken hitzak. Kontuan izan behar da entzuleak, herri bakoitzeko, minutu eta erdiko saioak aurkituko dituela; are, hizketaldiok ez ziren gisa horretan baliatuak izateko grabatu. EHHAera-ko inkestak egin eta zenbait urte igaro ondoren aukeratu pasarteak dira; horren ondorioz, maiz nabari da erdi-moztuak bezala direla. Bestalde, solasgaie- tan batasunik ez izanik, zail gertatuko zaio batzuetan entzuleari pasarteen gai- az jabetzea. Liburuaren laguntzarekin, ordea, bizpahiru aldiz entzun eta gero, pa- zientzia piska batekin, ulertu ahalko dituzte entzuleek. Dena den, gogoratu be- har da hemen garrantzia mintzoak berak duela, ez solasaren mamiak, asko- tan hau ere oso interesgarria bada ere (adi, esaterako, Elantxobeko gerla garaiko kontuari, Urretxuko Santa Kruz apaizari buruzkoari, Gaintzako txin- gurria eta txantxangorriari buruzko ipuinari, Urketako sugeak behia egoskiten duenari, Bidarraiko Parmentier jaunarenari, Altzürüküko khurloen gertakaria- ri eta hainbat eta hainbat kontakizun eta pasadizori, denak ere ahozko euska- raren kolore eta aurpegiak ezagutzen lagunduko digutenak). Zalantzarik ez.



## ANTOLOGIA DE FORMAS LINGÜÍSTICAS

La *Antología* que ahora presentamos ha sido elaborada en base a la documentación que Euskaltzaindia ha recopilado para la elaboración del Atlas Lingüístico del País Vasco. No es, sin embargo, una antología dirigida en exclusiva a estudiosos de la lengua vasca; es una antología dirigida a todos los amantes del euskara, para poder, de este modo, saborear y conocer las diversas melodías que nuestra lengua posee.

Esta *Antología* se compone de cuatro discos compactos, formato audio: en el primero de ellos podemos escuchar fragmentos de las entrevistas realizadas en Bizkaia y Alava; en el segundo, de las realizadas en Gipuzkoa; en el tercero, de las de la Alta Navarra y Lapurdi; y, por último, en el cuarto, de las de la Baja Navarra y Zuberoa. Tenemos, además, un quinto disco compacto, ésta en versión multimedia, para ordenadores personales. Pero, como a menudo nos encontramos con conversaciones sacadas de contexto, con el fin de ayudar al oyente, publicamos un libro en el que aparecen todas y cada una de las grabaciones que encontramos en los discos compactos.

Con esta *Antología* se podrán escuchar en cualquier rincón de nuestro territorio (escuelas públicas, ikastolas, medios de comunicación, nuestros propios hogares, etc.) los diferentes tipos de habla con los que nuestra lengua se enriquece.

**OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN  
ANTOLOGIA-REN AURKEZPENA**

2000-III-02

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Juan Jose Arrieta Euskadiko Kutzako zuzendari nagusi jauna,

Euskaltzainkideak,

Jaun, andereak, egun on!

Azkenik hartzen dut hitza aurkezpen berezi honen egunean, berezia diot zeren ene ustez lehenbiziko aldikotz lotuak baitira hotsa eta idazkia, entzun eta ikus daitekela denbora berean eta hori euskalkien hobeki ulertzeko.

Aldi bat baino gehiagotan entzuna izan da boz apalez azaltzen den zurumurrua : euskaltzaindiak euskara batua bultzatuz euskalkien kontra jokatzeko dela, euskalkien hiltzen ari dela.

Egun, hemen zareten andereek eta jaunek, kazetariak bereziki entzun eta ikus dezakezue hori ez dela egia. Argi dago eta hemen lekuko zarete Euskaltzaindiak laguntzen dituela euskalkiak eta egin, egiten eta eginen duela euskalkien alde nehorik egin ez duena.

Bere mintzaldian Beñat Oihartzabal, Dialektologia batzordeko buru denak, aipatu du Julio de Urkixok zioena eta lehenbiziko euskaltzainek beren xedeetan sartu zutena: euskal hizkuntz Atlasaren beharra. Duela 80 urte aipatua izan zen Atlasa nork egiten du? Gure belaunaldiak, hala nola gure belaunaldia agertzen ari den *Orotariko Euskal Hiztegia*, hamabigarren liburukian dagoela, hala nola gure belaunaldiak aztertzen duen euskal gramatika, bortzgarren liburukia berrikitan kaleratua, kontutan harturik ere Onomastika batzordeak eta Literatura batzordeak egiten duten lana. Luzaz lan ixilean arizanak, orai Euskaltzaindiak agertzen ditu etekinak eta, hain zuzen, gaur aurkeztzen dugu bertze bat.

Atlasari lotua zaio *Ohiko euskal mintzamoldeen Antologia*, Atlasaren ondorioetarik bat baita. Inkestak eginik Euskal Herriko 145 herritan, hautatu le-

kukoak 2800 galdeeri erantzunik, utzi dute inkestagileek mintza zadin lañoki, goxoki, berak hautatu gaiaz. Asma dezakezue zer altxor bikaina bildu duen Euskaltzaindiak, ahozko altxorra, 1985 eta 1990 arteko euskalkiak agertzen dituen, beren musika eta koloreekin. Herri bakoitzeko zatitxo bat hartuz hona beraz euskal mintzamoldeen antologia, euskararen arnasa bere berezitasun guzietan.

Pentsatzen dut aurten aurkeztuko dugula Atlasaren lehenbiziko liburukia. Prest dago eta erdia ordaindua balin bada Euskadiko Kutzari esker, bertze erdiaren ordainketaren zain gaude. Agertuko delarik konturatuko da jendea zein serio, zein zientifikoki jokatu den Euskaltzaindia, bilduz inkestagile jakintsunak, haien artean unibertsitateetako erakasleak. Ez balitz hala jokatu Euskaltzaindia ez zen Atlasik izanen : argi eta garbi erraiten dut hori.

Beraz, nik orain, Beñat Oihartzabalek egin duen bezala, nire eskerrik be-roenak bihurtuko dizkiet Atlasean eta Antologia honetan lan egin duten guzietan, ahan-tzi gabe lekukoak oraindik bizi direnak eta jadanik zenduak hala nola en-tzun dugun, ezagutzen nuen Baigorrikoa.

Eskerrak ere merezi ditu Andoni Untzalu-k. Uste nuen Antologia lau CD-tan bildua izanen zela, liburua laguntzaile, bainan orai bertan jakin dut CD Rom bat aurkeztu dela, hori izan dela Andoni Untzalu-ren ideia, ideia ona dudarik gabe. Antologiari esker, bere CD eta CD Rom delakoekin urrats handi bat egiten da euskalkien ezagutzeko eta ikertzeko. Denek badakigu ez dela hain errex ulertzea zuberotar bat, Barkoxtarra adibidez, Bizkaitar batentzat. Orai hor dauka Barkoxtarraren boza eta ondoan idatziz emana zer erraiten duen. Berdin izanen da bizkaiera Lapurtar batentzat. Denek ukan dezakete Antologiarekin tresna baitezpadakoa euskalkien aztertzeko.

Lan dorpea eta luzea izan da *Antologiaren* egitea. Eskerrak, beraz, bereziki Isaak Atutxa-ri lana bururatu baitu behar den bezala eta halaber Ricardo Badiola, Euskaltzaindiko argitalpen eragileari.

Beñat Oihartzabal-ek eskertu ditu Atlasean eta *Antologian* murgildu diren guztiak, nehor ahan-tzi gabe. Bat ahan-tzi du, bera, eta, beraz, nik beteko dut huts hori. Beñat Oihartzabal, iker sailburua da eta Atlasaren arduraduna. Frantziako C.N.R.S.-eko kide izanez, katedradun mailako karguarekin, Atlasa kudeatzen du eta *Antologia* honekin erakusten du zein ongi deraman bere eta bere kideen lana. Zinez, Antologia lehenik eta Atlasa gero urrats handiak dira eta izanen dira euskararen euskalki guzien ezagutzeko.

Orain, zuri mintzo natzaizu, Juan Jose Arrieta jauna, Euskadiko Kutzako burua zaren horri. Aipatu duzu zure mintzaldian duela 25 urte elkarrekin lanean ari ginela eta, hain zuzen, gure elkarrekilako lehenbiziko lana *Euskararen liburu zuria* izan zen, liburu ederra, balio handikoa. Antologia honetan, erakusten da nola aldatu den garaia, nola liburutik bagoatzin bertze zerbaite-

tara hotsa eta idazkera nahasiz, tresna berriak baliatuz, CD delakoak eta ordenagailuaren bitartez CD Rom-a.

Euskadiko Kuxari esker agertzen da *Antologia* eta badakit segituko eta sendotuko ditugula harremanak bihar atzo bezala Atlasarekilan. Euskadiko Kuxari eta zuri bereziki Euskaltzaindiaren izenean eskerrik asko bihotz-bihotzetik.



## **HIL BERRIAK**



## ANDRÉ MARTINET

(1908-1999)

*Donostia, 2000-II-24*

1908an Saboian sortua (1908/04/12, Saint-Alban-des-Villards), André Martinet joan den udan, 1999ko uztailaren 23an, hil izan da, 91 urte zituela.

Europako estrukturalismoaren aitzindari gisa ezaguna izan den frantses hizkuntzalari hau joatearekin, euskalaritzak hots handiko lankidea galdu du, eta euskarak adiskide baliosa, ez baitzuen merezimendurik gabe egin ohorezko euskaltzain gure Erakundeak 1984an.

Ingeles hizkuntzan maila goreneko irakasle-titulua gazterik eskuraturik (agrégé zen 1930ean), arras goizik abiatu zen Martinet hizkuntzalaritzako estudioetan. 1931n Société de Linguistique de Paris elkarteko kide egin zuten eta N. Troubetzkoy-ekin gutunezko harremanetan egonik, 1936an argitara eman zuen Pragako eskolaren kondu bere lehen ikerlana (Neutralisation et archiphoneme, Travaux du Cercle linguistique de Prague, 6. lib.). 1937an aurkeztu zituen bere doktore tesiak, biga orduko usaien arabera, biak hizkuntzalaritzako arloan eginak, lehenbizikoak izenburua baitzuen “La gémination consonantique d’origine expressive dans les langues germaniques”, eta besteak, aurrekoaren osagarri zenak, “La phonologie du mot en danois”. Urte hartan izendatu zuten ikerketa-zuzendari Pariseko Ecole pratique des hautes études delako erakundean, harentzat sortu fonologiako sailean hain zuten.

Garai haietan Europako beste hizkuntzalariekin harremanetan izan zen, Hjemslev-ekin bereziki, eta gerla ondoan, 1946an, Estatu Batuetara joan zen.

Lehenik, nazioarteko hizkuntza laguntzaile baten sortzea helburu zuen egitasmo baten buru izan zen han, eta ondotik, 1947an, R. Jakobson-en bitartez Columbia University-n sartu zen, han egonen baitzen 1955 arte. Urte hartan berean *Word* aldizkariko buru egin zuten eta hala izan zen 13 urtez (1947-1960).

Aldizkari hartan argitara eman zuen, 1950ean, euskal mintzairaz egin zuen bere lehenbiziko artikulua, ene ustez garrantzizkoena eta emankorrena ere gertatuko zena: “De la sonorisation des occlusives initiales du basque” izenburu zuelarik lan hark (*Word*, 6, 1950: 224-233). Ikerketa horrek berehala izan zituen ondorioak Euskal Herrian, K. Mitxelenak haren garrantzia on-

doko urtean berean azpimarratu baitzuen euskalariei xeheki aurkeztuz eta eza-gutaraziz (*BSAP*, 1951, 7: 571-582). Lan horrek gorputz emanen zion handik zenbait urteren buruan Martinetek argitaratu zuen *Economie des changements phonétiques: traité de phonologie diachronique* (1955) delako liburuko hamalaugarren kapituluari.

Liburu berean (12. kap.) euskarak gaztelaniazko txistukarien bilakaeran izan zukeen eragina ere aipatu zuen "Structures en contact: le dévoisement des sifflantes en espagnol" izenburuko idazlanean.

Biziki emankorra izan zen handik aitzina Martineten lana hizkuntzalari-tza orokorrean, eta izugarriko arraskata izan zuen, Frantzian eta Espainian bereziki 1960an argitara eman zuen *Eléments de linguistique générale* liburu famatuak, hamazazpi hizkuntzatara itzulia izanen zenak. Orotara hogeitabat liburu argitara emanen zituen Martinetek, horien artean duela zenbait urte idatzi hizkuntzalari oroitzapenak, haren izaera minberatsua agerian uzten dutenak (*Mémoires d'un linguiste*, 1993).

Alderdi teknikoak bazterrean utzirik, Martineten ezaugarri preziagarriena, ene irudiko, argitasuna izan zen. Gutxi aurkituko dira hizkuntzalarien artean ideiak eta azalpenak hain manera garbian eta zehatzean eskaintzen dituztenak. Ordean, ezin uka ideiak hain garbi edukirik, halako zurruntasun bat ere izan zuela teoria kontuetan. Dakigun bezala bazuen Martinetek hizkuntzalaritzaz ikusmolde finkatu bat, eta jarrera guziz arbuiazailea agertu zuen beti ikusmolde horren oinarriak kordokan ematen zituzten joeren aitzinean. Horrela, arras modu garratzean epaitu zituen, Amerikatik Europara itzultzean, doi-doia agertzen hasi zen hizkuntzalaritza berriaren ausartziak, laster ikuspegi generatibistetan gauzatuko zirenak.

Euskararen alderako interesa ez zuen sekula galdu Martinetek, 1950eko *Word*-eko artikulu haren ondotik. Tovarrekin harremanetan izan zen, haren ikusten izan baitzen 1954an Salamancan. Handik laster ezagutu zuen K. Mitxelena ere, hau ere Salamancan.

Erran gabe doa, begi onez ikusi zituela orduan eta ondotik euskaldun hizkuntzalariek euskararen fonologia, diakroniaren ikuspegitik azterkatzeko, egiten zituen lanak. Ez da harritzeko, beraz, geroago, 1972an edo, honek hartuko baitzuen Sorbonan, erran nahi baitu Martineten eskolaren bihotzean, urte bat irakasle gisa iragateko gonbita. Martinet ohartuko zen halere Mitxelenak ez zuela arras bat egiten egiten haren ikusmolde antigeratibistetan, eta honen barne-zolako idealismoaren ondorioa ikusiko zuen jarrera hartan.

Lehenxeago, Martineten buruzagitzapean, eta honek bultzaturik eta lagundurik dudarik gabe, idatzi zuen G. N'Diaye-k Amairuko euskaraz bere doktore tesia (*Structure du dialecte basque de Maya*, 1970).

1980ko euskalarien biltzarrean parte hartu zuen Martinetek, euskararen fonologiaren historiari bere ideien bilduma eginez (*Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker 1: 59-74. orr.). Handik zenbait urteren buruan, 1992an, Euskal Herriko Unibertsitateko, doctor honoris causa, egin zuten, aitzinetik beste bost unibertsitatetan eginga izan zen bezala. Aurki daiteke gure agerkarian karia hartara K. Rotaetxek Martineten lanez egin zuen aurkezpena, bai eta honek eman zion ihardespena ere (*Euskera* 1992, 3:1253-1256. orr.).

Bi alor bereziki hunki zituen Martinetek euskalaritzan: fonologia diakronikoa eta joskerako zenbait alderdi ergatibitatearen ingurukoak, bereziki.

Gogora dezagun laburzki gai horietaz zer izan zen haren ekarpena.

Martinetek proposatu euskal kontsonanteen azterketa diakronikoa.

Diakroniako fonologian Martinetek euskal kontsonanteen sistema-aldakea ikertu zuen, aldaketaren joera nagusiak bilatzen zituela. Hiru puntu bereziki aipa daitezke, haren azalpen eta hipotesiak zirela-eta elepide eman dutenak:

– Lehenik, euskararen ikerketa diakronikoa atera zuen konparatibismo genetikoaren mendetik, azpimarratuz zein baliagarri gerta zitekeen erromantze eta latinetikako maileguen azterketa eta barneko eraiketa, ikerbide estrukturalak xeheki erabiltzen baziren;

– Bigarrenik, hipotesia egin zuen euskara zaharrean hitz hastapenean heskari ahokarien artean ahotsari edo indarrari zegokion oposaketa bat izan zela, gero desagertu zena;

– Hirugarrenik, proposamena egin zuen garai batez heskari partez sudurkarizatuak izan zirela euskarari, hitz buruetan ezipainkari bat gutienetik.

Lehenbiziko puntuaren garrantzia nabarmendu zuen oroz gainetik Koldo Mitxelenak 1950eko *Word*-eko ikerlanaren berri ematean, Martinetek aukeratu jokabideari ‘acertadísima orientación metodológica’ iritzi baitzion.

Bigarren puntua ere, artikulua hartan aipatu zuen Martinetek, eta geroztik ere beti atxiki zuen. Euskarako heskari ahokarien bilakaeraren urratsak honela markatzen zituen: garai batean, latinarekin harremanetan izan aitzin, heskari ahostunak eta ahoskabeak bazituen euskarak, bai bokalen artean, bai hitz hastapenean. Ondotik, ordean, heskari ahoskabeek aspirazioa hartu zuten eta heskari ahostunak, berriz, heskari ahoskabe ezti edo ahulak izan ziren. Garai hartan, dio beti Martinetek, akzentua lehenbiziko silabaren gainean baitzatekeen, horren ondorioz lehen kontsonantearen ahoskeran hestura ahuldu zen aspirazioaren fagoretan, ondorioz, ph-, th- eta kh- heskari aspiratuak h- bihurtu baziren.

Koldo Mitxelenari jarraikiz, euskalari gehienek dudazkotzat eman zuten hipotesi hori haren abantailak eta indarra argi ikusirik ere, zeren oinarri enpirikoa eman diezaioketen datuak gutxi baitira (ik. bereziki Mitxelena, *FHV*:

242-244). Esan behar da halarik ere, eraiketa hau bakarra dela zerbait azalpen ematen diona euskal hiztegiaren berezitasun bati, alegia, aspirazioa bazterrean utzirik, biziki handi dela gure mintzairan bokal batekin hasten diren hitzen portzentaia.



Hirugarren puntua, aurrekoa bezala hipotesi moduan aurkeztua, oraindik ez da argitua izan. Gauza ezaguna da latin hitzetako *b* fonema batzuetan sudurkarizaturik agertzen dela euskaran, hala nola mak(h)ila hitzaren kasuan (< lat. *bacilla* (pl.)). Martinetek dio, menturaz, izan zela garai bat non euskararen /*mb*/ fonema konplexua ere izan baitzen, hala nola, dienez, Mediterraneoaren inguruan ere gertatu baitzen, iduriz. Kontuak ez dira garbi bereziki go-goan hartzen badugu, horrelako fenomeno baten seinaleak arras urriak direla beste heskarietan.

Horzkariari dagokionaz, halere, lehen pertsonari dagozkion aditzetako indizeak aipatu zituen Martinetek: *n-* eta *-d(a)*, biak erator baitaitezke, ikuspegi horretan, *nd-* gisako forma zahar batetik.

\* \* \*

Subjektuaren nozioak lekurik baduenetz euskal joskeraren azterketan. Euskal joskerako zenbait alderdi ere hunki zituen Martinetek, ergatibitatearen ingurukoak oroz gainetik. Gai horietaz egin zuen lehenbiziko lana 1958an ar-

gitara eman zuen: “La construction ergative et les structures élémentaires de l'énoncé” (*Journal de Psychologie*, 1958: 377-392).

Lan hori euskal gramatikografiaren barnean kokatu behar da, gogoratzuz bereziki, garai hartan oraino guztiz onartua zela Euskal Herritik kanpoko hizkuntzalari eta euskalari gehienen artean, euskal aditzaren pasibitatearen teoria.

1956an P. Naërt-ek *Studia linguistica* (1956: 45-49) aldizkarian artikulua bat egin baitzuen piska bat dudatan emanez orduko ikusmolde nagusia, eta proposatzuz euskal aditza ekintza izen gisa azterkatua izan zedin, Martinetek lan hari jarraikiz idatzi zuen bere ikerlana. Ez zuen arras onartu Naërt-en azterbidea; haatik ez zitzaion pasibitatearen teoriagatik kontratu, R. Lafon bezala, eta beste azterbide bat plazaratu zuen, euskararen joskeraren oinarritzko jokabidean funtsatu nahi izan zuena. Harentzat euskararen ez zen subjektua - predikatua sintagmarik, zeren perpausaren oinarria existentzia predikatua baitzen beti: [le basque] construit régulièrement ses énoncés par déterminations successives d'un prédicat d'existence (*Martinet* 1958: 381. o.). Euskararen, zioen orduan Martinetek, izen sintagma absolutiboaren eta aditzaren arteko erlazioa determinatzailearen eta determinatuaren artekoaren parekoa zen. Lafonek erantzun zion Martineten lanari 1960an (*BSLP*, 1960) eta honek berriz bi urte geroago (Le sujet comme fonction linguistique et l'analyse syntaxique du basque, *BSLP* 1962: 73-82).

Egia erran, arrakasta guti izan zuen Euskal Herrian proposamen horrek, nahiz orduan agertu eztabaidak jarraipen luzea izanzen zuen Martineten eskolaren barnean, ergatibitatearen inguruko eztabaidetan. Ikusmolde horren aldekoen artean sartu behar genuke C. Tchekhoff, honek *Aux fondements de la syntaxe: l'ergatif*, (1978) bere ikerlanean, beste hizkuntza ergatibo zenbaitekin batean, euskara ere aztertu baitzuen Martineten aztermoldeari eta ereduari jarraikiz.

\* \* \*

### Azken hitza.

André Martinet 20. mendearen erdialdeko hizkuntzalaritzaren ordezkaria izan zen eta hizkuntza estrukturalismoak Europan, eta Frantzia bereziki, izan zuen itxura bat, funtzionalismoa deitura pean ezagutu izan zena, hark gorpuztu du.

Jakitate zabalekoa hizkuntza gaietan, arras segur zen azterbide estrukturalistek hizkuntza ikerketan eman zitzaizkien ondorioez. Alde orotako euskalaria izan gabe, euskararen zenbait alderdi hurbiletik ikertu zituen, horretarako baliatuz beste hizkuntzen eta hizkuntza sistemen azterketan ikusia eta ikasia. Euskararen balioaz ongi jabeturik, beti sustatu zituen euskalariak bere lanetan, eta saiatu zen halaber Euskal Herritik kanpoan euskararen gaineko estudioen bultzatzera.

Garai haietan Euskal Herriko unibertsitatetik ez baitzen, eta euskarak inongo ezagutza ofizialik ez baitzuen, ez Frantzian, ez Espainian, bere babesa eman zien orduan gure mintzairaren gaineko estudioei. Horregatik ere zor genion esker ona eta ezagutza André Martinet, ohorezko euskaltzain zenari.

\* \* \*

International Auxiliary Language Association deitua zen egitasmo hori bultzatzen zuen erakundeak.

Kargu horretan, ondoan izan zituen, zuzendarikide gisa, elkarren ondotik, M. Swadesh, J. Greenberg, U. Weinreich eta L. Heller.

Honela oroit ziren Martinet eta haren emaztea gertakari hartaz:

André Martinet: "... Nous sommes retournés fréquemment en Espagne au cours des années cinquante. Nous avons, notamment, rencontré Michelena à Salamanque".

Jeanne Martinet: "C'était l'époque où il sortait des geôles franquistes. En public, il fallait tenir sa langue".

André Martinet: ... "En tant que Basque et basquisant, il s'intéressait évidemment à ce que j'avais écrit, puisque ma thèse était en gros, que l'espagnol avait été profondément influencé par le basque. Elle m'établissait comme persona grata auprès des linguistes espagnols, franquistes mis à part, pour qui c'était une thèse acceptable, et auprès des Basques pour qui c'était une sorte de revanche". (*Mémoire d'un linguiste*, 127. o.).

Sorbonako hizkuntzalaritzako irakasle katedra (Paris V, 1968tik aitzina) atxiki zuen 1955etik 1979 arte, erran nahi baitu unibertsitatea utzi arte.

Espainian izan zituen jarraitzaileak (Gutiérrez eta Rodríguez bereziki) aipatu ondoan, honela dio Martinetek bere oroitzapenetan: "Les rapports avec Michelena ont été plus fréquents et plus intimes, puisqu'il a enseigné à Paris V. Lui aussi avait un fonds idéaliste. Tous ces gens ont été, à un certain moment, séduits par mon enseignement et, à mon contact, ont mis leur idéalisme en veilleuse. Mais lorsque est apparu le générativisme, s'ils n'y ont pas dit "oui" à cent pour cent, ils y ont retrouvé une atmosphère plus conforme à leur goût. Mon impression est qu'en Espagne mon influence a été plus diffuse que caractérisée. (*Mémoires d'un linguiste*, 128. o.).

Pasibitatearen nozioa aktibo vs pasibo boz oposaketaren arabera aztertzekoa zen Martinetentzat.

Hain zuzen, nola horrelako oposaketarik ez baitzuen ikusten euskararen kasuan, ez zuen bere burua teoria horien aldekoetan ematen. Halere, berak aitortu zuen bezala, ikuspegi konparatibista batean, haren ikusmoldea ez zen biziki urrun pasibitatearen teoriak adierazten zuenetik; ikus gai horretaz 1979an egin artikulua: “Shunting on to Ergative or accusative”, Plank-en liburuan (*Ergativity: Toward a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, 1979, 39-43).

Martineten ideiak bultzatzen zituen nazioarteko elkarte bat (Société internationale de linguistique fonctionnelle) sortu zen 1965an. Elkarte horretako ohorezko lehenburu egin zuten 1980an, eta elkartearen agerkariko (*La linguistique*) zuzendaria izan zen sortzetik beretik zendu arte.

Beñat Oihartzabal



## BASARRI JOAN ZAIGU

(1913-1999)

*Donostia, 2000-II-25*

Izenez Iñaki Eizmendi zena, eta *Basarri* izengoitiz gehiago ezagutzen genuena, Zarautzen zendu zaigu azaroaren 4an. Bere bizitza guztian zuzeneko harremanak izan bazituen ere bere hartzaileekin, azken aldiotan, urteen zamak azpiraturik, etenik zeukan jendaurreko langintza. Bakezkoa da utzi digun negarra, esker onezkoa bizten digun sentiberatasuna eta atxikimentu zabalekoa euskal senean berarekin dugun ahaidetasuna.

Basarriren langintza zenbaterainokoa izan den, aski ongi laburbilduko digu A. Zavalak, Basarri ezagutu, miretsi eta argitaratu duenak: “Iru alderdi izan ditu Basarriren bizitzak: bertsoak, irratia eta egunkaria; kantua, itza eta papera. Millaka bertso plazetan: millaka saio irratitik; eta millaka idazlan, naiz bertsoz, naiz prosaz, agerkarietan. Iru alderdi oiek alkarri asko eragiten diotela esango nuke” (1).

Euskaltzaindiak, Erakunde bezala, Basarri azken agurra egiterakoan, bidezko da zor zaion aitormena eskaintzea. Egia da, lehendik ere Euskaltzaindiak egin ahal izan zela Basarri ongi merezia duen aipamena *euskaltzain ohorezko* izendatuz lan bikainak egiteagatik, euskara era aipagarrian landu dutenen artean bere izena kokatuz (2). Gaurko agurrari begira, gauza pare bat esan nahi nituzke Basarriren ohoretan, Euskaltzaindiak dion eraskotako begirunea, zehaztuta gera dadin bi puntu hauetan: 1) Basarri da XX. mendeko bertsolaririk garrantzitsuenak; eta 2) bera dugu herri prosagintzak gerrondoan izan duen eredurik aipagarriena, ahozko eta idatzizko tradizioak bat eginik hartzaileei eskainitako emaitza.

### 1. XX. Mendeko bertsolaririk garrantzitsuenak

Lehenik, bertso-kopuruz eta gaien ugartasunez. Honela dio A. Zavalak, Basarriren dokumentazioaz inork ez bezalako argibideak dituenak: Basarri

---

(1) EIZMENDI, I., *BASARRI, Nere Bordaxotik*, 1992, “Auspoa Sail Nagusia”, 2.t., 17 or. (A. Zavalaren hitzak).

(2) Basarri euskaltzain ohorezko izendatu zen, 1984-XI-30ean. *Euskera*, 30 (1985), 484 or.

“izango degu bertsorik geien jarri duan bertsolaria; eta bera ere gai geiena ikutu eta erabili izan duana” (3).

Kantitatea ezezik, aipatu behar genuke Baserriren bertsogintzaren nola-kotasuna. *Bertso txarrik sekulan bota ez duena* esaten zen garai batean, bere teknika goraipatuz. Basarri saiatu zen bertso jarrietan erabiltzen, plazan erabiltzen ez ziren eskema metrikoak: kantu zaharrenak, kantu leiendistikoak. Eta *prosagintza errimatua* (prosa rimada), orduan esaten zitzaiona ere landu zuen, eta hau plazako jardun bat-batekoan. Basarrik, inprobisazioaz gain, landu zuen kantugintza berrira daraman bertso-mota. Ez bakarrik tradiziozkoa, baizik eta berrikuntza suposatzen zuen kantugintza, garaiko eskakizunei berak egokitua.

Hau horrela izanik ere, bertsolaritzaren teoria eta proiektua landu eta garatzeagatik izan da batez ere Basarri XX. mendeko bertsolaririk garrantzitsuena. Plazan agertu zenetik ezarri zitzaion proiektu berria egiteko zeregina.

Izan ere Basarrik, 1935eko urtarilaren 20an, *Bertsolarien Eguna*-ko bere lehenengo txapelketa irabazi zuenean, Jose de Artetxe, orduko kronikagileak, honela dio bere berrietan: “Ez da harritzekoa saria Basarri ematea, honen meritua neurtuz gero”. Baina hau ere badio: “Basarrik bere eskola jarriko du; eta jarri behar du gainera. Oso bestelakoak dira Basarriren jarrera eta arierak, eta bertsolari zaharrenak”. Eta eginkizun hau duela txapeldun berriak: “Bertso-zaletasuna sentitzen duten asko eta asko leziatu behar dituela eta hezi bere inguruan” (4).

Honela ziren kontuak 1935eko txapelketa hartan. Eta Artetxeren susmoa egia zela adierazteko, argitasun betea ematen digu Basarrik berak, 1984an, *Bertsolaritzari buruz* atera zuen liburuan. Guztira 35 artikulua dira *Zeruko Argia*, *Arantzazu*, *Goiz Argi* eta Donostiako kazetetan argitaratuak. Lehenengo idazlana 1963koa dugu, eta azkenekoa 1984koa. Egia da liburuak “bertsoaren neurria, puntuak, esanahiak... Saiok nola prestatu, ta noiz eta nun egin... Gai jartzailearen lana...”, aipatzen dituela (5). Agian guretzat, gaiaren ikuspegi abstraktoagoan, nahiago dugu “Basarriren bertsolari proiektua” izendatu liburua-ren muina (6), bertsolaritzaren teorigilea ezezik, 1935-1980ko bertsogintza ku-deatu duela agertuz, Txirritagandik Amuriza arte.

Basarriren pentsamoldea, bere egitasmoaren argitan, honelatsu azpimarra dezakegu, labur izan beharraren amorez:

(3) EIZMENDI, I., *BASARRI*, ibid., 18 or. (A. Zavalaren hitzak)

(4) LEKUONA, M., *Aozko literatura*, 1978 *Idaz-lan guztiak*, It., “Kardaberaz Bilduma”, 22. z., Eset, Gasteiz, 327 or.

(5) A. ZAVALA, “Itzaurrea”, *Bertsolaritzari buruz* 1984, “Auspoa”, 178 z., 12 or.

(6) LEKUONA, J.M., “Basarriren bertsolari proiektua”, *Ikaskuntzak euskal literaturaz*, 1974-1996, 1998, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 364-378 or.

- Garaiko gehientsuenek baino prestakuntza hobea zuen bertsoralitzaz mintzatzeko: gizon eskolatua genuen, nahiz eta autodidakta izan; ongi jantzia literaturan eta musikan, zer esanik ez hizlaritzan eta herri eza-gutzan.
- Praktikotasun burutsua da Basarriren lege nagusia, bide berriak markatzen eta teoria mamitzen hasterakoan. Bertsolaritza berriago baten nondik -norakoak finkatzen ditu: saio laburragoak, zehatzagoak, musika aberatsagoak eta gaiari egokituagoak, garaiko kulturaz jantziagoak, kultura idatziari adi dagoen abeslari herrikoiairen susmo garaikideak. Hori guztia praktikotasunetik gauzatuz.
- Gaiak biziak, ugariak, arretagarriak erabiltzen ditu, kazetari bati nahi-taez dagokion eran: fedea, hizkuntza, herria, kultura, giza legea, bihotz-eragin erromantikoa ere bai, eta balio sustantiboak garatzeko joera. Dena, eguneroko gertakizunen ikuspegitik begiratuta (7).

Esan daiteke, Basarri dela lehenengo bertsolaria bere ofizioari buruz barrerarik teorizatzen duena, liburu bat osatzeraino, bertsolaritzari buruzko proiektu bat egiteraino, oinarri hartzen baditugu hogeitaz urtean zehar han eta hemen argitaratutako lanak.

Plazako bertsogintzan ere ezin ahaztu Basarrik bere kantuzko ofizio zaharari eginiko zerbitzua. Aldian-aldiko mirabetza asperrezinean dohanik onenak eta bizitzako ordu asko eskaintzen dizkio bat-bateko bertsolaritzari. Hala nola, bertso-ohitura oraindik bizi zen lekuetan, bertso-zaletasuna indartuz; galdua zeukatenetan berriro biztuz, beti ere erakutsiz bertsoek duten garrantzia jai-giroko herri festetan. Bestalde, bat-bateko bertsogintzaren hizkera berriagotu zuen, P.M. Otañoren haritik, zizurkiltarraren bertso-molde idatzia ahozko saioetara aldatuz, euskara txukuna bezain herrikoia aukeratuz (8).

Bertsogintza herrikoiairen zabalkundeari bagagozkio, Basarrik bertsolaritza kazetaritzan sartu zuen, nahiz eta plazan eta jendaurrean kantatzetik nahiko askatua bizi 1962az geroztik, eta bertsolari jaialdietan ia parterik hartu gabe (9).

Gero, nortasun poetiko bere-berea du Basarrik: Dramatizazio handikoa gehienetan erretorikaz baliatuz; lirikotasun ezia gutxiagotan, batez ere pertsona maitagarriez mintzo zaigunean; herri filosofia ederra du, tradizioaren mundu-ulerkuntzaz ari zaigunean batez ere, esaldi anaforikoak askotan mamituz.

Azkenik, hiru gauza, Basarriren aiurria eta prestakuntza adierazten digutenak: bat, lagunartean-eta kantatzeko ereduak sortu izan zituela, batez ere gaz-

(7) IDEM, *ibid.*, 378 or.

(8) LEKUONA, J.M., "Pedro Mari Otaño: Lore-jokoetako poeta bat Hegoaldean", *Antoine d'Abbadie, 1897-1997*, 1997, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 533-534 or.

(9) LEKUONA, J.M., "Jendaurreko bertsolaritza" *Ahozko Euskal Literatura*, 1982, Erein, Donostia, 134 or.

tetan: adibidez, Zarautzi eskainitako bertsoak, edota Oiartzungo Aritxulegin asmatutakoak, han-inguruan gogoz kantatuak eta han-hartan buruz ikasia (10). Bi, bada doinu bat, Basarrik berak sortua omen dena, J. Dorronsorok "Bihotz gureko Tolosa zaharra" hitzekin dakarrena (11) horretan erakutsiz musika gaie-tan bertsolariak zuen prestakuntza. Eta hiru, Basarrik une jakinetan egin ohi zuen "prosa rimada" deiturikoa (12).



Ezkerretik eskuinera: Xabier Perez "Euzkitze", Ignacio Eizmendi "Basarri", Andoni Egaña.

(10) EIZMENDI, I., *BASARRI*, ibid., 98, 346 or. LEKUONA, J.M., *Oiartzungo kantutegia bertako herri memoriatik*, 1999, "Oiartzungo Udala", 164, 208, 262-263 or.

(11) DORRONSORO, J., *Bertso doinutegia*, 1995, "Euskal Herriko Bertsolari Elkarte", III. t., 1399 or. Egileak dio: nork jaso: BASARRI. Baina entzun izan dut doinu hau Basarrik berak sortua omen dela.

(12) *Prosagintza errimatua* edo esan dakiok e darazko *prosa rimada* honi. Nolakoa zen erakusteko, ez dut eskuera Basarriren eredurik. Argigarri moduan hemen ezarriko dut daukadan oroitzapena, eta neronek, Basarrik bezala, eginiko saiakera baten hasiera. Gogoan daukadana, hau da: prosagintza errimatuan, distikoak egiten zituela Basarrik, 21 silabakoak hain zuzen, eskema metrikoko honekin: 6+6+6+3 A; 6+6+6+3 A. Klimax oso gorakoa hartzen zuela, edozein hizlari sonatuk bezalatsu, etenak ongi markatuz eta errimen edo puntuen isuria ongi markatuz. Argigarri moduan, jarriko dugu hemen eredu bat, neronek Basarriren antzera egina. Mendaroko moja beltzetan eliza berritu zenean, homilia *prosagintza errimatuan* egin nuen:

Berritze giroa/ gaur bizi duguna./ Berritze giroa/ Elizan.

Lekameek hemen /egindako lanak/ berrikuntza nahi/ du izan.

Lehenago apaingarriak/ gehisko zirela ta/ txiro zirelata./ arindu.

Lekaima zintzoen/ gaurkoratze nahiak/ mirari edher hau/ egin du.

Eliza argitsu./ Eliza dotore./ barne-giroko e/zaugarri,

Mendaro txokoan/ gure moja beltzek/ kontzilio-bizi-/ tza berri:

Ormak zaharrak dira/ Berriak aldare./ atril, kutxatil i-/ rudiak.

Lehenago koru beltza/ argiz txuritu du/ hemengo espiritu/ berriak.

1968-XII-1

Halatsu zen Basarriren hariera, "prosagintza errimatuan", gogoan daukadanez.

## 2. Gaurko herri prosagintza Basarriren zordun

Honela mintzo da A. Zavala, Basarriren bertso-bilduma nahiko osoa argitaratu diguna eta honen artikulua-bilduma ondo baino hobeto ezagutzen duena: “Bertsolaritzak ezezik, gaurko erri prosak ere asko zor dio (Basarriri).... Millaka idazlan dira. Oriek denak irakurri, aukeratu, kopiatu, sailkatu eta argitaratzea ez dago gizon baten eskuan” (13).

Balio desberdina damaie tolosar honek artikuluen edukinei, nahiz eta bi sail bereizten dituen hauen garrantzia gogoan: “gure erri-kirolen urte askoko istoria... eta euskal liburu askori buruz (berak) emandako iritzia, gure literaturaren istori-moduko bat eginez” (14). Beraz, herri kirolei eta euskal literaturari buruzko datuak eta iritzia jasotzea da Basarriren prosagintzako ekarri-rik nagusia.

Basarriren prosazko lan horiek sistematikoki argitaratuak ez daudenez, ezinezko zaigu gainbegiratu ematea, eta ezinezkoago azterketa egiten hastea, puntu jakinetan bederenik. Bere garaian aztertu genuen Bertsolaritzari buruz autorearen liburua, eta handik atera ere bai “Basarriren bertsolari proiektua”, lehen aipatu dugunez. Argitaratu den gai bakarra bertsolaritzakoa denez, ezinezkoa zaigu gainerakoak arakatzea. Baina ez, aurretik Zarauzkoaren eragina era zabalean eta orokorki aipatu gabe: “Nik, esango digu A. Zavalak, jende asko jarri dut idazten. Baiña orietako asko Basarriren sailaren irakurleak zirela ez dut dudarik egiten” (15). Prosagintzan ere eskola moduko bat sortu du Basarrik, euskara bizia eta esperimentuzkoa eginarazten dituen, fraseologia tradiziozkoa gauzatuz.

Gure ingurukoen goralmena egiteko, bada erranmolde bat, honela dioena: “Horrelako gizon-emakumeek ez lukete sekulan hil behar”. Halatsu zen Basarri komunikatzailearen kasua ere. Baina gauza bat da geuk nahiko gure keena eta bestea bizitzaren legea, gogorra eta hautsezina.

Iñaki Eizmendi Manterola, Errezilen jaioa 1913-XI-27an, Zarautzen zendu zaigu, 1999-XI-4an. Bertsolari garrantzitsuena XX. mendean, herri prosalari ereduzkoena gerrondoan, euskaltzain ohorezko: goian bego.

*Juan Mari Lekuona*

---

(13) A. ZAVALA, *Honoris Causa* doktore izendapenean, doktore berriaren hitzaldian, ZEREMONIALA, (Deustu, 1999-XI-17), 31 or.

(14) IDEM, *ibid.*

(15) IDEM, *ibid.*

# NUNDIK? (\*)

Basarri,  
Nundik datorkit  
Su hori?  
Bularrak erretzen dauzkit;  
Ez nauke mintzatu gabe;  
Bainan zurekin hain naiz herabe...

Basarri,  
Nundik datorkit  
Su hori?  
Deus ez naizela badakit:  
Ixildu behar ninteke,  
Zu goraipatu gabe ez nauke...

Zure hats aberatsak bero ezadala  
Bai eta sutan ezar zure den bihotza!  
Zure ganat pindarka badoakitala!...  
Gaur zure goresmenak gora erran bitza.

Munduan pekoz gora dire gauzak oro.  
Jadanik gauz orotaz naiz dudatzen ari.  
Kiresterat banoa... Zerk ba unki liro?  
Zerk pitz nere bihotza? Zer? Nork? Zuk, Basarri.

Ikusi izan zaitut atzo, Domintxinen.  
Zure hats azkarrari pertsua zarion...  
Eleketa bezala lasai ari zinen.  
Bakotxak harriturik «hau gizona» zion.

Zure hatsak ez zauzkan eleak botatzen.  
Ez, Euskaldun mendien usaiño gozoa,  
Abendaren indarra, nituen aditzen,  
Haize-hego epela eta itsasoa.

Sort-Herria zaion zure ahorari.  
Zu behin ikusirik ez deia ametsa?  
Zoin ahalgetzen naizen erranez: Basarri!  
Ametsezko hatsa!...

---

(\*) *Biziaren olerkia*, 37, 38 orr. Gero. Euskal liburuak. Ediciones Mensajero.

Basarri,  
Nundik daukazu  
Hats hori?  
Nundik duzun erradazu,  
Odol kea bezein suhar,  
Itsas haizea bezenbat azkar?

Basarri,  
Nundik daukazu  
Hats hori?  
Bainan ez ote zaizkitzu,  
Gerlan hil Euskalduneri  
Joan azken hatsak, zuri etorri?

*Iratzeder*  
18-9-38





